

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**

Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza
Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Planificación y Empleo
Dirección de Servicios y Régimen Jurídico

LAN-MERKATUAREN 2011KO ERROLDA

EMAITZA NAGUSIAK

Azken txostena: 2012ko irailaren 3a

EOB Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza)

0. Emaidza nagusien laburpena

Dokumentu honetan, 2011ko Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) emaitza nagusiak jaso dira. Euskadiko lan-merkatuan epe ertainera eta luzera eragingo duten egitura-joera nagusiak ere aztertzen dituen arren, dokumentuaren helburu nagusia da, 2009tik 2011ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) jarduerari, okupazioari eta langabeziari dagokienez zer dinamika hauteman den aztertzea; gainera, arreta berezia jarri zaie eskualdeko lurralde-dimentsioari eta 2010etik 2011ra bitartean hautemandako aldaketei. Txostena irakurterrazago egiteko, aldaketa nagusien laburpen bat egin dugu hasierako kapitulu honetan.

LANGABEZIA GORA ETA OKUPAZIOA BEHERA

Langabeziak gora jarraitu du, luzaroko dimentsioan bereziki

* 2010etik 2011ra bitartean, EAEko langabeziaren gorako erritmoa moteldu egin da, aurreko urteekin alderatuz. Dena den, langabe-kopurua % 12,3 hazi da, eta beste 12.800 laguni eragin dio (guztira, 116.900 langabe daude). Langabezia-tasa % 11,2ra iritsi da; hau da, 2010eko langabezia-tasa (% 10) baino % 1,2 handiagoa da egun, eta 2009koa (% 8,7) baino % 2,5 handiagoa. 2011ko tasak, halaber, 2001-2003 aldiko kopuruak (% 8-9) gainditu ditu.

2010etik 2011ra bitartean, jaitsi egin da lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa¹, 32.385 pertsonatik 30.001 pertsonara, hain zuzen; dena den, talde hori barneratuko balitz, % 25,7ko igoera izango litzateke langabezia-zifretan, eta 146.901 langabe izango lirateke. Kasu horretan, langabezia-tasa % 13,7ra arte iritsiko litzateke, 2010eko % 12,7ren eta 2009ko % 10,7ren gaineratik. Bilakaera horrek badu, ordea, alderdi positibo bat; hau da, 2009tik 2010era bitartean langabezia-tasa 2 puntu igo zen, eta 2010etik 2011ra bitartean, puntu bakar bat igo da².

Lanerako prest dagoen biztanleriaren kopuruak poliki-poliki egonkortzeko aukera areagotu egin da gogogabetutako biztanleria ez-aktiboaren kopuruan izandako jaitsiera ikusita. 2009an, 14.649 kasu hauteman ziren, eta ondorengo bi urteetan, kopuru hori jaitsi egin da: 11.046 2010ean eta 5.158 2011n.

¹ Enplegurako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren barruan, enplegu bila dabilzan eta lanerako prest dauden, baina azken hilabeteetan okupazio berria aurkitzeko berariazko kudeaketa edo ekintzarik egin ez duten pertsonak sartzen dira (enplegu-zerbitzu publikoetan eskari formal bat eguneratzeko aukera izan arren). LANEren irizpideei jarraikiz biztanleria hori BJA-n eta LME-n langabe gisa sailkatu ordez ez-aktibo gisa sailkatzeko arrazoia enplegua bilatzeko berariazko ekintzarik egin ez izana da.

² *Prestasun-tasa* esaten zaio jarduerarekin egun duen harremana zeinahi izanda ere lanpostu batean hasteko prest agertzen diren pertsonen ehunekoari; hain zuzen, tasa horren bilakaerak enplegu-eskaeraren hazkundean izandako dezelerazioa islatzen du. Tasa horren urtetik urterako hazkundea moteldu egin da 2010 eta 2011 artean; zehazki, % 0,7koa izan da, 2009-2010 aldiko % 1,5 eta 2007-2009 aldiko % 2,6 baino txikiagoa. Hori ez da oztopo 2011koa hamarkadako mailarik altuena izan dela azpimarratzeko. 2011n, prestasun-tasa % 12,4ra iritsi da, 2007ko gutxienekoa (% 5) baino 7 puntu gorago; gainera, nabarmen gainditu ditu 2001-2003 aldiko zifrak, % 9,1 eta % 9,9 artekoak.

- * 2007-2009 biurtekoan ez bezala, langabeziak 2009tik aurrera izan duen hazkundera iraupenik luzeeneko langabezia oinarritu da nagusiki. Lana bilatzen urtebetetik gora daramaten iraupen luzeko langabeen ehuneko ere igo egin da 2009tik 2011ra bitartean, % 33tik % 56ra, zehazki. Horrez gain, oso iraupen luzeko langabeziak (bi urtetik gorakoak) gora egin du bi urte horietan, % 12,7tik % 31ra, hain zuzen³.

Langabeziaren kronifikazioaren igoera lana lortzeko zailtasun handiagoen emaitza izan da. Azken hamabi hilabeteetan enpleguarekin lotura bat izan duten langabeen proportzioa % 50 ingurukoa zen 2003-2006 aldian, eta % 46,4ra eta % 47ra jaitsi zen 2007an eta 2009an; azken bi urteetan ere jaitsi egin da: % 40,7ra 2010ean eta % 39,8ra 2011n.

- * 2011n, biztanleria langabearen % 80,5ek lana lortzeko eragozpenen bat izaten jarraitu du. Arazo nagusiak kalifikazioari buruzko alderdiei dagozkie, hots: ikasketa-mailei, hizkuntzak jakiteari eta lan-esperientziari; zehazki, talde horretako % 54,5ek aipatu ditu eragozpen horiek. Halaber, oso adierazgarria da adinaren arazoa, langabeen % 29,4k aipatu baitu eragozpen hori, mugigarritasun geografikorako ezintasuna aipatu duten % 18,3ren edo familia-kargak aipatu dituzten % 13,2ren gainetik.

Inguruabar negatibo horietan, langabeek lan-aurreikuspenak mugatu dituzte. Ildo horretan, 2006tik aurrera, enplegu berri bat onartzeko ezarritako baldintzak nabarmen murriztu dira, bizileku-aldaketaren onarpena salbuetsita, baita prestakuntza-mailetara eta soldata-aurreikuspen normaletara egokitutako garapen ekonomiko eta profesionalari lotutakoak ere. Hots, egun, langabeen % 10,5ek espero dituzte bere kualifikazioaren arabera diru-sarrerak, eta 2006an, % 37,5ek espero zituzten. Horrez gain, egun, langabeen % 8,5ek egingo lioke uko bere kategoria baino beheragoko lanpostu bati (2006an, % 24,5ek). Azkenik, langabeen % 7,7k izango lituzke eragozpenak lanaldi partzialeko lan batean hasteko; 2006an, % 25,4k agertu zuen iritzi hori.

Paraleluki, biztanleria landunari dagokionez, lanpostuarekiko atxikimendua sendotu egin da. Enplegu berria bilatzen duten landunen proportzioa % 4,5etik % 3,9ra eta % 4ra murriztu da 2009tik 2010era eta 2011ra bitartean; 2007. urtean soilik izan zen txikiagoa zifra hori (% 3).

Okupazioaren jaitsiera da 2010 eta 2011 arteko aldaketak azaltzeko faktore bakarra

- * Jarduera-mailetan izandako aldaketen ondorioz, ez da hauteman aurreko urteetan izandako presioa. Biztanleria aktiboaren hazkundera urteko % 1,75eko batez bestekoa izatetik % 0,4ra gutxitu zen, 2007-2009 alditik 2009-2010 aldira bitartean; gerora, ordea, biztanleria aktiboaren zifra egonkortu egin da, beheranzko oso joera txikiarekin (% -0,1).

³ Bestalde, faktore positibotzat, aipatu behar da iraupen luzeko langabeziaren igoera-erritmoa asko moteldu dela azken urtean; izan ere, 2009-2010 aldian % 80,9koa izatetik 2010-2011 aldian % 21,1ekoa izatera pasatu da (% 110,3tik % 49,4ra oso iraupen luzeko langabeziari dagokionez).

2007-2009 biurtekoan ez bezala, 2010etik 2011ra bitartean, okupazioaren jaitsiera izan da langabezia-kopuruaren igoera azaldu duen faktore bakarra; hain zuzen, 16-64 urte bitarteko biztanleria landunaren kopuruan 13.406 pertsona gutxiago izan dira (2010ean 937.701 pertsona izatetik, 2011n 924.295 izatera pasatu da). Okupazioaren jaitsiera-erritmoa, gainera, areagotu egin da: % 1,43ra iritsi da 2010etik 2011ra bitartean, eta 2009tik 2010era bitartean, % 1,01ekoa izan zen. 2007ko datuekin alderatuz (970.957 lagun zenbatu ziren), 2011n 46.663 landun gutxiago izan dira EAEn, guztizkoaren % 4,8.

- * 16-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio-koefizientea krisiari lotuta okupazioan izan diren galeren paralelo jaitsi da EAEn; zehazki, 2007an izan zen gehienezko % 68,1etik % 65,2ra jaitsi zen 2009an, % 64,6ra 2010ean eta % 64,1era 2011n. 2003ko gehienezkoa (% 63,4) baino handiagoa izaten jarraitu arren, 2005eko % 66,1etik bi puntura dago, gutxi gorabehera. EAeko okupazio-koefizienteak okupazio-maila handiagoak dituzten Europako herrialdeekiko duen aldea handitu egin da 2011n; zehazki, koefiziente hori bi hamarren txikiagoa izan da Europar Batasun osoko % 64,3 baino.
- * Halaber, etengabe jaitsi da biztanleria landunaren proportzioa azken hamabi hilabeteetan; zehazki, 2007an 16-64 urte bitarteko biztanleria guztiaren % 60,9 izatetik 2009an % 59,4 izatera eta 2011n % 57,4 izatera jaitsi da (2005eko % 57,8 baino baxuagoa). 2007tik 2011ra bitartean, etengabeko biztanleria landunaren bolumena % 4,6 jaitsi da, 2007an 868.793 pertsona izatetik 2011n 828.397 izatera pasatu baita; kopuru hori 2005ekoa (828.459) baino txikiagoa da zenbaki absolutuetan. Bada, ordea, datu onik; hots, 2011ko adierazlea 2010ekoa (% 57,5) baino hamarren bat txikiagoa besterik ez da. Beraz, 2009tik 2010era bitartean hautemandako okertze-joera gogorra amaitu da; adierazlean ia % 2ko jaitsiera izan zen, 2007-2009 biurtekoan hautemandako % 1,6koa baino handiagoa.

OKUPAZIOAREN JAITSIERA-EREMUAK

Metal-industriak berriro goranzko joera hartu duen arren, lehen eta bigarren sektoreetako gainerako adarren okupazioak jaisten jarraitzen du

- * 2010etik 2011ra bitartean, bere horretan jarraitu du okupazioaren bilakaera txarrak zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetan; zehazki, lehen sektorea, industria eta eraikuntza batuta, okupazioaren % 3,1 galdu dute (EJSN-93ren gutxi gorabeherakoa). Dena den, metal-industiaren okupazioan izan den gorakada nabarmendu da (% +1,3), oso esanguratsua baita ekonomia-krisiaren egungo testuinguruan. Industriako gainerako jardueretako okupazioa egonkortuz joatearekin batera (% -1), bilakaera horrek manufaktura-industiaren bilakaera txarra (% -4,9) berdintzeko aukera eman du; hala, industriako okupazioaren jaitsiera % 0,3ra mugatu du

⁴ Beste alderdi ona da etengabeko biztanleria landunaren ehunekoak handiagoa izaten jarraitu duela 2011n 2001-2003 aldian izandakoa baino (% 52,3 2001ean, eta % 53,6 eta % 53,7 artekoa, 2002an eta 2003an).

erreferentzia-urtean⁵. Industriako okupazioa finkatzeko joera oso aipagarria da; hain zuzen, 2007tik 2009ra bitartean okupazioaren urteko batez besteko jaitsiera % 9,2koa izatetik, 2009-2010 aldian % 1,3koa izatera pasatu zen, eta 2010-2011 aldian, % 0,3koa izatera. Hala ere, industrian 48.805 lanpostu galdu dira, 2007an zeuden lanpostu guztien % 18,9.

- * Aldiz, eraikuntzako okupazioak okerrera egiten jarraitu du, eta gainera, okupazioaren jaitsiera-erritmoa bizkortu egin da; hain zuzen, 2007tik 2009ra bitartean, urteko batez besteko jaitsiera-erritmoa % 5,4koa izatetik, 2009tik 2011ra bitartean, % 10,5ekoa izatera pasatu da. Zenbaki absolutuetan hala ez izan arren (2007-2011 aldian 25.069 okupazio galdu dira), eraikuntza da krisiak baldintza erlatiboetan gehien kaltetu duen sektorea, laurtekoan % 28,3 jaitsi baita sektore horretako okupazioa. 2001eko zifra erreferentziatzat hartuz, ordea, eraikuntzako okupazioan izandako jaitsiera % 17,2koa izan da, industriako % 17,4ko jaitsieraren azpitik.

lido beretik, nekazaritzako eta arrantzako okupazioa egonkortu egin ziren 2007tik 2009ra bitartean, baina 2009tik 2011ra bitartean, urteko % 8,1eko batez besteko jaitsiera izan da okupazio-mota horretan. 2001etik, okupazioaren gainbehera nabarmena da sektore horretan, eta mende hasieran zegoen okupazioaren % 38,1 galdu da.

Krisialdi honetan lehen aldiz, 2010etik 2011ra bitartean okupazioan izandako galerak ia zerbitzuen sektore guztira zabaldu dira

- * 2010-2011 aldiko daturik okerrena, dena den, okupazio-krisia zerbitzuen sektorera hedatzea izan da. 2007tik lehenengo aldiz, jaitsi egin da sektore horretako okupazioa (% -0,6, EJSN-93ren arabera), eta okupazio-galera orokortu egin da sektoreko hainbat adarretan. 2007tik 2011ra bitartean, hezkuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuen adarrak soilik jarraitu du okupazioaren hedapen-joerarekin. Oro har, adar horretako okupazioa % 18,3 hazi da aztertutako laurtekoan.

Garraioak eta komunikazioak adarretan, azken aldiko dinamika txarrak areagotu egin du aurrez izandako okupazio-galeren eragina; haien sorrera, hain zuzen, azken hamarkadaren erdialdekoa da. 2005etik 2011ra bitartean, adar-multzo horretan, 9.338 lanpostu galdu dira, 2005ean zeudenen % 14,6. Etxeko zerbitzuaz gain, 2011n 2001ean baino okupazio txikiagoa izan duen zerbitzuen sektoreko arlo bakarrenetakoa da, lehen sektoreko eta bigarren sektoreko hainbat adarrekin batera.

2005ekoarekin alderatuz, 2011n okupazioa txikiagoa izan da merkataritza, etxeko zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk sektoreetan ere. Ahultasun-seinale goiztiarrak erakutsi zituzten adarrak dira,

⁵ EJSN-2009an oinarritutako hurbilketak aurkeztutako kopuruak zehaztera derrigortzen du. Jardueraren sailkapen berriaren arabera, manufaktura-industriako okupazioa % 4 jaitsi zen 2009tik 2010era bitartean, eta % 0,9 egin du gora 2010etik 2011ra bitartean. Aldiz, metal-industriako okupazioak % 0,1 baino ez du egin aurrera; 2009tik 2010era bitartean, % 0,4 hazi zen. Bi sailkapen horiek industriako gainerako jardueretako okupazioan galera-erritmo txikiagoa izan dela islatzen dute; hala ere, EJSN-2009ren arabera, % -2,3 izaten jarraitu du.

oro har, 2005-2007 aldian okupazioan jaitsierak izan zituztenak. Garraioan eta komunikazioan ez bezala, jaitsiera horiek 2007tik 2009ra bitartean izan zen gorakadarekin berdindu ziren, baina, berriro ere, galerak izan dituzte, 2009-2011 biurtekoaren uneren batean. Adar kaltetuena beste zerbitzu batzuen izan da, azken biurtekoan etengabe izan baititu okupazio-galerak. 2005etik 2011ra bitartean, 4.074 lanpostu galdu ziren adar horretan, 2005ean zeudenen % 8,8. Aztertutako beste bi adarretan, 2005eko eta 2011ko kopuruak alderatuz, okupazioa egonkortu egin dela esan behar da, merkataritzako eta etxeko zerbitzuetako 2011ko okupazioa % 0,3 txikiagoa izan baita 2005ekoa baino.

Zerbitzuen sektoreko gainerako adarretan, 2011ko okupazioak 2005ekoa baino handiagoa izaten jarraitu duen arren, krisiak ostalaritzako eta Administrazio Publikoko okupazioan eragin du, jaitsi egin baita 2007koarekin alderatuz. 2009tik, etengabe eta geroz eta gehiago jaitsi da ostalaritzako okupazioa (% -3,9 2009-2010 aldian, eta % -8,8, 2010-2011 aldian); horren isla da 2011ko okupazioa 2007koa baino % 3,4 txikiagoa izatea. Administrazio Publikoari dagokionez, 2011ko okupazioa 2007koa baino % 2,6 txikiagoa da; gertaera hori, zehazki, 2010-2011 aldian okupazioan izandako % 4,4ko jaitsierari dago lotuta.

Finantza-erakundeei eta enpresentzako zerbitzuei dagokionez, 2011ko okupazioa 2007koa baino % 9,1 eta % 9,7 handiagoa da, oraindik. Nolanahi ere, azken urteetako bilakaera txarra izan da bi adar horietan. Finantza-erakundeetan, okupazioaren joera negatiboa 2009-2010 aldian hasi zen, % 0,5eko jaitsierarekin; joera hori areagotu egin da 2010-2011 aldian, beste % 2 jaitsi baita okupazioa. Okupazioaren jaitsiera berriagoa izan da enpresentzako zerbitzuetan, % 1,2ko jaitsiera izan baita 2010etik 2011ra bitartean.

2009tik 2011ra bitartean, okupazioan izan den jaitsieraren eragile nagusia eraikuntza, merkataritza eta ostalaritza, eta garraioak eta komunikazioak adarrak izan dira.

* 2009-2011 biurtekoan okupazioan behera egin duten sektoreak eta adarrak aintzat hartuz (42.674 okupazio galdu dira, guztira), hauek azpimarratu behar dira: eraikuntza (% 36,9), ostalaritza (% 16,2), garraioak eta komunikazioak (% 16,2), eta merkataritza (10,5). Halaber, garrantzitsuak dira industria ez-metalikoan eta nekazaritza eta arrantza adarretan izan diren galerak, % 12 eta % 5,5, hurrenez hurren.

Bilakaera horrek ahuldu egin ditu hedatzen ari diren sektore eta adarretako 19.709 okupazio berriek eragindako irabazi garbiak. Okupazioaren gorakada nagusia hezkuntza, osasun-arloa eta gizarte-zerbitzuak adarrean izan da (adierazitako hazkundearen % 62,6); hain zuzen, aldi horretan benetako hedapena izan duen adar bakarra izan da. Beste % 27,8 enpresen zerbitzuei dagokie, eta gainerako % 8,7, metal-industriari.

Okupazioak gutxitzeak eragin handia izan du obrako langileen artean, baina baita teknikarien artean ere

* Lanbideari dagokionez, 2007-2011 aldian, okupazioaren bilakaera txarrena teknikariek baino kualifikazio-maila baxuagoa duten langileek, makinetak operadoreek eta biztanleria landun ez-kualifikatuak izan dute. Talde horren okupazioan, % 13,2ko galera izan da laurtekoan, eta 2011ko okupazioa 2001ekoa baino % 5,2 baxuagoa izan da. 2009tik 2011ra bitartean, hala ere, okupazioaren galera moteldu egin da, oro har, aurreko urteekin alderatuz; salbuespen bakarra izan da: makinaren operadoreek osatutako taldea (urteko % -3,3, batez beste, 2009-2011 aldian, eta % -2, 2007-2009 aldian).

2009-2011 biurtekoan, kualifikazio-maila esanguratsueneko okupazioaren jaitsiera nagusia teknikari-mailako biztanlerian izan da (urteko % -4, batez beste); langile ez-kualifikatuek izandako jaitsierak soilik gainditu du zenbateko hori (% -5,1). Jaitsiera horrek argi erakusten du azken hamarkadan teknikarien okupazioan izan den bilakaera bereziki larria. 2001-2005 aldian, urteko % 5,2ko batez besteko hazkunde-erritmoa izan zen, baina kopuru hori % 1,9ra gutxitu zen 2005-2007 aldian, eta % 0,6ra, 2007-2009 aldian; hazkunde-mugak, azkenean, 2009-2011 aldiko okupazioaren urteko batez besteko % 4ko galera horretan adierazi dira. 2011n, teknikarien okupazioaren kopurua % 6,8 txikiagoa izan da 2007koa baino; zehazki, 17.226 lanpostu galdu dira. Are gehiago, 2009tik aurrera okupazioan izandako jaitsieren ondotik, 2011n, lehenengo aldiz, teknikarien okupazio-kopuruak 2005ekoak baino txikiagoak izan dira (% -3,2).

Teknikarien bilakaeraren joera negatiboa goi-mailako teknologia behar duten sektoreen okupazioan izandako ibilbidearekin dago lotuta, neurri batean. Horri dagokionez, okupazioaren jaitsiera bizkortu egin dela egiaztatu da; hain zuzen, 2007-2009 aldian, urteko % 0,8ko batez besteko jaitsiera izan zen okupazioan, eta 2009-2011 aldian, urteko % 1,5eko batez besteko jaitsiera izan da. 2007tik 2011ra bitartean, EAEn, okupazioaren % 4,5eko jaitsiera izan da goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan.

Teknikarien artean behatutakoari kontrajarriz, zuzendarien okupazioak (autonomoak barne), 2009-2010 aldian antzeko erritmoan jaitsi eta gero, gora egin du atzera 2010-2011 aldian. Talde horretako okupazio-tasa % 0,9 handiagoa izan da 2011n 2009an baino (2005eko okupazioa baino % 3 handiagoa).

2010-2011 aldian, finkatu egin da kontratu mugagabeko soldatapekoen jaitsiera, eta berriro ere kontratu ez-mugagabearen beheranzko joerari heldu zaio

* Okupazioan azken aldian izan den bilakaeraren ezaugarri nabarmenetako bat kontratu mugagabeko soldatapekoen kopuruan izandako jaitsiera handia da. Talde horrek, 41.338 langile galdu ditu 2009tik 2011ra bitartean; beraz, % 6,4ko jaitsiera izan da. Kontratu mugagabeko soldatapekoen

kopuruan izandako jaitsiera are nabarmenagoa izan da, azken hamarkadan okupazio mota horrek izan duen goranzko joerarekin eten duela kontuan hartzen bada; izan ere, 2001-2009 aldiko fase guztiak kontuan hartuta, % 2,8tik % 3,8ra bitarteko urteko hazkunde-erritmoak izan dira, batez beste. Jaitsieraren ondorioz, 2011ko kontratu mugagabeko okupazioa (559.703 pertsona) % 0,4 txikiagoa izan da 2007koa baino.

2009-2011 aldian kontratu mugagabeko soldatapekoen okupazioan hautemandako jaitsiera kontratu mugagaberik ez duten pertsonen okupazioa handitzearekin berdindu da, neurri batean (% 11,7 gehiago 2009-2011 aldian, 17.451 okupazio berri garbi). Nolanahi ere, 2009-2010 aldian hautemandako % 13,6ko gorakada handiaren ondoren, % 1,6ko jaitsiera izan da kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen okupazioan, 2010-2011 aldian.

Lanaldi osoko lanaren garrantzia gutxitu egin da, lanaldi murriztuaren edo partzialaren mesedetan

- * 2007tik 2011ra bitartean, gutxitu egin da lanaldi osoko lanaren garrantzia. Normalean astean zehar lan egin duen soldatapeko biztanleria landunari dagokionez, 40 orduko edo 40 orduetik gorako asteko lanaldien pisu erlatiboa % 70,3 izatetik % 64,1 izatera jaitsi da. Paraleloki, 30-39 orduko lanaldiak ugaritu egin dira (% 17,3tik % 19,4ra), eta are gehiago 30 orduetik beherako lanaldi partzialak (% 12,4tik % 16,5era). Enplegu jarraitua duen soldatapeko biztanleria landunaren lanaldi teorikoari dagokionez, lanaldi partzialeko lanaren garrantziak gora egin du nabarmen; zehazki, 2007an % 11,3 izatetik 2011n % 14,4 izatera pasatu da.

Biztanleria landunaren sarrerek gutxitzen jarraitzen dute

- * Biztanleria landunaren sarreretan egindako doiketa-prozesuak eta lanaldi partzialeko lanen gorakada direla eta, okupazioak behera egin du 2009tik 2010era bitartean, eta horrek ondorio garrantzitsu bat izan du; hau da, 2005. urtetik, lehen aldiz, landunen diru-sarrerak arrunt garbiak behera egin du. 2010etik 2011ra bitartean, joera hori indartu egin da, eta diru-sarrerak % 5 jaitsi dira 2009-2011 biurtekoan. Jaitsiera handiena enpresa pribatuko soldatapekoei dagokie (% -6,1), eta atzetik dituzte sektore publikoko soldatapekoak (% -4,9) eta enplegatzaileak (% -4,3).

2007-2011 aldiari dagokionez, diru-sarreraren krisiak eragindako talde nagusia langile autonomoek osatzen dute. Talde horren diru-sarrerak % 14,6 jaitsi dira 2007tik 2011ra bitartean; aldiz, sektore publikoko soldatapekoen eta enplegatzaileen diru-sarrerak % 13,7 eta % 16,4 handitu dira, hurrenez hurren. 2009-2011 biurtekoan izandako jaitsieraren ondoren, enpresa pribatuko soldatapeko diru-sarreraren masa 2007ko mailetara iritsi da berriro 2011n; beraz, diru-sarreraren masan ez da igoerarik izan. Bilakaera onena kooperatibisten taldeak izan du, % 30,3 handitu baita haien diru-sarreraren masa 2007-2011 laurtekoan. 2005ekin alderatuz, % 13,9ko hazkundera izan da, 2005-2007 aldian talde horren diru-sarrerak jaitsi egin baitziren.

IKUSITAKO ALDAKETAK SEXUAREN, ADINAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Okupazio-galerak emakumeengana zabaldu dira, baina gizonen egoerak okerrera egin du

* 2005etik 2009ra bitartean, emakumeen okupazioak urteko % 2,1eko batez besteko hazkundera izan bazuen ere, 2009-2011 aldian okupazioaren beherakada-prozesua emakumeengana iritsi da, eta emakume landunen kopuruak urteko % 0,6 egin du behera, batez beste. Emakumeen jarduera oraindik hazten ari da, eta gizonena, jaisten (urteko % -0,5, batez beste, 2009tik 2011ra bitartean); testuinguru horretan, emakumeen langabezia-egoeraren hazkunde-erritmoa biziagoa izan da erreferentziako biurtekoan (urteko % 16,9, batez beste, emakumeetan, eta % 11,5, gizonetan).

Bilakaera horrek, ordea, 2010-2011 aldian gizonen egoera okertu egin dela ezkututzen du atzean. Hau da, emakumeen langabeziaren hazkunde-erritmoa motelduz doa (urteko % 46,9 hazi zen, batez beste, 2007-2009 aldian; % 21,7, 2009-2010 aldian; eta % 12,2, 2010-2011 aldian); aldiz, gizonen langabezia-tasaren hazkunde-erritmoa bizkortu egin da azken urtean (2009-2010 aldiko % 10,5etik 2010-2011 aldiko % 12,4ra). Hain zuzen, 2009-2010 aldiko langabezia-tasan izandako hazkunde garbiaren % 56,8 gizonen dagokie, eta 2010-2011 aldiko % 59,1, emakumeen. Gizonen langabezia-tasa, beraz, apur bat gehiago urrundu da emakumeen tasatik 2011. urtean (% 11,5 eta % 10,9, hurrenez hurren).

Ikusitako joerak lotura du EAEko gizonen okupazio-mailetan hautemandako okertze-joerarekin; zehazki, 2007tik 2011ra bitartean, % 10,5 jaitsi da okupazioa. Horri kontrajarriz, eta nahiz eta 2009tik etengabe jaitsiz joan den, emakumeen okupazioak 2007an baino % 3,1 handiagoa izaten jarraitzen du 2011n.

Gainera, 2011ko emakumeen okupazioaren koefizienteak % 58,5ekoa izaten jarraitu du. Kopuru hori aurtan EBn izandako batez bestekoaren baliokidea da, eta 2009an izandako gehienezko % 58,8koa baino hiru hamarren txikiagoa; oraindik, gainera, aise gaintzen du 2007ko % 57,4ko tasa. Aldiz, 2007an % 78,6ko gehienezkoa lortu eta gero, gizonen koefizientea % 9,1 txikiagoa izan da, eta % 69,5era jaitsi da; zifra horrek, hain zuzen, aurreko mendeko 90eko urteetan izan ziren mailak baino ez ditu gaintzen. Europako testuinguruan, deigarria da EAEko gizonen posizio-galera; zehazki, 2007an EBko okupazioa baino % 5,9 handiagoa izatetik 2011n % 0,6 txikiagoa izatera pasatu da.

Emakumeen okupazioan izandako bilakaera onari esker, Euskadiko okupazioan emakumeak duen partaidetza gorantz jarraitu du. Emakumeak, 2005. urtean, EAEko landun guztien % 41 ziren; 2011n, berriz, % 45,2 dira.

Gazteen enpleguari dagokionez, areagotu egin du joera negatiboa; hala ere, langabeziaren gorakadak eragin handiagoa du, oraindik ere, 35 urtetik gorako taldean

- * Okupazio-kopuruen dinamika negatiboenak gazteei dagozkie, oraindik ere; hain zuzen, 2009-2011 biurtekoan, % 11,7ko jaitsiera izan da 25-34 urtekoen okupazioan, eta % 37,1ekoa, 25 urtez azpikoaren okupazioan. 2007tik 2011ra bitartean, 25-34 urteko taldeak bere okupazioaren bostena galdu du (% -21,3), eta 25 urtez azpikoaren taldeak, bere okupazioaren erdia (% -51,3). Galera handi horren ondorioz, 35 urtetik beherakoek EAEko guztizko okupazioan duten proportzioa % 26,7ra jaitsi da; hau da, 2001eko eta 2005eko mailen oso azpitik geratu da (% 39,5 eta % 36,7, hurrenez hurren).

2009-2010 aldian, 35 urtetik beherako langabezia-kopurua egonkortu egin da (25-34 urtekoen artean jaitsiera txiki batzuk ere izan dira), adin-talde horretako jarduerakopuruak izugarri jaistearen ondorioz; hala eta guztiz ere, 35 urtetik beherakoek bereziki jasan dute langabeziaren gorakada 2010-2011 aldian. 2009-2011 biurtekoan, 25 urtetik beherako langabeak % 10,3 ugartu dira, eta 25-34 urtekoak, % 14,6.

- * % 1,3ra mugatu arren, 2009-2010 aldian 35-49 urteko biztanleriaren okupazioan hautemandako jaitsierak esanahi berezia zuen, 2005etik erregistratutako lehenengoa izan baitzen eta, 2010-2011 aldian, oraindik, aktibo-kopuruan hazkunde-joera izan duen talde bati eragin baitzion. Aipatutako joera negatibo hori 2010-2011 aldian okupazioa suspertzeari esker berdindu da, eta hala, okupazio-maila 2009ko kopuruetara hurbildu da. Baina ez da gauza bera gertatu langabezia-kopuruarekin: jardueraren goranzko testuinguruan, 2010-2011 aldiko okertzearen ondorioz, langabezia-kopurua % 32,5 handiagoa izan da 2011n 2009an baino.

Bestalde, okupazioa urteko % 5,1 hazi da, batez beste, 2009tik 2011ra bitartean, 50 urtetik gorako biztanleriari dagokionez. Hala ere, jardueraren hedapen-joera handiaren ondorioz (batez beste, urteko % 6,8ko igoera erreferentziako biurtekoan), adin-talde horretan nabarmen igo da langabeen kopurua (% 86,2 gehiago 2009tik 2011ra bitartean).

- * Aurkeztutako datuek adierazten dutenez, 2009-2011 aldian, langabezia-kopuru absolutuak geroz eta gehiago hazi dira, adinak aurrera egin ahala. Horren ondorioz, langabeziaren barne-banaketa nabarmen aldatu da; hau da, 35 urtetik gorako langabeen pisu erlatiboa 2007an % 45,7 izatetik 2011n % 53,2 izatera pasatu da, baina 2009ko % 54,4rekin alderatuz, behera egin da.

⁶ Hala ere, adierazi beharra dago langabeziak 25-44 urtekoen eragiten diela gehien: langabe guztien % 58,8 dira. 45 urtetik gorakoak % 27,8 dira, eta 25 urtez azpikoak, % 13,4.

Langabezia-tasak adinaren arabera aztertuz, % 6,7 izatetik % 8,8 izatera pasatu dira 2009-2011 aldian 35-49 urte bitarteko biztanleria aktiboari dagokionez, eta % 4,8tik % 7,8ra, 50 urtetik gorakoei dagokienez. Nolanahi ere, tasa horiek nabarmen txikiagoak dira gazteenek osatzen duten taldeekin alderatuz, hots: % 15,3 25-34 urtekoen artean, eta % 34, 25 urtez azpikoen artean.

EBtik kanpoko atzerritarren okupazio-egoera hobetu egin da

- * Lan Merkatuaren Errolda atzerritarren egoera aztertzeko baliabide egokiena ez izan arren, eskura ditugun datuek adierazten dute haien lan-testuingurua hobetu egin dela. Datu deigarriena haien langabezia-tasaren jaitsiera da, 2009an % 24,4koa izatetik 2011n % 23,3koa izatera pasatu baita; jaitsiera hori ez dator bat bertako biztanlerian hauteman den igoerarekin (% 7,8tik % 10,7ra). Jaitsiera hori Europar Batasunaren kanpotik datorren biztanleria atzerritarrekin soilik lotu daiteke (% 27tik % 24,1era jaitsi da); izan ere, EBko beste herrialde batzuetako taldeen langabezia-tasak gora egin du (% 15,8tik % 20,4ra).

Egungo krisi-testuinguruan, jaitsiera hori ezin da lotu 2009-2011 aldian atzerritarren ezaugarri izan den jarduera-tasaren jaitsiera nabarmenarekin bakarrik. LMEn eskuragarri dauden adierazle askoren arabera, baliteke baldintza soziolaboral okerrenetan dagoen biztanleria etorkinaren zati bat EAetik joatea; bereziki, EBtik kanpoko etorkinak. Hala adierazten du, esaterako, adibide honek: 16-64 urteko biztanleria atzerritar aktiboaren artean lan egiteko baimenik ez duten pertsonak 2010ean % 17,1 izatetik 2011n % 7,6 izatera pasatu dira (% 20,1 izatetik % 9,8 izatera EBtik kanpokoei dagokienez)⁷.

EBtik kanpoko atzerritarren okupazio-indizeak norabide positiboa ere erakusten du. 2010etik 2011ra bitartean, talde horren okupazio-koefizienteak gora egin du (% 52,8tik % 53,6ra), EB barruko herrialdeetatik etorri diren atzerritarren artean eta bertako biztanleen artean hautemandakoari kontrajarriz; izan ere, azken bi multzo horietan, jaitsi egin dira 16-64 urteko biztanleria landunaren ehunekoak (% 70,3tik % 63,6ra, eta % 65,1etik % 64,4ra, hurrenez hurren). Nolanahi ere, krisiak atzerritarren okupazioan izan duen eragina erabakigarria izan da epe ertainera, 2011ko koefizienteak oso urrun gelditu baitira 2006ko gehienekoetatik. Urte hartako % 75ekoa baino % 11,4 gutxiago izan dute EBko atzerritarrek eta % 67,2koa baino % 13,6 gutxiago EBtik kanpoko herrialdeetako atzerritarrek. 2006-2011 aldian, koefizientearen jaitsiera % 3,2koa izan da bertako biztanlerian.

⁷ Hona hemen beste adibide bat: lana bilatzen duten eta horretarako kudeaketak egin dituzten pertsonen artean, % 3,4ra jaitsi da jatorri geografikoa lana bilatzeko mugatzat hautematen dutenen kopurua. Datu hori askoz ere txikiagoa da 2010eko % 7,2koarekin alderatuz; gainera, ez dator bat urte horretara arte hautemandako goranzko joera jarraituarekin: % 2,5-3 2001-2003 aldian, % 4 ingurukoak 2005-2006 aldian eta % 5,8 eta % 6,3 artekoak 2007-2009 aldian.

- * Atzerritar langabeei dagokienez, 2011n nabarmen areagotu da gizonen nagusitasuna (guztizkoaren % 71,1); horrek, beraz, argi erakusten du biztanleria-talde horren langabezia-tasetan zeinen gorakada handia izan den. 2007an % 3,8ra arte jaitsi eta gero, krisiaren eraginez gora egin du atzerriko gizonen langabezia-tasak, eta 2011n % 31,6 izatera iritsi da, estatuko naziotasuna duten gizonen tasa (% 10,7) baino hiru aldiz handiagoa. Diferentzial hori garrantzitsua da Euskadin gizonen langabeziak oro har eragin handiagoa izan duela azaltzeko.

Langabezia-tasaren bilakaera askoz hobea izan da atzerriko emakumeen kasuan. 2005etik 2006ra bitartean, % 9,2tik % 7,2ra jaitsi ondoren, langabezia-tasa % 20ko gehienekora igo zen 2009an; geroztik, beheranzko joera hartu du, eta 2011n % 14,1ekoa izan da. Tasa hori % 17,5 txikiagoa da urte horretan atzerriko gizonen izan dutena baino, eta estatuko naziotasuna duten emakumeen % 10,7 baino soilik % 3,4 handiagoa.

- * 2009ra arte ez bezala, 2010etik aurrera, oso iraupen luzeko langabeziak (bi urtetik gorakoa) eragin handiagoa izan du atzerriko langabeen artean; % 37,2koa izan da 2011n atzerritarren artean, eta % 30,4koa, nazioko biztanlerian.

ESKUALDEEN ARTEKO ALDEAK

2009-2011 biurtekoan, okupazioak behera egin du etengabe, hiru hiriburu-eskualdeetan, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan. 2010etik 2011ra bitartean, beherakada Tolosa-Goierri eta Debagoienara hedatu da

- * Eskualdeei dagokienez, 2007-2009 aldian okupazioan, oro har, izandako beherakaden ondoren, okupazioak beherantz jarraitu du 2009-2011 biurtekoan Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean. Biurtekoan, okupazioaren beherakada urteko % 1ekoa izan da, batez beste, Gasteizen eta Donostialdean; urteko % 1,5 eta % 1,9 artekoa, batez beste, Bizkaia-Kostan eta Ezkerraldean; eta urteko % 4ko gehienekoa, batez beste, Bilbon.

Konplexuagoa izan da Debagoienako eta Tolosa-Goierri eskualdeko bilakaera. 2007tik 2009ra bitartean, EAEko eskualde industrialenei eragin zien beherakada handiaren ondorioak jasan ondoren, 2009-2010 aldiko susperraldiaren onurak izan dituzte. Eskualde horietako zenbaitetan ez bezala, 2010-2011 aldian, Debagoiengan eta Tolosa-Goierri, berriro ere, behera egin du okupazioak; jaitsiera horiek neurritsuak baina esanguratsuak izan dira (% -0,9 eta % -1,5, hurrenez hurren). Jaitsierek, halere, indar txikiagoa izan dute 2009-2010 aldian izandako hazkundea baino; horrenbestez, bi eskualde horietan, 2011ko okupazioa handiagoa izan da 2009koa baino.

Aldiz, etengabe suspertuz joan da beste zenbait eskualde industrialetako okupazioa; hala, Eskuinaldeko okupazio-egoera hobetu egin da, 2010-2011 aldian.

* Aurreko eskualdeetan behatutakoari kontrajarriz, Debarreneko eta Aiaraldeko okupazioa suspertuz joan da, etengabe, 2009tik 2011ra bitartean; urteko % 1,5eko eta % 2,3ko erritmoan hazi dira, batez beste. Durangaldean ere antzeko bilakaera izan da, baina 2010-2011 aldiko okupazioaren egonkortzeak (% -0,1) baldintzatu egin du; horrenbestez, okupazioaren gorakada urteko % 0,8koa izan da, batez beste, 2009-2011 biurtekoan.

2009-2010 aldian okupazioan izandako jaitsieraren ondoren, Eskuinaldean okupazioa suspertu egin da 2010etik 2011ra bitartean (% +1,3); horri esker, 2009ko okupazio-mailetara itzuli da berriro.

2007tik 2011ra bitartean, okupazioaren beherakadaren inpaktua antzekoa izan da, oro har, hainbat eskualdetan, baina zenbait salbuespen izan dira

2007-2011 laurtekoaren ezaugarri nagusia okupazioaren beherakada izan da; beherakada-testuinguru horretan, 2009-2011n Euskadiko eskualdeetako okupazioan izan den bilakaera 2007-2009 aldian hautemandakoari kontrajarri zaio, neurri handi batean, eta horrenbestez, bi aldiek bateratzera egin dute. Nolanahi ere, eskualde batzuetan okupazioa handiagoa da (Gasteizen, Aiaraldean eta Eskuinaldean), eta beste batzuetan, berriz, garbiago hauteman dute krisiaren eragina (Bilbon).

Bateratze-faktoreak

* 2009tik 2011ra bitartean, okupazioaren beherakada etengabekoa izan da zenbait eskualdetan (hiru hiriburu-eskualdeetan, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan), eta zenbaitetan, okupazioaren jaitsiera-erritmoa nabarmenagoa izan da 2009 eta 2010 artean (Bilbon eta Ezkerraldean, bereziki); hala ere, zenbait faktorek 2009tik hautemandako bilakaera negatiboaren ondorioak mugatu dituzte – konparaketa bat eginez–.

Lehenik eta behin, 2007tik 2009ra bitartean, urteko batez besteko okupazioaren jaitsiera txikiagoa izan da eskualde horietan industriak pisu handiagoa duen eremuetan baino, azken horietan jasan baitituzte gehien krisiaren ondorioak aldi horretan. Okupazioa urteko % 2,1 jaitsi da, batez beste, Aiaraldean, eta % 3,1etik % 3,6ra bitarte, Durangaldean, Tolosa-Goierriin, Debagoienean eta Debarrenean; aldiz, erreferentzia-eskualdeetan, gehieneko jaitsiera hauek izan dira: % 1,5ekoa Donostialdean, % 1,3 ingurukoa Eskuinaldean, eta % 0,2 eta % 0,8 artekoa Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan. Argi eta garbi, EAEko batez bestekoaren (% 1,2) azpitik egon da okupazioaren jaitsiera azken eskualde horietan.

Bigarren, 2010-2011 aldian, okupazioaren jaitsiera EAEko batez bestekoen azpitik gelditu da, berriz ere, aztertutako hainbat eskualdetan. Hala gertatu da, esaterako, Bizkaia-Kostan (% -1 eta % -1,4

EAE) eta, bereziki, Gasteizen eta Donostialdean. Aipatutako aldirian, bi eskualde horietan egonkortu egin da bertako okupazioa, neurri handi batean; % 0,1 eta % 0,2 arteko jaitsierak izan dira.

Hirugarren, aipatu behar da Ezkerraldea izan dela, Bilborekin batera, 2010-2011 aldiko okupazioaren jaitsiera-prozesua gehien jasan duen eskualdea, okupazioaren % 3,4 galdu baitu; hala ere, salbuespena izan da 2009-2010 aldirian erreferentzia-eskualdeetan izan den okupazio-galeraren hazkunderari dagokionez. Aldi horretan, Ezkerraldean, bertako okupazioaren % 0,3 baino ez da galdu, 2007-2009 biurtekoan izandako urteko % 0,7ko batez besteko jaitsieraren azpitik.

- * Aurrekoari kontrajarriz, pisu industrial handiko bost eskualdeek (Aiaraldea, Durangaldea, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debarrena) 2009-2011 aldirian okupazioari dagokionez aurrerapen garbia izan aurretik, bereziki jasan zituzten krisiaren lehenengo fasean (2007-2009) okupazioan izan ziren jaitsierak.
- * Horrenbestez, bateratze-faktore horien ondorioz, Euskadiko eskualde gehienetan, Gipuzkoako guztietan eta Bizkaiko gehienetan (Eskuinaldean eta Bilbon salbu), antzeko galerak izan dira okupazioari dagokionez, 2007-2011 laurtekoan. Galera horiek Debarreneneko % 4,2ren eta Tolosa-Goierri eskualdeko % 5,3ren artean daude.

Arabako eskualdearen eta Eskuinaldearen egoera hobea

- * Aipatu bezala, zenbait eskualdetan okupazioak bilakaera hobea izan du 2007-2011 aldirian. EAEko eskualde industrialenei dagokionez, Aiaraaldea azpimarratu behar da; izan ere, bertan izan zen 2007-2009 aldiko hasierako krisiaren eragin txikiena (urteko % -2,1, batez beste; Durangaldean, Tolosa-Goierri, Debagoienean eta Debarrenean, berriz, % -3,1 eta % -3,6 artekoak), eta gero, 2009-2011 aldirian, okupazioaren susperraldi handiagoa izan du (urteko % +2,3, batez beste; gainerako erreferentzia-eskualdeek, berriz, % 0,5 eta % 1,5 artekoak). EAE osoan, Aiaraaldea izan da 2011n 2009ko okupazio-mailaren antzekoa izan duen eskualde bakarra (% +0,2).
- * Gasteizen eta Eskuinaldean, okupazioa galdu da 2007-2011 aldirian, baina galera hori neurritsuagoa izan da Euskadiko beste eskualdeetan baino (% -2,2 eta % -2,6, hurrenez hurren). Bilakaera paraleloa izan duten eskualdeekin alderatuz, Gasteizen okupazioaren krisiak indar txikiagoa izan du 2007-2009 eta 2009-2011 aldirietan; hori izan da, hain zuzen, Gasteizen ezaugarri bereizgarri nagusia. Hala, okupazioan izandako galerak txikiagoak izan dira bi biurtekoetan Ezkerraldearekin eta Bizkaia-Kostarekin alderatuz; zehazki, 2007-2009 biurtekoan, urteko % -0,3 izan zen, batez beste, Gasteizen, eta % -0,7/0,8 beste eskualdeetan, eta 2009-2011 biurtekoan, urteko % -0,9ko batez bestekoa Gasteizen, eta % -1,5/1,9koa besteetan. Aztertutako bi biurteko horietako batean Bilboren eta Donostialdearen antzeko galerak izan dira Gasteizen; hala ere, Gasteizen ez da izan 2007-2009 aldirian Donostialdean izandako galeraren parekorik (urteko % -1,5, batez beste), ez eta 2009-2011 aldirian Bilbon izandakoaren parekorik ere (urteko % -4, batez beste).

Eskuinaldean, aurreko eskualde horietako okupazioan izandako galeraren antzekoa izan da 2007tik 2010era bitartean (urteko % -1,3ko batez bestekoa, EAEkoa baino handiagoa); dena den, 2010-2011 aldiko susperraldiaren onurak ere izan ditu (% +1,3). Hiriburu-eskualdeei eta haien eragin-eremuei dagokienez, aipatu behar da eremu horietan soilik hauteman dela okupazioaren susperraldia 2010etik aurrera.

Bilboren egoera txarrena

- * Joera negatiboaren aldean, Bilbon izan da okupazio-galera handiena 2007tik 2011ra bitartean: % 8,2; zehazki, zazpi eskualdeek osatutako talde nagusiak (% 4,2ko eta % 5,3 arteko galerak) baino 3 eta 4 puntu gehiago, eta Gasteizen eta Eskuinaldean baino 5,6-6 puntu gehiago. 2011. urtean, Bilbo izan da 16tik 64 urtera bitarteko biztanleriaren artean % 60 baino okupazio-koefiziente txikiagoa izan duen Euskadiko eskualde bakarra.

2009tik 2011ra bitartean, Bilbon, okupazioak nabarmen egin du okerrera; hain zuzen, okertze hori izan da egoera honen sorburua. Hala, EAEko okupazioan urteko % 1,2ko galera izan da, batez beste, eta aldiz, Bizkaiko eskualde horretan, urteko % 4ko galera, batez beste. Galeren arteko diferentzial bereizgarri hori, gainera, areagotu egin da denborak aurrera egin ahala; hain zuzen, 2009-2010 aldian batez bestekoarekiko % 1,9ko aldea zegoen (% -2,9 Bilbon eta % -1 EAEn), eta 2010-2011 aldian, % 3,7ko aldea izan da (% -5,1 Bilbon eta % -1,4 EAE osoan).

Ezkerraldeko okupazioan 2010 eta 2011 aldian izandako beherakadaren intentsitateak (% -3,4) galdera bat sortzen du, hots: eskualde horrek Bilbok izandako joera negatiboaren bidetik jarraituko al du etorkizunean? Horri dagokionez, azpimarratu behar da Bilbon eta Ezkerraldean bildu dela, 2010-2011 aldian, okupazio-dinamika negatiboko eskualdeetan galdu diren 15.257 okupazio garbien % 86,4 (galdutako okupazioen % 44,6 2007-2011 aldi osoan).

Beste ñabardura bat: 2005-2007an okupazioan izandako beherakadaren eragina Tolosa-Goierri eta Debagoiengan

- * Epe ertainera okupazioak izan duen bilakaerari buruzko hurbilketa honetan, adierazi behar da okupazioaren krisia 2005-2007 biurtekora aurreratu behar dela Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetan. 2005-2011 aldia aintzat hartuz, bi eskualde horietan egin du behera gehien okupazioak 2011. urtean (% -6,1 eta % -8,5), beste eskualdeetan izandako galeren gainetik: % 4,5 Bilbon, % 3,9 Donostialdean, % 2,7 Ezkerraldean eta % 0,8 eta % 1,5 arteko kopuruak Gasteizen, Eskuinaldean eta Debarrenan. 2011ko okupazioa, aldiz, 2005ekoa baino handiagoa izan da: % 5,7 handiagoa Aiaraldean eta % 3 inguru handiagoa Bizkaia-Kostan eta Durangaldean.

⁸ 2003. urtera arte egin behar da atzera, eskualdean antzeko daturen bat aurkitzeko. Urte hartan, Eskuinaldean eta Ezkerraldean % 58,6ko eta % 58ko okupazio-koefizienteak zituzten; Bilbok, ordea, aipatutako muga hori gainditu du % 60,3ko koefizientearekin.

Okupazioaren sektore-dinamikaren eragina: industriako eta eraikuntzako krisiaren funtzio nagusia eta zerbitzuen sektorean izandako galeren geroz eta eragin handiagoa hainbat eskualdetan

Zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreek 2007-2011 aldiko okupazio-dinamikan izan duten funtzio erabakigarria

* 2007-2009 aldian okupazioan izan zen beherakadak lotura zuzena du zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetako okupazioan izandako bilakaera negatiboarekin. Hirugarren sektoreko enpleguak hazten jarraitzen du nabarmen; hain zuzen, testuinguru horretan, industriako eta, neurri txikiagoan, lehen sektoreko eta eraikuntzako okupazioaren krisiaren eraginak aldi horretan okupazioan izandako galeren % 98,5 azaltzen du. Debabarrenean soilik da esanguratsua zerbitzuak sektorearen eragina okupazioaren beherakada orokorrean, % 44,8koa, hain zuzen.

2009-2010 aldian okupazioan izandako galeren % 82,1 ekonomiako lehen eta bigarren sektoreei dagokie oraindik; eraikuntzak, bestalde, garrantzi handi samarra lortu du. Okupazioan behera egin duten eskualdeen artean, zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetan izandako beherakadak azaltzen du, funtsean, Gasteizen, Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Donostialdean izandako okupazio-galeraren % 100; Bilbori dagokionez, hautemandako atzerakadaren % 49,8 dagokie, oraindik, sektore horiei. Okupazioan izandako gorakada handi horiek, gainera, hirugarrenekoak ez diren bestelako sektoreetako okupazioan izan den susperraldiari lotuta daude, batez ere; hala izan da Aiaraldean hautemandako igoera guztiaren % 65,2, Tolosa-Goierri eskualdeko % 86,9 eta Debagoienako % 100.

2010-2011 aldian, lehen eta bigarren sektoreko okupazio-dinamika negatiboa izan da berriro eskualde guztietan; hain zuzen, okupazioan izandako galera guztien % 44,7. Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetan, aldi horretan izandako okupazio-beherakadak zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreek izandako bilakaeraren arabera azaldu dira berriro, eta Bizkaia-Kostan, bertan izandako atzerakadaren % 58,6 izan dute. Donostialdean, okupazioaren egonkortze orokorra zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako % 2,2ko hazkunderari lotuta dago; horren bidez, gainerako sektoreetan izandako % 6,1eko beherakada berdindu da. Ildo beretik, Aiaraldeko, Eskuinaldeko eta Debabarreneko okupazioan 2010-2011 aldian izandako susperraldia handiagoa izan zitekeen zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetako okupazioen galeren ondorioz mugatu izan ez balitz.

2007-2011 aldian lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako okupazioaren bilakaera negatiboak izandako eragin erabakigarriaren adibide garbiena da sektore horietan izandako beherakadak ezin izan direla berdindu, inola ere, zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako hazkunderaren bidez. Aiaraldekoa soilik aipa daiteke; hala ere, okupazioaren hazkunde garbia ozta-ozta iritsi da % 0,2ra erreferentziako laurtekoan.

Zerbitzuak sektoreko krisiaren eragina 2010-2011 aldian Ezkerraldean eta Bilbon

- * Aurreko gaian aurkeztutako kopuruek erakusten dutenez, 2010-2011 aldian lehenengo aldiz nagusi izan da zerbitzuak sektoreko okupazioaren beherakadaren eragina; zehazki, aldi horretako okupazioan hautemandako galeren % 55,3 izan da. Nolanahi ere, errealitate berri hori bi eskualdetan soilik izan da kualitatiboki erabakigarria: Bilbon eta Ezkerraldean; aldi horretan, oso beherakada esanguratsuak izan dira bi eskualde horietan (% -5,1 eta % -3,4, hurrenez hurren; okupazioan beherakada izan duten Euskadiko gainerako eskualdeetan, % -1,5, gehienez ere). 2010-2011 aldian, zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako beherakadak Bilboko okupazioaren beherakada guztia % 95,6 izan du, eta Ezkerraldekoaren % 75,2. Adierazitakoari kontrajarriz, Bizkaia-Kostan salbu, gainerako eskualde guztietan hirugarren sektoreko okupazioaren goranzko joerari eutsi zaio.

2009-2010 aldian, jada hauteman zen, neurri batean, zerbitzuen sektoreko okupazio-dinamikaren beherakada; eragin bereziki handia izan zuen aldi horretan Bilbo eta Bizkaia-Kosta eskualdeetako okupazioan, oro har, izandako beherakadan (% 50,2 eta % 74,9, hurrenez hurren). Bilbon, hain zuzen, sektore guztietan izan ziren galera handiak, eta horren ondorioz, aldi horretan okupazioan izandako beherakadaren eragin erlatiboa handiagoa izan zen eskualde horretan (% -2,9 Bilbon, eta % 1eko jaitsiera, batez beste, EAE osoan). Aldiz, Ezkerraldean, zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako gorakadak (% +2,7) mugatu egin zuen, 2009-2010 aldian, eskualde horretako gainerako sektoreetako okupazioan izandako jaitsiera handiaren eragina.

Industria-oinarriaren garrantzia okupazio-maila orokorretan

- * Zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreen bilakaerak eta okupazioan izandako krisiaren dinamika orokorrak duten lotura nabarmena dela eta, lurralde bateko oinarri industrialak bertako okupazio-mailari eusteko duen garrantzia azpimarratu behar da. 2011ko egoerak agerian uzten du hirugarren sektorearen indar txikiagoak ez dakarrela beti okupazioaren dinamismo txikiagoa. Horri dagokionez, deigarria da, EAEn % 64tik gorako okupazio-koefizientea duten zazpi eskualdeetatik (Arabako eta Gipuzkoako eskualde guztiek, eta Durangaldeak) bostek (Gasteiz eta Donostialdea salbu) gainditu egin dutela 2011. urtean 1993an industrian zuten okupazio-koefizientea.

EAEn, urbanizazio handieneko eremuei dagokienez, Gasteizko eta Donostialdeko okupazio-koefiziente orokorrak handiagoak dira Bilbokoekin, Eskuinaldekoekin eta Ezkerraldekoekin alderatuz, eta koefiziente horiek, gainera, lotura dute industriako okupazio-mailekin; okupazio-maila horiek, hain zuzen, handiagoak izan dira 2011n, bi eskualde horietan (% 16,9 Gasteizen, eta % 12,4 Donostialdean; eta osteraz, % 11,7 Ezkerraldean eta % 8,8 eta % 9,8 artekoak Bilbon eta Eskuinaldean).

2009-2011 aldian langabezian izandako hazkundera Bilbon eta Ezkerraldean biltzen da

- * 2010-2011 aldian, % 3 baino galera handiagoak izan dira okupazioan (2009-2010 aldian, % 2,9ko jaitsiera izan zen Bilbon); beraz, 2009-2011 biurtekoan, Bilbon eta Ezkerraldean izan da langabezia-kopuruen dinamika negatiboena. Halaber, Bizkaia-Kosta eskualdeko langabezian izandako hazkundera ere nabarmenezkoa da. Hiru eskualde horietan, langabe-kopurua % 50etik gora hazi da aztertutako biurtekoan. Fenomenoak eragindako eremuen baitan (denak, Gasteiz, Aiaraldea eta Debabarrena salbu), Bilbok eta Ezkerraldeak bildu dute 2009-2011 aldian langabezia-kopuruan izandako hazkunderaren % 69,8; beste % 16,2 Bizkaia-Kosta eskualdeari eta Durangaldeari dagokie; % 10,5, Donostialdeari; eta azkenik, % 3,5, Eskuinaldeari, Tolosa-Goierri eskualdeari eta Debagoienari.
- * Azken joeren arabera, geroz eta urrunago dago, batetik, Bizkaiko eskualde gehienetan eta, bestetik, EAEko gainerako eskualdeetan langabezia izaten ari den eragina. Egoera okerrera Bilbon eta Ezkerraldean dago; 2011n, hain zuzen, % 16tik gorako langabezia-tasak izan dira (% 16,4koa eta % 16,2koa, hurrenez hurren). Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere, langabezia-tasak % 10 baino handiagoak izan dira (% 13,2 eta % 11,7, hurrenez hurren).

Horiekin alderatuz, adierazleak maila baxua du Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Deba haraneko bi eskualdeetan; horietan, langabezia-tasak % 5,9 eta % 6,5 artekoak izan dira. Gasteiz eta Eskuinaldea, bestalde, egoera onena duen aldetik gertu daude; % 7,5 inguruko langabezia-tasak dituzte. Erdialdean, berriz, Donostialdea dago (eskualdeko langabezia-sailkapeneko leku onenetatik gertuago, halere); bertako langabezia-tasa % 9koa da⁹.

Errealitate hori ez dator bat EAEko hiri-eskualde handietako langabezia-tasen bateratze-prozesuarekin; 2010. urtean, % 10 eta % 12 ingurukoak izan ziren. 2010-2011 aldian, Gasteizko, Eskuinaldeko eta Donostialdeko langabezia-kopuruek behera egin dute; aldiz, Ezkerraldeko eta Bilboko kopuruak hazi egin dira; hala, langabezia-kopuruen polarizazio nabarmena gertatu da, 90eko urteetan hain ohikoa zena. Horrenbestez, hainbat eskualdek osatutako lehen taldean, % 7,4 eta % 9 arteko kopuruak izan dituzte; aldiz, Bilbon eta Ezkerraldean, gainditu egin dute 2011. urtean % 16ko langabezia-tasaren muga.

⁹ Adierazi behar da langabeziari buruzko datuak, neurri batean, 2010-2011 aldian jarduera-tasan izan den beherakadak baldintzatuta daudela hiri-eskualde handi batzuetan; bereziki, Eskuinaldean eta Gasteizen. Prestasun-tasaren adierazlearen arabera, bi eskualde horiek hurbilago daude langabeziaren eragin handiagoa izan duen aldetik. Ezkerraldean eta Bilbon, prestasun-tasak % 15,9 eta % 17 dira, hurrenez hurren; Gasteizen, berriz, tasa hori gertuago dago Bizkaia-Kosta eskualdeko eta Durangaldeko mailetatik (% 12 Gasteizen, eta % 12,8 eta % 11,7 erreferentziako eskualdeetan). Bestalde, Eskuinaldean eta Donostialdean % 10,1eko prestasun-tasa dago. % 6,9tik eta % 8,7ra bitarteko zifrekin, Aiaraldean, Tolosa-Goierri, Debagoienan eta Debabarrenean daude prestasun-tasa baxuenak.

2011n, gainera, langabeziaren hiri-ezaugarri bereziari ñabardura egin zaio, eta hala, Euskadin gutxien hiritartutako eskualdeak berdin-berdin polarizatu dira. Horrenbestez, Araban eta Gipuzkoan gutxien hiritartutako eskualdeetan (Aiaraldea, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debabarrena), % 5,6tik % 6,5era arteko langabezia-tasak izan dira, eta aldiz, Durangaldean eta Bizkaia-Kostan, % 12 eta % 13 inguruko langabezia-tasak.

- * Horrekin lotuta, aipagarria da, 2010-2011 aldian, emakumeen langabezia-tasak okerrera egitearen ondorioz, langabezia-tasa orokorra hazi egin dela Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan. Bilbon eta Durangaldean, aldiz, indar handiagoa izan du gizonen langabeziaren hazkundeak, 2007-2009 aldian EAEn izan zen langabeziaren hazkunde-dinamikari jarraikiz; izan ere, gizonen langabeziaren igoerarekin zegoen lotuta, argi eta garbi.

Euskadiko langabeziaren gune nagusiak

- * 2011n, langabezia-tasak eskualdearen, sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, EAEn langabezia handiko gune hauek daudela ikus daiteke:

- Sexuaren arabera, langabezia-tasak % 14 ingurukoak edo handiagoak dira Bilbon eta Ezkerraldean, bai gizonetan bai emakumeetan. Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere, % 10eko mailak gainditu dira bi sexuetan; zehazki, Bizkaia-Kosta eskualdeko emakumeen langabezia-tasa Bilborako eta Ezkerralderako adierazitako mailetara iritsi da. Donostialdeari dagokionez, emakumeen langabezia-tasa % 10era iritsi da, eta gizonena, % 8,2ra; Gasteizko gizonen langabezia-tasa, berriz, % 8,6koa da.

- Adinari dagokionez, Aiaraldean eta Debabarrenean salbu, Euskadiko gainerako eskualdeetan, 25 urtez azpiko pertsonen langabezia-tasa % 20tik gorakoa da. Tasa hori % 33,9ra iristen da Donostialdean, % 41etik % 42,9ra bitarteko kopuruetera Bilbon eta Bizkaia-Kostan, eta gehieneko % 46,8ra Ezkerraldean.

Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan salbu, EAeko eskualde gehienetan % 10etik gorako langabezia-tasak izan dira 25-34 urteko biztanleen artean. 25-34 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasari dagokionez, % 12,5 eta % 13,8 bitartekoa da Aiaraldean, Donostialdean eta Debabarrenean; bestalde, Gasteizen eta Bizkaiko eskualde gehienetan (Eskuinaldean salbu), % 15etik gorako langabezia-tasa dago. Gehieneko kopuruak Bilbori, Ezkerraldeari eta Bizkaia-Kostari dagozkie, berriro ere; hain zuzen, % 18,5etik % 19,2ra bitarteko tasak dituzte.

35 urtetik 49 urtera bitarteko biztanleriari dagokionez, langabezia-adierazlea % 6,5ekoa edo gutxiagokoa da EAeko eskualde gehienetan. Joera horretatik urrun daude Bizkaia-Kosta, % 9,6rekin, eta bereziki egoera larrian dauden Ezkerraldea eta Bilbo. Bi eskualde horietan, adin-talde horretako pertsonen langabezia-tasak % 13,7ra eta % 14,5era iritsi dira, hurrenez hurren.

Oro har, langabezia-tasak % 5,5 ingurukoak edo hortik beherakoak dira; 50 urteko edo gehiagoko pertsonen artean, ordea, langabezia-tasa % 7,5etik gorakoa da Bizkaiko eskualdeetan, Eskuinaldean izan ezik. Adierazlea % 8,8koa da Bizkaia-Kostan; Ezkerraldean, % 11,6ra iritsi da, eta % 14 inguruko gehienezkoak izan dira Bilbon eta Durangaldean.

- * 2011n, Euskadiko ia eskualde guztietan, iraupen luzeko langabeak % 50 inguru edo hortik gora dira. Proportzioa % 60koa edo handiagoa da Gasteizen, Bizkaia-Kostan eta Debagoiengan.

Oso iraupen luzeko langabeen ehuneko handienak, bestalde, Bizkaiko eskualdeetan eta Donostialdean daude. % 30,7tik % 34,9ra bitartekoak izan dira Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean, eta gehienezko % 42,8koa Bizkaia-Kostan.

1. Biztanleria aktiboa

1. 2011n, 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria aktiboa 1.041.195 pertsonak osatu dute EAEn, 2010ean baino % 0,1 gutxiagok. Kopuruak, hasiera batean, biztanleria aktiboaren egonkortze hutsa erakusten duen arren, aldaketa sakonago bat adierazten du. Horri dagokionez, 2010-2011 aldian eten egin da 1993-2010 aldian hautemandako biztanleria aktiboaren hazkunde-prozesua; hala, amaitu egin da krisiaren hasierako fasean hauteman ziren hazkunde-erritmo bizen beheranzko joera. Horrenbestez, biztanleria aktiboaren hazkunde-erritmoa 2007-2009 aldian urteko % 1,75 izatetik 2009-2010 aldian % 0,40 izatera pasatu da, eta 2010-2011 aldian, ez da hazkunderik izan.

Biztanleria aktiboaren kopurua egonkortzea ez da, ordea, jarduera-tasaren jaitsieraren ondorio; hain zuzen, 2010-2011 aldian ere, gorantz jarraitu du tasa horrek (% 71,8tik % 72,2ra). Azken aldian, askoz ere atzerritar gutxiago etorri da, eta horrez gain, baliteke migrazio-prozesuak, partzialki, itzultzen hasi izana; testuinguru horretan, 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria osoa % 0,6 jaitsi da (zenbaki absolutuetan 8.293 pertsona gutxiago daude).

16-64 urteko guztizko biztanleriaren eta biztanleria aktiboaren bilakaera. 1993-2011 aldian

(Datu absolutuak, jarduera-tasa %-tan eta biztanleria aktiboaren urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa %-tan)

Urtea	Biztanleria Guztira	Jarduera-tasa	Biztanleria aktiboa	
			Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	1.466.028	62,9	921.556	
1995	1.479.685	62,7	928.381	0,37
1997	1.468.915	64,1	941.324	0,69
1999	1.478.068	65,6	969.459	1,48
2001	1.424.579	65,8	937.633	--
2003	1.408.719	69,6	980.220	0,28
2005	1.433.604	69,6	997.280	0,87
2007	1.425.959	70,3	1.002.357	0,25
2009	1.451.941	71,5	1.037.659	1,75
2010	1.451.124	71,8	1.041.801	0,40
2011	1.442.831	72,2	1.041.195	-0,06

Oharra: 1999tik 2003ra bitarteko urtetik urterako hazkunde-tasa laurteko osorako ematen da, 2001eko zifrak langabeziaren/inaktibitatearen definizioan izandako aldaketa metodologikoen eragina jaso baitu.

2. 2009tik 2011ra bitartean, biztanleria aktiboak egonkortzeko joera izan du (urteko % 0,2ko hazkundera izan da, batez beste, 2009-2011 aldian, eta % 1,7koa 2007-2009 aldian), emakumeetan eta 35 urtetik 49 urtera bitartekoen taldean, batez ere; bi talde horietan, aktiboaren kopurua nabarmen hazi zen 2007tik 2009ra bitartean.

Emakumeei dagokienez, biztanleria aktiboaren hazkunde-tasa 2007-2009 aldian, batez beste, urteko % 4,3 izatetik, 2009-2011 biurtekoan % 1 izatera pasatu da. Hala ere, 2005-2007 biurteko maila berean eutsi zaio hazkunde-erritmoari, gizon aktiboaren kopuruan 2005etik izan den etengabeko beherakadari kontrajarrita.

Azken aldiko joerak, beraz, azken urteetan gizonen eta emakumeen jarduera-kopuruetan hautemandako bilakaera desberdina berresten dute. Hau da, 2005-2011 aldian, emakume aktiboaren kopurua % 13,2 hazi da, eta aldiz, gizon aktiboaren kopurua % 1,9 gutxitu da; gainera, 2009-2011 aldian, jaitsiera-erritmoa areagotu egin da (% -0,5 2009-2011n eta % -0,2/-0,3 2005-2009 aldian). Horren ondorioz, 2005etik 2011ra bitartean, emakumeek biztanleria aktibo osoan duten garrantzia handitu egin da, % 41,5etik % 45era. Aztertutako dinamika 2005-2011 aldian jarduera-tasetan sexuaren arabera izandako bilakaera desberdinarekin lotuta dago; zehazki, gizonen tasa % 80,5etik % 78,5era jaitsi da, eta emakumeena, aldiz, % 58,4tik % 65,7ra igo da.

35 urtetik 49 urtera bitarteko pertsonen dagokienez, agerikoa da biztanleria aktiboaren goranzko erritmoaren dezelerazioa. 2005etik 2007ra bitartean, urteko % 1,9ko hazkunde-erritmoa izan zuen, batez beste, eta 2007tik 2009ra bitartean, % 2,5ekoa; 2009-2011 aldian, oster, hazkundera % 1era jaitsi da. Nolanahi ere, jarduera-tasak gorantz jarraitu du adin-talde horretan, eta 2009an % 85,6 izatetik 2011n % 86,9 izatera pasatu da; 2005eko % 83,1ekin alderatuz, ia % 4 gehiago.

Biztanleria aktiboaren hazkundeari dagokionez, urtetik urtera erritmoa handitzeko joerari 50 urtetik gorako taldeak soilik eutsi dio; zehazki, urteko % 6,8ko hazkundera izan da, batez beste 2009-2011 aldian, eta beraz, gaintu egin ditu 2007-2009 aldiko urteko % 5,7ko batez bestekoa eta 2005-2007 biurteko % 2,8koa. Oro har, 50 urteko edo gehiagoko biztanleria aktiboa % 34,8 hazi da 2005-2009 aldian; argi eta garbi gaintu du 35 urtetik 49 urtera bitarteko pertsonen dagokien % 11,1. 50 urteko edo gehiagoko pertsonen jarduera-tasa 2005ean % 52,2 izatetik 2011n % 62,8 izatera pasatu da.

Bestalde, biztanleria aktiboaren etengabeko galera 35 urtetik beherako pertsonetan da nagusi 2005. urtetik. Urtetik urterako kopuruek erakusten dutenez, gainera, joera hori areagotu egin da 2009-2011 aldian, 2007-2009 aldian galera neurritsuagoa izan eta gero. Hau da, 2009tik 2011ra bitartean 25-34 urteko biztanleria aktiboaren kopuruetan hautemandako urteko % 4,4ko batez besteko galerak gaintu egin du 2005-2007 aldian izandako % 2,1eko galera; 2007-2009 aldian, berriz, % -1,3 izan zen. Joera hori are nabarmenagoa da 25 urtetik beherako taldean, aktiboak gutxituz baitoaz: urteko % -14,2, batez beste, 2009-2011 aldian, % -6,6 2005-2007 biurtekoan, eta % -3,9 2007tik 2009ra bitartean. Orotara, 25-34 urteko biztanleria aktiboaren kopurua % 14,6 gutxitu da 2005etik 2011ra bitartean, eta 25 urtetik beherako biztanleria aktiboaren kopurua, % 40,7.

Deskribatutako bilakaera hori 2005-2011 aldiko jarduera-tasetan izandako beherakada paraleloak islatzen du. 25 urtetik 34 urterako pertsonen artean, jarduera-tasaren beherakada ez da hain

gogorra izan, % 87,5etik % 85,7ra pasatu baita; aldiz, 25 urtetik beherako biztanleen artean, beherakada handia izan da, % 39,7tik % 27,4ra.

35 urtetik gorako eta beherako biztanleen jarduerari dagokionez, bilakaera desberdina izan da; horren ondorioz, gazteenen taldeek geroz eta indar gutxiago dute biztanleria aktiboan. 35 urtetik beherako pertsonen biztanleria horretan duten garrantzia % 37,7 jaitsi zen 2005ean eta % 28,9 2011n.

Azken batean, 2009-2011 aldian biztanleria aktiboaren hazkundera izan den dezelerazioa –2010-2011 aldian, aktiboaren kopurua egonkortzera eraman duena– 2007-2009 aldian hazkunde handia izateagatik nabarmendu ziren taldeen bilakaerarekin lotzen da (emakumeak eta 35 urteko edo gehiagoko pertsonak); talde horien jarduera-tasa espezifikoek, oraindik, gorantz jarraitzen dute, 50 urtetik gorakoen taldean, bereziki. Pertsona aktiboaren beheranzko joera, 2005etik etengabe datorrena, finkatu egin da 2009-2011 aldian, bai gizonen artean bai 35 urtetik beherakoen artean; ondorioz, haien jarduera-tasa espezifikoek ere behera egin dute.

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2011 aldia
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkunderaren ehunekoa 2005-2011 aldian)

Sexua eta adina	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa			2005/2011 aldiko hazkunderaren %
	2005	2007	2009	2010	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	
Gizonak	583.244	579.896	577.695	575.549	572.410	-0,3	-0,2	-0,5	-1,9
Emakumeak	414.036	422.462	459.964	466.252	468.784	1,0	4,3	1,0	13,2
< 25 urte	77.482	67.659	62.459	54.940	45.985	-6,6	-3,9	-14,2	-40,7
25-34 urte	298.791	286.114	279.003	269.897	255.220	-2,1	-1,3	-4,4	-14,6
35-49 urte	410.211	425.889	447.237	451.648	455.909	1,9	2,5	1,0	11,1
>50 urte	210.796	222.695	248.960	265.315	284.081	2,8	5,7	6,8	34,8
Guztira	997.280	1.002.357	1.037.659	1.041.801	1.041.195	0,3	1,7	0,2	4,4
Emakume aktiboaren %	41,5	42,1	44,3	44,8	45,0				
< 35 urteko aktiboaren %	37,7	35,3	32,9	31,2	28,9				

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera 1993-2011 aldian
(%-tan)

Sexua eta adina	Jarduera-tasa							
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gizonak	76,1	75,9	77,9	80,5	80,5	78,9	78,6	78,5
Emakumeak	49,4	52,2	53,6	58,4	59,9	63,9	64,9	65,7
< 25 urte	44,1	39,1	39,3	39,7	38,1	35,6	31,7	27,4
25-34 urte	87,3	88,5	85,7	87,5	87,4	86,6	86,7	85,7
35-49 urte	75,0	79,0	79,1	83,1	84,2	85,6	86,5	86,9
>50 urte	41,5	44,1	47,9	52,2	53,6	57,7	59,7	62,8
Guztira	62,9	64,1	65,8	69,6	70,3	71,5	71,8	72,2

3. Biztanleria aktiboaren hazkundera dezeleratu egin da 2009-2011 aldian, eta horrek bereziki eragiten die EAEn gehien hiritartutako eskualdeei. Joera horrek, hain zuen, isla izan du; hots, Eskuinaldean urteko ia % 0,6ko batez besteko hazkundera izan da, Bilboko eta Donostialdeko kopuruak egonkortu egin dira, eta Gasteizen joeraz aldatu da, 2009-2011 aldian urteko % 2,7ko beherakada izan baita, batez beste.

Aipatutako eskualdeak 2010-2011 aldian biztanleria aktiboan izandako beherakadagatik nabarmendu dira: % -1 Donostialdean, % -1,6 Eskuinaldean, eta % -4 Gasteizen; eskualde horietan, beraz, biztanleria aktiboaren hazkundera EAEkoak baino baxuagoak izan dira 2005-2011 aldian (% 0,4 Eskuinaldean, % 1,8 Donostialdean eta % 3,9 Gasteizen). 2010-2011 aldiko jaitsiera txikiagoa izan da Bilbon (% -0,3); hori dela eta, eskualde hori, oraindik, 2005-2011 aldian EAEkoa baino biztanleria aktiboaren hazkundera handiagoa izan duten eskualdeen artean dago (% +6), 2007-2009 aldian izandako goranzko joera nabarmenaren isla. Ezkerraldean ere antzeko zerbait gertatzen da, % 7,6ko hazkundera izan baita bertako biztanleria aktiboan 2005-2011 aldian. Aztertutako gainerako eskualdeetan ez bezala, Ezkerraldean jardueraren goranzko joera handi samarra izan da 2010-2011 aldian (% +2,5).

Bereziki deigarria da Gasteizko eskualdean azken urteetan hauteman den jarduera-tasaren jaitsiera handia: 2009an % 73,4 izatetik 2011n % 69,6 izatera pasatu da. Aztertutako eskualde guztietatik, 2011ko jarduera-tasa 2007koa baino askoz ere txikiagoa duen bakarra da. Eskuinaldean, jarduera-tasaren mailak antzekoak izan dira bi erreferentzia-data horietan (% 68,6 2011n eta % 68,8 2007an); aldiz, 2011ko jarduera-tasa handiagoa izan da 2007koa baino, bai Donostialdean (% 73,9 2011n eta % 72,8 2007an; +1,1) bai Bilbon (% 71,1 2011n eta % 68,8 2007an; +2,4) bai eta Ezkerraldean ere (% 73,3 2011n eta % 67,8 2007an; +5,5), nabarmen handiagoa, gainera.

Arabako Aiaraldean eta Gipuzkoako Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan, bestalde, 2011ko jarduera-tasa txikiagoa edo, oro har, antzekoa izan da 2005-2007 aldian izandako gehienekoekin. Aiaraldean, biztanleria aktiboa etengabe hazi da 2005etik, eta horren ondorioz, 2005-2011 aldian % 8,4ko igoera izan da. Aiaraldean salbu, gainerako eskualdeetan EAEko batez bestekoa baino hazkundera txikiagoa izan da (% +2,8 Debabarrenean) edo bestela, aktiboen kopuruak 2005ekoak baino txikiagoak izan dira 2011n (% -2,9 Tolosa-Goierri eta % -4,4 Debagoienean). Gerora suspertu badira ere, bi eskualde horietan jarduera-tasek 2,3-2,7 puntuko beherakada izan zituzten 2007tik 2009ra bitartean; horregatik nabarmendu ziren.

2005-2011 aldian, biztanleria aktiboaren hazkundera handiena Bizkaia-Kostan eta Durangaldean izan da; % 11,3 eta % 11,5 arteko kopuruak izan dira. Aiaraldearekin batera, beste bi eskualde horietan ere biztanleria aktiboaren urteko batez besteko hazkundera-eritmoak handiagoak izan dira 2009-2011 artean; Bizkaiko bi eskualde horietan, gainera, hazkundera bereziki deigarria izan da 2010-2011 aldian, urteko % 4tik % 4,5era artekoa.

4. 2010etik 2011ra bitartean kasuren batean beheranzko joera izan arren, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Donostialdea eskualdeek jarduera-tasa handienak dituzten Euskadiko eskualdeen artean jarraitzen dute 2011n; % 73 eta % 74 arteko kopuruak dituzte. 2010-2011 aldian, Ezkerraldeko, Bizkaia-Kostako eta Durangaldeko jardueran hauteman den gorakada dela eta, hiru eskualde horiek aipatutako tarte horretan sartzen dira, Aiaraldekotik gertu (% 72,1). Jarduera-tasa EAeko batez bestekoa baino txikiagoa da Bilbon (% 71,1), eta 2011ko tasarik txikiak Gasteizen, Eskuinaldean eta Debabarrenean izan dira; % 70 baino apur bat txikiagoak izan dira hiru eskualde horietan. Gasteizen egoera bereziki deigarria da. 2009. urtean, jarduera-tasarik altuenak izan zituen Donostialdearekin batera; 2010ean, tarteko lekuan egon zen; eta 2011n, Eskuinaldea baino ez zuen gaintu (% 69,6 Gasteizen eta % 68,6 Eskuinaldean).

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2011 aldia
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2005-2011 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa					2005/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2010	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2009/2010	2010/2011	
Gasteiz	126.798	127.298	139.082	137.248	131.742	0,2	4,5	-2,7	-1,3	-4,0	3,9
Aiaraldea	19.590	20.271	20.426	21.031	21.240	1,7	0,4	2,0	3,0	1,0	8,4
Eskuinaldea	76.113	75.813	75.543	77.703	76.427	-0,2	-0,2	0,6	2,9	-1,6	0,4
Bilbo	155.757	158.086	165.573	165.654	165.111	0,7	2,3	-0,1	0,0	-0,3	6,0
Ezkerraldea	180.138	177.597	188.730	189.010	193.820	-0,7	3,1	1,3	0,1	2,5	7,6
Bizkaia-Kosta	53.989	56.463	58.488	57.793	60.218	2,3	1,8	1,5	-1,2	4,2	11,5
Durangaldea	53.615	56.288	56.878	57.113	59.655	2,5	0,5	2,4	0,4	4,5	11,3
Donostialdea	222.380	223.299	227.522	228.529	226.333	0,2	0,9	-0,3	0,4	-1,0	1,8
Tolosa-Goierri	53.887	53.006	51.863	53.439	52.347	-0,8	-1,1	0,5	3,0	-2,0	-2,9
Debagoiena	31.155	29.674	28.999	29.951	29.771	-2,4	-1,1	1,3	3,3	-0,6	-4,4
Debabarrena	23.859	24.563	24.555	24.329	24.530	1,5	0,0	-0,1	-0,9	0,8	2,8
Guztira	997.280	1.002.357	1.037.659	1.041.801	1.041.195	0,3	1,7	0,2	0,4	-0,1	4,4

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, eskualdeen arabera. 2005-2011 aldia

Eskualdea	Jarduera-tasak							
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	65,9	69,2	71,3	71,1	70,7	73,4	72,3	69,6
Aiaraldea	65,1	66,3	66,9	68,7	72,2	69,5	71,1	72,1
Eskuinaldea	61,7	61,6	63,4	68,8	68,8	67,6	69,5	68,6
Bilbo	63,3	64,1	65,9	66,7	68,8	71,1	70,9	71,1
Ezkerraldea	60,3	59,8	60,7	66,9	67,8	71,1	71,2	73,3
Bizkaia-Kosta	64,7	65,9	64,7	69,1	69,2	70,7	69,9	73,2
Durangaldea	64,2	62,9	64,8	69,3	70,8	70,2	70,9	74,2
Donostialdea	63,3	65,9	68,6	72,5	72,8	73,4	74,0	73,9
Tolosa-Goierri	60,7	64,0	64,0	74,4	73,8	71,5	73,9	73,3
Debagoiena	64,1	63,7	67,6	73,6	73,2	70,6	73,1	73,5
Debabarrena	60,2	63,0	65,9	65,8	69,8	69,0	68,7	69,9
Guztira	62,9	64,1	65,8	69,6	70,3	71,5	71,8	72,2

5. Gizonen jarduera-tasaren eta emakumeen jarduera-tasaren bilakaera kontrajarria (emakumeek gero eta proportzio handiagoa dute biztanleria aktiboan) Euskadiko eskualde guztietan hauteman da 2007-2011 aldian, Aiaraldean izan ezik. 2011ko emakumeen jarduera-tasa eremu geografiko horretan soilik ez da izan 2007koa baino % 3 handiagoa. Eskualde horretan, emakume aktiboak % 40,6 dira oraindik; beraz, asko urruntzen dira EAE osoko % 45etik.

Emakumeen 2011ko jarduera-tasa nabarmen handiagoa da 2007koa baino; hala ere, bereziki deigarria da Gasteizen 2009tik 2011ra bitartean izan den beherakada, % 67 izatetik % 62,3 izatera pasatu baita. 2009tik 2011ra bitartean emakumeen jarduera-tasa jaitsi den eskualde bakarra da, eta gainera, jaitsiera nabarmena izan da (% -4,7); jaitsiera hori, hain zuzen, 2007tik 2009ra izandako ezohiko hazkundearekin dago lotuta (% 58,7tik % 67ra).

Gasteizen hautemandako bilakaerak, bestalde, EAEko gizonen jarduera-tasa orokorraren beherako joera finkatu du 2010-2011 aldian; hala, gizonen jarduera-tasa etengabe jaitsi da 2009-2011 biurtekoan eskualde horretan (% -2,9). Gasteizez gain, Donostialdea da bilakaera hori izan duen eskualde bakarra; 2009an % 80,6 izatetik 2011n % 79,8 izatera pasatu da. Gainerako eskualdeetan, 2011ko gizonen jarduera-tasa 2009koa baino handiagoa izan da, edota bestela, eten bat egin da gutxiagotzeko joeran, 2010-2011 aldian tasak gora egin baitu. Hala gertatu da Bizkaiko ia eskualde guztietan (Eskuinaldean salbu) eta Debabarrenean. Debagoiengan, gainera, gizonen jarduera-tasak gora egin du etengabe 2009tik (% 73,1etik 2011n % 76,1 izatera pasatu da), baina 2007-2009 aldian beherakada handia izan eta gero (2007an, % 78,5era iritsi zen tasa).

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera

2007-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	Gizonak				Emakumeak			
	2007	2009	2010	2011	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	82,2	79,6	78,3	76,7	58,7	67,0	65,9	62,3
Aiaraldea	82,6	78,9	83,4	82,6	60,9	59,4	57,9	60,7
Eskuinaldea	79,5	75,4	77,5	76,1	58,3	60,1	61,8	61,3
Bilbo	78,7	78,3	76,1	76,5	59,1	64,2	66,0	65,9
Ezkerraldea	79,0	79,9	79,6	80,9	56,2	62,1	62,6	65,6
Bizkaia-Kosta	78,4	78,5	78,0	79,4	59,5	62,6	61,4	66,7
Durangaldea	81,6	78,1	77,6	78,5	59,4	61,9	63,8	69,6
Donostialdea	81,8	80,6	80,6	79,8	63,7	66,1	67,3	67,8
Tolosa-Goierri	83,9	79,0	79,7	79,1	62,7	63,1	67,5	66,8
Debagoiena	78,5	73,1	75,5	76,1	67,5	67,8	70,5	70,6
Debabarrena	82,5	75,7	74,7	76,4	56,1	61,7	62,3	62,7
Guztira	80,5	78,9	78,6	78,5	59,9	63,9	64,9	65,7

Emakumeek 16-64 urteko biztanleria aktiboan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera

2007-2011 aldian

(%-tan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	40,7	44,6	44,5	43,7
Aiaraldea	40,8	41,2	39,1	40,6
Eskuinaldea	43,0	45,4	45,2	45,5
Bilbo	43,6	46,1	47,5	47,2
Ezkerraldea	40,9	43,3	43,6	44,3
Bizkaia-Kosta	41,8	43,0	42,8	44,4
Durangaldea	40,8	43,1	44,0	45,9
Donostialdea	43,6	44,7	45,2	45,5
Tolosa-Goierrri	40,6	42,0	43,2	43,3
Debagoiena	44,4	46,4	46,4	46,0
Debarrena	38,7	43,0	43,5	42,9
Guztira	42,1	44,3	44,8	45,0

6. 2007-2011 aldian, EAEko eskualde guztietan gutxitu da 35 urtetik beherakoek biztanleria aktiboan duten garrantzia, Aiaraldean izan ezik. Hori azaltzen duen faktore nagusia da laurteko horretan jaitsi egin dela 25 urtetik beherakoen jarduera-tasa, gehienetan nabarmen, gainera. Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debagoiengan gazteen jarduera-tasak gora egin du 2009-2011 aldian, eta Tolosa-Goierrin jaitsiera ez da besteetan bestekoa izan biurteko horretan; gainerako eskualde guztietan, gazteen jarduera-tasaren jaitsiera areagotu egin da 2009-2011 aldian. % 6tik gorako beherakada izan da tasetan biurteko horretan EAEn gehien hiritartutako bost eskualdeetan, Aiaraldean eta Debarrenean.

Bestalde, 25-34 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren dinamika aintzat hartuta, aipa daiteke adin-talde horietako jarduera-tasaren jaitsiera Eskuinaldean, Durangaldean eta, neurri batean, Donostialdean soilik izan dela etengabekoa 2007-2011 aldian. 2010era arte goranzko joera izan ondoren, Gasteizen ere beherakada handia hauteman da 2011n; 2009an % 87,2 izatetik % 84,4 izatera pasatu da. Bestalde, 2011n, 25-34 urteko pertsonen jarduera-tasak gutxienez % 2 handiagoak izan dira 2007koak baino, bai Bilbon bai Debagoiengan; Aiaraldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debarrenean, berriz, adin-talde horietako jarduera suspertu egin da 2009-2011 aldian, 2007-2009 biurtekoan izandako jaitsieren ondotik.

7. 2007-2011 laurtekoan, eskualde guztietan hauteman da goranzko joera 50 urtetik gorako pertsonen jarduera-tasetan. 2009tik 2011ra bitartean, goranzko joera hori nagusi izan da, halaber, 35-49 urtekoen artean, Gasteizen eta Bizkaia-Kostan salbu; bi eskualde horietan, jarduera jaitsi egin da, % 89,3tik % 85era eta % 87,6tik % 86,9ra, hurrenez hurren. Nolanahi ere, kasu gehienetan, hazkunde horrek berdindu baino ez ditu egin, neurri handi batean, 2007-2009 aldian baino lehen izandako jaitsierak; hain zuzen, 2007-2011 aldian, Bizkaiko eskualdeetan (Eskuinaldean salbu) eta Donostialdean soilik izan dute jarduera-tasek % 2ko edo gehiagoko hazkundea. Gainera, Ezkerraldean eta Donostialdean soilik izan dute etengabeko hazkunde nabarmena adin-talde horretako pertsonen jarduera-tasetan, 2007-2011 aldian.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera 2007-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			>50 urte		
	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011
Gasteiz	37,4	39,0	21,8	85,8	87,2	84,4	85,3	89,3	85,0	55,4	57,9	59,1
Aiaraldea	38,4	35,9	29,9	91,2	83,9	88,0	85,6	82,2	84,7	54,3	56,1	58,0
Eskuinaldea	39,7	32,1	23,9	86,3	81,9	78,9	83,5	82,9	83,6	52,5	55,8	63,9
Bilbo	32,0	38,3	25,4	80,1	83,6	82,4	84,3	83,0	86,3	55,1	60,1	62,8
Ezkerraldea	40,9	38,2	32,0	88,4	86,9	87,5	80,6	84,9	87,5	46,8	56,1	63,2
Bizkaia-Kosta	24,1	21,7	22,7	91,7	88,0	91,8	82,3	87,6	86,9	53,6	56,3	62,7
Durungaldea	33,0	31,8	32,8	88,6	87,4	84,8	85,8	83,4	89,5	53,3	56,7	65,3
Donostialdea	43,8	37,1	27,5	89,5	89,7	86,1	85,3	87,1	88,4	56,8	58,5	65,1
Tolosa-Goierri	43,0	37,4	35,8	92,7	89,0	89,6	85,7	83,5	86,2	58,2	57,8	61,3
Debagoiena	36,9	16,6	24,0	89,9	86,2	91,9	91,4	89,8	91,7	53,7	60,9	62,5
Debarrena	41,5	38,7	29,6	92,2	83,0	89,0	85,7	85,7	86,4	51,8	54,4	56,6
Guztira	38,1	35,6	27,4	87,4	86,6	85,7	84,2	85,6	86,9	53,6	57,7	62,8

35 urtetik beherakoek 16-64 urteko biztanleria aktiboan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	35,9	34,1	32,3	29,7
Aiaraldea	34,2	33,0	36,1	34,2
Eskuinaldea	36,0	32,7	32,6	28,6
Bilbo	33,0	34,0	32,9	27,4
Ezkerraldea	36,3	33,6	31,4	30,2
Bizkaia-Kosta	35,8	30,6	29,6	30,7
Durungaldea	35,3	30,3	27,4	28,0
Donostialdea	34,8	32,6	30,6	28,1
Tolosa-Goierri	37,3	33,0	29,2	29,6
Debagoiena	35,7	29,3	28,6	28,0
Debarrena	37,2	31,7	28,2	27,5
Guztira	35,3	32,9	31,2	28,9

8. Aurreko datu horiek eskualdeko ikuspegitik aztertuz, egiaztatu da emakumeen eta 35 urtetik gorakoen jarduerarekin lotutako aldaketak erabakigarriak izan direla 2009-2011 biurtekoko bilakaerarako, 2009-2010 aldiko koiuntura-egoerari argi eta garbi kontrajarriz; hain zuzen, 2009-2010 aldian, eragin handiagoa izan zuten gizonen eta 25-34 urteko pertsonen jardueran hautemandako aldaketek. Horrenbestez, 2007-2009 aldian jardueraren bilakaeran eragin zuten faktore nagusiak (hau da, emakumeen eta 35 urteko edo gehiagoko pertsonen jardueraren hazkundea) erabakigarriak izan dira 2010-2011 aldian ere. Halere, ez dute beti bilakaera-ildo bera erakutsi.

Emakumea jardunean hasteak izan duen eraginari dagokionez, 2009ko eta 2011ko kopuruak alderatuz, emakumeen jarduera-tasaren bilakaeran eta jarduera-tasa orokorren bilakaeran izandako korrelazio positibo argia azpimarratu behar da. Hala, aldi horretan emakumearen jarduera-tasa gehien hazi den eskualdeak (Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Durungaldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena) aldi horretan jarduera-tasa orokorra gehien hazi den eskualde berberak dira. Emakumeen jardueraren eta jarduera orokorraren arteko korrelazioa, halaber, 2009-2011 aldian jarduera-tasa orokorra jaitsi den eskualde bakar horretan dago, hots, Gasteizen. Eremu geografiko horretako jarduera-tasa orokorraren beherakada handiak lotura berezia du emakumeen jarduera-tasa % 4,7 jaistearekin (2009an % 67 izatetik 2011n % 62,3 izatera).

Bestalde, gizonen jardueraren bilakaera aurrekoa bezain garrantzitsua da, zenbait eskualdetan; adibidez, Debagoienean, antzeko hazkundea izan da gizonen eta emakumeen tasetan. Gizonen jardueraren bilakaerak ere garrantzi berezia du Aiaraldean eta Tolosa-Goierriin. Arabako eskualdean, 2009-2011 aldian gizonen jarduera-tasaren hazkunde handiagoaren ondorioz, jarduera-tasa orokorra ere hazi egin da, nahiz eta emakumeen batez besteko jarduera-tasa baino hazkunde

txikiagoa izan; aldiz, Tolosa-Goierri, gizonen tasaren egonkortzeak mugatu egin du emakumeen taldean izandako goranzko joera handia. Are gehiago, Bilbon eta Donostialdean, 2009-2011 aldian gizonen jarduera-tasetan izandako beherakadek berdindu egin dute, neurri handi batean, emakumeen jarduera-tasetan izan diren gorakadak, batez bestekotik hurbil egon direnak. Bi eskualde horietan, azkenean, jarduera-tasa orokorra ia erabat egonkortu da edo bestela, hazkunde txiki bat izan du.

2009-2011 aldian jarduera-tasa orokorretan hazkunde handiena izan duten eskualdeetako adina aztertuz, egiaztatu da ia eskualde guztietan (Aiaraldean, Ezkerraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean) nabarmen handitu direla 35 urtetik gorako pertsonen jarduera-tasak; Bizkaia-Kostan, zehazki, 50 urtetik gorako pertsonen hazkunde-tasa soilik hazi da.

35 urtetik beherakoen jardueran izan den bilakaerak, bestalde, garrantzia du aipatutako zenbait eskualdetan. Aiaraaldean, Ezkerraldean eta Tolosa-Goierri izandako beherakadei kontrajarriz, 2009-2011 aldian 25 urtez azpikoen jarduera-tasan gorakada handia izan da Debagoienean (% +7,4). Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere suspertu egin da 25 urtez azpikoen jarduera erreferentziako biurtekoan, baina aurrekoan baino modu neurritsuagoan. 25-34 urteko pertsonen dagokienez, Aiaraaldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoienean ere nabarmen hazi da adin-talde horretako jarduera.

Bestalde, Eskuinaldean, Bilbon, Donostialdean eta Debabarrenean hazkunde txikiagoak izateak edo jarduera egonkortzeak lotura zuzena du 35 urtez azpikoen jarduera-tasan izandako beherakadekin, Debabarreneko 25-34 urtekoen taldean salbu; izan ere, eskualde horretan hazkunde handia hauteman da adin-talde horren jardueran, 2009-2011 aldian.

Gasteizen ere 35 urtez azpikoen jarduera-tasen beherakada izan da 2009-2011 aldian, beherakada bereziki indartsua, gainera; gazteen jarduera-tasak, adibidez, % 17,2 egin du behera, eta 2009an EAEko tasa handiena izatetik (% 39) 2011ko txikiena izatera pasatu da (% 21,8). Eskualde horretan, ordea, egoera berezi bat gertatu da, jardueraren beherakada handia (% -4,3) 35-49 urteko pertsonetara hedatu baita biurteko horretan; fenomeno hori Bizkaia-Kostan soilik gertatu da aldi horretan, baina askoz ere indar gutxiago izan du (% -0,7). Testuinguru horretan, deigarria da gazteen jardueran izan den beherakada handia.

Nolanahi ere, zenbait salbuespen izan ezik (adibidez, Bizkaia-Kosta eta Debagoiena), 25 urtez azpikoen eta/edo 25-34 urteko gazteen jarduera-tasek izan duten beheranzko joerak jarduera-tasa orokorrak murriztera egin du 2009-2011 aldian.

2. Langabeak

2.1. Datu orokorrak

9. Langabeziak goranzko joerarekin jarraitu du 2010-2011 aldian, eta 116.900 langabe izan dira azken urte honetan. Hazkunde-erritmoak beherantz jarraitu du, eta 2007-2009 biurtekoko urteko % 69,7ko batez bestekoa eta 2009-2010 aldian izandako % 15,2koa baino txikiagoa izan da; hala ere, 2010-2011 aldian, oso maila altuetan jarraitu du, urtetik urterako % 12,3ko hazkundearekin. Langabezia-tasak sakondu egin du adierazle horrek daraman goranzko joeran; zehazki, 2009ko % 8,7tik 2011ko % 11,2ra igo da, eta azken hamar urteetako langabezia-tasarik handienara iritsi da.

16-64 urteko langabeen bilakaera. 1993-2001 aldia

(Langabezia-tasa ehunekotan, datu absolutuak eta langabeen urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa ehunekotan)

Urtea	Langabezia-tasa	Langabeak	
		Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	25,9	238.477	
1995	23,7	220.155	-3,92
1997	20,3	190.885	-6,88
1999	15,0	145.511	-12,69
2001	8,1	75.819	
2003	8,9	86.781	-12,12
2005	4,9	49.100	-24,78
2007	3,1	31.400	-20,03
2009	8,7	90.400	69,68
2010	10,0	104.100	15,15
2011	11,2	116.900	12,30

Oharra: 1999tik 2003ra bitarteko urtetik urterako hazkunde-tasa laurteko osorako ematen da, 2001eko zifrak langabeziaren/inaktibitatearen definizioan izandako aldaketa metodologikoen eragina jaso baitu.

10. 2010-2011 aldian izan den langabezia-tasaren igoera orekatua da sexuaren arabera. Adinari dagokionez, eragin desberdina du 25-34 urtekoen eta 50 urtetik gorakoen artean.

2010-2011 aldian, langabezia-tasak antzeko hazkundera izan du sexuaren arabera: % 12,4 gizonetan eta % 12,2 emakumeetan. Biztanleria aktiboan ugariago dira gizonak emakumeak baino; hori dela eta, langabezia-kopuruen hazkunde garbiaren % 56,8 gizonen dagokie, eta horrenbestez, berriro ere gizonak dira langabe gehienak, 2007-2009 aldian gertatu bezala. Joera horren ondorioz, 2011n areagotu egin da langabeziak gizonengan duen eragin diferentziala, hots, gizonen % 11,5eko langabezia-tasa dute eta emakumeek, % 10,9koa; beraz, langabe guztien % 56,4 gizonak dira. Langabeen artean, emakumeen kopurua % 194,8 igo da 2007tik 2011ra bitarte, eta gizonena, berriz, % 367,1.

Adina aldagaia aintzat hartuta, deigarria da 35 urtez azpiko biztanleriaren egoera zenbat okertu den. 2009-2010 aldian, langabezia-tasak egonkortu egin ziren, apur bat; horren ondoren, 2010-2011

aldian, langabeziak nabarmen egin du gora EAEko gazteenen artean, nahiz eta aldi horretan jarduera-tasak behera egin (oso esanguratsua izan da). Langabezia-tasa % 25,9tik % 34ra iritsi da 25 urtez azpikoen artean, eta % 12,3tik % 15,3ra, 25-34 urtekoen artean. Zenbaki absolutuei dagokienez, hazkundera proportzionalki handiagoa izan da 25-34 urteko pertsonen artean (% 17,9) 25 urtez azpikoen artean baino (% 9,7).

Bestalde, sendotu egin da 2009-2010 aldian hauteman den 50 urtetik gorako langabeziaren goranzko joera; zehazki, langabeziak eragindako pertsonen kopurua % 31,7 hazi da biurteko horretan. Nolanahi ere, langabezia-tasak ez du izan halako hazkundera; 2010ean % 6,3 izatetik 2011n % 7,8 izatera pasatu da. 35-49 urteko langabeen kopurua, berriz, egonkortu egin da; hain zuzen, 2010etik 2011ra bitartean, % 0,4 hazi da, ozta-ozta, eta 2009-2010 aldiko % 32ko hazkunderaren oso bestelakoa izan da. Langabezia-tasa % 8,8 izan da 2010ean eta 2011n.

2010-2011 aldian langabe-kopuruan izandako hazkunderaren % 88,1 25-34 urteko eta 50 urtetik gorako pertsonen bilakaerak eragin du; lehenengo taldekoek hazkunderaren % 46,4 izan dute eta bigarren taldekoek % 41,6.

Epe ertainerako ikuspegitik, bestalde, sendotu egin da adinaren eta langabe-kopuruaren hazkunderaren arteko korrelazio positiboa. Hala, 2007-2011 aldian, langabe-kopurua 5,2 aldiz handiagoa izan da 50 urtetik gorako pertsonen artean; 4 aldiz handiagoa 35-49 urtekoetan; 3,4 aldiz handiagoa 25-34 urtekoetan; eta 2,9 aldiz handiagoa 25 urtez azpikoetan. Laurtekoan izan den langabeziaren hazkunde garbiaren % 55,9 35 urtetik gorako pertsonekin lotu den arren, hazkunderaren funtsa (% 67,1) 25-49 urte arteko pertsonen dagokie (% 20,9 50 urteko edo gehiagokoei, eta % 12, ozta-ozta, 25 urtez azpikoei).

16-64 urteko langabeen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkunderaren ehunekoa 2007-2010 aldian)

Sexua eta adina	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa					2007/2011 aldiko hazkunderaren %
	2005	2007	2009	2010	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2009/2010	2010/2011	
Gizonak	23.506	14.126	53.105	58.703	65.977	-22,5	93,9	11,5	10,5	12,4	367,1
Emakumeak	25.594	17.274	37.295	45.397	50.923	-17,8	46,9	16,9	21,7	12,2	194,8
< 25 urte	8.553	5.383	14.177	14.255	15.633	-20,7	62,3	5,0	0,6	9,7	190,4
25-34 urte	19.334	11.672	34.146	33.173	39.117	-22,3	71,0	7,0	-2,8	17,9	235,1
35-49 urte	16.334	10.064	30.172	39.839	39.987	-21,5	73,2	15,1	32,0	0,4	297,3
>50 urte	4.879	4.282	11.906	16.833	22.163	-6,3	66,8	36,4	41,4	31,7	417,6
Guztira	49.100	31.400	90.400	104.100	116.900	-20,0	69,7	13,7	15,2	12,3	272,3
emakumeak (%)	52,1	55,0	41,3	43,6	43,6						
< 35 urtekoak (%)	56,8	54,3	53,5	45,6	46,8						

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
1993-2011 aldia
(%-tan)**

Sexua eta adina	Langabezia-tasa							
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gizonak	19,3	13,8	5,6	4,0	2,4	9,2	10,2	11,5
Emakumeak	36,1	29,8	11,7	6,2	4,1	8,1	9,7	10,9
< 25 urte	56,2	42,0	17,8	11,0	8,0	22,7	25,9	34,0
25-34 urte	30,2	24,6	10,2	6,5	4,1	12,2	12,3	15,3
35-49 urte	16,4	14,4	6,2	4,0	2,4	6,7	8,8	8,8
>50 urte	9,3	8,8	3,5	2,3	1,9	4,8	6,3	7,8
Guztira	25,9	20,3	8,1	4,9	3,1	8,7	10,0	11,2

35 urtetik gorako langabezia-tasak askoz ere txikiagoak dira, oraindik ere, langabeziak bereziki eragin dituen gazte taldeenak baino. Nolanahi ere, 2010ean hautemandako aldaketa kualitatiboa berretsi da 2011n; hau da, 35 urtetik gorako langabeen nagusitasun argia. 2011ko langabeen % 53,2 izan dira, eta talde horren baitan, geroz eta ugariago dira 45 urtetik gorako pertsonak; 2007an eta 2009an langabeen % 22 eta % 22,5 izatetik 2010ean % 25,7 eta 2011n % 27,8 izatera pasatu dira.

2009ko % 62,4tik behera egin arren, adierazi beharra dago langabezia-egoera gehienak 25-44 urteko pertsonengan biltzen direla (guztien % 58,8). Erreferentziazko proportzioa % 79,8ra iritsi da 20-49 urtekoen taldea kontuan hartzen bada; 16-19 urteko langabeak, berriz, % 1,2 dira, eta 50 urtetik gorakoak % 19. Edonola ere, 2011n, nabarmen egin du gora azken talde horren proportzioak 2007ko, 2009ko eta 2010eko zifrekin alderatuta (% 13,2, % 13,6 eta % 16,2, hurrenez hurren).

**16-64 urteko langabeen bilakaera, adinaren arabera (bost urteko taldeak)
2001-2011 aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	Kopuru absolutuak											
	2001		2003		2005		2007		2009		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
16-19	2.616	3,4	2.483	2,9	1.342	2,7	589	1,9	1.238	1,4	1.420	1,2
20-24	13.955	18,4	17.440	20,1	7.210	14,7	4.794	15,3	12.938	14,3	14.213	12,2
25-29	17.598	23,2	20.578	23,7	11.259	22,9	6.358	20,2	15.773	17,4	18.639	15,9
30-34	12.216	16,1	12.212	14,1	8.075	16,4	5.314	16,9	18.373	20,3	20.478	17,5
35-39	9.801	12,9	10.283	11,8	7.305	14,9	3.683	11,7	13.668	15,1	15.073	12,9
40-44	8.148	10,7	9.961	11,5	5.113	10,4	3.592	11,4	8.551	9,5	14.534	12,4
45-49	5.115	6,7	5.422	6,2	3.915	8,0	2.788	8,9	7.953	8,8	10.380	8,9
50-54	3.583	4,7	4.856	5,6	2.317	4,7	2.458	7,8	6.327	7,0	12.894	11,0
55-59	2.506	3,3	2.477	2,9	2.022	4,1	1.240	3,9	4.217	4,7	6.505	5,6
60-64	282	,4	1.068	1,2	541	1,1	584	1,9	1.362	1,5	2.765	2,4
Guztira	75.819	100	86.781	100	49.100	100	31.400	100	90.400	100	116.900	100

11. 2009-2011 biurtekoan, langabeziaren zifrek bilakaera desberdina izan dute eskualdearen arabera. Joera okerrena Bilbok izan du; EAE osotik, eskualde horretan soilik izan dira langabe-kopuruaren hazkunde-erritmoak % 25etik gorakoak aztertutako biurtekoan. 2011n ere, Bilbo izan da langabe gehien duen Euskadiko eskualdea; urtebete lehenago ere leku horretan zegoen. Zehazki, Bilboko langabezia-tasa % 9,5 izan zen 2009an, % 12,2 2010ean eta % 16,4 2011n.

Hala ere, 2010-2011 aldian, langabezia-datu txarrenak Bizkaiko beste hiru eskualdetan izan dira: Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Hain zuzen, 2009-2010 aldian, langabezia EAEko batez bestekoa baino gutxiago hazi zen eskualde horietan (Durangaldean, jaitsiera ere gertatu zen); 2010-2011 aldian, ordea, langabe-kopurua % 50,6 eta % 60,2 artean hazi da. Bilakaera horren ondorioz, Ezkerraldea Bilboko langabezia-mailetara hurbildu da; zehazki, eskualde horretako langabezia-tasa 2009-2010 aldian % 10,6 izan zen 2009an, % 11 2010ean eta % 16,2 2011n. Beste bi eskualdeetan, berriz, langabezia-tasak hazi egin dira: 2009-2010 aldian % 7,7 eta % 8,9 artekoak ziren, eta 2011n, % 11,7ko tasa izan da Durangaldean eta % 13,2koa, Bizkaia-Kostan.

Hiru eskualde horietan gertatu den langabe-kopuruaren hazkundera erabakigarria izan da 2010-2011 aldian era horretako hazkundera izan duten eskualdeetako langabezia-tasa garbia handitzeko. Beraz, fenomeno horren goranzko joera duten eskualdeetako langabezia-hazkunderaren % 45,7 Ezkerraldean gertatu da, aldi horretan; beste % 29,9 Bilbon, eta beste % 24,1 Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Lau eskualde horietan, fenomenoaren goranzko joera duten eskualdeetako langabezia garbiaren hazkunderaren % 99,7 bildu dute. Gainerako % 0,3 Debagoienari dagokio.

2010etik 2011ra bitartean, Bizkaiko lau eskualde horietako langabe-kopuru absolutuetan izan den mugimendua ez dator bat Debagoienean izan den hazkunde neurritsuarekin (% +4,1); azken horretan, hain zuzen, langabezia-tasa hiru hamarren baino ez da hazi (% 5,9tik % 6,2ra). Aldea are eta handiagoa da Euskadiko gainerako eskualdeetan (Gasteiz, Aiaraldea, Eskuinaldea, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena) gertatu diren % 10 inguruko edo gehiagoko jaitsierekin alderatuz. Eskualde horietan, langabe-kopuruaren jaitsierarekin batera, langabezia-tasak ere behera egin du; horrela, 2010era arte izandako hazkunde-joera eten du, nabarmen. Debabarrenean soilik aurreratu zen joera-aldaketa hori; zehazki, langabe-kopurua murriztuz joan da, etengabe, 2009. urtetik (2009an % 9,3 izatetik, 2011n % 6,5 izatera iritsi arte). 2010-2011 aldian izandako hobekuntzaren ondorioz, halaber, 2011ko langabezia-tasa 2009koa baino txikiagoa izan da Gasteizen eta Aiaraldean; Tolosa-Goierri, berriz, 2009ko maila lortu da berriro 2011n.

Aipatutako eremu geografiko horietako langabezian izan den bilakaera positiboaren ondorioz, eskualdeen polarizazio nabarmena izan da langabezia-inpaktuari dagokionez. Bizkaiko eskualde gehienetan, langabezia-tasak % 11,7 eta % 16,4 artekoak dira; Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Deba haraneko bi eskualdeetan, berriz, % 5,6 eta % 6,5 arteko mailak daude. Gasteiz eta Eskuinaldea, bestalde, egoera onena duen aldetik gertu daude; % 7,5 inguruko langabezia-tasak

dituzte. Erdialdean, berriz, eskualdeko langabezia-sailkapeneko leku onenetatik gertuago, Donostialdea dago; bertako langabezia-tasa % 9koa da.

2007-2011 laurtekoaren testuinguruan, azken aldiaren diren hazkundeak direla eta, Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea krisi-garaian langabe-kopuruaren hazkundeak gehien eragin dituen eskualdeak izan dira. Eskualde horietan, 2011ko langabezia-tasa 4,7-6,5 aldiz handiagoa izan da 2007koa baino. Durangaldean, bereziki indartsua izan zen 2007-2009 aldiko jaitsiera, industria-eragin handiko eremuak zirela eta. Beraz, eskualde horretan salbu, erabakigarria izan da 2009-2011 aldiko beherakadak laurtekoko langabezia-hazkundera izandako eragina; zehazki, Ezkerraldean, % 45,8koa izan da eta Bizkaia-Kostan % 53,8koa.

Debagoienean, langabezia 4,4 aldiz handiagoa izan da 2007tik 2011ra bitartean, baina kopuru oso txikitatik abiatuta; Euskadiko gainerako eskualde gehienetan, berriz, langabezia 3,3-3,8 aldiz handiagoa izan da, eta apur bat txikiagoa Eskuinaldean eta Debabarrenean (1,8 aldiz eta 2,6 aldiz handiagoak, hurrenez hurren). Oro har, langabeziaren hazkundera 2007-2009 aldiari lotuta dago. Hala ere, 2009-2011 biurtekoak, Ezkerraldean eta Donostialdean % 24-34,5eko eragina izan du, eta eragin hori, oso osorik, 2009-2010 aldiari dago lotuta; izan ere, 2010etik 2011ra, langabeziak behera egin du. Salbuespen bakarra Bilbo da, eskualde horrek 2009-2011 aldiaren laurtekoaren hazkunde garbiari egin dion ekarpena % 58,7ra iristen baita.

Aipagarria da 2007-2011 aldiaren langabeziak izan duen eragina oso bestelakoa izan dela krisiaren lehenengo urteetan izandakoarekin alderatuz; hain zuzen, industria-jarduera handiko eremuetan, oro har, batez bestekoa baino askoz ere hazkunde handiagoak izan dira (Arabako bi eskualdeetan, Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Deba haraneko bi eskualdeetan). Eskualde horietatik, Debagoienak soilik jarraitzen du 2007-2011 laurtekoan langabeziaren hazkunde erlatiboak gehien eragindako eskualdeen artean.

Errealitate hori, halaber, ez dator bat EAEko hiri-eskualde handietako langabezia-tasen bateratze-prozesuarekin; 2010. urtean, % 10 eta % 12 ingurukoak izango zirela zirudien, oso maila altuak, beraz. 2010-2011 aldiaren, Gasteizko, Eskuinaldeko eta Donostialdeko langabezia-kopuruak behera egin dute, eta aldiz, Ezkerraldeko eta Bilboko kopuruak hazi egin dira; hala, langabezia-tasen polarizazio nabarmena gertatu da, 90eko urteen ezaugarri nagusi izan zena. Horrenbestez, hainbat eskualdek osatutako lehen taldean, % 7,4 eta % 9 arteko kopuruak izan dituzte; aldiz, Bilbon eta Ezkerraldean, % 16,2 eta % 16,5 arteko langabezia-tasak izan dira 2011n.

2011n ere, gutxien hiritartutako Euskadiko eskualdeak faktore horren inguruan polarizatu dira. Horrenbestez, Araban eta Gipuzkoan gutxien hiritartutako eskualdeetan (Aiaraldea, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debabarrena), % 5,6tik % 6,5era arteko langabezia-tasak izan dira; aldiz, Durangaldean eta Bizkaia-Kosta eskualdean, % 11,7 eta % 13,2 arteko langabezia-tasak izan dira. Dena den, langabeziaren % 80,7 EAEko bost hiri-eskualde handietan biltzen da.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera
2005-2011 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa					2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2010	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2009/2010	2010/2011	
Gasteiz	3.033	2.673	15.084	15.128	9.853	-6,1	137,5	-19,2	0,3	-34,9	268,6
Aiaraldea	667	327	1.316	1.372	1.247	-30,0	100,7	-2,7	4,2	-9,2	281,5
Eskuinaldea	4.825	3.186	4.822	7.874	5.682	-18,7	23,0	8,5	63,3	-27,8	78,3
Bilbo	11.217	7.687	15.686	20.169	27.070	-17,2	42,8	31,4	28,6	34,2	252,1
Ezkerraldea	13.088	6.666	20.051	20.810	31.351	-28,6	73,4	25,0	3,8	50,6	370,3
Bizkaia-Kosta	3.197	1.685	4.567	4.948	7.927	-27,4	64,6	31,8	8,4	60,2	370,5
Durantaldea	2.374	1.075	5.074	4.398	6.971	-32,7	117,2	17,2	-13,3	58,5	548,3
Donostialdea	8.137	6.225	17.002	22.336	20.420	-12,5	65,3	9,6	31,4	-8,6	228,0
Tolosa-Goierrri	1.275	856	2.921	3.306	2.948	-18,1	84,8	0,4	13,2	-10,9	244,5
Debagoiena	637	415	1.601	1.771	1.844	-19,3	96,5	7,3	10,6	4,1	344,6
Debarrena	651	605	2.275	1.986	1.589	-3,6	94,0	-16,4	-12,7	-20,0	162,8
Guztira	49.100	31.400	90.400	104.100	116.900	-20,0	69,7	13,7	15,2	12,3	272,3

**16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, eskualdearen arabera.
1993-2011 aldia
(%-tan)**

Eskualdea	Langabezia-tasa								
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011	
Gasteiz	21,2	15,3	5,8	2,4	2,1	10,8	11,0	7,5	
Aiaraldea	26,2	17,7	5,7	3,4	1,6	6,4	6,5	5,9	
Eskuinaldea	25,6	21,5	8,9	6,3	4,2	6,4	10,1	7,4	
Bilbo	28,9	25,6	13,1	7,2	4,9	9,5	12,2	16,4	
Ezkerraldea	32,0	25,9	9,0	7,3	3,8	10,6	11,0	16,2	
Bizkaia-Kosta	22,0	17,0	6,5	5,9	3,0	7,8	8,6	13,2	
Durantaldea	24,8	18,3	7,6	4,4	1,9	8,9	7,7	11,7	
Donostialdea	23,2	18,5	7,1	3,7	2,8	7,5	9,8	9,0	
Tolosa-Goierrri	23,4	14,8	5,8	2,4	1,6	5,6	6,2	5,6	
Debagoiena	22,7	9,7	3,7	2,0	1,4	5,5	5,9	6,2	
Debarrena	23,2	17,7	4,5	2,7	2,5	9,3	8,2	6,5	
Guztira	25,9	20,3	8,1	4,9	3,1	8,7	10,0	11,2	

12.2010-2011 aldian, langabeziaren goranzko joera hauteman da Bizkaiko eskualdeetan, Eskuinaldean salbu; joera horrek gizonei nahiz emakumeei eragin die, baina eragin desberdina izan du sexuaren arabera. Horrela, egiaztatu da emakumeen langabezia gehiago hazi dela, konparatiboki, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kosta eskualdean; horren ondorioz, lehenengoan, langabezia-tasek berdintzera egin dute (% 15,3 emakumeen artean eta % 16,9 gizonen artean), eta bigarreanean, emakumeen tasak berriro ere handiagoak izan dira 2011n (% 14,7 emakumeak eta % 11,9 gizonak).

Dena den, Bilbon eta Durangaldean gehiago hazi da gizonen langabezia 2010etik 2011ra bitartean. Durangaldean, joera horren ondorioz, gehiago gerturatu dira gizonen eta emakumeen langabezia-tasak (% 11,5 eta % 11,9, hurrenez hurren). Bilbon, berriz, areagotu egin da langabezia-mailetan aurrez zegoen desfasea; hala, langabezia-tasa % 18,8 izan da gizonen artean, eta % 13,7, emakumeen artean. Debagoiena dugu 2007-2011 aldian langabeziak hazten jarraitu duen beste eskualdeetako bat; Durangaldekoaren antzeko bilakaera izan du, gizonen langabezia-tasa handitu egin baita, % 4,6tik % 5,2ra. Testuingurua, ordea, ez da berdina izan, emakumeen langabezia-tasak apur bat behera egin baitu; hala ere, gizonena baino askoz ere handiagoa izaten jarraitzen du (% 7,3 2011n).

Halaber, desberdintasunak hauteman dira generoaren bilakaeraren arabera 2010-2011 aldian langabezia gutxitu den eskualdeetan. Emakumeetan beherakada nabarmenagoa izan da Gasteizen eta, bereziki, Eskuinaldean. Arabako eskualdean, 2011ko emakumeen langabezia-tasa are gehiago urrundu da gizonen tasatik (% 6 eta % 8,6, hurrenez hurren); aldiz, Eskuinaldean, 2010ean emakumeen langabeziak izan zuen eragin handiagoari buelta eman zaio, eta 2011n, gizonen tasa baino txikiagoa izan da emakumeena (% 7,2 emakumeek eta % 7,7 gizonek). Bestalde, Debabarrenean, langabezia-tasaren beherakada handiagoa izan da gizonen taldean. Aiaraldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin, berriz, emakumeen tasa handitu egin da; 4 hamarren eta % 1 artean, zehazki. 2010ean, gizonen langabezia-tasak emakumeena gainditzen zuen lau eskualde horietan; 2011n, berriz, egoerak buelta eman du, eta emakumeen langabezia-tasa handiagoa da. Donostialdea da kasurik deigarriena: bertako gizonen langabezia-tasa % 10,1etik % 8,2ra jaitsi da, eta aldiz, emakumeena % 9,4tik % 10era igo da; hortaz, 2010ean emakumeen aldeko zazpi hamarreneko saldoa izatetik, 2011n gizonen aldeko 1,8ko saldoa izatera pasatu da.

Kasu gehienetan, 2010-2011 aldian hautemandako aldaketek langabeziaren beherakadaren eta gizonen egoera hobetzearen arteko lotura erakusten dute; aldiz, emakumeen tasak okerrera egitearen ondorioz, hainbat eskualdetan (adibidez, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan) langabezia orokorra hazi egin da. Eskema horretatik kanpo geratzen diren bakarrak Bilbo eta Durangaldea dira, gizonen langabeziaren hazkundeak eragin erabakigarria izan baitu. Bi eskualde horien bilakaerak EAEen 2007-2009 aldian izandako langabeziaren hazkunde-dinamikarekin du lotura, gizonen langabezia ugartzeak eragindakoa, hain zuzen.

2011n, langabe guztien taldean emakumeek duten garrantzia % 45 eta % 55 artekoa izan da, gutxien hiritartutako eskualde gehienetan (Aiaraldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea, Tolosa-Goierrin eta Debagoiengan) eta Donostialdean. Proporzio hori % 42 eta % 44 artekoa da Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Debabarrenean. Gasteizen eta Bilbon, berriz, % 40ren azpitik dago.

¹⁰ 2010-2011 aldian, emakumeen langabezia-tasak beherakada handia izan du Eskuinaldean eta, bereziki, Gasteizen; beherakada horren atzean, ordea, 2009-2010 aldian emakumeen langabezia izandako hazkunde diferentziala ezkututzen da. Horrela, gizonen langabezia-tasaren beherakada handiagoa egiaztatu da Gasteizen 2009-2011 aldian (% -4,1 gizonen langabezia-tasan eta % -2,6 emakumeengan); ildo horretan, Eskuinaldean, 2011ko gizonen langabezia-tasa 2009koa baino lau hamarren handiagoa izan da, eta emakumeena, % 1,8 handiagoa).

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta eskualdeen arabera
2007-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	Gizonak				Emakumeak			
	2007	2009	2010	2011	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	2,0	12,7	11,6	8,6	2,2	8,5	10,3	6,0
Aiaraldea	1,2	5,7	6,8	5,4	2,2	7,5	6,2	6,6
Eskuinaldea	3,2	7,3	8,6	7,7	5,5	5,3	12,0	7,2
Bilbo	3,5	10,1	12,4	18,8	6,7	8,8	11,9	13,7
Ezkerraldea	3,0	10,6	12,1	16,9	4,9	10,7	9,7	15,3
Bizkaia-Kosta	2,3	8,2	8,7	11,9	3,9	7,2	8,3	14,7
Durungaldea	1,0	9,0	6,9	11,5	3,2	8,8	8,8	11,9
Donostialdea	2,5	8,1	10,1	8,2	3,2	6,7	9,4	10,0
Tolosa-Goierri	1,3	4,9	6,7	5,0	2,1	6,7	5,5	6,4
Debagoiena	,7	4,8	4,6	5,2	2,3	6,4	7,5	7,3
Debarrena	1,1	9,1	8,5	6,4	4,6	9,5	7,8	6,5
Guztira	2,4	9,2	10,2	11,5	4,1	8,1	9,7	10,9

Emakumeek 16-64 urteko langabeen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdeen arabera
2007-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	42,5	35,1	41,6	34,9
Aiaraldea	56,8	48,0	36,9	45,4
Eskuinaldea	56,6	37,8	53,3	43,9
Bilbo	60,0	42,6	46,4	39,4
Ezkerraldea	53,5	43,5	38,3	42,0
Bizkaia-Kosta	55,1	39,9	41,7	49,7
Durungaldea	69,2	42,4	50,0	46,6
Donostialdea	49,9	40,2	43,3	50,3
Tolosa-Goierri	53,9	49,7	38,2	49,3
Debagoiena	73,1	53,8	58,5	54,4
Debarrena	71,6	44,1	41,4	43,4
Guztira	55,0	41,3	43,6	43,6

13.2009-2011 aldian, langabezia-tasaren bilakaera ere adinaren araberako langabezia-tasetan izandako aldaketekin dago lotuta. Erreferentziako biurtekoan langabezia-tasa jaitsi den eremuei (Gasteiz, Aiaraaldea, Tolosa-Goierri eta Debarrena) edo tasa horretan % 1 baino hazkunde txikiagoa izan duten eskualdeei (Debagoiena) dagokienez, eskualde horiek gainerakoetatik erabat bereizten dituen ezaugarrietako bat aipatu behar da, hots: 35 urtez azpikoen langabezia-tasan izandako jaitsiera ia orokorra (Aiaraldeko 25-34 urteko taldean salbu).

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera

2007-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			>50 urte		
	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011
Gasteiz	6,6	26,8	24,1	1,8	15,9	15,5	1,8	8,7	5,1	1,6	4,1	1,2
Aiaraldea	3,1	25,8	7,2	1,8	8,1	12,5	1,8	5,1	3,5	,4	2,0	1,4
Eskuinaldea	12,4	15,7	25,6	6,4	7,7	9,0	2,9	5,6	5,9	1,1	4,0	5,6
Bilbo	8,1	20,7	41,0	6,7	13,9	18,5	4,1	7,4	14,5	3,3	5,1	14,0
Ezkerraldea	9,0	27,9	46,8	4,6	12,0	19,1	2,5	8,9	13,7	3,2	7,5	11,6
Bizkaia-Kosta	13,3	23,3	42,9	4,8	12,8	19,2	1,8	5,9	9,6	,7	3,2	8,8
Durangaldea	4,0	14,1	27,6	1,9	15,5	15,3	1,7	6,5	6,3	1,8	5,5	14,2
Donostialdea	6,2	20,1	33,9	3,9	10,5	13,8	2,1	5,6	6,5	1,5	4,4	5,2
Tolosa-Goierrri	10,9	23,6	22,6	1,1	8,8	7,3	,7	2,5	4,3	,9	2,9	2,7
Debagoiena	5,8	24,5	21,9	2,3	11,6	8,6	,8	1,9	5,1	,0	3,4	3,7
Debarrena	8,1	26,0	16,2	4,2	14,2	13,4	,7	8,4	4,6	1,4	1,8	2,1
Guztira	8,0	22,7	34,0	4,1	12,2	15,3	2,4	6,7	8,8	1,9	4,8	7,8

Bestalde, 2009tik 2011ra bitartean langabezia % 5etik gora hazi den eskualdeei dagokienez (Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaia-Kosta), langabezia-tasen hazkundera orokorra izan da adin-talde guztietan, EAEn oro har hautemandakoa baino nabarmen handiagoa. Aldi horretan langabeziaren hazkunde txikiagoa –% 1,1etik % 2,8ra bitartekoa– izan den eskualdeetan (Eskuinaldea, Durangaldea eta Donostialdea), ez da hazkunde diferentzial horren agerpenik; hala, EAeko batez besteko hazkundera 25 urtez azpikoen taldean soilik gainditu da. Gainerakoetan, langabezia-tasen hazkundera EAeko batez bestekoaren ingurukoa eta, askotan, txikiagoa da; salbuespen nabarmen bakarra dago: Durangaldean 50 urtetik gorako langabezia-tasan 2009-2011 aldian izan den hazkunde handia.

Eskualdeari dagokionez, hauteman diren aldaketak bateragarriak dira, oro har, biztanleria langabe guztia aintzat hartuta 35 urtez azpiko pertsonen taldeari dagokion beheranzko joerarekin; joera hori, batez ere, 2009-2010 aldian hauteman da. Bestalde, 2010etik 2011ra bitartean gazteen langabezia-tasan izan den beherakadaren ondorioz, gutxitu egin da 35 urtez azpiko langabeek Gasteizen, Aiaraldean eta Debabarrenean 2009-2011 aldian izan duten garrantzi erlatiboa. Langabe guztien artean gazteek garrantzia galtzeko duten joera argiagoa izan da 2007-2009 alditik aurrera Bizkaiko eskualde gehienetan (Bizkaia-Kostan salbu) eta Debagoienean. Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Tolosa-Goierri, 2011n 35 urtez azpikoen ehunekoa 2009an baino txikiagoa izan arren, talde horren garrantzia handitu egin da 2010-2011 aldian.

35 urtetik beherakoek 16-64 urteko langabeen kopuruan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2011 aldian
(%-tan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	46,9	56,8	41,2	65,8
Aiaraldea	44,5	58,3	52,1	68,6
Eskuinaldea	65,9	47,2	54,2	44,4
Bilbo	47,1	54,4	44,8	36,5
Ezkerraldea	53,1	47,6	47,1	44,4
Bizkaia-Kosta	69,9	55,3	41,6	51,0
Durangaldea	41,5	51,7	41,8	42,2
Donostialdea	54,8	53,5	44,5	52,3
Tolosa-Goierri	69,7	68,3	48,7	53,9
Debagoiena	75,4	68,3	54,3	47,4
Debabarrena	74,5	56,9	49,4	59,0
Guztira	54,3	53,5	45,6	46,8

14. Bestalde, langabezia-tasak eskualdearen, sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, EAEn langabezia handiko oso gune esanguratsuak daudela ikus daiteke.

Sexuaren arabera, langabezia-tasak % 14 ingurukoak edo handiagoak dira Bilbon eta Ezkerraldean, bai gizonetan bai emakumeetan. Bizkaia-Kosta eskualdean eta Durangaldean ere, % 10eko mailak gainditu dira bi sexuetan; zehazki, Bizkaia-Kostako emakumeen langabezia-tasa Bilborako eta Ezkerralderako adierazitako mailalara iritsi da. Donostialdeari dagokionez, emakumeen langabezia-tasa % 10era iritsi da, eta gizonena, % 8,2ra; Gasteizko gizonen langabezia-tasa, berriz, % 8,6ra iritsi da.

Adinari dagokionez, Aiaraldean eta Debabarrenean salbu, Euskadiko gainerako eskualdeetan, 25 urtez azpikoen langabezia-tasa % 20tik gorakoa da. Tasa hori % 33,9ra iristen da Donostialdean, % 41etik % 42,9ra bitarteko kopuruetera Bilbon eta Bizkaia-Kostan, eta gehienezko % 46,8ra Ezkerraldean.

Arazo horrek jarduerarekin askoz lotura handiagoa duen talde bati eragin diola aintzat hartuta, aurreko kopuruak bezain kezagarria da egiaztatzea % 10etik gorakoak direla 25-34 urtekoen langabezia-tasak, Euskadiko eskualde gehienetan. Zifra txikiagoak Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean baino ez dira lortu (% 9, % 7,3 eta % 8,6, hurrenez hurren). 25-34 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasari dagokionez, % 12,5 eta % 13,8 artekoa da Aiaraldean, Donostialdean eta Debabarrenean; bestalde, Gasteizen eta Bizkaiko eskualde gehienetan (Eskuinaldean salbu), % 15etik gorako langabezia-tasa dago. 25 urtez azpikoekin gertatu bezala, gehienezko kopuruak Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan izan dira; hain zuzen, % 18,5etik % 19,2ra bitarteko tasak dituzte.

35 urtetik 49 urtera bitarteko pertsoneri dagokienez, langabezia-adierazlea % 6,5ekoa edo txikiagoa da EAeko eskualde gehienetan. Joera horretatik urrun daude, ordea, Bizkaia-Kosta eskualdea, % 9,6rekin, eta, bereziki egoera larrian, Ezkerraldea eta Bilbo. Bi eskualde horietan, adin-talde horretako pertsonen langabezia-tasak % 13,7 eta % 14,5 dira, hurrenez hurren.

Oro har, langabezia-tasak % 5,5 ingurukoak edo hortik beherakoak dira; 50 urteko edo gehiagoko pertsonen artean, ordea, langabezia-tasa % 7,5etik gorakoa da Bizkaiko eskualdeetan, Eskuinaldean izan ezik. Adierazlea % 8,8koa da Bizkaia-Kostan; Ezkerraldean, % 11,6ra iristen da, eta % 14 inguruko gehienezkoak daude Bilbon eta Durangaldean.

2.2. Langabezian emandako denbora eta enpleguan izandako esperientzia

15.2007-2009 aldian ez bezala, langabeziak 2009-2011 aldian izan duen gorakada iraupenik luzeeneko langabezian oinarritu da nagusiki, eta hori oso garrantzitsua da. Hau da, biurtekoan, urteko % 6,9ko jaitsiera izan da, batez beste, epe laburreko langabezian (urtebete baino gutxiagokoa); aldiz, iraupen luzeko langabezia urteko % 48ko erritmoan hazi da, batez beste. Hazkunde handiena bi urte baino iraupen luzeagoko langabezian gertatu da, urteko % 77,3ko hazkundera izan baita, batez beste (% 26,3koa urtebetetik bi urtera arteko langabezia-kasuetan).

Testuinguru horretan, iraupen luzeko langabeziaren garrantziaren joera gorantz finkatu da EAEn; horrela, aldaketa-prozesu hori 2010etik hauteman den fenomeno nagusitzat indartu da. 2011n, langabeen % 56k urtebete edo gehiago darama lanik gabe, eta 2009an % 33 ziren, ozta-ozta (% 51,9 2010ean). Oso iraupen luzeko langabezia (bi urtetik gorakoa), halaber, nabarmen hazi da, 2009an % 12,7 izatetik 2010ean % 23,3 izatera eta 2011n % 31 izatera pasatu baita.

Bestalde, faktore positibotzat, aipatu behar da langabezia-mota kronikoenen hazkunde-erritmoa asko moteldu dela azken urtean; izan ere, 2009-2010 aldian % 80,9koa izatetik 2010-2011 aldian % 21,1ekoa izatera pasatu da (% 110,3tik % 49,4ra oso iraupen luzeko langabeziari dagokionez). Bestalde, iraupen laburreko langabeziak ere gorantz egin du apur bat; 2010-2011 aldian, % 2,8 egin du gora, 2009-2010 aldian % 15,7 jaitsi ondoren.

16-64 urteko langabeen bilakaera, langabezian emandako denboraren arabera 2005-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Langabezian emandako denbora	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa					2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2010	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2009/2011	2010/2011	
< urte bat	32.392	19.776	59.179	49.875	51.285	-21,9	73,0	-6,9	-15,7	2,8	159,3
> urte bat	16.708	11.554	29.852	54.013	65.418	-16,8	60,7	48,0	80,9	21,1	466,2
1-2 urte	9.114	6.264	18.335	29.795	29.233	-17,1	71,1	26,3	62,5	-1,9	366,7
> 2 urte	7.594	5.290	11.516	24.217	36.185	-16,5	47,6	77,3	110,3	49,4	584,1
<i>Ez dago lanerako prest</i>	0	70	1.369	213	197						
Guztira	49.100	31.400	90.400	104.100	116.900	-20,0	69,7	13,7	15,2	12,3	272,3
ILL (%)	34,0	36,8	33,0	51,9	56,0						
OILL (%)	15,5	16,8	12,7	23,3	31,0						

2007tik 2011ra bitartean, oso iraupen luzeko langabeen kopurua 5,7 aldiz handiagoa izan da EAEn. Gasteizi dagokionez, langabe-kopurua 5,1 aldiz handiagoa izan da; eta Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean, Donostialdean, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan, 6 aldiz handiagoa. Halako eragina izan ez duten eremuei dagokienez, iraupen luzeko langabezia 4,2 aldiz handiagoa izan da Bilbon, 4 aldiz handiagoa Deban eta 3,7 aldiz handiagoa Aiaraldean. Dimentsio horretan

egoera onean dagoela dirudien arren, Eskuinaldean 2,3 aldiz handiagoa izan da iraupen luzeko langabeen kopurua erreferentziako aldian.

Azken aldiko bilakaera garrantzitsua izan da; hain zuzen, 2009-2011 aldian –2007-2009 aldiarekin alderatuz– nabarmen moteldu da era horretako langabeziaren hazkunde-erritmoa eskualde gehienetan. Halere, hiru salbuespen daude: Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaia-Kosta. Eskualde horietan, 2009-2011 aldiko iraupen luzeko langabeziaren hazkunde-erritmoa 2007-2009 aldian izandakoen antzekoa edo apur bat handiagoa izan da. Gainerako eskualdeetan, urteko gehieneko hazkundera % 38,5ekoa izan da, batez beste; aipatutako hiru eskualde horietan, aldiz, iraupen luzeko langabezia urteko % 63,3tik % 106,7ra arteko erritmoan hazi da, batez beste, 2009-2011 aldian.

Aiaraldea salbuespentzat hartuz (fenomeno horrek langabeen % 37,5i eragin dio 2011n), gainerako eskualdeetan iraupen luzeko langabeziaren garrantzia % 45etik gorakoa izan da. Langabezia guztiaren % 50 eta % 60 artekoa izan da Gasteizen, Bilbo inguruko hiru eskualdeetan, Donostialdean eta Debabarrenean. Bestalde, % 60tik gorako mailetara iritsi da Debagoienean eta Bizkaia-Kostan, % 62,8 eta % 67,3 izan dute, hurrenez hurren.

Oso iraupen luzeko langabeziari dagokionez, inpakturik txikiak % 19,7 eta % 24,2 artekoak izan dira, Arabako eskualdeetan, Tolosa-Goierri, Debagoienean eta Debabarrenean. Proportzioa % 27,6tik % 31,3 artekoa izan da Eskuinaldean, Ezkerraldean, Durangaldean eta Donostialdean. Azkenik, mailarik altuenak Bilbon eta Bizkaia-Kostan izan dira, % 34,9 eta % 42,8, hurrenez hurren.

16-64 urteko iraupen laburreko langabeen (langabezian urtebete baino gutxiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2011 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa			2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	
Gasteiz	2.168	1.494	10.410	3.945	-17,0	164,0	-38,4	164,1
Aiaraldea	447	199	916	779	-33,2	114,4	-7,8	290,8
Eskuinaldea	3.072	1.874	2.762	2.770	-21,9	21,4	0,2	47,9
Bilbo	7.361	4.081	10.160	11.973	-25,5	57,8	8,6	193,4
Ezkerraldea	8.462	4.211	13.307	13.163	-29,5	77,8	-0,5	212,6
Bizkaia-Kosta	2.707	1.327	3.202	2.593	-30,0	55,4	-10,0	95,4
Durangaldea	1.550	707	2.640	3.568	-32,5	93,3	16,2	404,8
Donostialdea	4.839	4.521	11.017	9.487	-3,3	56,1	-7,2	109,8
Tolosa-Goierri	863	655	2.065	1.547	-12,9	77,5	-13,5	136,0
Debagoiena	452	307	975	685	-17,6	78,2	-16,1	123,2
Debabarrena	471	400	1.725	774	-7,8	107,7	-33,0	93,7
Guztira	32.392	19.776	59.179	51.285	-21,9	73,0	-6,9	159,3

16-64 urteko iraupen luzeko langabeen (langabezian urtebete baino gehiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2011 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa			2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2011	2007/2005	2009/2007	2011/2009	
Gasteiz	865	1.179	3.686	5.908	16,8	76,8	26,6	401,0
Aiaraldea	219	127	366	467	-23,8	69,5	13,0	267,0
Eskuinaldea	1.753	1.243	2.050	2.911	-15,8	28,4	19,2	134,2
Bilbo	3.856	3.607	5.527	15.098	-3,3	23,8	65,3	318,6
Ezkerraldea	4.626	2.455	6.744	17.990	-27,2	65,7	63,3	632,9
Bizkaia-Kosta	490	358	1.248	5.334	-14,5	86,7	106,7	1.389,3
Durangaldea	825	368	2.434	3.403	-33,2	157,0	18,2	823,6
Donostialdea	3.298	1.704	5.891	10.932	-28,1	86,0	36,2	541,7
Tolosa-Goierrri	412	200	730	1.401	-30,3	90,9	38,5	599,8
Debagoiena	184	108	626	1.158	-23,6	141,3	36,0	976,7
Debarrena	180	205	550	815	6,8	63,9	21,7	297,7
Guztira	16.708	11.554	29.852	65.418	-16,8	60,7	48,0	466,2

Iraupen luzeko langabeen (langabezian urtebete baino gehiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	60,4	54,7	39,1	28,5	44,1	24,4	42,3	60,0
Aiaraldea	70,9	54,5	47,0	32,9	39,0	27,8	54,7	37,5
Eskuinaldea	65,4	61,6	37,7	36,3	39,0	42,5	43,6	51,2
Bilbo	62,5	66,1	48,9	34,4	46,9	35,2	65,2	55,8
Ezkerraldea	64,6	65,7	46,6	35,3	36,8	33,6	49,0	57,4
Bizkaia-Kosta	58,1	61,7	53,0	15,3	21,3	27,3	42,6	67,3
Durangaldea	67,1	66,6	41,6	34,7	34,3	48,0	49,7	48,8
Donostialdea	58,1	62,0	45,0	40,5	27,4	34,6	55,7	53,5
Tolosa-Goierrri	59,4	58,6	41,6	32,3	23,4	25,0	57,2	47,5
Debagoiena	67,2	58,2	41,7	29,0	25,9	39,1	30,4	62,8
Debarrena	70,3	72,5	61,3	27,6	33,9	24,2	46,6	51,3
Guztira	62,5	63,1	45,4	34,0	36,8	33,0	51,9	56,0

Oso iraupen luzeko langabeen (langabezian bi urte edo gehiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	36,1	36,2	21,1	12,7	20,5	7,9	15,2	22,2
Aiaraldea	41,0	35,0	17,6	22,7	8,2	8,8	28,6	19,7
Eskuinaldea	36,9	39,3	19,2	19,3	7,5	17,0	23,3	30,7
Bilbo	41,3	47,2	30,7	15,6	28,3	16,4	34,1	34,9
Ezkerraldea	44,2	42,3	24,7	18,3	13,8	13,0	18,6	29,9
Bizkaia-Kosta	37,8	37,6	28,7	2,4	4,7	7,1	20,3	42,8
Durangaldea	47,6	50,5	23,4	15,5	21,0	17,5	21,6	27,6
Donostialdea	33,0	41,7	27,8	15,3	13,4	14,5	25,5	31,3
Tolosa-Goierrri	39,6	37,4	27,7	16,0	16,1	9,7	19,0	23,6
Debagoiena	43,1	41,4	15,5	14,1	7,1	3,3	13,6	22,7
Debarrena	47,4	54,0	39,1	,6	12,0	9,0	21,3	24,2
Guztira	39,9	42,5	26,3	15,5	16,8	12,7	23,3	31,0

16. Esperientzia duten pertsonen langabezia nagusi da oraindik. Aldez aurreko lan-esperientziarik inoiz izan ez duten langabeak langabe guztien % 6,8 baino ez dira. Dena dela, langabe horien garrantzi kuantitatiboa gero eta handiagoa da; hots, 2.400 ziren 2007an, 6.401 2010ean eta 7.900 2011n.

16-64 urteko langabeen bilakaera, aldez aurreko lan-esperientziaren arabera. 2005-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Aldez aurreko lan-esperientzia	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa			2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2005	2007	2009	2011	2005/2007	2007/2009	2009/2011	
Lan-esperientzia dutenak	45.500	28.930	85.753	108.803	-20,3	72,2	12,6	276,1
Lan-esperientziarik ez dutenak	3.600	2.400	3.278	7.900	-18,4	16,9	55,2	229,2
Ez dago lanerako prest	0	70	1.369	197				
Guztira	49.100	31.400	90.400	116.900	-20,0	69,7	13,7	272,3
Esperientziarik gabekoak (%)	7,3	7,6	3,6	6,8				

Lan-esperientziarik gabeko langabeen % 75,2 EAEko bost hiri-eskualde handietan biltzen dira; proportzioa, beraz, jaitsiz doa, 2010eko datuarekin alderatuz (% 87,8).

Lan-esperientziarik gabekoen langabeziaren eragina, aldiz, mugatua da EAEko hainbat geografia-eremutan; eskualde gehienek % 10etik beherako kopuruak dituzte. Gasteizen eta Debagoiengan soilik daude kopuru hori baino handiagoak, % 10,7 eta % 25,3, hurrenez hurren.

Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko 16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera 2005-2011 aldian

(Datu absolutuak)

Eskualdea	Kopuru absolutuak				
	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	250	176	747	1.339	1.052
Aiaraldea	50	24	31	43	48
Eskuinaldea	510	427	214	688	447
Bilbo	922	787	457	2.025	1.835
Ezkerraldea	1.296	546	574	945	1.482
Bizkaia-Kosta	146	162	65	113	516
Durantaldea	227	78	90	429	520
Donostialdea	121	138	696	625	1.126
Tolosa-Goierri	38	14	264	126	258
Debagoiena	16	31	96	31	466
Debabarena	24	18	44	38	151
Guztira	3.600	2.400	3.278	6.401	7.900

Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko 16-64 urteko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
1993-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	26,5	22,5	14,7	8,2	6,6	5,0	8,8	10,7
Aiaraldea	33,9	27,8	21,3	7,5	7,5	2,3	3,1	3,9
Eskuinaldea	37,8	41,9	27,6	10,6	13,4	4,4	8,7	7,9
Bilbo	32,6	28,6	20,2	8,2	10,2	2,9	10,0	6,8
Ezkerraldea	40,7	28,6	19,7	9,9	8,2	2,9	4,5	4,7
Bizkaia-Kosta	28,9	30,4	21,3	4,6	9,6	1,4	2,3	6,5
Durangaldea	33,3	24,8	14,5	9,6	7,3	1,8	9,8	7,5
Donostialdea	27,1	26,2	14,1	1,5	2,2	4,1	2,8	5,5
Tolosa-Goierri	26,3	24,0	27,5	3,0	1,6	9,0	3,8	8,7
Debagoiena	31,4	36,6	27,4	2,6	7,4	6,0	1,8	25,3
Debarrena	36,5	33,0	31,6	3,8	3,0	1,9	1,9	9,5
Guztira	32,9	28,5	19,3	7,3	7,6	3,6	6,1	6,8

3. Biztanleria landuna

3.1. Datu orokorrak

17. Biztanleria aktiboaren bolumena egonkortzen ari bada ere, okupazio-zifrek gainbehera egin dute eta, ondorioz langabezia-tasek gora egin dute EAEn 2010 eta 2011 artean. 16tik 64 urtera arteko taldeari dagokionez, 937.701 pertsonak lana zuten 2010. urtean; 2011n, berriz, 924.295. Hortaz, aztergai dugun denbora-tartean 13.406 unitatetan murriztu da biztanleria landunaren kopurua. Okupazioaren gainbeheraren gero eta handiagoa da. Okupazioaren galera % 1,01ekoa izan zen 2009-2010 urteen artean; 2010-2011 urteen artean, berriz, % 1,43koa. 970.957 pertsonak lana zuten 2007. urtean. 2011n, berriz, 46.663 lanpostu galdu ziren, hots, guztien % 4,8.

Aipatu berri ditugun joera horiek isla da, hain zuzen ere, EAeko 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen eboluzioa¹¹. Koefiziente hori etengabe murriztu da: % 68,1era iritsi zen 2007an, % 65,2ra 2009an, % 64,6ra 2010ean, eta % 64,1 2011n. Dena dela, 2011ko adierazleak 2003koa (% 63,4) puntu erdi baino gehiagotan gainditzen badu ere, 2005ekoa baino bi puntu txikiagoa izan da (% 66,1 2005ean).

16tik 64 urtera arteko biztanle landunen eboluzioa. 1993-2011 aldia
(Okupazio-koefizientea ehunekoetan, datu absolutuak
eta biztanleria landunaren urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa ehunekoetan)

Urtea	Okupazio-koefizientea	Biztanleria landuna	
		Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	46,6	683.079	
1995	47,9	708.225	1,82
1997	51,1	750.439	2,94
1999	55,7	823.948	4,78
2001	60,5	861.814	2,27
2003	63,4	893.439	1,82
2005	66,1	948.180	3,02
2007	68,1	970.957	1,19
2009	65,2	947.259	-1,23
2010	64,6	937.701	-1,01
2011	64,1	924.295	-1,43

¹¹ Okupazio-koefizientea honako hau da: erreferentziako biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urte bitarteko biztanleria) landunek osatzen duten proportzioa. European enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (pertsona aktibo guztiei dagokienez, biztanleria landunaren kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori formaren aldetik ez da oso zuzena. Izan ere, enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da egokia. Horregatik, LMErako hobe da okupazio-koefiziente kontzeptua erabiltzea.

18. 2009-2011 biurteko osoan okupazioak izan duen bilakaera oso desberdina izan da adinaren arabera, eta dinamika bereziki negatiboa izan du gazteenengan. Alde horretatik, 50 urtetik beherako pertsonen artean okupazioaren beherakada handiagoa izan da adinean behera egin ahala. Oso gutxi murriztu da 35tik 49 urtera artekoen okupazio-koefizientea (urtetik urtera % -0,1 batez beste); zehazki, okupazioa egonkorturik dagoen unean bezain beste. Hala ere, 25 eta 34 urte artekoen okupazioa % 6,1 murriztu da; eta % 20,7 ere 25 urte baino gutxiagoko biztanleena. 50 urtetik gorako landunen proportzioa, berriz, urtetik urtera % 5,1 handitu da batez beste aztertutako aldian.

Aurkeztutako datuak oso deigarriak dira eta, oro har, aurretik hasitako prozesuen eragin handia islatzen dute. 25 urtetik beherako biztanleen kasuan, urtetik urterako batez besteko okupazioaren beherakada 2005ean hasi zen eta, orduetik, gero eta handiagoa izan da denborak aurrera egin ahala. 2005etik 2007ra % 4,9 egin zuen behera batez beste okupazioak; 2007tik 2009ra, berriz, % 11,9; 2009tik 2010era, % 15,7; eta 2010etik 2011ra, azkenik, % 25,4. 2003. urtetik etenik gabe murriztu da hogeita bost urtetik beherako okupazio-koefizientea. Urte hartan % 35,8koa zen aipatu adin-tarteko okupazio-koefizientea; egun, berriz, % 18,1koa da. LME egin zenetik, ez da hain koefiziente txiki izan. Are gehiago, 1993. urtekoa (% 19,3) baino txikiagoa da hogeita bost urtetik beherako okupazio-koefizientea.

Hogeita bost urtetik beherakoena baino neurri txikiagoan bada ere, antzeko joera izan da 25etik 49 urtera arteko biztanleen taldean. 25etik 34 urtera arteko pertsonen kasuan, martxa honetan egin du behera okupazioak: urtetik urtera % 0,9 egin zuen behera, batez beste, 2005-2007 biurtekoan; % 5,5 2007tik 2009ra; eta % 6,1 2009tik 2011ra. Beheranzko joera pixka bat mantsotu egin zen 2009 eta 2010 urteen artean, % 3,3 murriztu baitzen okupazioa. Hala ere, okupazioak % 8,7 egin zuen behera 2010 eta 2011 urteen artean eta, hortaz, beheranzko joera handitu zen berriz ere. Aztergai dugun talde honen okupazio-koefizientea % 83,8koa izan zen 2007. urtean; % 76koa 2009an nahiz 2010ean; eta % 72,5koa 2011n. Azken ehuneko hori, bidenabar, aurreko mendeko datuen gainetik baino ez da, oso urrun baitago 2001eko % 77ko okupazio-koefizientetik.

Bestalde, 35etik 49 urtera arteko pertsonen egoerak okerrera egin du apurka-apurka. Lehenik, hizpide dugun taldearen okupazioaren hazkundea % 2,7 murriztu zen batez beste 2005 eta 2007 urteen artean. Ondoren, okupazioa ia egonkortu egin zen, % 0,1 egin baitzuen gora. 2009 eta 2011 urteen artean okupazioa % 0,1 murriztu bazen ere, bada alderdi positibo bat: 2009 eta 2010 urteen artean % 1,3 jaitsi bazen ere, 2010-2011 aldian % 1 hazi zen okupazioa. Beraz, 2007an % 82,2an zenetik, etenik gabe jaitsi da okupazio-koefizientea hizpide dugun biztanle-taldean, harik eta 2010ean % 78,8ra heldu zen arte. 2011n, ordea, % 78,8tik % 79,3ra igo da okupazio-koefizientea. Esan gabe doa 2005 eta 2009 urteen artean baino ez dela ehuneko hori gainditu aztergai dugun adin-tarteko biztanleetan. 2010-2011 aldiko okupazioaren bilakaeraren datu positiboetako bat dugu aipatu berri dugun hori.

Enplegua, beraz, berreskuratu egin da 35etik 49 urtera bitarteko pertsonen taldean. Hein batean, sistema ekonomikoaren aukera diferentzial batekin lotura du gertakari horrek 2007-2011 krisialdian, biztanlerik zaharrenen okupazioa mantendu baita. 2007ko okupazio-zifra berdinak izan dituzte 2011n 35 eta 49 urte bitarteko biztanleek, adin-tarte horren okupazioa berreskuratu delarik. Azken urtean, ordea, 35 urtetik beherako pertsonen okupazioa nabarmen murriztu da. Hau da, 2007 eta 2011 urteen artean % 21,3 murriztu da 25etik 34 urtera arteko pertsonen okupazioa; 25 urte baino gutxiagoko biztanleena, berriz, % 51,3 jaitsi da. Beherakada handi horren ondorioz, 35 urtetik beherakoek EAEko guztizko okupazioan duten proportzioa % 26,7 jaitsi da, hau da, 2001eko eta 2005eko mailen azpitik geratu da (% 39,5 eta % 36,7, hurrenez hurren).

Orain arte adierazitakoaren kontrara, 50 urteko eta hortik gorako pertsonen okupazioak % 19,9 egin du gora 2007tik 2010era bitarte. EAEko biztanleriaren zahartzearen testuinguruan, adin-tarte horretako landunen kopuruak etengabeko igoera izan du: urtetik urtera % 3 hazi zen batez beste 2005 eta 2007 urteen artean; % 4,2 hazi zen 2007 eta 2009 urteen artean; eta % 5,1 2009 eta 2011 urteen artean. Hazi egin da, baita ere, langile guztietatik 50 urte baino gehiago dituztenen ehunekoa: 2001. urtean, langileen % 20,2 ziren –urte hartan lanean zeuden 35 urte baino gutxiagoko langileak baino 19,3 puntu gutxiago zen hori–; 2011. urtean, berriz, langile guztien % 28,3. Urte horretan lehenengoz 35 urtetik beherakoena baino handiagoa izan da –% 1,7 handiagoa– berrogeita hamar urtetik gorako langileen ehunekoa.

Sexua kontuan hartuta datuak aztertzean, 2007-2009 aldian gizonen okupazioan hasitako beherakada-prozesua finkatu egin dela azpimarratu beharra dago. Hizpide dugun aldirian, moteldu egin zen okupazioaren beheranzko joera, 2007-2009 biurtekoan % 3,7 murriztu baitzen okupazioa eta 2009-2010 biurtekoan, aldiz % 1,5. Hala ere, gizonezkoen okupazioaren beherakada handitu egin da berriz ere, 2010 eta 2011 artean, % 2 murriztu baita okupazio-koefizientea. Emakumezkoen dagokienez, haien okupazio-tasa % 2,1 hazi zen urteko 2005 eta 2009 urteen artean. Hala ere, emakumezkoen okupazioak behera egin du baita ere, eta lanean diren emakumeen ehunekoa % 0,6 murriztu da urtetik urtera batez beste 2009 eta 2011 urteen artean. Emakumezkoen okupazioaren beherakada, baita ere, handiagoa izan da 2010-2011n 2009-2010ean baino (-% 0,7 eta -% 0,4 hurrenez hurren). Hala ere, emakume landunen 2011ko kopurua 2007koa baino % 3,1 handiagoa izan da (gizonen kasuan, berriz, 2010eko kopurua 2007koa baino % 10,5 txikiagoa izan da).

Gainera, emakumeen 2011ko okupazio-koefizientea % 58,5 izan da, hau da 2009koa (% 58,8) baino bi hamarren txikiagoa eta 2007koa (% 57,4) baino handiagoa. Gizonek, berriz, % 78,6ko koefizientea izan zuten 2007an, eta 9,1 puntu txikiagoa izan da 2011an (% 69,5). Zifra horrek aurreko mendeko 90eko hamarkadako mailak baino ez ditu gaintitzen.

Emakumeen okupazioak izan duen beherakada txikia izan da 2009-2011 aldirian, eta, horri esker, emakume landunek Euskadin duten proportzioak goranzko joeran jarraitzen du. 2005. urtean, EAEko landun guztien % 41 emakume ziren; 2011an, berriz, % 45,2 dira.

16-64 urteko landunen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. 2005-2011 aldia

(Datu absolutuak, urteko urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Sexua eta adina	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa					2011-2007 hazkundearen %
	2005	2007	2009	2010	2011	2007 / 2005	2009 / 2007	2011 / 2009	2010 / 2009	2011 / 2010	
Gizonezko	559.73	565.77	524.59	516.84	506.43	0,5	-3,7	-1,7	-1,5	-2,0	-10,5
Emakumezko	388.44	405.18	422.66	420.85	417.86	2,1	2,1	-0,6	-0,4	-0,7	3,1
< 25 urte	68.930	62.276	48.283	40.685	30.352	-4,9	-11,9	-20,7	-15,7	-25,4	-51,3
25-34 urte	279.45	274.44	244.85	236.72	216.10	-0,9	-5,5	-6,1	-3,3	-8,7	-21,3
35-49 urte	393.87	415.82	417.06	411.80	415.92	2,7	0,1	-0,1	-1,3	1,0	0,0
>50 urte	205.91	218.41	237.05	248.48	261.91	3,0	4,2	5,1	4,8	5,4	19,9
Guztira	948.18	970.95	947.25	937.70	924.29	1,2	-1,2	-1,2	-1,0	-1,4	-4,8
Emakume landunen %-a	41,0	41,7	44,6	44,9	45,2						
< 35 urteko landunen %-a	36,7	34,7	30,9	29,6	26,7						

16-64 urteko landunen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (bost urteko taldeak). 2001-2011 aldia

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	Kopuru absolutuak											
	2001		2003		2005		2007		2009		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
16-19	7.606	,9	7.460	,8	7.653	,8	6.441	,7	3.689	,4	1.573	,2
20-24	68.892	8,0	68.309	7,6	61.277	6,5	55.835	5,8	44.594	4,7	28.779	3,1
25-29	143.844	16,7	154.083	17,2	136.356	14,4	129.121	13,3	102.597	10,8	87.303	9,4
30-34	119.977	13,9	116.717	13,1	143.101	15,1	145.322	15,0	142.259	15,0	128.800	13,9
35-39	126.966	14,7	121.483	13,6	132.128	13,9	135.941	14,0	147.509	15,6	147.182	15,9
40-44	124.848	14,5	135.294	15,1	142.438	15,0	150.170	15,5	137.449	14,5	143.272	15,5
45-49	95.541	11,1	94.091	10,5	119.311	12,6	129.714	13,4	132.106	13,9	125.468	13,6
50-54	90.791	10,5	102.337	11,5	102.193	10,8	108.077	11,1	116.094	12,3	128.286	13,9
55-59	58.565	6,8	68.898	7,7	72.686	7,7	76.375	7,9	85.842	9,1	90.700	9,8
60-64	24.783	2,9	24.766	2,8	31.038	3,3	33.961	3,5	35.119	3,7	42.933	4,6
Guztira	861.814	100	893.439	100	948.180	100	970.957	100	947.259	100	924.295	100

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.

1993-2011 aldia

(%-tan)

Sexua eta adina	Okupazio-koefizientea									
	1993	1997	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011	
Gizonezko	61,4	65,4	73,5	74,5	77,3	78,6	71,6	70,6	69,5	
Emakumezko	31,6	36,7	47,3	52,2	54,8	57,4	58,8	58,6	58,5	
< 25 urte	19,3	22,7	32,3	35,8	35,3	35,1	27,5	23,5	18,1	
25-34 urte	60,9	66,8	77,0	79,8	81,8	83,8	76,0	76,0	72,5	
35-49 urte	62,7	67,7	74,2	76,8	79,8	82,2	79,8	78,8	79,3	
>50 urte	37,6	40,2	46,2	48,9	51,0	52,6	54,9	55,9	57,9	
Guztira	46,6	51,1	60,5	63,4	66,1	68,1	65,2	64,6	64,1	

19. Okupazioaren adierazleek beheranzko joerari eutsi diote. Europar Batasuneko herrialdeen okupazio-koefizientearen (% 64,3) azpitik zegoen EAEko okupazio-koefizientea (% 64,1) 2011. urtearen amaieran. Hala eta guztiz ere, 2010 eta 2011. urteen artean handitu egin zen EAEko okupazio-maila baino txikiagoa duten EBko estatutuak. Lehen hamabost ziren; orain, berriz, hamasei. Aurreko EB-15 osatzen zuten herrialdeetako datuak kontuan hartuz gero, Euskadiko okupazio mailak handiagoak ziren hegoaldeko herrialde guztienak baino (Portugal, Espainia, Italia eta Grezia), eta Europa erdialdeko nahiz iparraldeko zenbait herrialdeetako baino (Frantzia, Belgika eta Irlanda, esaterako). Zabalkuntzaz zabalkuntza, herrialde berriak sartu dira Europar Batasunean, esate baterako, Zipre, Eslovenia eta Txekiar Errepublika. Herrialde horiek guztiek EAEk baino okupazio-koefiziente handiagoa izan dute. EAEk 2010 eta 2011 urteen artean gaintu du estreinakoz Estonia.

Bestetik, 2007ko datuekin alderatuta, enplegu-maila handienak zituzten herrialdeen eta EAEn arteko aldea nabarmen zabaldu zen, okupazio-koefizienteari dagokionez. Finlandia eta Erresuma Batuko okupazio koefizienteen azpitik 4,6 eta 5,5 puntutara dago EAEkoa, eta Austria, Alemania, Danimarka eta Suediako adierazleetatik 8 eta 10 puntu bitartean. Herbehereekin 11,3 puntuko aldea du EAEk.

EB-27ko batez besteko orokorrari erreparatuz gero, gainerako herrialdeek baino okupazio-koefiziente handiagoak izan zituen EAEk, emakumezko zein gizonezkoetan, 2009 eta 2010 urteetan. 2011. urtean, berriz, ez zen hala izan. Hala eta guztiz ere, UE-27ren erdiko mailan jarraitzen du EAEko emakumezko landunen koefizienteak (% 58,5). Nolanahi ere, EAEko emakumezko landunen koefizienteak Herbehereetako, Danimarkako eta Suediakoaren azpitik jarraitzen du, 10 puntu baino gehiago. Orobat, zifra hori beste hainbat herrialdeetako, esate baterako, Alemaniakoa, Austriakoa, Erresuma Batukoa eta Finlandiakoa baino 6-10 puntu txikiagoa da. Okupazio-kontutan UE-27eko izarretako bat den Estonia herrialdearen azpitik 5,1 puntutara da EAE.

Emakumezko landunen datu positiboaren ordainetan, gizonezkoen marka okerrak ditugu. EBkoa baino 5,9 puntu handiagoa zen gizonezko landunen koefizientea EAEn 2007an. 2011n, berriz, EBkoa baino 0,6 puntu txikiagoa da (EAE, % 69,5; EB-27, % 70). 2006 eta 2007. urteetan, Erresuma Batuaren gainetik ere egon zen EAEko gizonezko landunen koefizientea. Urte hartan, EBko hiru herrialde besterik ez zeuden EAEn gainetik (Zipre, Danimarka eta Herbehereak). 2011n, ordea, EBko hamaika herrialde daude EAEn gainetik. Gizonezko landunen ehunekoa EAE baino handiagoa duten herrialdeei dagokienez, Malta, Zipre, Txekiar Errepublika eta Erresuma Batutik 3,5 eta 5,1 puntu artean da EAE; Austria, Alemania, Suedia eta Danimarkatik, berriz, 6,4 eta 8,8 puntu artean da; eta Herbehereetatik 10,8 puntutara. 2007an, berriz, Danimarkatik 2,2 puntutara eta Herbehereetatik 3,8 puntutara zegoen EAE.

Adin aktiboan dagoen biztanleriaren okupazio-koefizienteak Europar Batasunean, sexuaren arabera.
2011. urtea
 (%-tan)

Egoera	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Alemania	78,3	68,3	73,3
Austria	78,1	66,4	72,3
Belgika	67,6	56,8	62,2
Bulgaria	60,6	56,8	58,7
Zipre	72,9	61,0	66,9
Danimarka	75,9	69,9	72,9
Eslovakia	66,4	52,5	59,5
Eslovenia	67,5	61,0	64,4
Estonia	68,2	63,6	65,8
Finlandia	70,0	67,2	68,6
Frantzia	67,7	59,7	63,6
Grezia	63,3	43,7	53,5
Hungaria	62,0	51,1	56,5
Irlanda	63,3	55,4	59,3
Italia	67,0	46,8	56,9
Letonia	64,4	61,5	62,9
Lituania	62,4	60,8	61,6
Luxenburgo	71,2	56,7	64,0
Malta	73,0	41,1	57,3
Herbehereak	80,3	70,4	75,3
Polonia	66,7	53,2	59,9
Portugal	66,5	59,4	62,9
Erresuma Batua	74,6	64,6	69,6
Txekiar Errepublika	74,3	57,7	66,1
Errumania	64,8	51,1	57,9
Suedia	75,9	71,6	73,8
Espainia	62,1	51,3	56,8
EB-27	70,0	58,5	64,3
EAE	69,5	58,5	64,1

Iturria: 2010eko LIE- 4. hiruhilekoa (15-64 urtekoei aplikatu daitekeena). Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) datuak EAerako.

20. Okupazioari buruzko datuak eskualdez eskualde aztertzen baditugu, zona geografiko baten eta besteren joerak oso desberdinak direla ikusiko dugu. Horixe da, hain zuzen ere, LMEn 2010 eta 2011ko daturik azpimarragarrienetako bat.

Bilbon eta Ezkerraldean izan dira joerarik ezkorrenak 2010 eta 2011 artean. 2009-2010 epeko beheranzko joerak okerrera egin du aipatu eskualde horietan, galdutako lanpostuen maila oso handia izan baita 2010 eta 2011 urteen artean (-% 5,1 eta -% 3,4, hurrenez hurren). 2009 eta 2011 urteen artean, okupazioak beheraka egin du etenik gabe beste hiru eskualdetan: Gasteiz, Bizkaiko kostaldea, Donostialdean. Behera egin badu ere, 2010 eta 2011 urteen artean nabarmen moteldu da beherakadaren abiadura aipatu hiru eskualde horietan. 2009-2010 aldirian, esaterako, % 1,5 eta % 2,1 artera arte jaitsi zen okupazioa. Garai hartan, Bilbok besterik ez zuen izan hori baino marka okerragoa (-% 2,9). 2010 eta 2011 urteen artean, ordea, % 1era arte jaitsi zen okupazio-tasa Bizkaiko kostaldean. Gasteizen (-% 0,2) nahiz Donostialdean (-% 0,1) okupazioa egonkortu da zeharo.

Berriki, joera negatiboa hartu dute oinarri industrial handiko hainbat eskualdek hala nola Durangaldeak, Tolosa-Goierrik, eta Debagoienak. 2007 eta 2009 urteen artean, urteko % 3,1 eta % 3,2 artean jaitsi zen batez beste okupazioa aipatu eskualdeetan. Are gehiago, 2005 eta 2007 urteen artean beheranzko joera hartua zuten jada Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeek. Edonola ere, okupazioak gora egin zuen aipatu hiru eskualde horietan 2009 eta 2010, zehazki, urteko % 1,8 eta % 2,9 artean igo zen. 2010 eta 2011 urteen artean, ordea, berreskuratze-prozesu hori okertu egin zen. Durangaldean pixka-pixka bat jaitsi bada ere (%-0,1), okupazioak behera egin du nabarmen Debagoiengan (-% 0,9) eta Tolosa-Goierri eskualdean (-% 1,5).

Guztira, 15.257 lanpostu galdu dira 2010 eta 2011. urteen artean lehen aipaturako zortzi eskualdetan. Lanpostu horien % 48,8 Bilbon galdu dira; eta % 37,6 Ezkerraldean. Beraz, okupazioak atzeraka egin duen eskualdeetan 2010 eta 2011 urteen artean galdu diren lanpostuen % 86,4 Bilbon eta Ezkerraldean galdu dira. Okupazioaren beherakadarik handiena jasandako eskualdeetako bat izan zen Bilbo 2009 eta 2010 urteen artean. Garai hartan, galdutako lanpostuen % 33,7 Bilbon galdu ziren, % 33,1 Donostialdean eta % 14,4 Vitoria-Gasteizen. Sasoi hartan, lanpostuen % 3,7 besterik ez zen galdu Ezkerraldean.

Eskuinaldeak, ordea, datu positiboak dakarzkigu. Urteko % 1,3 egin zuen behera okupazioak eskualde hartan 2007 eta 2010 urteen artean. 2010 eta 2011 urteen artean, hala ere, % 1,3 hazi zen okupazioa. Aiaran eta Debabarrenean, berriz, 2009 eta 2010 urteen artean hazitako goranzko joerari eutsi zion okupazioak 2010 eta 2011 urteen artean. Aiaran, esaterako, % 2,9 hazi zen okupazioa 2009 eta 2010. urteen artean; eta 2010-2011 aldirian, berriz, % 1,7. Debabarrenean, ordea, 2009-2010 aldiko gorakada txikia (%+0,3koa) baino handiagoa izan zen 2010-2011 aldirian, % 2,7 hazi baitzen okupazioa. Hizpide ditugun hiru eskualdeetan sortutako 1.851 lanpostuek atzeranzko joera duten eskualdeen beherakadaren % 12,1 baino ez dute konpentsatzen.

2007-2009 aldiko beherakada konpentsatu du Aiarak 2009 eta 2011. urteen arteko gorakadak. Eskualde horrek, beraz, 2005 eta 2007. urteen artean lortutako okupazio maximoaren maila gainditu du % 0,2an. Gainerako beste eskualde guztietan, oro har, lanpostuak galdu dira 2007-2011 laurtekoan.

Gasteizen eta Eskuinaldean izan dira lanpostu-galerarik txikiak 2007 eta 2011. urteen artean -% 2,2 eta % 2,6 artekoak-. Gasteizen beherakada txikiagoa izan da, okupazioak argi eta garbi egin baitzuen behera 2009 eta 2010 urteen artean (-% 1,5; 2007-2009 biurtekoan eta 2010-2011 urteen artean % 0,2 eta % 0,3 artean jaitsi baitzen urteko okupazioa batez beste). Okupazioan 2010 eta 2011. urteen artean izandako gorakadak (% 1,3koak) konpentsatu egin du 2007 eta 2010 urteen arteko beherakada motela (urteko -% 1,3koa, batez beste). Gorakada txiki horrekin alderatuta, beraz, Eskuinaldeko datuak negatiboak dira.

% 4,2 eta % 5,3 artean murriztu da okupazioa Ezkerraldean, Bizkaiko kostaldean, Durangaldean, Donostialdean, Tolosa-Goierriin, Debagoiengan, eta Debabarrenean. Beherakadarik handiena Bilbon izan da, % 8,2 murriztu baita okupazioa. Okupazioaren beherakadak eragin handia izan du Tolosa-Goierri eta Debagoiengan, 2005ean hasi baitzen bertan okupazioaren gainbehera. 2005-2011 epea aztertuz gero, okupazioaren % 6,1 galdu da Tolosa-Goierriin aipatu denbora-tarte horretan; eta % 8,5 ere Debagoiengan.

Baiezta dezakegu, beraz, Bilbon, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan izan direla okupazio-beherakadarik nabarmenenak 2005/2007 eta 2011. urteen artean. Eskuinaldean izan ezik, Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako beste eskualde guztietan izan du eragina Bilboko, Tolosa-Goierriko eta Debagoiengoko beherakadak. Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan beherakada berriki gertatu bada ere, beherakadarik handienak 2009. urtea baino lehen gertatu dira Durangaldean nahiz Gipuzkoako eskualdeetan. Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaiko kostaldean, ordea, guztiz kontrakoa gertatu da. Azken hiru eskualde horiek 2009. urtean ekin zioten beherako joerari; eta 2010 eta 2011. urteen artean areagotu egin da okupazioaren galera.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera
2005-2011 aldian**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak					Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa					2011-2007 hazkundearen %
	2005	2007	2009	2010	2011	2007/2005	2009/2007	2011/2009	2010/2009	2011/2010	
Vitoria-Gasteiz	123.764	124.625	123.998	122.121	121.889	0,3	-0,3	-0,9	-1,5	-0,2	-2,2
Aiara	18.923	19.944	19.109	19.658	19.993	2,7	-2,1	2,3	2,9	1,7	0,2
Eskuinaldea	71.288	72.626	70.721	69.829	70.745	0,9	-1,3	0,0	-1,3	1,3	-2,6
Bilbo	144.541	150.399	149.887	145.485	138.041	2,0	-0,2	-4,0	-2,9	-5,1	-8,2
Ezkerraldea	167.050	170.931	168.679	168.199	162.470	1,2	-0,7	-1,9	-0,3	-3,4	-5,0
Bizkaia-Kosta	50.792	54.778	53.921	52.845	52.291	3,8	-0,8	-1,5	-2,0	-1,0	-4,5
Durangaldea	51.241	55.213	51.804	52.715	52.685	3,8	-3,1	0,8	1,8	-0,1	-4,6
Donostialdea	214.242	217.074	210.520	206.193	205.913	0,7	-1,5	-1,1	-2,1	-0,1	-5,1
Tolosa-Goierri	52.612	52.150	48.942	50.133	49.399	-0,4	-3,1	0,5	2,4	-1,5	-5,3
Debagoiena	30.518	29.259	27.398	28.180	27.928	-2,1	-3,2	1,0	2,9	-0,9	-4,6
Debabarrena	23.209	23.958	22.280	22.342	22.941	1,6	-3,6	1,5	0,3	2,7	-4,2
Guztira	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	1,2	-1,2	-1,2	-1,0	-1,4	-4,8

Okupazio-koefizienteen eboluzioa aztertzean ikus daiteke okupazio-koefizienteak gutxienez puntu 1 hazi direla 2010 eta 2011 urteen artean okupazioa hazi den hiru eskualdeetan, alegia, Aiaran, Eskuinaldean, eta Debabarrenean. Adierazlea ia egonkortu delarik, okupazio-koefizienteek gora egin dute pixka bat -0,1 eta 0,4 puntu artean- Gasteizen, Durangaldean, Donostialdean, eta Debagoiengan. Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin, berriz, 0,2 eta 0,3 puntu artean murriztu dira okupazio-koefizienteak. Soilik Bilbon eta Ezkerraldean jaitsi dira nabarmen okupazio-koefizienteak 2010 eta 2011 artean (-% 2,8 eta -% 1,9 puntu, hurrenez hurren).

Aiara eskualdea izan da 2009-2011 biurtekoko urte bakoitzean okupazio-koefizienteek puntu 1 baino gehiago hazi diren bakarra. 2007-2009 aldian 6 puntu jaitsi bazen ere, 2009-2011 biurtekoan % 2,8 hazi zen okupazio-koefizientea. Antzerako joera izan da Debarrenean ere. 2007-2009 biurtekoan 5,4ko beherakada izan bazuen ere, 2009-2011 artean 2,7 puntu egin zuen gora Eskualde horrek. 2009 eta 2010 arteko gorakada, edonola ere, txikia izan zen (0,5 puntukoa). Debarrenaren kontrako joera izan da industrializazio handiko beste eskualde batzuetan, hala nola Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Eskualde horietan, 5 eta 6 puntu artean murriztu zen okupazio-koefizientea 2007 eta 2009 urteen artean, eta 2009 eta 2010 urteen artean, aldiz, 1,5 eta 2,1 puntu artean hazi zen adierazlea. Are gehiago, koefizienteek bere horretan jarraitu zuten 2010 eta 2011 urteen artean. Aiarako eta Debarreneko gorakada baino txikiagoa izan badute ere, nabarmenki hazi da okupazio-koefizientea aipatu hiru eskualde horietan 2009-2011 biurtekoan; zehazki, 1,6 eta 2,2 puntu artean.

Vitoria-Gasteizen eta Donostialdean are joera negatiboagoa izan da 2009-2011 biurtekoan. 2011 eta 2010 urteen artean okupazio koefizientea egonkortu eta, are, pixka bat igo bada ere, 2009 eta 2010 urteen artean 1,2 eta 1,2 puntu inguru galdu zuten aipatu bi eskualdeek. Biurtekoan, orobat, puntu bat jaitsi da adierazlea Vitoria-Gasteizen eta 0,7 puntu Donostialdean. 2007 eta 2009 artean izandako beherakada handiei (-3,8 eta -2,8) gehitu behar diogu indizearen jaitsiera hori. Donostialdean, edonola ere, beherakada txikiagoa izan da hura baino industrialagoak diren beste eskualde batzuetan sasoi horretan bertan izandakoa baino.

Bizkaia-Kostan antzerako bilakaera izan da. 1,3 puntu jaitsi zen adierazlea 2009 eta 2010 artean. 2010-2011 epean okupazio-koefizientea egonkortu bada ere, beheranzko joera txikia nabarmen da. Horren ondorioz, are gehiago murriztu da okupazio-koefizientea 2009-2011 biurtekoan (-1,7 puntu). EAEko batez bestekoa baino askoz txikiagoa da 2007-2009 aldiko beherakada (-1,9 puntu).

Arestian aipatu bezala, soilik Bilbon eta Ezkerraldean jaitsi da nabarmen okupazio-adierazlea 2010 eta 2011 urteen artean (-2,8 eta -1,9 puntu). Atzerakada gertatu aurretik, hots, 2009 eta 2010 urteen artean, Ezkerraldean ia guztiz egonkortu zen okupazio-koefizientea. Hori dela eta, Bizkaia-Kostako adierazlearen antzera jaitsi da Ezkerraldekoa ere 2009-2011 biurtekoan (-2,1 puntu). Are gehiago, Bizkaia-Kostan 2007 eta 2009 artean izandako murrizketa izan da Ezkerraldean ere (-1,7 puntu). Bilbon, ordea, 2,1 puntu jaitsi da adierazlea 2009 eta 2010 artean. Jaitsiera horren eraginez, 4,9 puntu jaitsi da okupazio koefizientea 2009 eta 2011 artean. 2007 eta 2009 artean, berriz, eskualde guztien artetik Bilbo izan zen okupazio-koefizientea gutxien jaitsi zena (-1 puntu).

2010 eta 2011 urteen artean, puntu 1 hazi zen okupazio-koefizientea Eskuinaldean; 2009-2010eko 0,8ko jaitsiera konpentsatu du horrek. 2007 eta 2009 artean koefizientea jaitsi ondoren, EAEko batez bestekoaren mailen azpitik egon zen koefizientea (-2,6 puntu).

Hainbat eskualdetan izandako ibilbideei esker, eskualdeen okupazio-koefizienteek behera egin dute 2007-2011 laurtekoan. Ondoriozta dezakegu, beraz, laurteko horretan 3,2 eta 3,9 puntu artean jaitsi dela okupazio-koefizientea euskal eskualde gehienetan. Batez bestekoa baino gutxiago jaitsi da okupazioa Debabarrenean (-2,7 puntu) eta Eskuinaldean (-2,4 puntu). Handiagoa izan da, berriz, Vitoria-Gasteizen eta Bilbon (4,8 eta 6 puntuko jaitsiera izan baita eskualde horietan, hurrenez hurren). Gasteizen, esaterako, biztanleria aktiboaren bolumenak gora egin zuen nabarmen 2007 eta 2009 urteen artean; horrexegatik jaitsi da okupazio-koefizientea, eta ez da 2009-2011 aldiko beherakadekin goratu. Bilbon, ordea, okupazioaren krisialdiaren eragina askoz nabarmenagoa da.

Okupazioaren krisialdiak eragin berezia izan du Bilbon. Beste eskualdeetan baino eboluzio hobea izan zen Bilbon 2007 eta 2009 urteen artean. Hala ere, EAEko beste eremu batzuetatik nabarmen aldendu zen Bilboko okupazio-koefizientea 2009 eta 2011 urteen artean. Horrela, euskal eskualde guztietan % 60ko okupazioaren azpiko bakarra izan zen Bilbo 2011n¹². 2007. urtean, Euskadiko batez bestekoaren azpitik 2,7 puntutara zegoen Bilbo; 2011n, berriz, 4,6ra. Ezkerraldean ere asko murriztu da okupazio-koefizientea, % 61,4koa baita. EAEko batez bestekotik gertuago egon arren, haren azpitik dira, baita ere, Eskuinaldea eta Bizkaia-Kosta (% 63,5 eta % 63,6 hurrenez hurren). Lehen aipatutako batez bestekoaren gainetik da Vitoria-Gasteiz (% 64,4).

EAEko okupazio-mailarik handiena izan da Durangaldean, Debabarrenean (% 65,5, bietan ere), Aiaran eta Donostialdean (% 67-68 artean). Debagoienean eta Tolosa-Goierri daude okupazio-mailarik handienak (% 69 ingurukoak).

2003 eta 2007 urteen artean gertatu ez bezala, EAEko eskualde bat berak ere ez du % 70ko marka gainditu 2011n. Are gehiago, okupazioak behera egin du berriki eta, ondorioz, 2007. urteko maximoetatik oso urrun dago okupazio-koefizientea 2007an. Aiara eta Debabarrenaren egoera da guztietan onena, 2005ekoa baino koefiziente handiagoa izan baitute 2011n. Eskuinaldean, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierri 2011n izandako koefizienteek 2003ko maila besterik ez dute gainditzen. Eta Bilbo, Bizkaia-Kosta eta Debagoiena eskualdeen kasuan, 2001. urtera arte jo beharra dago 2011ko zifra baino txikiago bat aurkitzeko. Vitoria-Gasteizko egungo adierazlea are txikiagoa da 2001eko koefizientea baino.

Aipatu testuinguru horretan, galdera bereziak datozkigu gogora Vitoria-Gasteiz eta Bizkaia-Kostako bilakaera aztertzeko orduan. Gasteizi dagokionez, 2001. urtera arte eskualde hori lehena izan zen okupazio-koefizienterik handieneko EAEko eskualdeen sailkapenean (urte hartan % 67,2ko koefizientea izan zuen, hau da, 2011ko % 64,4ko koefizientea baino nabarmen handiagoa). Gasteizek enplegu-arloan izan zuen lidergoaren eraginez, EAEko beste eskualde batzuetan baino immigrazio-prozesu handiagoa izan zuen, eta, horren ondorioz (neurri batean bederen),

¹² 2003. urtetik ez da horrelako egoerarik izan eskualdean. Urte hartan, % 58,6 eta % 58ko koefizienteak zeuzkaten Eskuinaldeak eta Ezkerraldeak. Bilbok, bere aldetik, aipatu muga hori gainditu zuen % 60,3ko okupazioarekin.

adierazlearen hazkundera EAEko beste eskualdeetako baino txikiagoa izan zen 2001etik 2007ra bitarte. Zehazki, 2003-2007 aldian, Gasteizko koefizientea % 69,1-69,4 izan zen, hau da, aldi hartan Aiarak, Donostialdeak, Tolosa-Goierri eta Debagoienak izan zutena baino txikiagoa. Okupazioak gora egin zuen Durangaldean 2009 eta 2010 artean, eta Debabarrenean 2010 eta 2011 artean. Gorakada horri esker, Vitoria-Gasteizen 2001. urtearen amaieran izandako okupazio-koefizientearen gainetik aurkitzen da aipatu bi eskualde horiena.

Bizkaia-Kostak ere EAEko batez bestekoa baino okupazio-koefiziente handiagoa izan zuen 90eko hamarkadan. Zehazki, okupazio-mailarik handieneko hirugarren eskualdea zen 1997an, Gasteizen eta Debagoienen atzetik. Okupazioaren adierazleek beste eskualde batzuetakoekin konparatuta izan duen hazkunde txikiagoaren ondorioz, batez besteko zifren inguruan kokatu da eskualde hori 2001etik 2009ra bitarte. Edonola ere, okupazioak 2009-2011 aldian izan duen beherakada batez bestekoa baino handiagoa izan da eta, horren ondorioz, EAEko eskualde guztietan okupaziorik txikienekoa izan da Bizkaia-Kosta 2011. urtearen amaieran.

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, eskualdearen arabera.
1993-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	Okupazio-koefizientea								
	1993	1997	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Vitoria-Gasteiz	52,0	58,6	67,2	69,1	69,4	69,2	65,5	64,3	64,4
Aiara	48,1	54,5	63,0	62,4	66,4	71,0	65,0	66,5	67,8
Eskuinaldea	45,9	48,4	57,7	58,6	64,5	65,9	63,3	62,5	63,5
Bilbo	45,1	47,7	57,3	60,3	61,9	65,4	64,4	62,3	59,5
Ezkerraldea	41,0	44,4	55,3	58,0	62,0	65,2	63,5	63,3	61,4
Bizkaia-Kosta	50,4	54,7	60,5	64,9	65,0	67,1	65,2	63,9	63,6
Durangaldea	48,3	51,4	59,9	64,7	66,2	69,4	63,9	65,4	65,5
Donostialdea	48,6	53,7	63,7	66,0	69,8	70,8	67,9	66,8	67,2
Tolosa-Goierri	46,5	54,5	60,3	67,5	72,6	72,6	67,4	69,3	69,1
Debagoiena	49,6	57,5	65,1	70,9	72,1	72,2	66,7	68,8	68,9
Debabarrena	46,2	51,8	62,9	67,2	64,0	68,0	62,6	63,1	65,4
Guztira	46,6	51,1	60,5	63,4	66,1	68,1	65,2	64,6	64,1

21. Zenbait industria-eskualdetako koefiziente orokorra nabarmen hazi da 2009 eta 2011 urteen artean. Joera horiek eragin dituzten faktoreak aztertuz gero, emakumezkoen adierazleek gora egin dutela ikus dezakegu. Hartara, 1,9 eta 2,8 puntu artean igo da emakumezkoen koefizientea Aiaran, Debagoienean, Debabarrenean; 3,6 Tolosa-goierri; eta 4,9 Durangaldean. Tolosa-Goierri eta Debagoienean, berriz, 2009-2010 aldian egin zuen gora emakumezkoen okupazioak. 2007. urteko datuekin alderatuz gero, emakumezkoen okupazio-koefizienteek 1,2 puntu baino gehiago egin dute gora Tolosa-Goierri, eta 3,9 eta 5,1 artean Durangaldean eta Debabarrenean. Aiara eta Debagoieneko koefizienteak, hala ere, 2007koen azpitik izan ziren, 2,8 eta 0,6 puntu, hurrenez hurren.

Gizonezkoei dagokienez, haien okupazio-koefizienteak behera egin du Durangaldean 2009 eta 2011 artean (-1,5 puntu, zehazki), eta bere horretan mantendu da Tolosa-Goierri (-0,1 puntu). Aiaran eta Deba ibarreko bi eskualdeetan 2,4 eta 3,7 puntu artean hazi da gizonezkoen koefizientea; emakumezkoen koefizientearen parekoa edo handiagoa da hori. Aiaran, esaterako, emakumezkoenaren bikoitza hazi da gizonezkoen koefizientea 2009-2011 biurtekoan (1,9 eta 3,7 puntukoak izan dira, hurrenez hurren). Eskualde guztietatik soilik Aiaran hazi da gizonezkoen okupazio-koefizientea nabarmen eta jarraian 2009. urtetik. Horren ondorioz, biztanle landun guztietatik emakumezko direnen kopurua egonkortu egin da EAEn, ohiz kanpo. Gizonezkoen 2011ko koefizientea, edonola ere, txikiagoa izan da 2007koa baino: 3,5 puntu txikiagoa Aiaran; 5,9 eta 7,8 puntu artean Debagoienean eta Tolosa-Goierri; eta 10 eta 11,3 puntu bitarte Debabarrenean eta Durangaldean.

Adinari erreparatuz gero, Debagoieneko 35etik 49 urtera bitarteko pertsonen taldea izan ezik, aztertutako gainerako beste eskualde guztietako 35 urte baino gehiagoko pertsonen okupazio-koefizientea hazi egin da 2009. urtetik. Durangaldean izan ezik, 35 urte baino gutxiagoko biztanleen koefizienteek ez dute beti okerrera egin. 25etik 34ra bitarteko pertsonen taldeari dagokionez, haien koefizientea egonkortu da Aiaran, baina gora egin du Tolosa-Goierri eta, batez ere, Deba ibarreko bi eskualdeetan. 2009 eta 2011 artean, nabarmen hazi da 25 urtetik beherako biztanleen okupazio-koefizientea Aiaran eta, batez ere, Debagoienean.

Vitoria-Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean okupazio-koefizienteak behera egin du 2009-2011 biurtekoan, baita emakumezkoen okupazio-koefizienteak ere. Horrela, emakumezkoen okupazio-koefizientea 0,6 puntu murriztu da Donostialdean; 1,2 eta 1,7 puntu artean Bilbon eta Bizkaia-Kostan; eta 2,7 puntu Vitoria-Gasteizen. Ezkerraldeko emakumezko landunen koefizientea antzekoa izan da 2009an eta 2011n, baina 1,1 puntu jaitsi da 2010 eta 2011 artean. Datu horrek erakusten du eskualde horietako emakumeen okupazioak beheranzko joera duela.

Vitoria-Gasteizen eta Bilbon 2009-2011 biurtekoan emakumezkoen okupazio-koefizienteak izandako eboluzio negatiboak lotura du, hain zuzen ere, aztertutako epean adierazlea etenik gabe jaitsi izanarekin. Emakumezko landunen kopurua nabarmen hazi zen 2007 eta 2009 urteen artean aipatu bi eskualde horietan. Are gehiago, 2007ko koefizientea baino 1,1 eta 1,8 puntu artean handiagoa izan da emakume landunen koefizientea 2011n. Ezkerraldean, baita ere, 2007koa baino handiagoa izan da emakumezkoen okupazio-koefizientea 2011n (+2,1 puntu). Bizkaia-Kostan eta Donostialdean besterik ez da izan Emakumezkoen 2011ko okupazio-koefizientea 2007koa baino txikiagoa (-0,3 eta -0,6 puntu, hurrenez hurren). Are, gainerako hiru eskualdeetan 2007 eta 2009 artean izandako gorakadarik ez da izan Bizkaia-Kostan eta Donostialdean.

Aztertutako eskualde guztietan, oro har, gizonezkoen okupazio-koefizienteak behera egin du 2007tik. Vitoria-Gasteizen eta Donostialdean, ordea, pixka bat gora egin du adierazle horrek 2010

eta 2011 urteen artean. 2011ko koefizientea 2007koa baino txikiagoa izan da: 6,5 puntu inguru Bizkaia Kostan eta Donostialdean; 9,4 puntu Ezkerraldean; 10,5 puntu Vitoria-Gasteizen; eta 13,9 puntu Bilbon. Eskualde guztiek 2007-2009 aldian bizi dute beherakadarik handiena. 2009 eta 2011 artean, hala ere, koefizienteak beste 2,1 puntu jaitsi da Bizkaia Kostan, 4,2 puntu Ezkerraldean, eta 8,3 Bilbon.

2007 eta 2011. urteen artean gizonezkoen okupazioak Ezkerraldean, Durangaldean edota Debabarrenean izandako beherakadaren antzerakoa izan da Vitoria-Gasteizen eta Bilbon. Emakumezkoen okupazio-adierazleen gorakadak, alabaina, ez du gizonezkoen okupazio-koefizientearen beherakada konpentsatu. Horregatik, beste eskualdeetan izan ez den beherakada izan da Vitoria-Gasteiz eta Bilboko okupazio-koefiziente orokorretan 2007-2011 laurtekoan.

**16tik 64 urtera arteko biztanleen okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera
2007-2011 aldia
(%-tan)**

Comarca	Gizonezko				Emakumezko			
	2007	2009	2010	2011	2007	2009	2010	2011
Vitoria-Gasteiz	80,6	69,5	69,2	70,0	57,4	61,3	59,1	58,5
Aiara	81,7	74,4	77,7	78,1	59,6	54,9	54,4	56,8
Eskuinaldea	77,0	69,9	70,8	70,3	55,1	56,9	54,4	56,9
Bilbo	76,0	70,4	66,6	62,1	55,2	58,6	58,1	56,9
Ezkerraldea	76,7	71,4	70,0	67,3	53,4	55,4	56,6	55,5
Bizkaia-Kosta	76,6	72,0	71,1	70,0	57,1	58,0	56,3	56,8
Durangaldea	80,8	71,0	72,3	69,5	57,4	56,5	58,2	61,4
Donostialdea	79,8	74,1	72,5	73,3	61,6	61,7	61,0	61,1
Tolosa-Goierra	82,9	75,2	74,3	75,1	61,3	58,9	63,8	62,5
Debagoiena	78,0	69,7	72,1	72,1	66,0	63,4	65,2	65,4
Debabarrena	81,5	68,9	68,4	71,5	53,5	55,9	57,4	58,6
Guztira	78,6	71,6	70,6	69,5	57,4	58,8	58,6	58,5

**Emakumeek 16-64 urteko landunen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera.
2007-2011 aldia
(%-tan)**

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Vitoria-Gasteiz	40,6	45,7	44,9	44,4
Aiara	40,5	40,7	39,3	40,3
Eskuinaldea	42,4	45,9	44,2	45,7
Bilbo	42,8	46,5	47,6	48,8
Ezkerraldea	40,4	43,3	44,3	44,8
Bizkaia-Kosta	41,4	43,3	42,9	43,6
Durangaldea	40,2	43,2	43,5	45,8
Donostialdea	43,4	45,1	45,4	45,0
Tolosa-Goierra	40,4	41,6	43,6	42,9
Debagoiena	44,0	45,9	45,6	45,4
Debabarrena	37,9	42,8	43,7	42,9
Guztira	41,7	44,6	44,9	45,2

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
2007-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			>50 urte		
	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011	2007	2009	2011
Vitoria-Gasteiz	35,0	28,5	16,5	84,2	73,3	71,3	83,8	81,5	80,7	54,5	55,5	58,4
Aiara	37,2	26,7	27,7	89,5	77,1	77,0	84,0	78,0	81,7	54,1	55,0	57,2
Eskuinaldea	34,8	27,1	17,8	80,7	75,6	71,8	81,1	78,3	78,7	51,9	53,5	60,3
Bilbo	29,4	30,4	15,0	74,7	72,0	67,1	80,8	76,8	73,8	53,3	57,0	53,9
Ezkerraldea	37,3	27,5	17,0	84,3	76,5	70,7	78,6	77,3	75,5	45,3	51,9	55,8
Bizkaia-Kosta	20,9	16,6	12,9	87,2	76,7	74,2	80,8	82,4	78,5	53,2	54,5	57,2
Durungaldea	31,7	27,3	23,8	86,9	73,8	71,8	84,3	78,0	83,8	52,3	53,6	56,0
Donostialdea	41,1	29,6	18,1	86,0	80,3	74,3	83,5	82,2	82,7	56,0	55,9	61,7
Tolosa-Goierrri	38,3	28,6	27,7	91,7	81,1	83,0	85,1	81,4	82,5	57,7	56,1	59,7
Debagoiena	34,8	12,5	18,7	87,8	76,2	84,0	90,7	88,1	87,0	53,7	58,8	60,2
Debarrena	38,1	28,7	24,8	88,4	71,2	77,1	85,1	78,5	82,4	51,0	53,4	55,4
Guztira	35,1	27,5	18,1	83,8	76,0	72,5	82,2	79,8	79,3	52,6	54,9	57,9

35 urtetik beherakoek 16-64 urteko landunen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
2007-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011
Vitoria-Gasteiz	35,7	31,4	31,2	26,8
Aiara	34,1	31,3	35,0	32,0
Eskuinaldea	34,7	31,7	30,2	27,3
Bilbo	32,3	31,9	31,2	25,6
Ezkerraldea	35,6	32,0	29,5	27,5
Bizkaia-Kosta	34,8	28,5	28,5	27,6
Durangaldea	35,2	28,2	26,2	26,1
Donostialdea	34,2	30,9	29,1	25,6
Tolosa-Goierra	36,7	30,8	28,0	28,2
Debagoiena	35,1	27,0	27,0	26,7
Debarrena	36,3	29,1	26,3	25,3
Guztira	34,7	30,9	29,6	26,7

2009 eta 2011 artean, bost eskualdetako okupazio-koefizienteek behera egin dute. Bizkaia-Kostan izan ezik (-3,7), gainerako eskualdeetan 10 puntu baino gehiagotan jaitsi da 25 urtetik beherako pertsonen okupazio-koefizientea; EAEko beherakadarik handiena. Aztergai dugun epean, gainera, 25etik 34 urtera arteko pertsonen okupazio-koefizientea 2 puntu jaitsi da eskualde guztietan. Are, 5 eta 6 puntu ere egin du behera Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean. Donostialdean izan ezik, gainerako beste eskualde guztietan jaitsi da baita 35 eta 49 urte arteko pertsonen okupazio-koefizientea ere. Are, Bilbon eta Bizkaia-Kostan 3 eta 4 puntu artean murriztu da aipatu adierazlea. Aztertutako eskualdeetan 50 urtetik gorako pertsonen okupazio-koefizientea besterik ez da hazi, oro har. Salbuespen bakarra Bilbo da, adin-tarte horretako biztanleen okupazio-koefizientea 3,1 puntu jaitsi baita. Bilboren ezaugarrietako bat da, beraz, 2009 eta 2011 urteen artean okupazioak behera egin duela adin-talde guztietan.

Eskuinaldean, ordea, emakumezkoen nahiz gizonezkoen okupazio-koefizienteak egonkortu dira 2009 eta 2011 artean. Egonkortu arren, aipatu koefiziente horiek 2007ko datuekin alderatzen baditugu ikusiko dugu gizonezkoen koefizientea 6,7 puntu jaitsi den bitartean, emakumezkoena 1,8 puntu hazi dela. 2009 eta 2011 urteen artean Eskuinaldean okupazioa egonkortu bada ere, alde handiak daude adin-taldeen arabera: 50 urtetik gorako pertsonen okupazio-koefizienteak 6,8 puntu egin du gora 2009 eta 2011 urteen artean; 35etik 49 urtera bitarteko pertsonen koefizientea bere horretan mantendu da; 25etik 34 urtera bitarteko adierazlea 3,8 puntu jaitsi da; eta 9,3 puntu egin du behera 25 urtetik beherako pertsonen koefizienteak. EAEko beste zona batzuekin alderatuta, eskualde horretako beherakadak oso handiak izan dira. Hainbeste non 2009 eta 2011. urteen artean okupazioa galdu duten eskualdeen antzeko egoera bizi duen Eskuinaldeak. Beste eskualde horietan gertatu ez bezala, 50 urte eta gehiagoko pertsonen okupazio-koefizienteak gora egin du Eskuinaldean. Gorakada hori, bidenabar, EAEko handiena izan da 2009 eta 2011 urteen artean.

3.2. Datuak jarduera motaren arabera

22. 2009tik 2011ra bitarte, berdin jarraitu du zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetan okupazioak izan duen bilakaera negatiboak. Lehen sektorean zein industrian eta eraikuntzan, okupazioak behera egin du aldi horretan. EJSN-93 sailkapena oinarri harturik, % 3,1eko baterako galera izan da. EJSN-2009ko datuen aldean, berriz, % 2,8ko galera izan da. Krisialdia hasi zenetik lehenengoz, zerbitzuen sektorean ere jaitsi da okupazioa (-% 0,6 edota % 0,7; bat ala beste izango da, erabilitako sailkapenaren arabera). Horixe da datu berrietatik azpimarragarriena. Zerbitzuen sektoreko okupazioa gutxi jaitsi denez, euskal ekonomia hirugarren sektorerantz bideratuta da, 2011. urtean sektore horretan aritu baita 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunen % 69,1 (EJSN-2009).

Informazioan koherentzia zaintzeko asmoz, EJSN-93 sailkapenean oinarrituko dugu datuen azterketa historikoa. Hasteko, industriaren zenbait alorretan 2009 eta 2010 urteen artean izandako zenbait alderdi positibo finkatu egin direla egiaztatu dugu. Industria metalikoko okupazioa, berriz, % 9,5 jaitsi zen urtero 2007 eta 2009 urteen artean; 2009 eta 2010 urteen artean egonkortu egin zen; eta, 2010 eta 2011 urteen artean, % 1,3 hazi zen. Gainerako industrian, okupazio-galeraren erritmoa handitu zen 2007-2009 aldiko % 7tik, 2009-2010eko % 8,8ra. 2010 eta 2011 artean, berriz, % 1 besterik ez zen jaitsi okupazio-koefizientea. Bistan da, beraz, okupazioa egonkortu zela urte horretan. Manufaktura-industriaren egoerak, berriz, okerrera egin du. 2007 eta 2009 urteen artean, urteko % 10 murriztu zen batez beste manufaktura-industriaren okupazioa. 2009 eta 2010 artean, berriz, % 1,4 hazi zen. 2010-2011 aldian, berriz, behera egin zuen berriz ere okupazioak manufaktura sektorean; zehazki, % 4,9 jaitsi zen okupazioa aldi horretan¹³.

2009 eta 2010 urteen artean hasi zen industriaren alorreko okupazioa egonkortzen. Industria metalikoaren bilakaera positiboak, beraz, finkatu egin du aipatu egonkortze hori. Esan dezakegu, bada, 2007-2009 biurtekoan baino ez dela jaitsi okupazioa industrian. Zehazki, okupazioaren % 9,2 galdu zen urteko batez beste 2007 eta 2009 urteen artean; 2009 eta 2010 urteen artean, berriz, okupazioaren % 1,3 galdu zen (-% 2,5ko galera izan zen EJSN-2009ren arabera); eta % 0,3 2010 eta 2011 urteen artean (-% 0,2ko galera izan zen EJSN-2009ren arabera).

Eraikuntzaren sektorearen lanbide-galera handia, berriz, finkatu egin da. Eraikuntzaren sektorean, honako martxa honetan murriztu da okupazioa: urteko % 5,4 murriztu zen batez beste 2007 eta 2009 urteen artean; % 10,4 2009 eta 2010 artean; eta % 10,6 2010 eta 2011 artean. Nekazaritzaren eta arrantzaren alorreko okupazioa 2007 eta 2009 urteen artean egonkortu bazen ere, urteko % 8,1 jaitsi zen batez beste 2009-2011 aldian.

¹³ EJSN-2009 sailkapenean oinarritutako azterketak behartu egiten du aipatutako zifra horiei buruzko zehaztapenak ematera. Horrela, aipatu sailkapen hori oinarri harturik, manufaktura-industriaren okupazioa % 4 jaitsi zen 2009 eta 2010 urteen artean, baina %0,9 hazi zen 2010 eta 2011 artean. Aitzitik, industria metalikoaren okupazioak %0,1 besterik ez du egin gora 2009 eta 2010 urteen artean %0,4 igo ondoren. Bi sailkapenak bat datoz, ordea, industriaren beste alor guztietako okupazioaren galera-erritmoa moteldu egin dela. EJSN-2009ren arabera, ordea, % 2,3an jarraitzen du okupazioaren galerak.

Sektore bakoitzaren okupazioa sasoi jakin batean murriztu bada ere, antzerako galerak izan dituzte guztiek krisialdian. Okupazioa desberdin murriztu da industriaren alor batean eta bestean. 2007-2011 aldian, esaterako, manufaktura-industrian izan zen beherakadarik txikiena (% 17,1ekoa); industriaren beste alor batzuetan, berriz, % 21,9 ere jaitsi zen. Lehen sektoreko % 14,8ko beherakada baino handiagoa izan da industriaren alorrekoa.

2010era arte, lehen eta bigarren sektoreen antzeko beherakada izan zen eraikuntzan. 2011n, ordea, beste sektoreek baino beherakada handiagoa izan zuen eraikuntzak, okupazioaren % 28,3 galdu baitu erreferentziazko laurtekoan. Hala ere, ez dugu ahaztu behar horren aurretik eboluzio ona izan zuela eraikuntzaren sektoreak. 2011ko okupazioaren maila 2001. urtekoarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu % 17,2 jaitsi dela okupazioa eraikuntzan. Ehuneko hori, hala ere, txikiagoa da industriaren (% 17,4) eta nekazaritza nahiz arrantzaren (% 38,1) okupazioan izandako beherakada baino. Beraz, eraikuntzaz gain beste sektoreetan ere nabaritu da 2007-2008 urteez geroztiko krisialdia.

2010 eta 2011 urteen artean bigarren mailako sektorean krisiak irauten duela erakutsi dute industriaren zenbait alorretako nahiz eraikuntzako datuek. Hala ere, 2010-2011 aldiko daturik negatiboena zerbitzuen sektoreak izan du, okupazio-galerak orokortu baitira argi eta garbi. Aldi horretan, hezkuntzak, osasunak eta gizarte-zerbitzuek besterik ez diote heldu okupazioaren zabalkundeari, krisialdiak ez baitu eraginik izan horien gain. Okupazioak % 5,7 egin du gora 2010 eta 2011 urteen artean (% 2,5 hazi baitzen 2009 eta 2010 artean); 2001-2009 aldiko biurtekoetako urteko % 4 eta % 5 arteko batez besteko hazkundetik gertu da hori (urteko % +4,1 hazi baitzen batez beste 2009 eta 2011 urteen artean). Oro har, % 18,3 hazi da hizpide dugun alorreko okupazioa 2007 eta 2011 urteen artean.

Finantza-erakundeetako eta enpresei eskainitako zerbitzuen alorrean, berriz, 2007koa baino askoz okupazio handiagoa izan da 2011n (% 9,1 eta % 9,7 hurrenez hurren). Orain gutxiko eboluzioa, edonola ere, negatiboa izan da aipatu bi alor horietan. Finantza-erakundeetan, esaterako, 2009 eta 2010 artean hasi zen murrizten okupazioa (% 0,5); 2010 eta 2011 urteen artean, ordea, are gehiago jaitsi zen (% 2). Enpresei eskainitako zerbitzuetan, berriz, duela are gutxiago hasi da okupazioa murrizten. 2010era arte nabarmen hazi bazen ere, 2010 eta 2011 urteen artean % 1,2 jaitsi zen hizpide dugun alorreko okupazioa.

Hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuez gain, bada gora egin duen zerbitzuen beste alor bat ere: merkataritza (% +0,9 puntu hazi zen alor horretako okupazioa 2010 eta 2011 urteen artean). Gorakadatxo horrek, hala ere, leundu besterik ez du egin 2009 eta 2010 urteen artean aipatu sektoreak izandako beherakada (-% 4,2koa). Sektore horretako okupazioak gorabehera handiak izan ditu 2005. urtetik. 2007koa baino % 1,6 handiagoa izan da 2011ko okupazio-koefizientea, eta 2005ekoa baino pixka bat txikiagoa. Hori gertatu da, hain zuzen ere, 2009-2011 biurtekoan % 1,7 eta 2005-2007 biurtekoan % 1 jaitsi delako urteko batez beste okupazioa.

2007koa baino handiagoa izan bada ere (% 2,6 eta % 3,1 artean), 2005eko mailaren azpitik egon da okupazioa 2011. urtean zerbitzuen sektoreko beste bi alor hauetan: beste zerbitzu batzuk eta etxeok zerbitzuan. Merkatuan gertatu bezalaxe, 2005 eta 2007 bitartean nahiz 2009 eta 2011. urtearen artean izandako eboluzio negatiboarekin du lotura, hein handi batean, zerbitzuen sektorearen egoerak. Beste zerbitzu batzuen alorrean, okupazioak behera egin du nabarmen 2005-2007 aldian (urteko -% 6, batez beste). 2007 eta 2009 urteen artean konpentsatu egin da pixka bat aipatu beherakada hori (urteko +%2,8, batez beste), baina 2009 eta 2011 urteen artean behera egin du berriz ere (urteko -% 1,3, batez beste). Merkataritzan gertatu ez bezala, zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako beherakada finkatu egin da azken biurtekoko urteetan (-% 1, 2010 eta 2011 artean; eta -% 1,6 2009tik 2010era). Etxeko zerbitzuan, urteko % 1,4 jaitsi da batez beste okupazioa 2005-2007 biurtekoan. 2007-2009 eta 2009-2011 biurtekoetako urteko % 0,9ko eta % 0,4ko batez besteko balio positiboek konpentsatu dute aipatu jaitsiera hori. Azken biurteko horretan, hala ere, gorabehera handiak izan dira urteko

2011n, 2005eko baino okupazio handiagoa eta 2007koa baino txikiagoa izan zen ostalaritzan (-% 3,4) eta Herri Administrazioan (-% 2,6). Alor guztietatik ostalaritza da 2009ra arteko ibilbidetik urrunen dagoena. 2001-2009 artean, azkar egin zuen gora okupazioak (urteko % 1,1 batez beste 2001 eta 2005 artean; 2005 eta 2007 artean % 2,9; eta 2007 eta 2009 artean, % 5). 2009-2010 aldian, berriz, % 3,9 jaitsi zen ostalaritzako okupazioa; eta % 8,8 2010 eta 2011 artean. Herri Administrazioaren kasuan, berriz, okupazioa egonkortu egin zen 2007 eta 2009 urteen artean. Ondoren, 2009 eta 2010 urteen artean, % 1,9 hazi zen eta, azkenik, 2010 eta 2011 urteen artean -% 4,4 jaitsi zen.

Bestetik, garraioen eta komunikazioen egiturazko dinamika negatiboa kontsolidatu zen 2009 eta 2011 urteen artean, eta 2005-2009 aldiko okupazio-galerak indartu ziren. Hamarkadaren erdialdetik okerrera egin du, gero eta gehiago, hizpide ditugun alorretako okupazioak; % 1,6 galdu baitu urteko 2005 eta 2007 urteen artean; % 2,3, 2007 eta 2009 urteen artean; eta % 4,7, 2009 eta 2010 urteen artean. Okupazioa jaitsi da nabarmen baita 2010 eta 2011 urteen artean ere (-% 3,2). Are, 2005 eta 2011 urteen artean, okupazioaren % 14,6 galdu zuen alorren multzo horrek.

Adar horiek epe luzera izan duten dinamika negatiboaren erakusgarri, 2011ko okupazioa 2001ekoa baino % 1,4 txikiagoa izan da. Beste datu kezkarri bat zera da, EJSN-2009 sailkapenaren arabera 2009-2011 aldiak izan duen bilakaera negatiboagoak lotura handiagoa duela informazioaren eta komunikazioen alorrekin garraioen sektorearekin baino. Garraioen sektorean okupazioak % 1,7 egin du behera 2009 eta 2011 urteen artean; informazioaren eta komunikazioan alorrean, berriz, % 15,2.

2009/2011 biurteko osoan sektoreak edota alor hedakor eta atzerakorrak banaka aztertuz gero, ikusiko dugu alor hedakorretan egin duela gora gehienbat okupazioak (19.709 lanpostu berri sortu dira), zehazki, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuetan (% 62,6). Aipatu alor hori izan da aldi

guztian egiazki hedatu den bakarra. Enpresei eskainitako zerbitzuei dagokie beste % 27,8; eta % 8,7 industria metalikoari.

Okupazioan atzera egin duten sektore eta adar guztien artean (guztira 24.674 enplegu galdu dira 2009tik 2011ra bitarte), eraikuntza (% 36,9), ostalaritza (% 16,2), garraioak eta komunikazioak (% 10,7), eta merkataritza (% 10,5) nabarmentzen dira. Azpimarratzekoak dira, baita ere, industriaren gainerako alorretan –industria metalikoan eta manufaktura-industrian izan ezik– (% 8,5) nahiz nekazaritzan eta arrantzan (% 5,5) izandako galerak.

16-64 urteko landunen bilakaera, sektorearen eta jarduera-alorraren arabera.

2009-2011 aldia

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2009-2011ko hazkunde-tasak, ehunekoetan)

	Kopuru absolutuak						Hazkundearen ehunekoak		
	2009		2010		2011		2009/ 2010	2010/ 2011	2009/ 2011
Jarduera-alorra	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.			
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	12.923	1,4	12.080	1,3	11.170	1,2	-6,5	-7,5	-13,6
Manufaktura-industria	42.633	4,5	40.923	4,4	41.309	4,5	-4,0	0,9	-3,1
Industria metalikoa	129.443	13,7	129.930	13,9	130.035	14,1	0,4	0,1	0,5
Bestelako industriak	43.621	4,6	39.467	4,2	38.572	4,2	-9,5	-2,3	-11,6
INDUSTRIA	215.697	22,8	210.321	22,4	209.915	22,7	-2,5	-0,2	-2,7
ERAIKUNTZA	80.538	8,5	71.784	7,7	64.952	7,0	-10,9	-9,5	-19,4
Merkataritza	131.907	13,9	128.859	13,7	129.391	14,0	-2,3	0,4	-1,9
Ostalaritza	56.166	5,9	53.590	5,7	48.880	5,3	-4,6	-8,8	-13,0
Garraioa	48.117	5,1	48.006	5,1	47.317	5,1	-0,2	-1,4	-1,7
Informazioa eta komunikazioak	28.275	3,0	27.505	2,9	23.989	2,6	-2,7	-12,8	-15,2
Finantza-erakundeak, aseguruak	23.341	2,5	23.065	2,5	22.597	2,4	-1,2	-2,0	-3,2
Zerbitzu profesionalak	42.378	4,5	45.956	4,9	47.544	5,1	8,4	3,5	12,2
Zerbitzu osagarriak	46.307	4,9	48.122	5,1	46.325	5,0	3,9	-3,7	0,0
Administrazio Publikoa	50.551	5,3	51.934	5,5	49.641	5,4	2,7	-4,4	-1,8
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	148.964	15,7	150.734	16,1	159.871	17,3	1,2	6,1	7,3
Jolas- eta elkarte-jarduerak	19.700	2,1	21.287	2,3	21.849	2,4	8,1	2,6	10,9
Beste zerbitzu batzuk	17.242	1,8	16.513	1,8	15.949	1,7	-4,2	-3,4	-7,5
Etxeko zerbitzua	24.668	2,6	27.461	2,9	24.904	2,7	11,3	-9,3	1,0
ZERBITZUAK	637.615	67,3	643.032	68,6	638.257	69,1	0,8	-0,7	0,1
Sailkatu gabeak	486	,1	484	,1	0	,0			
Guztira	947.259	100,0	937.701	100,0	924.295	100,0	-1,0	-1,4	-2,4

Oharra: EJSN-2009an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko landunen bilakaera, sektorearen eta jarduera-alorraren arabera.

2001-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa						2011-2007 hazkundeare n %
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009	2010/ 2009	2011/ 2010	
Jarduera-adarra													
NEKAZARITZA/ARRANTZA	20.652	15.082	15.004	15.131	13.883	12.787	-7,6	-0,3	0,4	-8,1	-8,2	-7,9	-14,8
Manufaktura-industria	55.278	49.279	51.963	42.092	42.673	40.598	-2,8	2,7	-10,0	-1,8	1,4	-4,9	-21,9
Industria metalikoa	157.357	159.550	163.563	133.854	133.795	135.562	0,3	1,2	-9,5	0,6	0,0	1,3	-17,1
Bestelako industriak	41.364	40.965	43.098	37.285	34.003	33.660	-0,2	2,6	-7,0	-5,0	-8,8	-1,0	-21,9
INDUSTRIA	253.999	249.794	258.625	213.230	210.470	209.819	-0,4	1,8	-9,2	-0,8	-1,3	-0,3	-18,9
ERAIKUNTZA	76.809	86.373	88.671	79.332	71.118	63.602	3,0	1,3	-5,4	-10,5	-10,4	-10,6	-28,3
Merkataritza	111.257	131.670	129.105	135.720	130.085	131.218	4,3	-1,0	2,5	-1,7	-4,2	0,9	1,6
Ostalaritza	45.667	47.770	50.579	55.787	53.590	48.880	1,1	2,9	5,0	-6,4	-3,9	-8,8	-3,4
GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK	55.320	63.889	61.923	59.114	56.327	54.552	3,7	-1,6	-2,3	-3,9	-4,7	-3,2	-11,9
Finantza-etxeak; Finantza-erakundeak	20.475	21.672	20.708	23.186	23.065	22.597	1,4	-2,2	5,8	-1,3	-0,5	-2,0	9,1
Enpresetarako zerbitzuak	71.811	89.596	94.455	98.159	104.909	103.630	5,7	2,7	1,9	2,7	6,9	-1,2	9,7
Administrazio Publikoa	45.439	45.101	50.990	50.978	51.934	49.641	-0,2	6,3	0,0	-1,3	1,9	-4,4	-2,6
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	103.603	126.063	135.761	148.203	151.846	160.548	5,0	3,8	4,5	4,1	2,5	5,7	18,3
Beste zerbitzu batzuk	31.702	46.190	40.855	43.214	42.527	42.116	9,9	-6,0	2,8	-1,3	-1,6	-1,0	3,1
Etxeko zerbitzua	25.077	24.979	24.282	24.719	27.461	24.904	-0,1	-1,4	0,9	0,4	11,1	-9,3	2,6
ZERBITZUAK	510.353	596.931	608.657	639.080	641.744	638.086	4,0	1,0	2,5	-0,1	0,4	-0,6	4,8
Sailkatu gabeak	0	0	0	486	484	0							
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-1,0	-1,4	-4,8

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

23.2010-2011 aldiko okupazioaren bilakaera sektoriala eskualdearen arabera aztertuta, zenbait datu interesgarri atera ditugu. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da, 2009-2010 aldian ez bezala, zerbitzu-arlokoen bestelako sektoreetako okupazioak behera egin duela, berriro, EAEko eskualdeetan. Beraz, eten egin da, 2009-2010 aldian, hainbat eskualdetan (Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan) hautemandako joera, hots sektore horietako okupazioa lehengora bueltatzea; hain zuzen, faktore hori izan zen eskualde horietako okupazioa berreskuratzearen oinarri. 2010-2011 aldian, sektore horietako okupazioa % 0,8 jaitsi da Aiarraldean eta Durangaldean, % 2,5 Debagoiengan eta % 7,9 Tolosa-Goierri. Eskualde guztietan goranzko joera izan da zerbitzuen sektorean. Halere, zerbitzu-arlokoen bestelako sektoreetako okupazioan izandako jaitsieraren ondorioz, 2010-2011 aldian, okupazio orokorra % 0,9 jaitsi da Debagoiengan eta % 1,5 Tolosa-Goierri; Durangaldean, berriz, okupazioa egonkortu egin da (% -0,1). Aiarraldean soilik lortu da okupazio orokorra % 1,7 haztea, zerbitzuetako okupazioaren gorakada handiari esker.

Okupazioaren hazkunde orokorra % 2,7koa izan da Debabarrean; funtsean, zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako hazkunde handian (% 6) oinarritu da, gainerako sektoreetako okupazioan izandako % 1,1eko jaitsiera indargabetu duena. 2009-2010 aldian, zerbitzu-arlokoen bestelako sektoreetako okupazioan izandako hazkunderik izan ez arren (% -0,2), Debabarrena aurrez aipatutako eskualdeen egoeretara gerturatu zen, okupazioan etengabe izan diren jaitsieretatik urrundu baitzen; izan ere, EAEko gainerako eskualdeetan, artean, joera hori zen nagusi.

Horrez gain, azpimarratu behar da zerbitzu-arlokoen bestelako sektoreetako okupazioak behera egiten jarraitu duela, indar handiz, EAEko eskualde handietan: Gasteizen, Bilboko hiru eskualdeetan eta Donostialdean. Nolanahi ere, 2009-2010 aldian izan diren % 6ko jaitsierak edo jaitsiera handiagoak oinarri hartuta, egiaztatu da kopuru horiei Eskualdean eta Donostialdean soilik eutsi zaiela 2010-2011 aldian; Ezkerraldean, % 3 jaitsi da; Bilbon, % 1; eta Gasteizen, % 0,2.

Eskualde horietan, erabakigarriak izan dira bai adierazitako bilakaera bai 2010-2011 aldian zerbitzuen sektoreko okupazioan hautemandako hainbat joera. Alderik txarrean, Bilbon eta Ezkerraldean zerbitzuen sektoreko okupazioan izandako jaitsiera azpimarratu behar da. Bilbori dagokionez, fenomeno horrek azaltzen ditu aldi horretan okupazioan izan diren galera handiak (% -5,1); zerbitzuen sektoreko okupazioan, % 6,1eko jaitsiera izan da, eta horrek argi eta garbi gaititu du gainerako sektoreetan izandako jaitsiera (% -1). Ezkerraldean, atzera egin da zerbitzu-arlokoen bestelako sektoreetako okupazioan, eta hori, halaber, erabakigarria izan da (% -3); dena den, zerbitzuen sektorean izandako % 3,6ko jaitsierak hobeto azaltzen ditu okupazioan, oro har, izandako galera orokorrak (% -3,4). Ezkerraldeko joerak, bestalde, 2010-2011 aldian Bizkaia-Kostako okupazio orokorrean izandako % 1eko galera azaltzen

duten arrazoietatik gertu daude, kasu horretan zerbitzu-arloko ez kanpoko sektoreetan jaitsiera handiagoa izan arren (% -1,7 zerbitzu-arloko ez kanpoko sektoreetan eta % 0,7 zerbitzuetan).

Ezkerraldean ez bezala, Eskuinaldeko eta Donostialdeko zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetako okupazioan izan diren % 6 inguruko jaitsierak hirugarren sektorearen hazkundearen bidez berdindu dira. Donostialdean, zerbitzuetako okupazioaren % 2,2ko hazkundeak okupazioa egonkortu besterik ez du egin 2010-2011 aldian (% -0,1); Eskuinaldean, aldiz, okupazioan izan den % 1,3ko hazkundearen oinarri da. Prozesua Aiaralderako eta Debabarrenerako adierazitakoaren antzekoa da. Zerbitzuetako okupazioaren hazkundera handiagoa izan da bi eskualde horietan, eta zerbitzu-arloko ez bestelako sektoreetako okupazioaren jaitsiera txikiagoa; horregatik izan dira hazkunde handiagoak bi eskualde horietan (% 1,7 Aiaraldean eta % 2,7 Debabarrenean), Eskuinaldearekin alderatuz. Aldi horretan, okupazioaren hazkundearen antzeko oinarriak izan dituzte hiru eskualde horietan; funtsean, zerbitzuen sektorearen hazkundera oinarritu dira.

Okupazioaren aldagarritasuna ezaugarri azpimarragarria den testuinguru horretan, Gasteiz nabarmendu behar da, 2010-2011 aldian bertan izan den egonkortasuna dela eta; egonkortasun hori hirugarren sektorean nahiz gainerako ekonomia-sektoreetan izan da.

Alderik positiboenean, aurreko datuek erakusten dutenez, 2010-2011 aldian arindu egin da industriako eta/edo eraikuntzako krisia, hiri-eskualde handi guztietan eragiten zuen faktorea; 2009-2010 aldiko jaitsiera handiek Eskuinaldean, Donostialdean eta, neurri txikiagoan, Ezkerraldean jarraitu dute. Alde negatiboan, ikusi da arazo horrek oso eragin handia duela Tolosa-Goierri, eta neurri txikiagoan, Debagoienean; bazirudien, 2009-2010 aldian, eskualde horietan hobetu egin zela sektore horietako okupazioa. Hiri-eskualde handietan, bestalde, 2010-2011 aldiko faktore negatibo nagusia zerbitzuen sektoreko okupazioaren jaitsierak Bilboko eta Ezkerraldeko okupazioaren bilakaeran izan duen eragina da, Gasteizko okupazioan izan den egonkortze-joerarekin, eta Eskuinaldean eta Donostialdean sektore horrek izan duen susperraldiarekin alderatuz. Bilakaera okerrera Bilborena izan da; izan ere, eskualde horretan, 2009-2010 aldian, jada, hauteman ziren zerbitzuen sektoreko okupazioaren jaitsieraren ondorioak (fenomeno hori Bizkaia-Kostan ere hauteman da).

Epe ertainera begira, 2007-2011 aldiko industriaren eta eraikuntzaren krisia gertaera bereziki garrantzitsua da eskualde-eremuan; zerbitzu-arloko ez kanpoko sektoreetako okupazioan, 2011ko datuak 2007koak baino askoz ere txikiagoak izan dira gehienetan. Aiaraldean, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean % 6tik % 9,4ra arteko jaitsierak egon dira, eta Debagoienean eta Gasteizen, % 13,5etik % 14,6ra artekoak; aldiz, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierri, % 19,3 eta % 26,4 artean jaitsi dira. Eskuinaldean, % 34,3ko gehieneko jaitsiera izan da.

**16-64 urteko landunen bilakaera, jarduera-sektore handien eta eskualdearen arabera
2001-2011 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Jarduera-sektore handiak eta eskualdea		Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa						2007/2011 aldiko hazkundearen %
		2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009	2010/ 2009	2011/ 2010	
Zerbitzu- arlokoez bestelakoak	Gasteiz	52.033	50.756	50.351	45.927	43.095	42.995	-0,6	-0,4	-4,5	-3,2	-6,2	-0,2	-14,6
	Aiaraldea	9.211	9.781	10.334	9.428	9.787	9.708	1,5	2,8	-4,5	1,5	3,8	-0,8	-6,0
	Eskuinaldea	19.174	18.510	21.585	16.765	15.071	14.173	-0,9	8,0	-11,9	-8,1	-10,1	-6,0	-34,3
	Bilbo	37.575	36.816	39.107	33.347	31.154	30.828	-0,5	3,1	-7,7	-3,9	-6,6	-1,0	-21,2
	Ezkerraldea	59.579	59.179	63.467	51.673	48.122	46.702	-0,2	3,6	-9,8	-4,9	-6,9	-3,0	-26,4
	Bizkaia-Kosta	21.890	20.573	20.430	19.655	19.385	19.060	-1,5	-0,3	-1,9	-1,5	-1,4	-1,7	-6,7
	Durangaldea	24.122	27.182	28.751	21.399	21.621	21.450	3,0	2,8	-13,7	0,1	1,0	-0,8	-25,4
	Donostialdea	72.625	72.307	73.081	62.513	58.231	54.654	-0,1	0,5	-7,5	-6,5	-6,8	-6,1	-25,2
	Tolosa-Goierrri	25.286	26.840	27.324	22.917	23.953	22.063	1,5	0,9	-8,4	-1,9	4,5	-7,9	-19,3
	Debagoiena	17.347	17.158	16.516	13.640	14.649	14.282	-0,3	-1,9	-9,1	2,3	7,4	-2,5	-13,5
Debabarrena	12.619	12.148	11.355	10.429	10.405	10.293	-0,9	-3,3	-4,2	-0,7	-0,2	-1,1	-9,4	
	Guztira	351.460	351.249	362.300	307.693	295.472	286.209	0,0	1,6	-7,8	-3,6	-4,0	-3,1	-21,0
Zerbitzuak	Gasteiz	64.391	73.008	74.274	77.949	78.822	78.894	3,2	0,9	2,4	0,6	1,1	0,1	6,2
	Aiaraldea	8.260	9.142	9.611	9.681	9.872	10.285	2,6	2,5	0,4	3,1	2,0	4,2	7,0
	Eskuinaldea	44.545	52.778	51.041	53.956	54.696	56.572	4,3	-1,7	2,8	2,4	1,4	3,4	10,8
	Bilbo	95.465	107.725	111.292	116.346	114.141	107.213	3,1	1,6	2,2	-4,0	-1,9	-6,1	-3,7
	Ezkerraldea	88.726	107.871	107.464	116.904	120.077	115.768	5,0	-0,2	4,3	-0,5	2,7	-3,6	7,7
	Bizkaia-Kosta	25.096	30.219	34.348	34.266	33.460	33.231	4,8	6,6	-0,1	-1,5	-2,4	-0,7	-3,3
	Durangaldea	22.096	24.059	26.462	30.405	31.094	31.234	2,2	4,9	7,2	1,4	2,3	0,5	18,0
	Donostialdea	122.943	141.935	143.993	147.940	147.932	151.259	3,7	0,7	1,4	1,1	0,0	2,2	5,0
	Tolosa-Goierrri	18.505	25.772	24.826	26.025	26.180	27.336	8,6	-1,9	2,4	2,5	0,6	4,4	10,1
	Debagoiena	10.270	13.361	12.744	13.758	13.532	13.645	6,8	-2,3	3,9	-0,4	-1,6	0,8	7,1
Debabarrena	10.057	11.061	12.603	11.852	11.937	12.648	2,4	6,7	-3,0	3,3	0,7	6,0	0,4	
	Guztira	510.353	596.931	608.657	639.080	641.744	638.086	4,0	1,0	2,5	-0,1	0,4	-0,6	4,8

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

Dena den, zerbitzuen sektoreko okupazioa handiagoa izan da 2011n 2007an baino EAEko eskualde gehienetan. Aldagai positiboa % 5 eta % 11 artean dago, oro har; proportzio hori % 18ko gehienekora iritsi da Durangaldean. Salbuespenak hiru eskualderekin daude lotuta: alde batetik, Debabarrenekin, 2011n 2007an baino % 0,4 handiagoa izan baita, ozta-ozta; eta bestetik, Bilborekin eta Bizkaia-Kostarekin, eskualde horietan biztanleria landuna 2007an baino % 3,7 eta % 3,3 gutxiago izan baita, hurrenez hurren, 2011n. Bilbori dagokionez, faktore hori ezinbestekoa da okupazio guztiaren jaitiera erlatibo handiagoa azaltzeko (% -8,2 Bilbon, eta % -4,8, batez beste, EAEn).

Bilbori kontrajarriz, Eskuinaldean zerbitzuen sektoreko okupazioa % 10,8 hazi da, eta horren ondorioz, 2007-2011 aldian okupazio orokorra gutxien jaitsi den eskualdeen artean dago (% -2,6). Gasteizen eta Aiaraldean, sektore horretako okupazioa EAEko batez bestekoa baino gehiago hazi da eta gainerako sektoreetako okupazioa Euskadiko batez bestekoa baino gutxiago jaitsi da; faktore horien ondorioz, beraz, Gasteizko okupazio orokorraren jaitiera txikiagoa izan da (% -2,2), eta Aiaraldean okupazioa egonkortu egin da (% +0,2).

24.2011ko datuek, oraindik ere, agerian uzten dute hirugarren sektorean hazkunde txikiagoa izateak ez duela zuzenean okupazioaren dinamismo txikiagoa adierazten; gogoan izan behar da lurralde bateko industria-oinarria zeinen garrantzitsua den lurralde horretako okupazioari eusteko. Horri dagokionez, deigarria da, EAEn % 64tik gorako okupazio-koefizientea duten zazpi eskualdeetatik (Gasteiz, Aiaraldea, Durangaldea eta Gipuzkoako lau eskualdeak) bostek (denak Gasteiz eta Donostialdea salbu) gainditu egin dutela 2011. urtean 1993an industrian zuten okupazio-koefizientea. Eskualde horietako okupazioan maila handiagoak izatea, gainera, bateragarria da zerbitzuen sektorearen garrantzi erlatiboa Euskadiko batez bestekoa baino txikiagoa izatearekin; salbuespen bakarra Donostialdea da.

Ilido beretik, Bilbo inguruko hiru eskualdeek osatutako multzoan hirugarren sektoreak maila handiagoak izanik ere, okupazio-koefizienteak ez dira izan gainerako eskualdeetakoak baino handiagoak. Gasteizko eta Donostialdeko okupazio-koefiziente orokorrak Bilbokoak, Eskuinaldekoak eta Ezkerraldekoak baino handiagoak izan dira, eta horrek lotura estua du gainerako sektoreetan (eta, bereziki, industrian) lortutako okupazio-mailekin, maila horiek handiagoak izan baitira bi eskualde horietan (% 16,9 Gasteizen eta % 12,4 Donostialdean; aldiz, % 8,8 eta % 11,7 arteko kopuruak izan dira Bilboko hiru eskualdeetan).

Urbanizazio-mailarik txikieneko eremuei dagokienez, gauza bera adieraz daiteke, Bizkaia-Kosta industria-jarduera handia duten eskualdeekin (Aiaraldea, Durangaldea, Tolosa-Goierri edo Debagoiena) alderatzean. Bizkaia-Kostan hirugarren sektoreak eragin handiagoa izateak ez du oztopatzen eskualde horretako okupazio-koefiziente orokorrak aztertutako gainerako zonaldeetakoak baino txikiagoak izatea.

16-64 urteko biztanleria: okupazioaren barne-banaketaren bilakaera, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
1993-2011 aldia
 (%-tan)

Proiektuak	Gasteiz	Aiaraldea	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia- Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa- Goierri	Debagoiena	Debabarrena	Guztira
1993												
Nekazaritza	3,3	6,1	,3	,1	,8	13,3	3,4	3,3	3,9	,9	3,9	2,7
Industria	33,2	42,5	26,1	21,1	29,4	30,8	44,8	26,2	44,2	59,8	50,2	31,1
Eraikuntza	8,1	6,9	6,2	7,4	11,2	8,1	5,7	7,8	7,8	4,8	4,5	8,0
Zerbitzuak	55,3	44,4	67,4	71,4	58,6	47,8	46,1	62,7	44,0	34,4	41,5	58,3
2001												
Nekazaritza	3,7	4,8	,4	,2	2,0	7,7	1,0	2,6	3,2	,0	5,7	2,4
Industria	33,7	41,3	21,8	18,5	26,5	30,0	45,4	24,9	45,4	56,8	45,6	29,5
Eraikuntza	7,2	6,7	7,8	9,5	11,7	8,9	5,8	9,6	9,2	6,0	4,3	8,9
Zerbitzuak	55,3	47,3	69,9	71,8	59,8	53,4	47,8	62,9	42,3	37,2	44,4	59,2
2007												
Nekazaritza	2,5	5,5	,8	,1	1,0	3,7	1,5	1,6	1,9	1,5	2,5	1,5
Industria	29,6	38,7	20,9	15,8	23,4	26,5	43,6	23,4	42,2	50,6	36,5	26,6
Eraikuntza	8,3	7,7	8,1	10,1	12,7	7,1	7,0	8,6	8,2	4,3	8,4	9,1
Zerbitzuak	59,6	48,2	70,3	74,0	62,9	62,7	47,9	66,3	47,6	43,6	52,6	62,7
2010												
Nekazaritza	2,3	3,9	,5	,1	,7	5,0	1,2	1,6	3,0	,9	1,5	1,5
Industria	27,2	39,4	15,5	12,9	17,9	22,8	33,8	19,1	38,0	45,0	40,1	22,5
Eraikuntza	5,8	6,5	5,6	8,4	10,1	8,9	5,9	7,6	6,8	6,1	4,9	7,6
Zerbitzuak	64,7	50,2	78,4	78,6	71,4	63,3	59,0	71,8	52,2	48,0	53,4	68,5
2011												
Nekazaritza	2,3	4,8	,5	,1	,6	5,4	1,1	1,2	2,4	,7	1,1	1,4
Industria	26,3	38,1	15,5	14,8	19,1	23,2	34,5	18,5	36,3	46,2	37,9	22,7
Eraikuntza	6,7	5,7	4,0	7,5	9,1	7,8	5,2	6,8	6,0	4,2	5,8	6,9
Zerbitzuak	64,7	51,4	80,0	77,7	71,3	63,5	59,3	73,5	55,3	48,9	55,1	69,0

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
1993-2011 aldia
 (%-tan)

Proiektuak		Gasteiz	Aiaraldea	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia- Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa- Goierri	Debagoiena	Debabarrena	Guztira
Nekazaritza/Eraik	1993	5,9	6,3	3,0	3,4	4,9	10,8	4,4	5,4	5,5	2,8	3,9	5,0
	2001	7,4	7,2	4,8	5,6	7,6	10,0	4,1	7,8	7,5	3,9	6,3	6,8
	2007	7,4	9,3	5,8	6,7	8,9	7,2	5,9	7,2	7,4	4,2	7,4	7,3
	2010	5,2	6,9	3,8	5,3	6,8	8,9	4,7	6,1	6,8	4,8	4,1	5,9
	2011	5,8	7,1	2,9	4,5	6,0	8,4	4,1	5,4	5,8	3,4	4,6	5,3
Industria	1993	17,3	20,4	12,0	9,5	12,0	15,5	21,6	12,7	20,6	29,7	23,2	14,5
	2001	22,7	26,0	12,6	10,6	14,6	18,2	27,2	15,9	27,4	37,0	28,7	17,8
	2007	20,5	27,5	13,8	10,3	15,3	17,8	30,2	16,6	30,7	36,6	24,8	18,1
	2010	17,5	26,2	9,7	8,1	11,3	14,6	22,1	12,7	26,3	30,9	25,3	14,5
	2011	16,9	25,8	9,8	8,8	11,7	14,8	22,6	12,4	25,1	31,9	24,8	14,5
Zerbitzuak	1993	28,7	21,4	31,0	32,2	24,0	24,1	22,3	30,4	20,5	17,1	19,2	27,1
	2001	37,2	29,8	40,4	41,1	33,1	32,3	28,6	40,1	25,5	24,2	27,9	35,8
	2007	41,3	34,2	46,3	48,4	41,0	42,1	33,3	46,9	34,6	31,4	35,8	42,7
	2010	41,5	33,4	49,0	48,9	45,2	40,5	38,6	47,9	36,2	33,0	33,7	44,2
	2011	41,7	34,9	50,8	46,2	43,8	40,4	38,8	49,4	38,3	33,7	36,0	44,2
Guztira	1993	52,0	48,1	45,9	45,1	41,0	50,4	48,3	48,6	46,5	49,6	46,2	46,6
	2001	67,2	63,0	57,7	57,3	55,3	60,5	59,9	63,7	60,3	65,1	62,9	60,5
	2007	69,2	71,0	65,9	65,4	65,2	67,1	69,4	70,8	72,6	72,2	68,0	68,1
	2010	64,3	66,5	62,5	62,2	63,3	63,9	65,4	66,8	69,3	68,8	63,1	64,6
	2011	64,4	67,8	63,5	59,5	61,4	63,6	65,5	67,2	69,1	68,9	65,4	64,1

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

25.2007-2009 aldirian gertatu bezala, 2009-2011 aldirian okupazioaren beheranzko joera goi-mailako kalifikazioko enplegua behar ez duten sektoreen bilakaera negatiboarekin dago lotuta, batez ere. Kasu horretan, okupazioaren beherakada areagotu egin da; hain zuzen ere, urteko % 2,9tik % 3,5ra 2007-2009 aldiritik 2009-2011 aldira bitarte. Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan okupazioak izan duen bilakaerak berdindu egin du beherakada hori, neurri batean. Izan ere, % 1,9ko hazkundera izan da sektore horietan; hau da, 2007-2009 aldiriko % 1,3ko hazkundera baino handiagoa. Horren ondorioz, okupazioak goi-mailako kalifikazioko sektoreetan duen garrantzi erlatiboa % 41,5etik % 44,2ra igo da 2009tik 2011ra bitartean.

Bestalde, aipatu behar da 2010-2011 aldirian moteldu egin dela goi-mailako kalifikaziodun sektoreetako okupazioaren urtetik urterako hazkunde-tasa; zehazki, % 1,4 hazi da, 2010-2011 aldiriko % 2,4 baino askoz ere gutxiago eta 2007-2009 aldiriko % 1,3tik oso gertu. Beraz, pentsa daiteke, 2009-2010 aldiriko goranzko joera txikiaren ondoren, beherantz hasiko litzatekeela, berritri, goi-mailako kalifikazioko okupazio berriak sortzeari dagokionez, 2001-2009 aldiriko joerari jarraikiz. Beraz, egiaztatu da okupazio-mota horren hazkunde-erritmoa motelduz doala, poliki-poliki; 2001-2005 aldirian, % 3,8 izan zen; 2005-2007 aldirian, % 2,5; eta 2007-2009 aldirian, % 1,3.

2007az geroztik, joera horrez gain, bilakaera kezagarria izan da goi-mailako teknologiko sektoreen okupazioan; 2009-2011n, joera hori finkatu egin da. Neurri batean industriari lotuta dauden goi-mailako teknologia behar duten sektore horietan, okupazioak urteko % 0,8ko jaitziera izan zuen, batez beste 2007-2009 aldirian, eta joera hori areagotu egin da 2009-2011 aldirian, urteko % 1,5eko jaitziera izan arte. Goi-mailako prestakuntza edo ezagutza-intentsitate handia duten sektoreetan, % 11,7 eta % 14 arteko hazkundeak izan dira okupazioan, 2007-2011 aldirian; aldirian, sektore horietako hazkundeari kontrajarriz, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan, okupazioa % 4,5 jaitzi da. Okupazioak sektore horietan duen garrantzia % 12,2koa izan zen 2010ean.

16-64 urteko biztanleria landuna goi-mailako kalifikazioko sektoreetan
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektore mota	2009		2010		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Goi-mailako teknologia	116.495	12,3	114.804	12,2	113.003	12,2
Goi-mailako prestakuntza	248.083	26,2	258.283	27,5	265.300	28,7
Ezagutza-intentsitate handia	304.600	32,2	314.433	33,5	319.232	34,5
Goi-mailako kalifikazioa	393.395	41,5	402.670	42,9	408.455	44,2
Hondarra	553.864	58,5	535.030	57,1	515.839	55,8
Guztira	947.259	100	937.701	100	924.295	100

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan
2001-2011 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Sektore-mota	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009	
Goi-mailako teknologia	111.185	110.827	118.277	116.495	114.804	113.003	-0,1	3,3	-0,8	-1,5	-4,5
Goi-mailako prestakuntza Ezagutza-intentsitate handia	175.370	217.398	232.665	248.083	258.283	265.300	5,5	3,5	3,3	3,4	14,0
Goi-mailako kalifikazioa	224.943	273.326	285.861	304.600	314.433	319.232	5,0	2,3	3,2	2,4	11,7
Hondarra	314.716	364.967	383.384	393.395	402.670	408.455	3,8	2,5	1,3	1,9	6,5
Guztira	547.098	583.213	587.573	553.864	535.030	515.839	1,6	0,4	-2,9	-3,5	-12,2
	861.814	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-4,8

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

26.EAEn, oro har, hazten jarraitu du goi-mailako kalifikazioko sektoreetako okupazioak, baina joera hori ez da eskualde guztietan gauzatu 2007-2011 aldian. Aiaraldean, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Debagoienean soilik finkatu da joera hori; beraz, horrek azaltzen du eskualde horietan hazi dela gehien okupazio-mota hori, laurtekoan. Hazkundera, oro har, % 10 eta % 14 artekoa izan da, baina Debagoienean, % 28,1 hazi da. Azken eskualde horretako hazkundera, hala ere, engainagarria da, apur bat, goi-mailako kalifikazioa duten sektoreetako okupazioan 2005-2007 aldian izan ziren galera handiak (% -10,5) berreskuratzearekin baitago lotuta, batez ere. 2005-2011 aldia erreferentziatzat hartuz, Debagoieneko goi-mailako kalifikazioa duten sektoreetako okupazioa % 2,6 hazi da, ozta-ozta; beraz, aztertutako gainerako eskualdeetan izan diren % 15etik gorako hazkundeak baino nabarmen txikiagoa izan da.

Eskualde-talde horietan, beste alderdi bat ere azpimarratu behar da: 2009-2011 aldian, 2001etik, lehen aldiz, goi-mailako kalifikazioko okupazioaren hazkunde-erritmoaren goranzko prozesuarekin hautsi da, 2009ra arte Ezkerraldearen ezaugarri zena (2001-2005 aldian, urteko % 1,9ko hazkundeak izan ziren, batez beste; 2005-2007 aldian, % 3koa; eta 2007-2009 aldian, % 5,2koa). 2009-2011 aldian izan den urteko % 1,5eko batez besteko hazkundera, berriz, azken hamar urteetako txikiena izan da.

2005-2011 aldian, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioaren hazkundera handia izan da, halaber, Bilbon eta Debabarrenean; % 13,6 eta % 15,4 arteko hazkundeak izan dira, aurrez aztertutako eskualdeetan izandakoen antzekoak (Debabarrenean salbu). Dena den, bi eskualde horietan, okupazio-mota hori jaitsi egin da 2009-2011 aldian (urteko % -0,6, batez beste, Bilbon eta % -1,1, Debabarrenean).

Goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioaren bilakaera positiboa izan da aipatutako zazpi eskualde horietako gehienetan 2005-2011 aldian (Debagoieneko aurrez

aipatutako ñabardurak aintzat hartuz); bilakaera hori, ordea, ez dago lotuta, inola ere, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioaren hazkunde-joera jarraituarekin. Okupazio-mota horrek behera egin du 2007-2011 aldian Bilbon, Ezkerraldean eta Durangaldean ere, eta hazkunde neurritsua baino ez du izan Aiaraldean (% 4,2). Goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioa, bestalde, % 10etik gora hazi da Donostialdean eta Deba bailarako bi eskualdeetan. Hala ere, 2005az geroztik, ez da finkatu okupazioaren aurrerapen egonkorrik; Debagoiena azpimarratu behar da, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan okupazio txikiagoa izan baitu 2011n 2005ean baino. Epe luzera, bilakaera onena Donostialdekoa da, okupazio-mota hori % 17,1 hazi baita 2007-2011 aldian eskualde horretan. Hazkunde hori, funtsean, 2007-2009 aldian gertatu zen, 2005-2007 aldiko beheranzko joeraren ondotik; 2009-2011 biurtekoan, ordea, eutsi egin zaio 2007-2009 aldiko hazkunde handiaren ondoriozko okupazioari.

Goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioa hazi egin da, berriro ere, 2009-2011 biurtekoan Gasteizen, Eskuinaldean eta Tolosa-Goierri; hala ere, 2007-2009 aldiko beherakaden ondorioz, okupazio-kopuruak egonkortu egin dira 2007-2011 laurteko osoan. Gasteizen, goranzko joera hartu da (% 2,9), eta aldiz, Eskuinaldean eta Tolosa-Goierri, behera egin da (% -1,3 eta % -3,2, hurrenez hurren). Bizkaia-Kostan ere antzeko bilakaera hauteman da, baina kasu honetan, beste abiapuntu bat izan da; izan ere, 2007-2009 aldian, aztertutako sektoreetako okupazioan oso jaitsiera handia izan zen. Eskualde horretan, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioa % 17,8 gutxitu da 2007-2011 aldian. Bitxia bada ere, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioa egonkortzeko edo gutxitzeko joerak, 2001-2005 aldian, Aiaraldearekin eta Donostialdearekin batera EAEn okupazio-mota horren hazkunde erlatibo handiena izategatik nabarmendu ziren eskualdeei eragin die; errealitate hori 2007ra arte luzatu zen Bizkaia-Kostan.

Aztertutako lau eskualdeetan, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioaren dinamika goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioaren jaitsierak baldintzatu du. 2007-2011 aldian, galera horiek % 6,1era iritsi ziren Gasteizen, eta % 20 ingurukoak edo hortik gorakoak izan ziren Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierri. Horrez gain, Gasteiz eta Eskuinaldea nabarmendu behar dira 2007-2011 aldian okupazio-mota horretan etengabeko beheranzko joera izaten jarraitu baitzuten.

EAEko eskualdeetan goi-mailako teknologia behar duten sektoreei dagokienez, egiaztatu behar da 2009-2011 aldian sektore horietako okupazioaren jaitsiera-erritmoa bizkortzeak lotura duela bi faktore hauekin: batetik, biurteko horretan 2007-2009 aldian Gasteizen eta Eskuinaldean izan zen beheranzko joerari eustearekin, eta bestetik, Bilboko eta Ezkerraldeko okupazioan 2009az geroztik hauteman den beherakadarekin. 2005-2009 aldian goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioaren hazkunde-erritmo argiak izatetik, urteko jaitsiera-erritmo handienak dituzten eskualde izatera pasatu dira 2009-2011 aldian aipatutako bi eskualde horiek: % -5,2 Ezkerraldean eta % -8,2 Bilbon; biurteko horretan Debabarrenean izandako % 6,1eko jaitsierarekin soilik aldera daitezke.

2011. urtean, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetan egin du lan 16-64 urteko biztanleriaren % 37,9k Debagoiengan; horrenbestez, okupazio-mota horrek eragin handiena duen eskualde izaten jarraitu du, Eskuinaldeko, Bilboko eta Donostialdeko % 30,2ren eta Debabarreneko % 29ren gainetik. Goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioak Debagoiengan duen garrantziaren oinarria goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioaren koefiziente handia da (% 18,5 Debagoiengan; % 13,3 Debabarrenean; EAeko batez bestekoa baino kopuru txikiagoak aztertutako gainerako eskualdeetan: % 6,6 Eskuinaldean, % 6,2 Bilbon eta % 7,6 Donostialdean).

EAEko batez bestekoaren azpitik, goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazioaren koefizientea % 27,4 izan da Tolosa-Goierri, % 26,9 Gasteizen eta Durangaldean, eta % 25,7 Ezkerraldean. Mailarik txikiak Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan daude: % 23,6. Durangaldean eta Tolosa-Goierri, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazioaren garrantzia, bestalde, EAeko batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da (% 10 eta % 11,8, hurrenez hurren); adierazle hori % 7,3 eta % 8,8 artekoa da Gasteizen, Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan. Ezkerraldeak du mailarik txikiena: % 5,8.

Goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako koefizienteei dagokienez, gehien hiritartutako eskualdeek azken urteetan izan duten bilakaera desberdina azpimarratu behar da. Eskualde-talde horretan, bereziki azpimarratu behar da sektore-mota horietan okupazio-maila handiena duten bi zonalde geografikoetako okupazio-koefizienteek izan duten jaitsiera handia; hots, Gasteizkoak eta Eskuinaldekoak. 2007an, 16-64 urte bitarteko landunen % 9, gutxi gorabehera, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan zegoen bi eskualde horietan, eta horrenbestez, nabarmen gainditu zituzten beste eskualdeetako kopuruak: % 6,5 Donostialdean, % 7,1 Bilbon eta % 5,9 Ezkerraldean. 2007tik 2011ra bitartean, Donostialdearen koefizientea % 6,5etik % 7,6ra handitu da; testuinguru horretan, beraz, Gasteizko koefizientea % 9tik % 8,1era jaistean, bi eskualde horietako adierazleak gerturatu egin dira. Eskuinaldean, jaitsiera handia izan da, % 9,2tik % 6,6ra, eta beraz, Bilbon eta Ezkerraldean 2011. urtean izandako kopuruetara gerturatu da (% 6,2 eta % 5,8, hurrenez hurren); kopuru horiek Gasteizkoaren eta Donostialdekoaren azpitik daude. Eskuinaldean izandako jaitsiera handia Bizkaia-Kostara hedatu da, hiri-eskualde handietatik kanpo. Kasu horretan, okupazio-koefizientea % 9,5etik % 7,3ra jaitsi da 2007-2011 aldian, eta Bilboren eremuko hiru eskualdeetara gerturatu da.

Gasteizen eta Eskuinaldean, goi-mailako teknologia behar duten sektoreetako okupazio-koefizienteek bilakaera negatiboa izan dute 2007tik 2011ra bitartean; antzekoa gertatu da Tolosa-Goierri, okupazio-mota horrek garrantzi erlatibo handienetarikoa duen eskualdeetako batean. 2007an, Debagoienak soilik gainditu zuen Tolosa-Goierri; % 16,6 eta % 14,5 koefizienteak izan zituzten, hurrenez hurren. Hala ere, 2011n, eskualde horretako okupazioa % 11,8ra gutxitu da, eta Debabarrenean gainditu egin du, % 13,3ko koefizientearekin; Debagoiena, berriz, oso urrun geratu zaio, % 18,5eko koefizientearekin. Hain zuzen, bi eskualde horiek okupazio-koefiziente handiagoa

izan dute 2011n 2007an baino. Tolosa-Goierriko adierazlea Durangaldeko % 10era ere gerturatu da; eskualde horrek beheranzko joerari eutsi dio 2007-2011 aldian, baina Gipuzkoako eskualdeak baino intentsitate txikiagoa izan du.

16-64 urteko landunak

Goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreen banaketan duten garrantzia, eskualdearen arabera. 2011 (%-tan)

Eskualdea	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Ezagutza-intentsitate handia	Goi-mailako kalifikazioa
Gasteiz	12,5	26,1	31,0	41,8
Aiaraldea	12,9	21,6	23,7	34,8
Eskuinaldea	10,3	32,0	41,5	47,6
Bilbo	10,5	36,9	43,6	50,7
Ezkerraldea	9,5	27,5	34,8	41,9
Bizkaia-Kosta	11,4	23,4	27,7	37,2
Durangaldea	15,2	23,6	27,4	41,1
Donostialdea	11,4	31,3	36,7	45,0
Tolosa-Goierri	17,1	20,8	24,5	39,7
Debagoiena	26,9	23,2	29,9	55,0
Debarrena	20,4	21,5	25,2	44,3
Guztira	12,2	28,7	34,5	44,2

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria

Goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoretako okupazio-koefizientea, eskualdearen arabera (%-tan)

Eskualdea	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Ezagutza-intentsitate handia	Goi-mailako kalifikazioa
Gasteiz	8,1	16,8	19,9	26,9
Aiaraldea	8,8	14,6	16,1	23,6
Eskuinaldea	6,6	20,3	26,3	30,2
Bilbo	6,2	21,9	25,9	30,2
Ezkerraldea	5,8	16,9	21,4	25,7
Bizkaia-Kosta	7,3	14,9	17,6	23,6
Durangaldea	10,0	15,5	17,9	26,9
Donostialdea	7,6	21,1	24,7	30,2
Tolosa-Goierri	11,8	14,4	16,9	27,4
Debagoiena	18,5	16,0	20,6	37,9
Debarrena	13,3	14,1	16,5	29,0
Guztira	7,8	18,4	22,1	28,3

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

**16-64 urteko landunen bilakaera goi-mailako teknologia eta goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetan, eskualdearen arabera
2001-2011 aldian**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Kalifikazio-sektorea eta eskualdea	Kopuru absolutuak					Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %	
	2001	2005	2007	2009	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009		
Goi-mailako teknologia	Gasteiz	17.563	15.149	16.252	15.730	15.265	-3,6	3,6	-1,6	-1,5	-6,1
	Aiaraldea	2.203	2.258	2.477	2.064	2.581	0,6	4,7	-8,7	11,8	4,2
	Eskuinaldea	7.271	7.259	10.168	7.976	7.307	0,0	18,4	-11,4	-4,3	-28,1
	Bilbo	14.084	15.910	16.388	17.107	14.431	3,1	1,5	2,2	-8,2	-11,9
	Ezkerraldea	19.728	15.108	15.555	17.143	15.395	-6,5	1,5	5,0	-5,2	-1,0
	Bizkaia-Kosta	4.917	5.613	7.774	5.379	5.972	3,4	17,7	-16,8	5,4	-23,2
	Durungaldea	6.994	7.460	8.937	7.121	8.015	1,6	9,5	-10,7	6,1	-10,3
	Donostialdea	18.836	20.119	19.985	23.405	23.409	1,7	-0,3	8,2	0,0	17,1
	Tolosa-Goierrri	7.296	9.887	10.450	8.316	8.444	7,9	2,8	-10,8	0,8	-19,2
	Debagoiena	7.812	7.802	6.718	6.950	7.504	0,0	-7,2	1,7	3,9	11,7
	Debarrena	4.480	4.261	3.574	5.304	4.680	-1,2	-8,4	21,8	-6,1	30,9
Guztira	111.185	110.827	118.277	116.495	113.003	-0,1	3,3	-0,8	-1,5	-4,5	
Goi-mailako kalifikazioa	Gasteiz	42.177	49.113	49.501	49.438	50.943	3,9	0,4	-0,1	1,5	2,9
	Aiaraldea	5.116	6.015	6.324	6.380	6.958	4,1	2,5	0,4	4,4	10,0
	Eskuinaldea	28.287	32.883	34.079	30.938	33.640	3,8	1,8	-4,7	4,3	-1,3
	Bilbo	54.288	61.684	67.778	70.953	70.051	3,2	4,8	2,3	-0,6	3,4
	Ezkerraldea	52.178	56.236	59.652	66.057	68.016	1,9	3,0	5,2	1,5	14,0
	Bizkaia-Kosta	14.781	19.892	23.671	19.088	19.447	7,7	9,1	-10,2	0,9	-17,8
	Durungaldea	15.506	16.416	19.056	20.116	21.650	1,4	7,7	2,7	3,7	13,6
	Donostialdea	65.806	78.974	82.456	87.685	92.628	4,7	2,2	3,1	2,8	12,3
	Tolosa-Goierrri	14.988	19.982	20.257	18.740	19.600	7,5	0,7	-3,8	2,3	-3,2
	Debagoiena	13.011	14.968	11.991	13.616	15.362	3,6	-10,5	6,6	6,2	28,1
	Debarrena	8.578	8.805	8.618	10.383	10.160	0,7	-1,1	9,8	-1,1	17,9
Guztira	314.716	364.967	383.384	393.395	408.455	3,8	2,5	1,3	1,9	6,5	

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria: goi-mailako kalifikazioa behar duten sektoreetako okupazio-koefizientea, eskualdearen arabera 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	Goi-mailako teknologia					Goi-mailako kalifikazioa				
	1993	2001	2007	2010	2011	1993	2001	2007	2010	2011
Gasteiz	5,1	10,1	9,0	8,2	8,1	17,1	24,3	27,5	26,2	26,9
Aiaraldea	3,1	7,9	8,8	8,3	8,8	9,5	18,5	22,5	23,1	23,6
Eskuinaldea	4,2	6,6	9,2	6,4	6,6	18,6	25,6	30,9	27,7	30,2
Bilbo	3,9	6,1	7,1	6,5	6,2	17,7	23,4	29,5	31,1	30,2
Ezkerraldea	4,1	7,4	5,9	5,8	5,8	12,1	19,4	22,8	25,0	25,7
Bizkaia-Kosta	5,1	6,3	9,5	7,1	7,3	16,4	19,0	29,0	23,9	23,6
Durangaldea	5,5	9,1	11,2	10,7	10,0	13,1	20,1	24,0	27,8	26,9
Donostialdea	3,9	6,1	6,5	7,6	7,6	15,1	21,4	26,9	29,1	30,2
Tolosa-Goierri	6,1	10,0	14,5	12,1	11,8	12,7	20,6	28,2	26,4	27,4
Debagoiena	10,8	18,4	16,6	17,9	18,5	18,5	30,7	29,6	36,4	37,9
Debabarrena	7,5	12,4	10,2	14,3	13,3	15,1	23,8	24,5	28,3	29,0
Guztira	4,7	7,8	8,3	7,9	7,8	15,3	22,1	26,9	27,7	28,3

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

3.3. Datuak lanbidearen eta lanbide-egoeraren arabera

3.3.1. Lanbidea

27.2011ko Lanbideen Estatuko Sailkapenaren (LES) arabera, biztanleria landun gehienak langile kalifikatuak eta makina-operadoreak dira EAEn (% 46,1). Teknikariak eta lanbide-alorreko laguntzaileak beste % 26,5 dira; enplegatuak, % 12,8; eta % 9,4 oinarrizko lanbideetako langileak. Zuzendariak, berriz, gainerako % 5,2 dira.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera. 2011
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	Abs.	% ber.
Zuzendariak	48.346	5,2
Teknikariak	164.112	17,8
Lanbide-alorreko laguntzaileak	80.524	8,7
Enplegatuak	117.907	12,8
Langile kalifikatuak	342.833	37,1
Makineriako operadoreak	83.469	9,0
Oinarrizko lanbideak	87.105	9,4
Guztira	924.295	100

Oharra: LES-11n oinarritutako sailkapena

Estatistiken homogeneotasuna dela eta, datuen bilakaera LES-94 erabiliz aztertu behar da. Sailkapen horren arabera, landunen % 43,7 langile kalifikatuak eta makineriako operadoreak dira; beste % 25,5, teknikariak; % 13,6, administrazio-alorreko langileak; eta beste % 9,8, kalifikaziorik gabeko langileak. Zuzendariak, berriz, gainerako % 7,3 dira.

Bilakaerari dagokionez, daturik esanguratsuen 2009tik 2011ra bitartean teknikarien okupazioan izandako jaitiera handia da; urteko % 4 jaitsi da, batez beste, biurteko horretan. Errealitate horrek funtsezko aldaketa kualitatiboa ekarri du, mende berrian teknikarien okupazio berriak sortzeko gaitasuna etengabe galduz joan den prozesuari amaiera eman diona. 2001-2005 aldian, urteko % 5,2ko batez besteko hazkunde-erritmoa izan zen, baina kopuru hori % 1,9ra gutxitu zen 2005-2007 aldian, eta % 0,6ra, 2007-2009 aldian; 2009ra arte izandako hazkunde-mugak, azkenean, okupazioaren oso galera handi bihurtu dira 2009-2011 aldian. 2011n, teknikarien okupazioaren kopurua % 6,8 txikiagoa izan da 2007koa baino; zehazki, 17.226 lanpostu galdu dira. Are gehiago, aipatutako kopuru hori 2005ekoa baino % 3,2 txikiagoa da.

Bilakaera horren egitura-inplikazioak esanguratsuak dira. Teknikariek landun guztien artean duten proportzioa % 27tik % 25,5era murriztu da 2009tik 2010era bitartean (% 23,7tik % 20,4ra lanbide-kategoria zorrotz kontuan hartuta).

Halere, okupazioaren bilakaera negatiboa beste langile batzuk kategoriari dagokio; talde horretan sartzen dira langile kalifikatuak, makineriako operadoreak eta kalifikaziorik gabeko langileak. Kasu horretan, 75.331 langile gutxiago izan dira 2007tik 2011ra bitartean. Teknikarien okupazioa % 18,6 handiagoa izan da 2011n 2001ean baino; teknikarien kasuan ez bezala, ordea, gainerako langileen okupazioa % 5,2 txikiagoa izan da 2011n 2001ekoa baino.

Langile-talde horrek bereziki jasan du okupazioaren 2007-2010 aldiko krisia; okupazioaren % 13,2 galdu du aldi horretan. Beherakadarik handiena kalifikaziorik txikien taldean gertatu da urte horietan. Zehazki, % 24,9ko beherakada izan du talde horrek; hau da, langile kalifikatuek eta makineriako operadoreek izandako beherakada (% -10 inguru) baino askoz handiagoa. Azken talde horretan, krisiaren eragina kalifikaziorik txikien taldean bezain handia izan da, eta kontuan hartu behar da, gainera, joera hori 2005-2007 aldian hasi zela, okupazioak urtean % 3,4ko batez besteko beherakada izan zuenean. Beraz, 2005ekin alderatuz, 2011n % 18 jaitsi da kalifikaziorik gabeko langileen okupazioa eta % 16,2 makineriako operadoreena; bi kasu horietan, beraz, askoz ere jaitiera handiagoa izan da langile kalifikatuen taldeko % 5,4ko jaitiera baino. Horrez gain, langile kalifikatuen eta kalifikaziorik txikien taldeko kasuan ez bezala, okupazioaren beherakada-erritmoa areagotu egin da 2009tik 2011ra bitarte makineriako operadoreetan (urtean % 3,3ko batez besteko beherakada 2009-2011 aldian, eta % 2koa, 2007-2009 aldian).

Teknikarien artean behatutakoari kontrajarriz, zuzendarien okupazioak, 2009-2010 aldian antzeko erritmoan jaitsi eta gero, gora egin du atzera 2010etik 2011ra bitartean. Talde horretako okupazio-tasa % 0,9 handiagoa izan da azken urtean 2009an baino (2005eko okupazioa baino % 3 handiagoa).

Bestalde, administrarien bilakaera urrundu egiten da gainerako langile-taldeen bilakaerarekin alderatuz. 2001-2005 aldian, langile horien kopuruari bere horretan eutsi eta gero, orduz gozotik

hazi baino ez da egin; urteko % 2,4ko hazkundera izan zuen, batez beste, 2005-2007 aldian; % 6,6koa, 2007-2009 aldian; eta % 10,3koa, 2009-2011 aldian, nahiz eta 2010. urtetik aurrera hazkunde-erritmoa moteldu egin den (urteko batez besteko hazkundera 2009-2010 aldian % 14,9 izatetik 2010-2011 aldian % 6 izatera pasatu da). Epe ertainera begira, langile-talde horren kopurua % 38,3 hazi da 2007-2011 aldian (% 45, abiapuntutzat 2005. urtea hartuz gero).

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera. 2009-2011 aldia

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	2009		2010		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Zuzendariak	67.143	7,1	64.642	6,9	67.720	7,3
Teknikariak	256.065	27,0	243.935	26,0	235.847	25,5
Administrariak	103.102	10,9	118.470	12,6	125.525	13,6
Langile kalifikatuak	306.394	32,3	303.465	32,4	297.876	32,2
Makineriako operadoreak	113.082	11,9	106.854	11,4	105.849	11,5
Kalifikaziorik gabeko langileak	100.886	10,7	99.376	10,6	90.947	9,8
Sailkatu gabeak eta beste batzuk	586	,1	959	,1	530	,1
Guztira	947.259	100,0	937.701	100,0	924.295	100,0

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera. 2009-2011 aldia

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-kategoria	2009		2010		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Zuzendariak	74.859	7,9	67.087	7,2	69.202	7,5
Teknikariak	224.744	23,7	197.310	21,0	188.446	20,4
Arduradunak	32.221	3,4	36.598	3,9	39.165	4,2
Kalifikatua	455.006	48,0	479.753	51,2	448.831	48,6
Kalifikaziorik gabekoa	160.140	16,9	156.497	16,7	178.650	19,3
Sailkatu gabeak	289	,0	455	,0	0	,0
Guztira	947.259	100,0	937.701	100,0	924.295	100,0

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen arabera

2001-2011 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Lanbidea	Kopuru absolutuak					Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2001	2005	2007	2009	2011	2001/2005	2007/2005	2009/2007	2011/2009	
Zuzendariak	53.780	65.757	56.567	67.143	67.720	5,2	-7,3	8,9	0,4	19,7
Teknikariak	198.786	243.536	253.073	256.065	235.847	5,2	1,9	0,6	-4,0	-6,8
Administrariak	87.010	86.567	90.784	103.102	125.525	-0,1	2,4	6,6	10,3	38,3
Teknikariak/Administr. profesionalak	285.796	330.103	343.856	359.168	361.372	3,7	2,1	2,2	0,3	5,1
Langile kalifikatuak	307.846	314.832	331.100	306.394	297.876	0,6	2,6	-3,8	-1,4	-10,0
Makineriako operadoreak	114.568	126.382	117.834	113.082	105.849	2,5	-3,4	-2,0	-3,3	-10,2
Kalifikaziorik gabeko langileak	99.188	110.958	121.103	100.886	90.947	2,8	4,5	-8,7	-5,1	-24,9
Sailkatu gabeak	635	147	498	586	530	-30,6	83,9	8,5	-4,9	6,6
Beste langile batzuk	522.238	552.319	570.534	520.949	495.203	1,4	1,6	-4,4	-2,5	-13,2
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	924.295	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-4,8

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

28. Teknikarien eta administrarien okupazioa batera aztertuz, ikusi da epe luzera okupazioak egonkortzera egingo duela; izan ere, hazkunde-erritmoak motelduz joan dira: 2001-2005 aldian % 3,7ko hazkundera izatetik 2005-2009 laurteko hainbat alditan % 2,1 eta % 2,2 arteko hazkundeak izatera, eta 2009tik 2011ra bitartean, % 0,3ko hazkundera izatera. Hala ere, bilakaera horretan, 2011ko okupazio-kopuruak askoz ere handiagoak izan dira 2001ekoak baino, eskualde guztietan. Gauza bera gertatu da 2005ekin alderatuz ere, hiru eskualdetan salbu: Eskualdean eta Bizkaia-Kostan, 2011ko kopuruak antzekoak izan dira, eta Debabarrenean, berriz, okupazio hori % 4,3 hazi da, (EAEko gainerako zonalde geografikoetan, berriz, % 8 inguru edo gehiago).

Laurteko horretan, bilakaerarik negatiboa Eskualdean izan da. Eskualde horretan eta Bizkaia-Kostan, okupazio mota horrek beherakada jarraitua izan du 2007-2011 laurtekoan. Zehazki, 2010-2011 aldian apur bat suspertu arren, Eskualdean, teknikarien eta administrarien kopuruak % 4,6ko beherakada izan du 2007-2011 aldian, eta Bizkaia-Kostan, berriz, proportzioa % 15era iritsi da. Erreferentziako laurtekoaren amaieran, okupazio-kopuruak % 1,5 eta % 4,2 handiagoak izan diren arren, Donostialdean eta Bilbon azken aldian izan den bilakaera ez da guztiz ona izan. Donostialdean, 2007-2009 aldian izan zuen oso hazkunde neurritsuari lotuta dago errealitate hori (urteko % 0,7, batez beste); gero, 2009-2010 aldian egonkortu egin zen (urteko % 0,1eko hazkundera, batez beste). Aldiz, Bilboko errealitateak azken urteetan egindako ibilbide-aldaketarekin du lotura. Hau da, 2005etik 2009ra bitartean, eskualdeko teknikarien eta administrarien okupazioa urteko % 4,2 eta % 4,8 arteko erritmoan hazi zen, baina hurrengo biurtekoan (2009-2011), urteko % 2ko hazkundera izan zuen.

EAEko gainerako zonaldeetan, teknikarien eta administrarien okupazioa % 10 handiagoa izan da 2011. urtean 2007an baino; halere, Debabarrenean, kopuru hori 2005ekoa baino % 4,3 handiagoa besterik ez da izan. Bilakaera onena Tolosa-Goierrin izan da, okupazio-mota hori etengabe eta egonkor hazi baita 2007-2011 aldian, urteko % 2,8 eta % 2,9 arteko batez besteko erritmoan.

2005etik 2009ra bitartean egonkortze- edo jaitsiera-prozesua izan ondoren, Gasteizen eta Aiaraldean ere enplegu-mota horren hazkunde handia izan da 2009-2011 biurtekoan; zehazki, urteko % 5,3 eta % 8 arteko hazkundeak izan dira, batez beste. Bestalde, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debagoiengan 2007-2011 aldian izandako dinamika positiboa 2007-2009 biurtekoan izandako urteko batez besteko hazkunde-tasa handiekin dago lotuta; hain zuzen ere, urteko % 6,2 eta % 12,4 arteko hazkundeak izan dira. 2005-2007 aldian, hiru eskualde horietako okupazioa jaitsi egin zen, eta 2009-2011 biurtekoan, okupazioak bilakaera negatiboa izan du, berrito ere. Okupazioaren urteko batez besteko jaitsiera-erritmoa % 0,3koa izan da Ezkerraldean eta Debagoiengan; Durangaldean, berriz, urteko % 1,9ko jaitsiera izan da. Debabarrenean, handitu egin da teknikarien eta administrarien okupazioa 2007-2011 laurtekoan, baina eskualde horretan, eragin handiagoa izan du 2005-2007 aldiko okupazioaren jaitsierak.

Teknikariei eta administrariei dagokienez, 2009-2011 aldian Bizkaiko eskualdeetan (2010etik aurrera Eskuinaldean salbu) oro har izan zen jaitsiera azpimarratu behar da, Arabako eta Gipuzkoako eskualde gehienetako okupazioan izan diren hazkunderi kontrajarriz (Bizkaitik kanpo, okupazio hori Debagoienera soilik jaitsi da, % 0,3, zehazki).

2011. urtean, 16-64 urteko teknikarien edo administrarien proportzio handiena duten eskualdeak Eskuinaldea eta Bilbo izan dira; % 30 inguruko kopuruak izan dituzte. Haren atzetik daude Gasteiz eta Donostialdea, % 26 eta % 26,5 arteko kopuruarekin, eta Debagoiena, % 24,5eko kopuruarekin. Euskadiko gainerako eskualdeetan, % 20 eta % 22 arteko proportzioa dago.

Zuzendariei dagokienez, 2007-2011 aldian, azkenean, Arabako bi eskualdeetan soilik izan dira jaitsierak okupazioan: % -2,4 Gasteizen eta % -20,5 Aiaraldean. Bilbon, zuzendarien okupazioa soilik % 2,7 handiagoa izan da 2011n 2007arekin alderatuz; hala ere, oso datu positibo bat azpimarratu behar da: 2009-2011 biurtekoan izandako urteko batez besteko hazkunde handia (% +7,6), 2001-2009 aldiko dinamikari kontrajarriz. Izan ere, aldi horretan, etengabeko jaitsierak izan ziren okupazio-mailetan, eta gainera, geroz eta handiagoak. 2009-2011 aldiko susperraldia, beraz, aldaketa kualitatibo handia izan da, nahiz eta Bilbon 2011ko zuzendarien okupazio-mailek 2005ekoek baino txikiagoak izaten jarraitzen duten.

Eskuinaldeak antzekotasun asko ditu Bilborekin; hau da, 2001-2009 aldian, etengabe jaitsi zen zuzendarien okupazioa, baina 2005etik aurrera, egonkortzeko joera nabarmena hartu zuen. 2009-2011 biurtekoan, aldiz, Bilbon baino nabarmenagoa izan zen goranzko joera okupazio-mota horretan (% +11,3); hain izan zen hazkunde handia, 2005eko zuzendarien okupazioa gainditu baitzen 2011n, bai eta 2001ekoa ere, aurreko urteetan okupazioaren beheranzko joera izan ondoren. Ez zen gauza bera gertatu Bizkaia-Kostan; eskualde horretan, zuzendari-kopurua nabarmen gutxitu zen 2005etik 2009ra bitartean. 2001-2005 aldian izan zen hazkunde-testuinguruan, 2009-2011 aldiko zuzendarien okupazioaren gorakada handia ez da nahikoa izan 2005-2009 laurtekoko jaitsierak berdintzeko; beraz, 2011ko teknikarien okupazio-kopurua 2005ekoaren azpitik dago, bai eta 2001ekoaren azpitik ere.

2007-2009 aldian, Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, % 20 baino hazkunde handiagoak izan ziren zuzendarien kopuruan, eta horrenbestez, ezkutatu egiten dute 2009-2011 biurtekoan izandako norabide-aldaketa negatiboa; zehazki, urteko % 7,6ko batez besteko jaitsiera izan da Donostialdean; % 15,2koa, Tolosa-Goierri; eta % 17koa, Debabarrenean. 2005-2007 aldian okupazio-mota horretan izan zen jaitsiera-testuingurua aintzat hartuta, Donostialdean eta Debabarrenean, zuzendarien okupazio-kopuruak txikiagoak izan dira 2011n 2005ean baino. Gauza bera gertatzen da Durangaldean ere, nahiz eta 2007tik kopuruaren bilakaera positiboa izan; izan ere, 2005-2007 biurtekoan zuzendarien okupazioaren jaitsierak eragin handia izan zuen eskualde horretan. Hala eta guztiz ere, Durangaldean 2001eko okupazio-kopurua gainditzea lortu da 2011n (2010ean ez bezala).

Zuzendarien okupazioari dagokionez, bilakaera onena Ezkerraldean eta Debagoiengan izan da; 2007-2011 laurtekoan, hazkunde-erritmo positiboak izan dira, 2005-2007 aldiko jaitsierak berdintzeko modukoak. Eskuinaldearekin batera, bi eskualde horiek soilik izan dituzte 2011. urtean 2001az geroztik zuzendarien okupazioan izan diren mailarik altuenak.

Zuzendarien okupazioak 16-64 urteko biztanlerian duen garrantzia aztertuz, adierazlea % 5 eta % 6 arteko mailetara iritsi da 2011n Eskuinaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin; Debagoiengan, % 6,8ko gehienekoa lortu da. Beheko aldean, Aiaraldeko, Ezkerraldeko eta Durangaldeko adierazleak % 4ren azpitik daude.

Azkenik, gainerako langileei dagokienez, 2007-2011 aldian biztanleria landunaren jaitsiera garbia % 10etik gorakoa izan da Salbuespen nagusiek Bizkaia-Kostan okupazio-mota hori egonkortzeari egiten diote erreferentzia (% -0,6), bai eta Aiaraldean eta Eskuinaldean jaitsiera erlatiboki txikiagoak izateari ere (% -2,2 eta % -4,2). Aldiz, 2007-2011 laurtekoan okupazioan izandako galerak % 10 eta % 15 artekoak izan dira EAeko gainerako eskualde gehienetan; hala, Bilboko eta Debagoieneko % 20ko jaitsiera gainditu da (% -21,2 eta % -24,2).

Okupazioan galera handienak izan dituzten eskualdeetan hautemandako jaitsieren denbora-ezaugarria oso desberdina da zonalde batetik bestera. Eskualde gehienetan (Ezkerraldean, Durangaldean eta Gipuzkoako hainbat eskualdetan) galera handienak 2007-2009 aldian gertatu ziren; 2007-2011 biurtekoan, jaitsiera-erritmoa gutxitu egin da, eta gainera, zenbait unetan, beste langile batzuen taldearen okupazioan goranzko joerak egon dira Durangaldean (urteko % +1,9, batez beste), Tolosa Goierriin (% +2,2) eta Debabarrenean (% +2,8). Gasteizen eta Bilbon, aldiz, okupazioaren galera areagotu egin da 2009tik 2011ra bitartean; horren ondorioz, biurtekoan, talde horretako okupazioa gehien galdu den eskualdeen artean sartu dira.

Gasteizi dagokionez, esan daiteke 2001etik biztanleria landun mota horren okupazioan ia etengabeko beheranzko joera izan duen eskualde bakarra dela. Dena den, Arabako zonalde horretan bezala, Gipuzkoako hainbat eskualdetan ere, langile kalifikatuen eta kalifikazio gabeko langileen okupazioa txikiagoa izan da 2011n 2001ean baino. 2010-2011 aldian, okupazio-mota horren bilakaera oso negatiboa izan da Bilbon eta Ezkerraldean; horren ondorioz, 2001eko mailen azpitik gelditu dira.

Aipatutako eskualde guztietan, langile-talde horren okupazio-koefizientea txikiagoa izan da 2011n 2001ean baino. Jaitsierak % 1 baino txikiagoak izan dira Ezkerraldean eta Tolosa-Goierriin, baina % 2,8 eta % 3,6 artekoak izan dira Bilbon, Donostialdean eta Debabarrenean. Debagoiengan, berriz, % 7ko gehienekoa izan da, eta Gasteizen, % 8,9koa. Debagoiengan, jaitsiera 2007az geroztik gertatu da; Arabako eskualdean, aldiz, 2001etik hauteman da.

2011. urtean, soilik lau eskualdetan –Aiaraldean, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean– izan dute gainerako langileek 2001ean baino okupazio handiagoa; errealitate hori bateragarria da Bizkaia-Kostan, 2011. urtean, okupazio-mota horren koefiziente txikiagoa izatearekin.

16-64 urteko biztanleriari dagokionez, gainerako langileen okupazio-koefiziente handienak zerbitzu-erlokoen bestelako sektoreetara bideratuta dauden zenbait eskualdetan izan dira 2011. urtean; hain zuzen, % 42 eta % 43 arteko kopuruak izan dira Aiaraldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierri, eta % 39,2koa Debabarrenean. Tarteko mailetan, kopuruak % 36,7 eta % 37,7 artekoak izan dira Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoienean; Gasteizen, berriz, okupazio-koefizientea % 34 izan da, eta Donostialdean, % 35. Koefiziente txikiak Eskuinaldean eta Bilbon izan dira, % 28,5 eta % 24,7, hurrenez hurren.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2011
(% horizontalak)

Eskualdea	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Gainerako langileak
Gasteiz	6,9	26,2	14,1	52,8
Aiaraldea	5,6	20,3	10,8	63,2
Eskuinaldea	8,2	34,1	12,7	44,9
Bilbo	7,5	31,9	18,9	41,6
Ezkerraldea	5,7	21,1	13,4	59,8
Bizkaia-Kosta	7,4	24,5	9,0	59,1
Durangaldea	5,3	18,2	12,0	64,5
Donostialdea	8,5	26,3	13,1	52,1
Tolosa-Goierri	8,5	18,5	10,8	62,2
Debagoiena	9,8	24,6	10,9	54,7
Debabarrena	6,9	21,4	11,8	59,9
Guztira	7,3	25,5	13,6	53,6

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak, lanbidearen eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Gainerako langileak
Gasteiz	4,4	16,9	9,1	34,0
Aiaraldea	3,8	13,8	7,3	42,9
Eskuinaldea	5,2	21,7	8,1	28,5
Bilbo	4,5	19,0	11,3	24,7
Ezkerraldea	3,5	13,0	8,3	36,7
Bizkaia-Kosta	4,7	15,6	5,7	37,6
Durangaldea	3,5	11,9	7,9	42,3
Donostialdea	5,7	17,7	8,8	35,0
Tolosa-Goierri	5,9	12,8	7,4	43,0
Debagoiena	6,8	16,9	7,5	37,7
Debabarrena	4,5	14,0	7,7	39,2
Guztira	4,7	16,3	8,7	34,3

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2001-2011 aldia
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Lanbidea eta eskualdea	Kopuru absolutuak					Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %	
	2001	2005	2007	2009	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009		
Zuzendariak	Gasteiz	6.703	8.103	8.604	8.934	8.394	4,9	3,0	1,9	-3,1	-2,4
	Aiaraldea	1.149	1.458	1.415	1.171	1.125	6,1	-1,5	-9,1	-2,0	-20,5
	Eskuinaldea	5.776	4.735	4.690	4.682	5.805	-4,8	-0,5	-0,1	11,3	23,8
	Bilbo	11.039	10.634	10.124	8.989	10.399	-0,9	-2,4	-5,8	7,6	2,7
	Ezkerraldea	6.101	8.360	7.053	7.894	9.189	8,2	-8,1	5,8	7,9	30,3
	Bizkaia-Kosta	3.952	4.482	3.110	2.214	3.890	3,2	-16,7	-15,6	32,5	25,1
	Durungaldea	2.557	3.607	2.447	2.515	2.787	9,0	-17,6	1,4	5,3	13,9
	Donostialdea	12.890	17.711	13.514	20.572	17.582	8,3	-12,6	23,4	-7,6	30,1
	Tolosa-Goierri	1.246	2.514	3.011	5.875	4.221	19,2	9,5	39,7	-15,2	40,2
	Debagoiena	1.453	1.770	1.233	1.999	2.746	5,1	-16,5	27,3	17,2	122,7
	Debarrena	914	2.386	1.365	2.298	1.582	27,1	-24,4	29,8	-17,0	15,9
	Guztira	53.780	65.757	56.567	67.143	67.720	5,2	-7,3	8,9	0,4	19,7
Teknikariak edo administrariak	Gasteiz	35.381	43.867	44.193	44.308	49.113	5,5	0,4	0,1	5,3	11,1
	Aiaraldea	4.649	5.574	5.599	5.333	6.226	4,6	0,2	-2,4	8,0	11,2
	Eskuinaldea	29.315	33.098	34.749	32.973	33.158	3,1	2,5	-2,6	0,3	-4,6
	Bilbo	58.168	61.319	67.334	73.101	70.180	1,3	4,8	4,2	-2,0	4,2
	Ezkerraldea	41.523	51.108	50.112	56.499	56.186	5,3	-1,0	6,2	-0,3	12,1
	Bizkaia-Kosta	13.273	17.228	20.602	18.834	17.508	6,7	9,4	-4,4	-3,6	-15,0
	Durungaldea	11.999	14.182	13.808	16.522	15.903	4,3	-1,3	9,4	-1,9	15,2
	Donostialdea	66.779	75.213	79.891	80.982	81.109	3,0	3,1	0,7	0,1	1,5
	Tolosa-Goierri	11.159	12.466	12.902	13.674	14.454	2,8	1,7	2,9	2,8	12,0
	Debagoiena	7.195	8.746	7.887	9.967	9.917	5,0	-5,0	12,4	-0,3	25,7
	Debarrena	6.355	7.302	6.779	6.974	7.618	3,5	-3,6	1,4	4,5	12,4
	Guztira	285.796	330.103	343.856	359.168	361.372	3,7	2,1	2,2	0,3	5,1
Beste langile batzuk	Gasteiz	74.341	71.794	71.828	70.756	64.382	-0,9	0,0	-0,7	-4,6	-10,4
	Aiaraldea	11.673	11.892	12.930	12.605	12.642	0,5	4,3	-1,3	0,1	-2,2
	Eskuinaldea	28.628	33.455	33.187	33.065	31.782	4,0	-0,4	-0,2	-2,0	-4,2
	Bilbo	63.833	72.588	72.941	67.796	57.461	3,3	0,2	-3,6	-7,9	-21,2
	Ezkerraldea	100.680	107.582	113.765	104.286	97.094	1,7	2,8	-4,3	-3,5	-14,7
	Bizkaia-Kosta	29.760	29.082	31.066	32.873	30.894	-0,6	3,4	2,9	-3,1	-0,6
	Durungaldea	31.661	33.453	38.958	32.767	33.995	1,4	7,9	-8,3	1,9	-12,7
	Donostialdea	115.899	121.319	123.669	108.966	107.222	1,1	1,0	-6,1	-0,8	-13,3
	Tolosa-Goierri	31.387	37.632	36.237	29.393	30.724	4,6	-1,9	-9,9	2,2	-15,2
	Debagoiena	18.970	20.003	20.139	15.432	15.265	1,3	0,3	-12,5	-0,5	-24,2
	Debarrena	15.406	13.520	15.814	13.008	13.741	-3,2	8,1	-9,3	2,8	-13,1
	Guztira	522.238	552.319	570.534	520.949	495.203	1,4	1,6	-4,4	-2,5	-13,2

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	Zuzendariak					Teknikariak/administrariak					Beste langile batzuk				
	1993	2001	2005	2007	2011	1993	2001	2005	2007	2011	1993	2001	2005	2007	2011
Gasteiz	2,5	3,9	4,5	4,8	4,4	16,6	20,4	24,6	24,5	26,0	32,8	42,9	40,3	39,9	34,0
Aiaraldea	2,1	4,1	5,1	5,0	3,8	9,8	16,8	19,5	19,9	21,1	36,2	42,1	41,7	46,0	42,9
Eskuinaldea	4,4	5,2	4,3	4,3	5,2	20,5	26,6	29,9	31,5	29,8	21,0	25,9	30,2	30,1	28,5
Bilbo	3,3	4,8	4,6	4,4	4,5	20,5	25,1	26,3	29,3	30,2	21,2	27,5	31,1	31,7	24,7
Ezkerraldea	2,0	2,3	3,1	2,7	3,5	10,9	15,5	19,0	19,1	21,3	28,1	37,5	39,9	43,4	36,7
Bizkaia-Kosta	3,7	5,1	5,7	3,8	4,7	14,8	17,1	22,1	25,2	21,3	32,0	38,3	37,2	38,1	37,6
Durangaldea	3,4	3,3	4,7	3,1	3,5	12,0	15,5	18,3	17,4	19,8	32,9	41,0	43,2	49,0	42,3
Donostialdea	3,3	4,2	5,8	4,4	5,7	15,4	21,8	24,5	26,0	26,5	29,9	37,8	39,5	40,3	35,0
Tolosa-Goierri	3,4	1,7	3,5	4,2	5,9	10,7	15,4	17,2	18,0	20,2	32,4	43,2	51,9	50,4	43,0
Debagoiena	4,0	3,4	4,2	3,0	6,8	12,5	17,0	20,7	19,5	24,5	33,1	44,7	47,2	49,7	37,7
Debarrena	4,1	2,5	6,6	3,9	4,5	13,2	17,6	20,1	19,3	21,7	28,9	42,7	37,3	44,9	39,2
Guztira	3,1	3,8	4,6	4,0	4,7	15,2	20,1	23,0	24,1	25,0	28,3	36,7	38,5	40,0	34,3

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

3.3.2. Lanbide-egoera

29.2009-2010 aldia bitxi samarra izan zen. Izan ere, 2005-2009 aldian ekintzaileen kopuruaren beheranzko joera izan zen nagusi, baina autonomoen bilakaerak joera aldatu zuen ondoren, eta okupazioak % 3,1eko hazkundera izan zuen talde horretan. Joera hori ez da finkatu 2010-2011 aldian; hala ere, aldi horretan autonomoen okupazioa egonkortuz, ekintzaileek bilakaera positiboa izan dute. Alde batetik, 2009-2011 biurtekoan, autonomoen urteko % 1,5eko batez besteko hazkundera finkatu egin da. Bestetik, bilakaera horrekin batera, 2010az geroztik, asko suspertu da enplegatzaileen okupazioa; hain zuzen, urteko % 3,6ko batez besteko hazkundera finkatu da 2009-2011 biurtekoan. Batera aztertuz, enplegatzaileek eta autonomoek urteko % 2ko batez besteko hazkundera izan dute erreferentziako biurtekoan¹⁴.

2009-2011 biurtekoan bilakaera positiboa izan arren, autonomoen taldean kideen % 11 galdu da 2007arekin alderatuz, eta 2011ko okupazioaren kopurua (96.292 pertsona) 2005ekoa eta 2001ekoa baino txikiagoa izan da (114.415 eta 110.558, hurrenez hurren). Ekintzaileen talde guztia kontuan hartuz (enplegatzaileak barne), jaitsiera % 4,8ra murriztu da laurtekoan; hala ere, 2011n lanean dauden 130.034 pertsonen kopurua txikiagoa da 2005ekoa eta 2001ekoa baino (144.529 eta 135.224, hurrenez hurren).

Dena den, 2007-2011 laurtekoan, enpresa pribatuko soldatapekoen okupazioan izan da jaitsierarik esanguratsuenak; talde horrek % 7,3ko jaitsiera izan du aldi horretan. 2001etik 2007ra bitartean urteko % 2tik gorako erritmoan hazi ondoren, 2007tik 2009ra bitartean urteko % 1,8ko batez besteko jaitsiera izan zuen; jaitsiera hori, hain zuzen, finkatu egin da 2009-2011 aldian, urteko % 2ko jaitsiera izan baitu. 2011. urteko okupazioaren zifra (619.611 landun) 2007koaren eta 2005ekoaren zifra baino txikiagoa izan da (668.712 eta 641.434 landun, hurrenez hurren).

Datuak alderatuz, egoera hobea izan du sektore publikoko biztanleria landunak, 2007-2009 aldian, oraindik, indarrez hazi baitzen enpresa publikoan. Administrazio publikoko okupazioan 2009. urteaz geroztik izan diren jaitsieren eta enpresa publikoan 2010. urteaz geroztik izan diren jaitsieren eragina, ordea, nabarmena izan da; hain zuzen, administrazio publikoko okupazioa % 3,7 jaitsi da 2010 eta 2011 artean (2010ean 152.059 landun izatetik 2011n 146.440 pertsona izatera). Nolanahi ere, 2009. urtera arte izan zuen hedapen-dinamika kontuan hartuz, 2011. urtean sektore publikoko okupazioa % 5,9 handiagoa izan da 2007koa baino (% +3,9 administrazioan eta % +10,9 enpresa publikoan).

¹⁴ Langile autonomoen kopuruak behera egin du 2010-2011 aldian, eta aldiz, enplegatzaileen kopuruak goranzko joera izan du; jaitsiera horrek, beraz, adieraz dezake autonomo batzuk enplegatzaileen taldera pasatu direla urte horretan.

Azken urteetan, bilakaera onena kooperatibisten taldean izan da; izan ere, gorantz finkatu ziren 2009-2010 aldian 2007-2009 biurtekoko % 6 inguruko hazkunde-erritmoak. 2010-2011 aldian, aldiz, egonkortzeko joera izan da, ia % 1eko hazkundera izan baita. Orotara, kooperatibisten okupazioa % 20,3 hazi da 2007-2011 laurtekoan.

Hala ere, zehaztu behar da 2007-2011 laurtekoko hazkundera 2005-2007 aldiko jaitziera handiaren ondoren gertatu zela; zehazki, urteko % 9,8ko jaitziera izan zen, batez beste, okupazioan aldi horretan. Aurrez, 2001-2005 aldian, okupazioak egonkortzeko joera izan zuen. Beraz, 2007-2010 aldiko susperraldi handiak ezin izan du ezkutatu 2011. urteko okupazioa 2001ekoa baino apur bat txikiagoa izan dela (24.529 landun 2011n, eta 25.084, 2001ean).

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera. 2011
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-egoera	2009		2010		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Enplegatzailea	31.426	3,3	29.380	3,1	33.742	3,7
Autonomia	93.450	9,9	96.374	10,3	96.292	10,4
Familia-laguntza	2.395	,3	2.834	,3	2.687	,3
Kooperatibista	22.817	2,4	24.279	2,6	24.529	2,7
Adm. publikoko soldatapekoa	98.992	10,5	97.217	10,4	102.821	11,1
Enp. publikoko soldatapekoa	46.117	4,9	54.842	5,8	43.620	4,7
Enp. pribatuko soldatapekoa	644.830	68,1	632.419	67,4	619.611	67,0
Beste egoera bat	7.232	,8	355	,0	994	,1
Guztira	947.259	100	937.701	100	924.295	100

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren arabera
2001-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkunderaren ehunekoa 2007-2011 aldian)

Lanbide-egoera	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkunderaren %
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/2005	2007/2005	2009/2007	2011/2009	
Enplegatzailea	24.666	30.114	28.438	31.426	29.380	33.742	5,1	-2,8	5,1	3,6	18,6
Autonomia	110.558	114.415	108.197	93.450	96.374	96.292	0,9	-2,8	-7,1	1,5	-11,0
Familia-laguntza	6.899	3.123	2.589	2.395	2.834	2.687	-18,0	-8,9	-3,8	5,9	3,8
Kooperatibista	25.084	25.067	20.388	22.817	24.279	24.529	0,0	-9,8	5,8	3,7	20,3
Sektore publikoko soldatapekoa	116.396	129.710	138.296	145.108	152.059	146.440	2,7	3,3	2,4	0,5	5,9
Admin. publikoko soldatapekoak	91.429	104.394	98.965	98.992	97.217	102.821	3,4	-2,6	0,0	1,9	3,9
Enpresa publikoko soldatapekoak	24.967	25.316	39.332	46.117	54.842	43.620	0,3	24,6	8,3	-2,7	10,9
Enpr. pribatuko soldatapekoa	575.879	641.434	668.712	644.830	632.419	619.611	2,7	2,1	-1,8	-2,0	-7,3
Beste egoera bat	2.331	4.318	4.337	7.232	355	994	16,7	0,2	29,1	-62,9	-77,1
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-4,8

30. Soldatarik ez duten landunen taldeetan (enplegatzaileak, autonomoak, laguntza familiarra eta kooperatibistak) 2009-2011 aldirian izandako askotariko barne-bilakaeraren azken emaitza % 2,4ko hazkundera izan da talde osorako; beraz, haustura garbia izan da 2005-2007 eta 2007-2009 biurtekoetan izan ziren urteko % 3ko eta % 3,9ko batez besteko jaitsierekin. Dena den, % 1,5eko galerari eutsi zaio 2007 eta 2011 aldirietako okupazio-kopuruetan. Eraginako eskualdeei dagokienez, laurteko horretan, okupazioaren galera gutxienezkoa izan da Gasteizen (% -0,8), baina % -5,2tik % -7,8ra arteko mailalara iritsi da Aiaraldean, Bilbon eta Donostialdean; Ezkerraldean, berriz, % -16,2ko gehienekoa lortu da. Adierazitako beherakada 2007-2009 aldirian gertatu zen, batez ere, Aiaraldean, Ezkerraldean eta Donostialdean (okupazioa suspertu egin da 2009tik 2011ra bitartean). Aldiz, 2009-2010 aldirian, Gasteizen izan du eraginik handiena. Bilbon soilik hauteman dira soldatarik gabeko biztanleria landunaren etengabeko jaitsierak 2007az geroko bi biurtekoetan. Egoera hori larriagoa da kontuan hartzen bada, eskualde horretan, biztanleria-mota horren okupazioa 2001. urteaz geroztik ari zela jaisten.

Bilakaeraren azken emaitzaren arabera, Aiaraldean salbu, aztertutako gainerako eskualdeetan, 2011. urtean soldatarik gabeko langileen okupazioa txikiagoa izan da 2001ean baino. Errealitate hori Debabarrenean ere aurki dezakegu; eskualde horretan, soldatapekoak ez diren langileen okupazioa suspertu egin da 2009-2011 aldirian, baina 2001-2009 aldirian okupazioan etengabeko jaitsiera izan eta gero. Tolosa-Goierri, 2011. urtean soldatarik gabeko langileen okupazioa 2001ekoa baino handiagoa izan da; eskualde horretan, Gasteizen eta Bilbon bezala, okupazioa galdu da 2009-2011 biurtekoan (bereziki 2010-2011 aldirian, Gipuzkoako eskualdean). Egoera horrez gain, 2005-2007 aldirian izandako bilakaera txarra aintzat hartzen bada, eskualde horretan soldatarik ez duten langileen okupazio-kopuruak txikiagoak izan dira 2011n 2005ean baino.

Adierazitakoari kontrajarriz, soldatarik ez duten langileen okupazioa suspertu egin da 2009-2011 aldirian Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean; hori, beraz, nahikoa izan da 2007-2009 aldiriko jaitsierak berdintzeko. Soldatarik gabeko langileen kopurua % 5,9 eta % 10,1 artean hazi da 2011n, 2007ko kopuruarekin alderatuz, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean; Eskuinaldean, berriz, % 19,6ra iritsi da. Hazkunde handi horri esker, Eskuinaldean soldatarik gabeko langileen okupazioa 2001ekoa baino handiagoa izan da 2011n; hala ere, Tolosa-Goierri gertatu bezala, 2005ekoa baino txikiagoa izan da. 2001-2005 aldirian, okupazio-kopuruak nabarmen jaitsi ziren Debabarrenean; eskualde horrek salbu, EAeko gainerako eskualdeetako bakar batek ere ez du lortu 2011n 2005eko okupazio-kopuruak gainditzea soldatarik gabeko langileen artean.

Debagoienean, 2009-2011 biurtekoan soldatarik gabeko langileen okupazioan izandako hazkundera mugatua izan da; hala ere, azken laurtekoan (2007-2011) okupazio-mota horretan hazkundera izan duen eskualdeetako bat izan da (% 9,3ko hazkundera, zehazki). Horri esker, sendotu egin da eskualde horren nagusitasuna soldatarik gabeko 16-64 urteko landunen proportzioari buruzko adierazlean; 2011. urtean, % 25,9ra iritsi da. Kopuru horretatik oso urrun daude Aiaraldea, Bizkaia-Kosta eta Gipuzkoako gainerako eskualdeak, % 12,2 eta % 14,7 arteko mailetan. Gasteizen,

Eskuinaldean, Bilbon eta Durangaldean, bestalde, % 8,9 eta % 10,2 arteko koefizienteak dituzte. Ezkerraldeak du mailarik txikiena: % 7,8.

Sektore pribatuko soldatapekoei dagokienez, ikus daiteke 2009tik 2011ra bitartean okupazioak oro har behera egin duela Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan izan ezik; eskualde horietan, okupazio mota hori hazi egin da. Hazkunderik handiena, hain zuzen, Debagoiengan izan da; urteko % 2,6 hazi da, batez beste, biurteko horretan.

Aipatutako hiru eskualde horiei, ordea, kalte egin die okupazio-mota horrek 2007-2009 biurtekoan izan zuen beherakada handiak; egoera hori, gainera, are gehiago larriagotu da, Debagoiengan 2010-2011 aldian izan den bilakaera txarraren ondorioz. 2007-2011 laurtekoaren testuinguruan, Debagoiena izan da, hain zuzen ere, sektore pribatuko soldatapekoen okupazioaren ehuneko handia galdu duen eskualdeetako bat (% -14); Bilbok baino ez du gaintu (% -17,1). Tolosa-Goierriko eta Durangaldeko okupazioan izandako galera ere aipagarria da, % 9 ingurukoa; kopuru hori erreferentzia-urtean Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan izandakoaren antzekoa da. Adierazitako sei eskualdeetan, sektore pribatuko soldatapekoen okupazio-koefizienteak % 4 eta % 6 artean jaitsi dira, oro har, 2007-2011 laurtekoan; Bilbon, zehazki, % 8,1eko jaitsiera izan da.

Sektore pribatuko soldatapekoen okupazioan 2007-2011 aldian izandako jaitsiera, halaber, handia izan da; Gasteizen, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debabarrenean, % 3,8 eta % 5,6 arteko koefizienteak izan dituzte. Sektore pribatuko soldatapekoen okupazioak Aiaraldean baino ez du gora eginaldi horretan (% +2,5). Dena den, okupazio-mota horretan duen koefizientea % 1,1 gutxitu da 2007-2011 aldian; hain zuzen, % 1,6 jaitsi da Debabarrenean, % 2,6 Ezkerraldean eta Donostialdean, eta % 4 Gasteizen.

Sektore pribatuko soldatapekoen okupazioak Bilbon izan duen bilakaerak aipamen berezia merezi du, bertako okupazioan izan diren galeren intentsitatea dela eta. Eskualde horretan, okupazio-mota horretako jaitsiera bizkortu egin da, eta 2007-2009 aldian urteko % 3,3ko batez besteko jaitsiera-erritmoa izatetik 2009-2011n % 5,8ko jaitsiera-erritmoa izatera pasatu da. Dinamika horretara gerturatu da Bizkaia-Kosta (2007-2009 aldian urteko % 2,1eko jaitsiera eta 2009-2010 aldian, % 2,5ekoa), bai eta Eskuinaldean ere (% -2,2 eta % -2,3, hurrenez hurren, erreferentzia-urteetan). Hain zuzen, Bilbon eta Bizkaia-Kostan, sektore pribatuan lan egiten duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioa % 40ren azpitik egon da 2011. urtean, % 36,9 eta % 39,3, hurrenez hurren; beste eskualde bat baino ez dago egoera horretan. Adierazlea Debagoiengan soilik da txikiagoa (% 36,2); eskualde horretan, soldatarik gabeko langileak ugari dira, kooperatiba-mugimenduak oso garapen handia izan baitu bertan.

Bilakaera negatiboari dagokionez, Gasteizko, Ezkerraldeko eta Donostialdeko dinamika aipatu behar da. Urteko % 2 eta % 3 arteko galerak izan dira okupazioan, 2009-2011 aldian; joera hori, beraz, kontrajarri egiten zaio 2007-2009 biurtekoan eskualde horietako sektore pribatuko soldatapekoen okupazioan izan zen egonkortze-joerarekin.

Sektore publikoko soldatapekoen okupazioari dagokionez, hazkunde positiboa izan da hainbat eskualdetan 2009-2011 artean. Urteko % 0,7 eta % 1,6 arteko hazkundera izan da, batez beste, Eskuinaldean eta Debabarrenean; hala, Gasteizko, Aiaraldeko, Donostialdeko eta Tolosa-Goierriko urteko % 2,5eko hazkundera gerturatu da, edo bestela, gainditu egin du. Bilbon eta Durangaldean urteko % 1 baino galera txikiagoak izan dira; aldiz, Ezkerraldean urteko % 3,3ko jaitsiera izan da, Bizkaia-Kostan % 3,9koa, eta Debagoiengan, % 5,3koa.

2007-2011 laurtekoan, sektore publikoko soldatapekoen okupazioa urteko % 1,8 eta % 3,1 jaitsi da, hurrenez hurren, Aiaraldean eta Donostialdean; Tolosa-Goierri, berriz, % 12,9 hazi da, eta Debabarrenean, % 25,1. Besteekin alderatuz, hazkunde txikia izan da Gasteizen eta Bizkaia-Kostan (% 3,2 eta % 0,9), eta handiagoak, % 5,9 eta % 8,1 arteko hazkundera Eskuinaldean, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debagoiengan. % 28,7ko gehieneko hazkundera izan da Bilbon. Hain zuzen, 2011n, eskualde horretan izan da sektore publikoan lan egiten duten 16-64 urteko soldatapekoen proportziorik handiena: % 13,7; horren azpitik egon dira, Gasteiz, Eskuinaldea eta Bizkaia-Kosta, % 10,9 eta % 11,4 arteko kopuruarekin, eta Donostialdea, % 9,9ko kopuruarekin. Ezkerraldean eta Durangaldean, % 8,5 inguruko koefizientea izan dute, eta Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Deba bailarako bi eskualdeetan, % 6,9 eta % 7,8 artekoak.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2011
(% horizontalak)

Eskualdea	Soldatapekoak ez direnak	Sektore publikoko soldatapekoak	Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk
Gasteiz	15,9	17,7	66,4
Aiaraldea	20,5	10,6	68,8
Eskuinaldea	15,4	17,2	67,4
Bilbo	15,0	23,0	62,0
Ezkerraldea	12,6	13,5	73,9
Bizkaia-Kosta	20,5	17,7	61,8
Durangaldea	15,0	13,3	71,6
Donostialdea	18,2	14,7	67,1
Tolosa-Goierri	21,3	9,9	68,8
Debagoiena	37,6	10,0	52,5
Debabarrena	19,8	11,5	68,7
Guztira	17,0	15,8	67,1

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2011
(%-tan)

Eskualdea	Soldatapekoak ez direnak	Sektore publikoko soldatapekoak	Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk
Gasteiz	10,2	11,4	42,8
Aiaraldea	13,9	7,2	46,7
Eskuinaldea	9,7	10,9	42,8
Bilbo	8,9	13,7	36,9
Ezkerraldea	7,8	8,3	45,4
Bizkaia-Kosta	13,0	11,3	39,3
Durangaldea	9,8	8,7	46,9
Donostialdea	12,2	9,9	45,1
Tolosa-Goierri	14,7	6,8	47,6
Debagoiena	25,9	6,9	36,2
Debabarrena	13,0	7,5	44,9
Guztira	10,9	10,1	43,0

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera. 2001-2011 aldia
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Lanbide-egoera eta eskualdea	Kopuru absolutuak					Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %	
	2001	2005	2007	2009	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009		
Soldatapekoak ez direnak	Gasteiz	21.019	20.802	19.521	19.837	19.355	-0,3	-3,1	0,8	-1,2	-0,8
	Aiaraldea	3.313	4.247	4.351	3.395	4.102	6,4	1,2	-11,7	9,9	-5,7
	Eskuinaldea	9.774	11.277	9.078	8.893	10.861	3,6	-10,3	-1,0	10,5	19,6
	Bilbo	24.213	23.769	22.515	21.466	20.764	-0,5	-2,7	-2,4	-1,6	-7,8
	Ezkerraldea	22.428	23.365	24.498	19.605	20.520	1,0	2,4	-10,5	2,3	-16,2
	Bizkaia-Kosta	11.582	11.012	10.123	9.915	10.724	-1,3	-4,1	-1,0	4,0	5,9
	Durungaldea	8.001	9.245	7.194	7.143	7.921	3,7	-11,8	-0,4	5,3	10,1
	Donostialdea	42.573	41.693	39.490	34.688	37.453	-0,5	-2,7	-6,3	3,9	-5,2
	Tolosa-Goierrri	8.504	11.474	9.191	11.043	10.507	7,8	-10,5	9,6	-2,5	14,3
	Debagoiena	10.747	11.698	9.598	10.373	10.494	2,1	-9,4	4,0	0,6	9,3
Debarrena	5.052	4.137	4.054	3.729	4.547	-4,9	-1,0	-4,1	10,4	12,2	
Guztira	167.208	172.718	159.612	150.088	157.249	0,8	-3,9	-3,0	2,4	-1,5	
Sektore publikoko soldatapekoak	Gasteiz	17.708	19.825	20.934	20.115	21.609	2,9	2,8	-2,0	3,6	3,2
	Aiaraldea	1.921	2.211	2.168	1.814	2.129	3,6	-1,0	-8,5	8,3	-1,8
	Eskuinaldea	10.398	10.803	11.307	11.811	12.190	1,0	2,3	2,2	1,6	7,8
	Bilbo	20.972	23.420	24.622	31.948	31.696	2,8	2,5	13,9	-0,4	28,7
	Ezkerraldea	21.870	20.870	20.584	23.480	21.962	-1,2	-0,7	6,8	-3,3	6,7
	Bizkaia-Kosta	6.089	7.668	9.179	10.028	9.263	5,9	9,4	4,5	-3,9	0,9
	Durungaldea	4.042	5.416	6.500	7.155	7.025	7,6	9,6	4,9	-0,9	8,1
	Donostialdea	25.607	29.142	31.240	28.784	30.260	3,3	3,5	-4,0	2,5	-3,1
	Tolosa-Goierrri	3.644	4.595	5.613	4.270	4.887	6,0	10,5	-12,8	7,0	-12,9
	Debagoiena	2.034	3.047	2.625	3.099	2.780	10,6	-7,2	8,7	-5,3	5,9
Debarrena	2.112	2.713	3.525	2.604	2.639	6,5	14,0	-14,1	0,7	-25,1	
Guztira	116.396	129.710	138.296	145.108	146.440	2,7	3,3	2,4	0,5	5,9	
Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk	Gasteiz	77.697	83.137	84.170	84.046	80.925	1,7	0,6	-0,1	-1,9	-3,9
	Aiaraldea	12.237	12.465	13.425	13.900	13.763	0,5	3,8	1,8	-0,5	2,5
	Eskuinaldea	43.546	49.208	52.241	50.016	47.694	3,1	3,0	-2,2	-2,3	-8,7
	Bilbo	87.855	97.352	103.262	96.472	85.580	2,6	3,0	-3,3	-5,8	-17,1
	Ezkerraldea	104.006	122.815	125.849	125.594	119.987	4,2	1,2	-0,1	-2,3	-4,7
	Bizkaia-Kosta	29.314	32.112	35.477	33.978	32.303	2,3	5,1	-2,1	-2,5	-8,9
	Durungaldea	34.175	36.581	41.519	37.506	37.739	1,7	6,5	-5,0	0,3	-9,1
	Donostialdea	127.387	143.407	146.344	147.048	138.199	3,0	1,0	0,2	-3,1	-5,6
	Tolosa-Goierrri	31.644	36.543	37.347	33.629	34.005	3,7	1,1	-5,1	0,6	-8,9
	Debagoiena	14.836	15.774	17.036	13.926	14.654	1,5	3,9	-9,6	2,6	-14,0
Debarrena	15.512	16.359	16.380	15.948	15.756	1,3	0,1	-1,3	-0,6	-3,8	
Guztira	578.211	645.752	673.049	652.063	620.605	2,8	2,1	-1,6	-2,4	-7,8	

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteen bilakaera, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera.

1993-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	Soldatapekoak ez direnak					Sektore publikoko soldatapekoak					Sektore pribatuko soldatapekoak eta beste batzuk				
	1993	2001	2005	2007	2011	1993	2001	2005	2007	2011	1993	2001	2005	2007	2011
Gasteiz	10,5	12,1	11,7	10,8	10,2	10,0	10,2	11,1	11,6	11,4	31,4	44,9	46,6	46,7	42,8
Aiaraldea	11,3	12,0	14,9	15,5	13,9	5,4	6,9	7,8	7,7	7,2	31,4	44,2	43,7	47,8	46,7
Eskuinaldea	10,0	8,9	10,2	8,2	9,7	8,3	9,4	9,8	10,3	10,9	27,6	39,5	44,5	47,4	42,8
Bilbo	8,4	10,4	10,2	9,8	8,9	8,6	9,0	10,0	10,7	13,7	28,1	37,8	41,7	44,9	36,9
Ezkerraldea	6,3	8,4	8,7	9,3	7,8	7,9	8,1	7,7	7,9	8,3	26,8	38,8	45,6	48,0	45,4
Bizkaia-Kosta	12,1	14,9	14,1	12,4	13,0	7,2	7,8	9,8	11,2	11,3	31,1	37,8	41,1	43,5	39,3
Durangaldea	10,7	10,4	11,9	9,0	9,8	5,7	5,2	7,0	8,2	8,7	31,8	44,3	47,3	52,2	46,9
Donostialdea	10,8	13,9	13,6	12,9	12,2	7,6	8,3	9,5	10,2	9,9	30,2	41,5	46,7	47,7	45,1
Tolosa-Goierri	11,9	11,7	15,8	12,8	14,7	4,6	5,0	6,3	7,8	6,8	30,1	43,6	50,4	52,0	47,6
Debagoiena	20,2	25,3	27,6	23,7	25,9	3,4	4,8	7,2	6,5	6,9	25,9	35,0	37,3	42,0	36,2
Debarrena	12,0	14,0	11,4	11,5	13,0	5,5	5,9	7,5	10,0	7,5	28,7	43,0	45,1	46,5	44,9
Guztira	9,9	11,7	12,0	11,2	10,9	7,6	8,2	9,0	9,7	10,1	29,1	40,6	45,0	47,2	43,0

3.3.2.1. Soldatapekoen berariazko datuak

31.2009tik 2011ra bitartean, Gizarte Segurantzaren afiliatu gabe diharduten landunen proportzioa % 2,4tik % 2,3ra murriztu bada ere, kontratazio-modalitateei dagokienez kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopuruan azken aldian izan den beherakada handia azpimarratu behar da. Talde horren barruan, 641.041 pertsona zeuden 2009an, eta 599.703 2011n. Hortaz, 41.338 landun gutxiago daude; hau da, % 6,4ko beherakada izan da biurtekoan. Murrizketa hori oso esanguratsua da, okupazio mota horrek 2009ra arte izan duen goranzko joera nabarmena hautsi baitu; izan ere, 2001-2009 aldiko faseetan, urteko hazkunde-erritmoak % 2,8 eta % 3,8 artekoak izan ziren. Jaitsiera handiaren ondorioz, 2011ko kontratu mugagabeko okupazioa 2007koa baino txikiagoa izan da; urte hartan, 602.035 pertsonak izan zuten kontratu mugagabeko enplegua (% -0,4).

Kontratu mugagabeko okupazioaren jaitsiera kontratu ez-mugagabearen gorakada handiak berdindu zuen hasiera batean, 2009-2010 aldian % 13,6ko hazkundera izan baitzen. Hazkunde hori, ordea, ez zen nahikoa izan 2007-2009 biurtekoko urteko % 14,8ko batez besteko galerak berdintzeko, ez eta 2010-2011 aldian okupazio-mota horretan izan zen % 1,6ko jaitsiera berdintzeko ere. 2011koa 2009koa baino handiagoa izanagatik ere, kontratu mugagaberik gabeko biztanleria-kopurua (166.348 pertsona) % 18,8 txikiagoa izan zen 2007koa baino (204.973 pertsona). 2009-2011 biurtekoan, % 18,8 izatetik % 21,7 izatera pasatu zen; hala ere, kontratu mugagabea duten soldatapekoen proportzioa 2007ra arte hautemandako kopuruaren oso azpitik egon da; urte hartan, % 25,4ko koefizientea izan zen, eta 2001ean % 29,1koa.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera 2009-2011 aldian

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2009		2010		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Kontratu-mota						
Mugagabe	641.041	81,2	615.401	78,4	599.703	78,3
Haize freskoa	134.957	17,1	152.511	19,4	150.226	19,6
Kontraturik gabe	13.941	1,8	16.566	2,1	16.122	2,1
Guztira	789.939	100	784.479	100	766.051	100

16-64 urteko soldatapeko bizt. landuna, Gizarte Segurantzarekiko afiliazioaren arabera. 2009-2011 aldian

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2009		2010		2011	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Afiliazioa						
Bai	770.976	97,6	766.705	97,7	748.626	97,7
Ez	18.962	2,4	17.774	2,3	17.425	2,3
Guztira	789.939	100,0	784.479	100,0	766.051	100,0

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, kontratu motaren arabera.

2001-2011 aldian

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Kontratu- mota	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009	
Mugagabe	491.052	570.040	602.035	641.041	615.401	599.703	3,8	2,8	3,2	-3,3	-0,4
Ez-	201.223	201.104	204.973	148.898	169.077	166.348	0,0	1,0	-14,8	5,7	-18,8
Guztira	692.275	771.144	807.008	789.939	784.479	766.051	2,7	2,3	-1,1	-1,5	-5,1
Mugagaberik	29,1	26,1	25,4	18,8	21,6	21,7					

32. Eskualdeei dagokienez, kontratu mugagabeko soldatapekoen kopuruaren jaitsiera ia erabatekoa izan da 2009-2011 aldian. Salbuespena Tolosa-Goierri izan da, urteko % 1,8ko erritmoan hasi baita, batez beste, nahiz eta kontratu mugagabeko okupazioaren jaitsiera 2007-2009 aldian hasi zuen bi eskualdeetako bat izan (bestea Durangaldea izan zen). Urteko batez besteko jaitsierak % 2,5 baino txikiagoak izan dira Gasteizen, Aiaraldean, Durangaldean eta Debabarrenean, 2009-2011 aldian; Ezkerraldean, Donostialdean eta Bizkaia-Kostan, berriz, % 3,4 eta % 4,2 artekoak izan dira, eta Eskuinaldean, Bilbon eta Debagoienean % 4,9 eta % 6,4 artekoak.

Kontratu mugagabeko okupazioaren hazkundera ia orokorra izan da 2007-2009 biurtekoan; hala ere, azken aldiko atzeranzko dinamikaren ondorioz, okupazio-mota horren jaitsiera garbia gertatu da, 2007-2011 laurtekoan, eskualde gehienetan. Atzerakada % 1,4koa izan da Gasteizen, baina kopuru handiagoetara ere iritsi da: % 4 eta % 4,8 artekoa izan da Eskuinaldean, Bilbon, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, eta % 7,4 eta % 7,7 artekoa Durangaldean eta Debagoienean. Eskualde horietan, kontratu mugagabeko 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientea % 1,6 eta % 2,8 artean jaitsi da, Durangaldean salbu; azken eskualde horretan, % 4ko jaitsiera izan du.

Donostialdean, bestalde, 2009-2011 biurtekoan okupazioan izan den jaitsiera dela eta, okupazio-kopuruak egonkortu egin dira (% +0,7) bai eta horiekin lotura duten koefizienteak ere (+0,4 puntu). 2009-2011 aldian izandako beherakadak soilik Aiaraldean, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan ez ditu erabat indargabetu 2007-2009 aldian izandako hazkunderak; hain zuzen, 2007-2011 laurtekoan, kontratu mugagabeko okupazioan hazkunde handiak izan dira eskualde horietan (% 5,4 Bizkaia-Kostan, % 6,2 Ezkerraldean, eta % 17,2 Aiaraldean). Kontratu mugagabeko soldatapekoen okupazio-koefizientea % 2 inguru hazi da Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan, eta % 4,5 Aiaraldean.

2011. urtean, Donostialdean egon da kontratu mugagabea duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzio handiena (% 44,1), eta atzetik izan du Durangaldea (% 43,5). Gainerako eskualde gehienetan, % 40,7 eta % 42,8 arteko kopuruak egon dira. Salbuespenak Bilbo eta Debabarrena izan dira batetik (% 38,6 eta % 37,8 izan dituzte, hurrenez hurren), eta bestetik, Debagoiena (% 31,1eko gutxienezkoa), eskualde horretan soldatarik gabeko langileen taldeak duen garrantzia dela eta.

Gasteizen salbu, EAEko gainerako eskualdeetan handiagoa izan da 2001. urtean kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen kopurua, 2009an baino. Nolanahi ere, hazkunde horrek ez ditu arindu, inola ere, 2007-2009 aldiko beherakada handiak (2007-2010 aldikoak, Debabarrenari dagokionez); Gasteizen, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoiengan, 2005-2007 biurtekora aurreratu ziren. 2007. urtearekin alderatuz, 2011n kontratu mugagaberik gabeko landunen okupazioa % 13,8 txikiagoa izan Debabarrenean; % -18 inguru Bilbon eta Debagoiengan; % -21 eta % -24 artean, Ezkerraldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierri; % -29,9 Aiaraldean; eta % -37,8 Bizkaia-Kostan. % 10 baino jaitsiera txikiagoa hiru eskualde hauetan soilik izan zen: Gasteizen (% -4,4), Eskuinaldean (% -8,6) eta Durangaldean (% -3,4).

Okupazio-koefizientei dagokionez, kontratu mugagaberik gabeko 16-64 urteko soldatapekoen proportzioa oso antzekoa izan da 2011n eskualde gehienetan; oro har, % 10,8 eta % 12,2 arteko kopuruak izan dituzte. Tarte horretatik urrundu diren bakarrak Bizkaia-Kosta eta Debabarrena izan dira; lehenengoan, tarte hori baino koefiziente txikiagoa izan da (% 9,7), eta bigarrean, handiagoa (% 14,6).

Bestalde, ia kasu guztietan jaitsi da kontratu mugagabekorik gabeko biztanleriaren garrantzi erlatiboa 2007-2011 aldian; salbuespen bakarra izan da: Durangaldea. Kontratu mugagabekorik gabeko pertsonen proportzio txikiak % 19,3 eta % 20,3 artekoak izan dira, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean; gainerako eskualde gehienetan, % 21,5 eta % 23,3 artekoak izan dira. Hala ere, adierazlea % 27,7ra eta % 27,8ra iritsi da Deba bailarako bi eskualdeetan.

Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioa, eskualdearen arabera. 2011
(%-tan)

Eskualdea	2011
Gasteiz	22,0
Aiaraldea	21,5
Eskuinaldea	20,3
Bilbo	23,3
Ezkerraldea	22,3
Bizkaia-Kosta	19,3
Durangaldea	21,8
Donostialdea	19,6
Tolosa-Goierri	22,5
Debagoiena	27,7
Debabarrena	27,8
Guztira	21,7

16-64 urteko biztanleria: okupazio-koefizienteak, kontratu motaren eta eskualdearen arabera. 2011
(%-tan)

Eskualdea	Mugagabe	Ez-mugagabea
Gasteiz	42,3	11,9
Aiaraldea	42,3	11,6
Eskuinaldea	42,8	10,9
Bilbo	38,6	11,7
Ezkerraldea	41,7	12,0
Bizkaia-Kosta	40,7	9,7
Durangaldea	43,5	12,1
Donostialdea	44,1	10,8
Tolosa-Goierri	42,2	12,2
Debagoiena	31,1	11,9
Debabarrena	37,8	14,6
Guztira	41,6	11,5

16-64 urteko soldatapekoen bilakaera, kontratu motaren eta eskualdearen arabera.

2001-2011 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Kontratu mota eta eskualdea	Kopuru absolutuak					Hazkunde-tasa				2007/2011 aldiko hazkundearen %
	2001	2005	2007	2009	2011	2001/ 2005	2007/ 2005	2009/ 2007	2011/ 2009	
Mugagabe										
Gasteiz	71.044	78.095	81.105	81.171	79.966	2,4	1,9	0,0	-0,7	-1,4
Aiaraldea	9.673	11.356	10.636	12.882	12.470	4,1	-3,2	10,1	-1,6	17,2
Eskuinaldea	36.993	47.091	49.628	54.414	47.660	6,2	2,7	4,7	-6,4	-4,0
Bilbo	81.147	89.137	93.784	99.118	89.709	2,4	2,6	2,8	-4,9	-4,3
Ezkerraldea	84.633	99.546	103.906	119.538	110.351	4,1	2,2	7,3	-3,9	6,2
Bizkaia-Kosta	24.544	29.625	31.747	36.439	33.446	4,8	3,5	7,1	-4,2	5,4
Durangaldea	26.564	33.354	37.841	35.705	35.026	5,9	6,5	-2,9	-1,0	-7,4
Donostialdea	105.888	123.337	134.205	144.627	135.078	3,9	4,3	3,8	-3,4	0,7
Tolosa-Goierri	25.400	30.136	31.645	29.045	30.115	4,4	2,5	-4,2	1,8	-4,8
Debagoiena	11.472	12.332	13.657	14.149	12.602	1,8	5,2	1,8	-5,6	-7,7
Debarrena	13.694	16.031	13.880	13.953	13.279	4,0	-6,9	0,3	-2,4	-4,3
Guztira	491.052	570.040	602.035	641.041	599.703	3,8	2,8	3,2	-3,3	-0,4
Ez-mugagabea										
Gasteiz	24.063	24.669	23.614	22.931	22.567	0,6	-2,2	-1,5	-0,8	-4,4
Aiaraldea	4.389	3.233	4.879	2.752	3.421	-7,4	22,8	-24,9	11,5	-29,9
Eskuinaldea	16.764	12.677	13.299	7.240	12.159	-6,7	2,4	-26,2	29,6	-8,6
Bilbo	27.268	31.150	33.050	27.009	27.185	3,4	3,0	-9,6	0,3	-17,7
Ezkerraldea	40.473	43.785	41.587	28.505	31.599	2,0	-2,5	-17,2	5,3	-24,0
Bizkaia-Kosta	10.614	10.108	12.822	6.959	7.974	-1,2	12,6	-26,3	7,0	-37,8
Durangaldea	11.526	8.488	10.083	8.573	9.738	-7,4	9,0	-7,8	6,6	-3,4
Donostialdea	46.937	47.151	42.748	29.459	33.020	0,1	-4,8	-17,0	5,9	-22,8
Tolosa-Goierri	9.887	10.561	11.056	8.284	8.738	1,7	2,3	-13,4	2,7	-21,0
Debagoiena	5.372	6.390	5.903	2.811	4.832	4,4	-3,9	-31,0	31,1	-18,1
Debarrena	3.930	2.892	5.932	4.373	5.115	-7,4	43,2	-14,1	8,2	-13,8
Guztira	201.223	201.104	204.973	148.898	166.348	0,0	1,0	-14,8	5,7	-18,8

Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	29,9	35,7	25,3	22,5	22,0	24,1	22,0
Aiaraldea	29,4	33,5	31,2	31,4	17,6	24,1	21,5
Eskuinaldea	22,5	25,9	31,2	21,1	11,7	19,5	20,3
Bilbo	22,8	28,8	25,2	26,1	21,4	22,1	23,3
Ezkerraldea	25,5	37,0	32,4	28,6	19,3	21,6	22,3
Bizkaia-Kosta	32,0	36,2	30,2	28,8	16,0	24,5	19,3
Durungaldea	30,7	34,6	30,3	21,0	19,4	19,7	21,8
Donostialdea	24,7	39,2	30,7	24,2	16,9	19,5	19,6
Tolosa-Goierri	32,3	40,7	28,0	25,9	22,2	22,6	22,5
Debagoiena	28,4	42,3	31,9	30,2	16,6	21,2	27,7
Debarrena	23,5	36,0	22,3	29,9	23,9	22,3	27,8
Guztira	26,3	35,3	29,1	25,4	18,8	21,6	21,7

16-64 urteko soldatapekoak: okupazio-koefizienteen bilakaera, kontratu motaren eta eskualdearen arabera. 1993-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	Mugagabe					Ez-mugagabea				
	1993	2001	2007	2009	2011	1993	2001	2007	2009	2011
Gasteiz	29,0	41,0	45,0	42,9	42,3	12,3	13,9	13,1	12,1	11,9
Aiaraldea	25,8	34,9	37,9	43,8	42,3	10,7	15,8	17,4	9,4	11,6
Eskuinaldea	27,5	33,5	45,0	48,7	42,8	8,0	15,2	12,1	6,5	10,9
Bilbo	28,1	35,0	40,8	42,6	38,6	8,3	11,7	14,4	11,6	11,7
Ezkerraldea	25,7	31,5	39,6	45,0	41,7	8,8	15,1	15,9	10,7	12,0
Bizkaia-Kosta	25,0	31,6	38,9	44,1	40,7	11,7	13,7	15,7	8,4	9,7
Durungaldea	25,3	34,4	47,6	44,1	43,5	11,2	14,9	12,7	10,6	12,1
Donostialdea	28,3	34,5	43,7	46,7	44,1	9,3	15,3	13,9	9,5	10,8
Tolosa-Goierri	23,4	35,0	44,0	40,0	42,2	11,2	13,6	15,4	11,4	12,2
Debagoiena	21,0	27,0	33,7	34,4	31,1	8,3	12,7	14,6	6,8	11,9
Debarrena	26,1	38,0	39,4	39,2	37,8	8,0	10,9	16,8	12,3	14,6
Guztira	26,9	34,5	42,2	44,2	41,6	9,6	14,1	14,4	10,3	11,5

33. Soldatapekoen artean lanaldiak izan duen bilakaerari dagokionez, iraupenik txikieneko lanaldien eta lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatiboak hazkunde jarraitua izan duela diote adierazleek. Aste normal lan egin duten soldatapeko landunen egoera kontuan hartuta, 40 orduko edo hortik gorako asteko lanaldien proportzioa % 70,3tik % 64,1era murriztu da 2007tik 2011ra bitartean. Aldi berean, 30-39 orduko lanaldien proportzioak gora egin du (% 17,3tik % 19,4ra), eta are gehiago 30 orduetik beherako lanaldi partzialen proportzioak ere (% 12,4tik % 16,5era).

Enplegu jarraitua (enplegu arruntak) duten soldatapeko landunen lanaldi teorikoa erreferentziazat hartuta ere, lanaldi partzialeko lanen proportzioak goranzko joera argia izan du (% 11,3 2007an eta % 14,4 2011n).

2007-2011 aldian, lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatiboa handitu egin da EAEko eskualde guztietan, lanaldi teorikoari dagokionez; zenbait eskualdetan (Aiaraldea, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta eta Debagoiena), ordea, egoera hori fenomenoak 2009-2011 aldian izandako gorakadaren ondorio izan da, 2007-2009 biurtekoko egonkortze-joeraren edo jaitsieraren ondoren. Bilbon eta Gasteizen salbu, gainerako eskualdeetan goranzko joera etengabekoa izan da 2009. urteaz gerotik. 2007-2011 laurtekoan, lanaldi partzialeko lanaren proportzioaren hazkunde nagusiak Durangaldean eta Tolosa-Goierri izan dira (% +8 eta % +6,5, hurrenez hurren); Eskuinaldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Debagoiengan eta Debabarrenean, % 3,9 eta % 5,3 arteko hazkundeak izan dira.

Lanaldi teorikoari dagokionez ere, 2011n lanaldi partzialeko lanaren presentzia handiena izan den eskualdeak Ezkerraldea, Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena izan dira; % 15,5 eta % 17,6 arteko kopuruak izan dituzte. Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debagoiena tarteko posizio batean daude; lanaldi partzialeko lanaren proportzioa % 14 eta % 14,5 artekoa izan da. Kopuru baxuenak Gasteizen, Aiarraldean, Eskuinaldean eta Bilbon izan dira, % 12 eta % 13,1 arteko kopuruekin.

Ondorioak antzekoak izan dira oro har lanean jardun duten soldatapekoen jardunaldi eraginkorraren 2007-2011 aldiko bilakaera aztertzean; hala ere, zenbait ñabardura izan dira Gasteizen, Bilbon eta Donostialdean.

Gasteizi dagokionez, datuek oso bilakaera desberdina erakutsi dute EAEko gainerako eskualdeekin alderatuz; lanaldi partzialeko lanaren adierazleak jaitsiera nabarmena izan du; 2007an % 16,7 izatetik 2009-2010 aldian % 14,1 eta % 14,6 arteko kopuruak izatera, eta 2011n % 12,8ko kopurua izatera. Alderantziz, Bilbori eta Donostialdeari dagokienez, lanaldi eraginkorraren adierazleak goranzko joera argiagoa izan du enplegu jarraitua duten pertsonen lanaldi teorikoak islatutakoa baino (% 11,8tik % 17,5era Bizkaiko hiriburuan; % 13,7tik % 17,8ra Gipuzkoako eskualdean). Adierazle horren arabera, hain zuzen, aipatutako bi eskualde horiek lanaldi partzialeko lanaren garrantzi erlatibo handiena duten eskualdeen taldera gerturatzen dira; Tolosa-Goierri, % 20ko gehienekoa lortu da.

16-64 urteko soldatapekoen bilakaera, lan egindako ordu kopuruaren arabera

1993-2011 aldia

(% bertikalak)

Lan egindako orduak	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
< 30 ordu	9,7	12,6	11,8	11,8	12,4	13,6	14,5	16,5
30-39 ordu	8,0	9,0	12,1	16,3	17,3	19,5	19,6	19,4
40 ordu edo gehiago	82,3	78,4	76,1	72,0	70,3	66,9	65,8	64,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Oharra: Astean normal lan egin duten soldatapeko landunak

Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera

1993-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	10,6	12,8	12,5	12,1	16,7	14,1	14,6	12,8
Aiaraldea	11,1	13,3	13,0	10,5	12,3	10,8	11,7	14,1
Eskuinaldea	11,5	11,2	10,7	14,6	9,5	10,6	14,0	15,2
Bilbo	8,1	12,4	11,1	12,1	11,8	15,0	13,8	17,5
Ezkerraldea	8,8	12,8	12,2	11,6	12,2	13,1	13,8	17,2
Bizkaia-Kosta	12,0	12,1	14,1	7,2	12,1	11,8	11,9	14,8
Durungaldea	9,6	9,5	9,1	8,6	10,1	11,8	14,0	18,0
Donostialdea	10,6	14,8	12,9	13,8	13,7	15,0	16,3	17,8
Tolosa-Goierri	8,6	12,1	9,2	7,1	9,8	14,1	15,9	20,0
Debagoiena	8,5	9,9	13,0	14,1	12,1	8,8	12,1	15,9
Debabarrena	10,0	10,3	8,6	7,2	10,9	15,7	19,4	18,4
Guztira	9,7	12,6	11,8	11,8	12,4	13,6	14,5	16,5

Oharra: Astean normal lan egin duten soldatapeko landunak

Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera (lanaldi teorikoa)

1997-2011 aldia

(%-tan)

Eskualdea	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	5,7	6,7	9,7	11,2	12,6	14,5	13,1
Aiaraldea	7,5	9,3	8,7	9,6	8,5	11,0	12,0
Eskuinaldea	6,0	7,4	10,6	8,9	8,3	11,1	12,8
Bilbo	5,0	6,7	10,0	12,2	13,8	11,4	12,9
Ezkerraldea	6,5	7,6	10,3	11,5	11,6	12,6	15,5
Bizkaia-Kosta	6,1	9,2	5,5	9,2	8,8	11,9	14,0
Durungaldea	5,3	7,4	7,9	8,9	12,7	13,8	16,9
Donostialdea	7,8	9,2	11,7	13,1	13,3	13,5	14,5
Tolosa-Goierri	5,7	6,4	7,7	11,1	12,8	15,1	17,6
Debagoiena	6,0	8,3	10,1	9,5	9,3	10,6	14,0
Debabarrena	5,3	7,4	5,8	11,3	14,4	16,7	16,7
Guztira	6,2	7,7	9,9	11,3	12,1	12,9	14,4

Oharra: Enplegu jarraitua duten soldatapeko landunak

3.4. Okupazioaren beste alderdi batzuk

3.4.1. Egungo okupazioan emandako denbora eta okupazioa lortzeko bideak

34. Egungo okupazioan emandako denborari dagokionez, datuek erakusten dute mugikortasun handia dagoela lan-merkatuan, eta enplegua duten landunen proportzioak behera egiten duela landunek lanpostuan ematen duten denborak gora egin ahala. Horiek horrela, okupazio-egoerak, hau da, % 34, duela bost urte baino lehenagotik okupaturako enpleguei dagozkie; % 20,6, duela 5-9 urtez geroztik okupaturako enpleguei; % 15,2, duela 10-14 urtez geroztik okupaturakoei; eta % 7,9, duela 15-19 urtez geroztik okupaturakoei. Oro har, okupazio-egoeren ia % 55,7 duela 10 urte baino gutxiagoz geroztik okupaturako enpleguei dagokie. % 22,3, ordea, enplegua duela 20 urtetik edo gehiagotik dutenei dagokie.

2007aren aurreko urteetan okupazioaren igoera pixkanaka eten izanak eta ondoren izandako okupazio-krisiak, ordea, azken bost urte hauetan lortutako okupazio-proportzio erlatiboak pixkanaka jaitea eragin dute. 2007an, okupazio-tasa % 45,7 izan zen (gehienekoa); 2009an, % 40,9; eta 2010ean, % 34. Gasteizen eta Bilboko hiru eskualdeetan du horrelako okupazioak proportzio erlatibo handien: % 35 edo handiagoa, hain zuzen.

16-64 urteko landunak, egungo okupazioan daramaten denboraren arabera. 2011
(%-tan)

Egungo okupazioan emandako denbora	Abs.	% ber.
< 2 urte	172.611	18,7
2-4 urte	141.737	15,3
5-9 urte	190.089	20,6
10-14 urte	140.263	15,2
15-19 urte	73.129	7,9
20 urte edo gehiago	206.465	22,3
Guztira	924.295	100

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzaten 16-64 urteko landunen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2001-2011 aldia
(%-tan)

Eskualdea	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	41,9	41,2	40,3	38,3	36,5	38,0	34,9
Aiaraldea	43,9	44,2	37,2	38,7	37,1	36,5	30,9
Eskuinaldea	42,1	48,1	40,1	39,4	39,9	38,2	35,3
Bilbo	43,2	48,3	40,2	40,7	36,8	39,5	37,6
Ezkerraldea	47,4	52,0	45,0	43,5	38,6	36,8	35,3
Bizkaia-Kosta	40,0	43,2	40,2	40,4	30,5	34,3	31,0
Durangaldea	43,7	43,6	34,9	35,5	33,7	32,7	31,8
Donostialdea	43,2	44,6	37,8	43,0	35,6	34,7	32,3
Tolosa-Goierri	43,0	45,6	37,1	39,4	35,4	34,0	33,3
Debagoiena	36,9	39,2	34,8	37,2	27,9	26,3	27,3
Debabarrena	36,1	34,8	33,5	44,2	33,5	34,1	34,1
Guztira	43,1	45,7	39,7	40,9	36,1	36,1	34,0

35. Enplegu jarraitua izan eta egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzen 16-64 urteko biztanleriaren % 5,3k adierazi du okupazio hori aldi baterako laneko enpresaren (ABLE) baten edo enplegu-bulego publikoen bidez lortu duela. Eskualdeko zifrak % 3,4tik % 7,7ra bitartekoak dira (Debagoiengan eta Aiaraldean, hurrenez hurren).

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna, enplegu jarraitua duena, eskualdearen arabera. 2011

(ABLE-en edo enplegu-bulego publikoen bidez enplegua lortu dutenak %-tan)

Eskualdea	ABLE bidez (%-tan)	Bulego Publikoen bidezko (%-tan)	Bata edo bestea (%-tan)
Gasteiz	3,2	2,3	5,4
Aiaraldea	4,7	1,5	6,2
Eskuinaldea	3,2	1,7	4,8
Bilbo	2,6	3,0	5,6
Ezkerraldea	4,0	2,9	6,8
Bizkaia-Kosta	2,4	1,6	4,0
Durangaldea	5,9	1,9	7,7
Donostialdea	3,0	1,0	3,9
Tolosa-Goierra	3,7	1,9	5,5
Debagoiena	2,4	1,1	3,4
Debarrena	2,3	1,4	3,7
Guztira	3,3	2,0	5,3

3.4.2. Beste enplegu bat bilatzea eta enplegu-aniztasuna

36. Landunak beste enplegu bat bilatzen aritzeak zerikusia du langile horiek gaur egungo lanpostuan duten gogobetetze-mailarekin edo/eta egonkortasun-mailarekin. Egoera horretan dauden landunen proportzioa % 3tik % 4,5era igo zen 2007-2009 aldian, baina 2010ean, % 3,9ra jaitsi zen. 2011n, % 4ra igo da: 37.106 landun ari dira beste enplegu bat bilatzen. Termino erlatibotan nahiz absolututan, 2010eko eta 2011ko zifrek 2007an lortutako gutxienekoak soilik gainditzen dituzte —azken hamar urteetan—; izan ere, 2009ko zifrak baino txikiagoak dira, baita 2001ekoak eta 2005ekoak baino txikiagoak ere. Nolanahi ere, okupazioak beheranzko joera izan du. Alde horretatik, landunek gaur egun betetzen duten lanpostuarekiko atxikimendua da 2010eko eta 2011ko egoeraren ezaugarri nagusia.

Eskualdeen araberako datuei erreparatzen badiegu, ordea, ñabardura batzuk egin behar ditugu; izan ere, fenomeno horri dagokionez, eskualdeen artean alde handiak daude. Alde batetik, nabarmenezkoa da Durangaldeko errealitatea eta Gipuzkoako eskualdeena. Eskualde horietan, beste enplegu baten bila dabilzan pertsonen proportzioa batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da (% 3tik beherakoa beti), eta horretaz gainera, adierazle hori nabarmen jaitsi da 2009az geroztik. 2009ko zifrak, gainera, 2007koen antzekoak edo txikiagoak dira.

Eskuinaldea eta Bizkaia-Kosta eskualdeek gora egin zuten 2009an eta 2010ean; 2010ean eta 2011n, aldiz, behera. Hori dela eta, aurreko eskualdeen antzeko proportzioak izan dituzte (% 2,2 eta % 3). Adierazleak behera egin du azken urte honetan, bai eta Aiaraldean ere, nahiz eta eskualde horretan batez bestekoaren gainetik egon (% 4,5). Ezkerraldean ere % 4,5 da, nahiz eta eskualde horretan gorako joera izan duen 2010ean eta 2011n.

Gasteiz eta Bilbo eskualdeetan, aldiz, beste enplegu baten bila dabilzan pertsonen proportzioak gorako joera izan du 2009tik 2011ra, eta 2007ko proportzioa baino bi puntu handiagoa da gutxienez. Horretaz gainera, bi eskualde horiek soilik lortu dute % 5etik gora egitea (% 5,5 Gasteizen eta % 6,7 Bilbon). Aurreko mendeko proportzioek soilik gainditzen dituzte eskualde horiek gaur egun dituzten proportzioak.

**Beste enplegu baten bila dabilzan 16- 64 urteko landunen bilakaera.
2001-2011 aldia**

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2011 aldian)

Beste enplegu baten bila	Datu absolutuak						Hazkunde-tasa				Hazkundearen %-a 2007/2011
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2001/ 2005	2005/ 2007	2007/ 2009	2009/ 2011	
Bai	38.292	42.373	28.775	42.222	36.564	37.106	2,6	-17,6	21,1	-6,3	29,0
Ez	823.522	905.807	942.182	905.037	901.136	887.189	2,4	2,0	-2,0	-1,0	-5,8
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-4,8
Lan bila ari direnak (%-tan)	4,4	4,5	3,0	4,5	3,9	4,0					

**Beste enplegu baten bila dabilzan 16-64 urteko landunen proportzioa, eskualdearen arabera.
1993-2011 aldia
(%-tan)**

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	7,9	7,9	5,0	4,3	3,5	5,0	5,4	5,5
Aiaraldea	8,0	5,8	7,5	2,1	3,0	3,9	7,2	4,5
Eskuinaldea	4,9	4,9	5,2	5,4	1,6	3,0	3,5	2,2
Bilbo	5,8	7,4	5,2	6,4	3,1	5,2	6,2	6,7
Ezkerraldea	4,9	7,8	5,0	4,7	2,9	6,7	4,1	4,5
Bizkaia-Kosta	5,0	4,9	3,5	2,2	3,2	3,2	3,8	3,0
Durungaldea	6,0	5,8	3,7	2,7	2,1	4,1	2,8	2,8
Donostialdea	5,2	7,7	4,0	4,3	3,2	3,2	2,4	3,0
Tolosa-Goierri	6,9	5,5	2,7	4,7	2,6	3,3	2,0	2,0
Debagoiena	3,2	5,0	3,7	3,3	1,6	2,5	1,8	2,4
Debarrena	6,3	5,6	,5	2,8	5,3	5,3	1,9	2,8
Guztira	5,7	6,9	4,4	4,5	3,0	4,5	3,9	4,0

37. Hein batean, enplegu-aniztasunerako aukera gutxiago dagoelako egin du behera beste enplegu baten bila dabilzan pertsonen proportzioak 2009an, 2010ean eta 2011n. Bi enplegu edo gehiago dituzten landunen proportzioa % 0,8tik % 1,4ra igo zen 2007-2009 aldian. Gero, ordea, behera egin zuen: % 1era, 2010ean, eta % 0,7ra, 2011n. Debagoiena da kontuan hartu beharreko salbuespen bakarra: eskualde horretan, adierazleak gorako joera hartu zuen 2009an, harik eta 2011n % 1,8ra iritsi zen arte.

Enplegu bat baino gehiago dituzten 16-64 urteko landunen proportzioa, eskualdearen arabera.
2005-2011 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	,8	1,2	2,4	1,9	1,2
Aiaraldea	1,5	3,1	1,3	2,4	1,5
Eskuinaldea	1,5	,9	,8	,7	,4
Bilbo	1,4	,8	2,0	,7	,4
Ezkerraldea	,2	,7	,8	,4	,7
Bizkaia-Kosta	,1	,4	,0	,5	,7
Durungaldea	,8	1,1	,6	,8	,2
Donostialdea	,8	1,1	1,8	1,2	,7
Tolosa-Goierri	,6	,8	1,5	1,1	1,1
Debagoiena	1,4	1,2	1,1	1,6	1,8
Debarrena	,3	,7	1,3	,8	,6
Guztira	,8	1,0	1,4	1,0	,7

3.4.3. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak

2005. urteaz geroztik, LMEn informazioa biltzen da, biztanleria landunak inkesta egin aurreko hilean lortutako diru-sarrera garbiei buruzkoa. Soldatak eragindako diru-sarrerak nahiz soldatarik gabeko jardueretatik datozenak hartzen dira aintzat¹⁵. LMEren datuei esker, *diru-sarrerak* aldagaiaren gutxi gorabeherako azterketa egin dezakegu; izan ere, 2005etik aurrera elkarrizketatutako pertsonen ia % 80ari buruzko informazioa dugu eskuragarri. EAEko landunek lanean zer diru-sarrera garbi duten aztertzen hasteko nahikoa da ehuneko handi hori. Dena den, inkestatutako zenbait pertsonak ez erantzun izana garrantzitsua denez, zuhurtzia izan behar dugu ezinbestean¹⁶.

¹⁵ Nabarmendu beharrekoa da diru-sarrerei buruzko informazio horrek ez duela biltzen ezohiko diru-sarrerei dagokien zati hainbanatua, ezta aparteko orduen eta jardueren ordainketa ere.

¹⁶ Erantzun guztiak ez ditugunez, ezinbestekoa da gutxi gorabeherako kalkuluak egitea. Egozpen-prozesu baten bitartez egiten dira kalkuluak; datuak falta dituzten egoerak doitzea xede duen egozpen-prozesu baten bitartez, hain zuzen. Jarraian aurkeztuko dugun informazioa, beraz, honako hauetan oinarritzen da: diru-sarrerei buruzko informazioa eman duten pertsona guztietan, eta eskatutako datuak eman ez dituztenen gaineko kalkuletan. Kontuan har bedi kalkuluaren arabera diru-sarrera positiboak dituzten landunen % 100ean oinarrituta dagoela azterlana. Erantzunik eman ez duen biztanleriaren diru-sarrera garbiak kalkulatzeko aldera, erantzun dutenen diru-sarrera garbien batez bestekoa egotzi dugu kasu bakoitzean, eta horretarako, hainbat estratu hartu ditugu kontuan, honako aldagai hauetatik eratorriak: lanbide-egoera, lanbide-kategoria eta kontratu-mota.

38. Kalkuluen arabera, 16-64 urteko landunen batez besteko diru-sarrerara garbiak, aparteko ordainsariei dagokien zatia hainbanatu gabe, 1.384,86 € izan dira 2011ko laugarren hiruhilekoan; 2009an baino % 2,6 gutxiago, hain zuzen. 2005az geroztik, adierazle horrek termino arruntetan (KPlari egokitu gabeko terminoetan) gora egin zuen etengabe (1.237,55 € 2005ean, 1.300,05 € 2007an, eta 1.422,39 € 2009an). Gero, ordea, beherako joera hartu zuen; zehazki, 2010ean izan zuen lehenengo beherakada (1.402,91 €).

Okupazioak behera egin du, eta bilakaera horrek % 5eko galera ekarri du 2009-2011 aldian EAEko landunen diru-sarreraren maila orokorrean. Landunen kolektibo nagusien barruan, jaitsiera handiena enpresa pribatuetako soldatapekoei dagokie (% -6,1), eta gero, sektore publikoko soldatapekoei (% -4,9) eta enplegatzaileei (% -4,3). 2010etik 2011ra bitartean, enplegatzaileen diru-sarrerak gora egin zuten. Enpresa pribatuetako soldatapekoen diru-sarrerak beherako joera hartu zuten 2009tik 2010era bitartean. Urte horietan, enpresa publikoetako soldatek gora egin zuten; 2010etik 2011ra bitartean, aldiz, sektore publikoko soldatapekoek pilatutako diru-sarrerara guztiek behera egin zuten lehenengo aldiz.

Nahiz eta 2009tik 2010era bitartean diru-sarreraren mailak gora egin, diru-sarrerei dagokienez, autonomoen kolektiboa izan da krisialdiak gogorren jo duen kolektiboa. 2007tik 2011ra bitartean, autonomoen diru-sarrerak % 14,6 egin dute behera; sektore publikoko soldatapekoen eta enplegatzaileen diru-sarrerak, aldiz, % 13,7 eta % 16,4 egin dute gora, hurrenez hurren. 2009tik 2011ra bitartean izandako beherakadaren ostean, sektore pribatuko soldatapekoen soldata, termino arruntetan, 2007ko mailara (% 0,0) itzuli da 2011n.

Kooperatibistek bilakaera hobea izan dute: 2009tik 2011ra bitartean, diru-sarreraren maila % 9 igo da, eta 2007tik 2009ra bitartean izandako joera positiboa sendotu egin da. 2007tik 2011ra bitartean, kooperatibisten diru-sarrerak % 30 handitu dira.

Aurreko hilean diru-sarrerara garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, lanbide-egoeraren arabera. 2005-2011 aldia

Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan, eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a (oinarria 100)

Lanbide-egoera	2005		2007		2009		2010		2011	
	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE
Enplegatzailea	1.603,08	129,5	1.694,32	130,3	1.856,96	130,6	1.814,93	129,4	1.654,59	119,5
Autonomia	1.289,45	104,2	1.383,89	106,4	1.337,99	94,1	1.350,56	96,3	1.322,21	95,5
Familia-laguntza	298,60	24,1	648,41	49,9	716,51	50,4	630,08	44,9	687,31	49,6
Kooperatibista	1.335,48	107,9	1.430,59	110,0	1.528,46	107,5	1.539,53	109,7	1.549,89	111,9
Administrazio										
Publikoko soldatapekoa	1.548,84	125,2	1.641,98	126,3	1.872,20	131,6	1.761,93	125,6	1.737,15	125,4
Enpresa publikoko soldatapekoa	1.392,36	112,5	1.520,20	116,9	1.726,83	121,4	1.755,94	125,2	1.684,73	121,7
Enpresa pribatuko soldatapekoa	1.156,08	93,4	1.208,34	92,9	1.328,61	93,4	1.304,15	93,0	1.298,37	93,8
Beste egoera bat	735,08	59,4	634,15	48,8	787,76	55,4	1.420,55	101,3	428,28	30,9
Guztira	1.237,55	100	1.300,05	100	1.422,39	100	1.402,91	100	1.384,86	100

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, lanbide-egoeraren arabera.

2005-2011 aldia

Diru-sarreraren batura €-tan

Lanbide-egoera	2005	2007	2009	2010	2011	Bilakaera 2009/2011	Bilakaera 2007/2011
Enplegatzailea	48.275.109	47.947.345	58.356.939	53.322.737	55.828.389	-4,3	16,4
Autonomia	147.429.405	149.143.135	125.034.704	130.159.378	127.318.623	1,8	-14,6
Familia-laguntza	481.650	1.387.218	1.716.126	1.785.570	1.846.634	7,6	33,1
Kooperatibista	33.374.250	29.166.268	34.874.684	37.377.881	38.017.213	9,0	30,3
Sektore publikoko soldatapeko langilea	196.662.952	221.682.386	264.967.654	267.588.723	252.102.100	-4,9	13,7
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	161.414.063	162.434.760	185.332.220	171.289.015	178.615.055	-3,6	10,0
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	35.248.889	59.247.626	79.635.434	96.299.708	73.487.045	-7,7	24,0
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	739.625.959	804.868.204	856.728.134	824.769.150	804.482.528	-6,1	0,0
Beste egoera bat	3.085.060	2.650.118	5.697.497	504.384	425.735	-92,5	-83,9
Guztira	1.168.934.384	1.256.844.675	1.347.375.739	1.315.507.824	1.280.021.222	-5,0	1,8

2009-2011 aldian izandako diru-sarreraren jaitsierak gehiago eragin die emakume landunei, batez besteko diru-sarreraren maila % 4 jaitsi baita. Gizonei dagokienez, ordea, galera % 0,8 izan da. Hortaz, ikusten denez, emakume landunen batez besteko diru-sarreraren proportzioa % 82,4tik % 80,4ra jaitsi da, okupazioa lortzeko aukera duten gizonei dagokien proportzioarekin alderatuta. Nolanahi ere, proportzio horrek 2005-2007 aldikoa (% 78,1etik % 78,4ra bitarte) gainditzen du.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, sexuaren arabera.
2005-2011 aldia

Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan

Sexua	2005	2007	2009	2010	2011	Bilakaera 2009/2011
Gizonak	1.358,99	1.428,27	1.543,38	1.531,51	1.519,57	-1,5
Emakumeak	1.061,34	1.120,00	1.272,23	1.244,97	1.221,60	-4,0
Guztira	1.237,55	1.300,05	1.422,39	1.402,91	1.384,86	-2,6
Emakumeen/gizonen diru-sarreraren %-a	78,1	78,4	82,4	81,3	80,4	

Adinaren arabera, 2009ren aldean, 35-39 urteko landunen batez besteko diru-sarrerak % 1,6 jaitsi dira 2011n, eta 40-59 urteko landunen batez besteko diru-sarrerak, % 3 (50-59 urtekoen batez besteko diru-sarrerak, aldiz, % 4,6 igo dira). 30-34 urtekoen batez besteko diru-sarrerak % 5,1 jaitsi dira, eta 30 urtetik beherakoena % 10 baino zertxobait handiagoak izan dira (20-24 urtekoena, ordea, % 5,6 jaitsi dira, 30-34 urtekoena bezalatsu).

Horren kontrara, 60 urtetik gorakoena batez besteko diru-sarreraren gorako joera egonkortu egin da: diru-sarreraren batez bestekoa % 5,6 handitu da 2009tik 2011ra bitartean.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, adinaren arabera.
2005-2011 aldia

Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan

Adina	2005	2007	2009	2010	2011	Bilakaera 2009/2011
16-19	805,12	799,61	825,67	671,73	694,63	-15,9
20-24	926,92	950,47	971,53	979,55	917,02	-5,6
25-29	1.085,81	1.121,31	1.275,03	1.169,72	1.133,24	-11,1
30-34	1.178,08	1.202,24	1.353,70	1.338,00	1.285,00	-5,1
35-39	1.258,93	1.303,19	1.417,76	1.406,80	1.394,51	-1,6
40-44	1.319,82	1.369,86	1.472,73	1.456,47	1.425,91	-3,2
45-49	1.333,30	1.411,99	1.479,51	1.456,84	1.432,98	-3,1
50-54	1.361,60	1.456,49	1.548,72	1.502,79	1.477,91	-4,6
55-59	1.381,21	1.482,56	1.629,40	1.624,82	1.581,49	-2,9
60-64	1.314,08	1.403,73	1.450,35	1.499,88	1.530,88	5,6
Guztira	1.237,55	1.300,05	1.422,39	1.402,91	1.384,86	-2,6

Eskualdeei dagokienez, 2009-2011 aldian, landunen batez besteko diru-sarrerek beherako joera izan dute EAEko eskualde guztietan. Edonola ere, ñabardura batzuk egin behar ditugu.

Alde batetik, Aiaraldean eta Eskuinaldean, diru-sarreraren batez bestekoak ez dira ia aldatu. Eskuinaldean, batez besteko diru-sarrerek gora egin dute berriro 2010etik 2011ra artean. Bestalde, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, diru-sarreraren batez bestekoak % 1 edo gutxiago jaitsi dira. Debabarrenean, batez besteko diru-sarrerek gora egin zuten berriro 2010etik 2011ra bitartean.

Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoienez, aldiz, batez besteko diru-sarrerak % 1,8 eta % 3,3 bitarte jaitsi dira. Batez besteko diru-sarrerak Durangaldean eta Bizkaia-Kostan jaitsi dira gehien: % 4,7 eta % 7, hurrenez hurren.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, eskualdearen arabera.

2005-2011 aldia

Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan

Eskualdea	2005	2007	2009	2010	2011	Bilakaera 2009/2011
Gasteiz	1.284,50	1.333,43	1.401,48	1.389,20	1.360,62	-2,9
Aiaraldea	1.300,32	1.294,42	1.337,18	1.388,50	1.335,91	-0,1
Eskuinaldea	1.274,82	1.339,75	1.502,59	1.478,41	1.504,79	0,1
Bilbo	1.263,26	1.357,68	1.528,68	1.519,58	1.501,10	-1,8
Ezkerraldea	1.191,18	1.228,43	1.324,54	1.321,23	1.295,67	-2,2
Bizkaia-Kosta	1.214,33	1.325,11	1.429,42	1.361,71	1.329,21	-7,0
Durangaldea	1.223,06	1.273,72	1.371,00	1.363,52	1.306,37	-4,7
Donostialdea	1.231,55	1.294,25	1.439,81	1.406,43	1.392,43	-3,3
Tolosa-Goierri	1.201,87	1.301,94	1.366,35	1.358,08	1.357,80	-0,6
Debagoiena	1.246,81	1.275,07	1.500,27	1.450,84	1.451,68	-3,2
Debabarrena	1.204,47	1.244,21	1.348,41	1.307,77	1.334,89	-1,0
Guztira	1.237,55	1.300,05	1.422,39	1.402,91	1.384,86	-2,6

4. Biztanleria ez-aktiboari buruzko alderdi batzuk

LMEn helburua da biztanleria aktiboa aztertzea. Dena den, biztanleria ez-aktiboaren alderdi batzuk berariaz aztertu behar dira; zehazki, talde horrek jarduerarekin duen hurbiltze-mailaren jarraipena egitea eta berez langabeziatik hurbil dauden kolektiboen egoera aztertzea bide ematen duten alderdiak aztertu behar dira. Testuinguru horretan, bereziki interesgarria da bi talde hauek aztertzea: etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa eta lanerako prest dagoela dioten biztanleria ez-aktiboa.

4.1. Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa

39. Azken urteotako bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu etsia hartutako biztanleria ez-aktiboaren kopurua jaitsi egin dela. Hori datu positibo bat da. 2009an, 14.649 pertsona zeuden egoera horretan; 2010ean, 11.046; eta 2011n, 5.158. Aipatzekoa da 2011ko kopurua txikiagoa dela krisiaren aurretik inoiz izan den kopururik handiena baino (2005ean, 7.001 pertsona zeuden egoera horretan). Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboaren % 62,4 Ezkerraldean eta Donostialdean dago. Ehuneko hori % 82,9 bilakatzen da, baldin eta Gasteiz eta Bilbo kontuan hartzen baditugu. Argi dago, beraz, fenomeno hori batez ere hirietan gertatzen dela.

Etsia hartutako 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera.

2001-2011 aldia
(Datu absolutuak)

Eskualdea	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	409	481	639	211	928	428	591
Aiaraldea	143	165	191	47	106	140	114
Eskuinaldea	213	345	817	706	695	870	0
Bilbo	1.322	1.295	1.080	965	5.124	3.833	462
Ezkerraldea	594	1.094	1.304	903	4.211	2.585	1.347
Bizkaia-Kosta	152	89	222	290	92	177	249
Durangaldea	463	39	465	122	581	897	276
Donostialdea	552	607	1.909	1.017	2.129	1.508	1.874
Tolosa-Goierri	476	35	328	215	117	361	74
Debagoiena	158	0	0	119	493	247	171
Debabarrena	0	118	47	144	173	0	0
Guztira	4.482	4.267	7.001	4.738	14.649	11.046	5.158

4.2. Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa

Biztanleria ez-aktiboaren barruan, talde bereziki garrantzitsu bat osatzen dute enplegua bilatzen ari direla eta lanerako prest daudela diotenek (horietako batzuk duela gutxi jarri dira harremanetan enplegu-zerbitzuekin, langabezia-txartela berritzeko). Pertsona horiek eta gaur egun langabezian daudenak ezin ditugu bereizi; betiere, ez badute okupazio berri bat bilatzeko kudeaketa edo ekintza espezifikorik egin azken hilean (langabezia-txartela berritzeko ekintzak salbu). Horrelako ekintzarik egin ez dutenak ez-aktiboak dira eta ez langabeak; betiere, LNE/Eurostat/BJA metodoa aplikatzen badugu.

2011n, talde horretan, 30.001 pertsona daude; hots, 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren % 7. Zifra horrek erakusten duenez, 2009tik 2011ra bitartean, lanerako prest daudenen kopuruak nabarmen egin du gora (% 29,1eko gorakada): 2009an, 23.243 ziren. Lanerako prest dauden biztanle ez-aktiboak sartuz gero, langabeziaren zifra potentzialak % 25,7 igoko lirateke (146.901 pertsona). Hala gertatuz gero, langabezia-tasa potentziala % 13,7 izango litzateke, 2010ean eta 2009an baino handiagoa, beraz (urte horietako tasa % 12,7 eta % 10,7 izan zen, hurrenez hurren).

Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren inguruan ditugun datuek erakusten dutenez, ordea, 2010etik eta 2011ra bitarteko bilakaera positiboa izan da: pertsona gutxiago daude egoera horretan (2010ean, 32.285 pertsona, eta 2011n, 30.001). 2010ean, biztanle ez-aktibo guztien % 7,9 zegoen egoera horretan, eta 2011n, berriz, % 7,5. Hortaz, 2007ko zifraz (% 3,6) geroztiko gorako joera bertan behera gelditu da. Ildo horretatik, 2009tik 2010era bitartean, langabezia-tasa potentziala bi puntu igo zen (% 10,7tik % 12,7ra). 2010etik 2011ra bitartean, ordea, puntu bat soilik igo da (% 12,7tik % 13,7ra).

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera.
2001-2011 aldia

(Datu absolutuak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa, %-tan)

Urtea	Lanerako prest daudenak	Biztanleria ez-aktiboaren %-a
2001	23.893	4,9
2003	13.737	3,2
2005	31.433	7,2
2007	15.380	3,6
2009	23.243	5,6
2010	32.285	7,9
2011	30.001	7,5

2011n ere, gizonen artean lanerako prest dauden biztanle ez-aktibo gehiago daude, emakumeen artean baino (gizon ez-aktiboaren % 9,3, eta emakume ez-aktiboaren % 6,3). Edonola ere, biztanle ez-aktiboaren artean gizon baino emakume gehiago daude, eta hori dela eta, lanerako prest dauden biztanle ez-aktiboaren % 51,5 emakumea da.

Adinari dagokionez, 35-39 urtekoei eragiten die gehien: adin-tarte horretan, ez-aktiboaren % 23,8k adierazi du lanerako prest dagoela. Adierazleak, oro har, behera egiten du beste adin-tarteetan, gazteagoak nahiz zaharragoak izan. 25-34 urtekoen eta 40-49 urtekoen kasuan, argi eta garbi dago adierazlea EAEko batez bestekoa (% 7,5) baino handiagoa dela (zifrak % 15,3tik % 18,2ra bitartean daude). 50-54 urtekoak (% 8,5) gertuago daude batez besteko horretatik. 20-24 urtekoen eta 55-59 urtekoen kasuan, % 5,2 eta % 5,5 dago egoera horretan, hurrenez hurren. 20 urtetik beherakoak eta 60 urtetik gorakoak kasuan, egoera horretan daudenen kopurua ez da % 1 baino askoz handiagoa.

2010ean, lanerako prest zeuden biztanle ez-aktiboen % 39,3 25-39 urtekoa zen; % 36,6, 40-54 urtekoa; eta % 24,1, 25 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gorakoa.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera. 2011

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

Sexua eta adina	Lanerako prest daudenak		Biztanleria ez-aktiboaren %-a	
	Abs.	% ber.		
Sexua	Gizonak	14.560	48,5	9,3
	Emakumeak	15.441	51,5	6,3
Adina	16-19	856	2,9	1,3
	20-24	2.787	9,3	5,2
	25-29	4.972	16,6	18,2
	30-34	2.544	8,5	16,6
	35-39	4.285	14,3	23,8
	40-44	3.857	12,9	15,3
	45-49	3.962	13,2	15,7
	50-54	3.165	10,5	8,5
	55-59	2.562	8,5	5,5
	60-64	1.011	3,4	1,2
	Guztira	30.001	100	7,5

Eskualdeei dagokienez, deskribatutako egoerak eragin nabarmena izan du 2011n Gasteizen eta Ezkerraldean; izan ere, eskualde horietan, biztanleria ez-aktiboaren % 13 eta % 12,2 dago lanerako prest (2009an baino % 9,6 gehiago Gasteizen, eta % 2,9 gehiago Ezkerraldean). Lanerako prest dauden biztanle ez-aktiboen % 39,1 bi eskualde horietakoa da. Aipatzekoa da eskualde horietan Bilbon (% 28,1) eta Donostialdean (% 17,2) baino biztanle ez-aktibo gehiago daudela lanerako prest. Hiru eskualde horietan, biztanleria ez-aktiboaren proportzioa % 5,5etik % 6ra bitartekoa da.

Hirigune handienetatik kanpo, eskualde gehien maila Debarrena eta Tolosa-Goierrri eskualdeen antzekoa da (% 4,7 eta % 6, hurrenez hurren). Aiaraldean, maila handixeagoa da: % 7,6. Aipatzekoa da adierazlea batez bestekotik urruntzen dela Debagoienean: biztanleria ez-aktiboaren % 2,6 soilik dago lanerako prest.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, eskualdearen arabera. 2011

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

Eskualdea	Lanerako prest daudenak		Biztanleria ez-aktiboaren %-a
	Abs.	% ber.	
Gasteiz	7.448	24,8	13,0
Aiaraldea	622	2,1	7,6
Eskuinaldea	4.273	14,2	12,2
Bilbo	3.674	12,2	5,5
Ezkerraldea	4.746	15,8	6,7
Bizkaia-Kosta	1.122	3,7	5,1
Durungaldea	1.043	3,5	5,0
Donostialdea	5.147	17,2	6,4
Tolosa-Goierrri	1.150	3,8	6,0
Debagoiena	281	,9	2,6
Debarrena	495	1,7	4,7
Guztira	30.001	100	7,5

2007tik 2011ra bitartean, lanerako prest dauden pertsonen, oro har, biztanleria aktiboan zer proportzio erlatibo duten aztertzen badugu, ikusiko dugu gorakada handiagoa izan dela gizonen artean, emakumeen artean baino (4,8 puntu gizonen, eta 3,1, emakumeen). Gorakada diferentzial hori, batez ere, 2007-2009 aldian gertatu zen.

Adinari dagokionez, 25 urtetik beherakoen eta 60 urtetik gorakoen kasuan, adierazlea egonkortu egin da. 25-59 urtekoen kasuan, aldiz, adierazleak 4 puntu baino gehiago egin du gora. Gorakada handiena (8 puntukoa edo gehiagokoa) 25-49 urteko pertsona ez-aktiboek dagokie (40-44 urteko pertsonak salbuetsita). 25-34 urteko pertsonen kasuan, gorakada hori batez ere 2007-2009 aldiarekin lotuta dago. 35 urtetik gorako pertsonen kasuan, aldiz, gorakada nabarmenagoa izan da 2009-2011 aldian.

Amaitzeko, aipatzekoa da 2009tik 2011ra bitartean, 4,2 puntutik 4,4 puntura bitarteko gorakada gertatu dela Donostialdean eta Tolosa-Goierri, eta 8 puntutik 9,5 puntura bitartekoa, Gasteizen eta Ezkerraldean. Ezkerraldean, batik bat 2007tik 2009ra bitartean gertatu zen gorakada; Gasteizen, aldiz, 2009tik 2011ra bitartean.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, sexuaren, adinaren eta eskualdearen arabera.

2001-2011 aldia

(Biztanleria ez-aktiboan duten proportzioa %-tan)

		2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Sexua	Gizonak	5,5	4,8	8,7	4,5	7,4	9,7	9,3
	Emakumeak	4,6	2,4	6,5	3,2	4,5	6,8	6,3
Adina	16-19	,8	,7	2,1	1,0	1,1	,9	1,3
	20-24	4,6	3,8	8,2	5,2	6,2	6,5	5,2
	25-29	20,0	10,3	23,5	7,0	15,5	21,1	18,2
	30-34	12,5	10,6	20,4	8,7	17,4	25,6	16,6
	35-39	14,4	7,9	15,1	8,5	14,7	22,1	23,8
	40-44	7,6	8,3	12,4	10,9	9,6	12,5	15,3
	45-49	4,4	3,3	9,0	5,9	7,6	15,5	15,7
	50-54	4,2	2,0	6,6	3,3	7,5	9,3	8,5
	55-59	2,0	1,8	4,0	1,5	2,2	4,9	5,5
60-64	,5	,4	1,1	,1	,7	1,1	1,2	
Eskualdea	Gasteiz	2,9	2,3	4,1	4,9	3,3	10,5	13,0
	Aiaraldea	5,8	4,5	7,2	5,0	3,8	7,1	7,6
	Eskuinaldea	5,6	3,0	6,9	2,7	9,3	6,4	12,2
	Bilbo	6,3	3,1	12,1	4,8	4,9	5,9	5,5
	Ezkerraldea	7,0	5,2	7,2	3,9	4,8	7,8	6,7
	Bizkaia-Kosta	4,0	,9	3,5	3,9	5,4	4,7	5,1
	Durangaldea	3,6	4,7	8,0	3,8	7,2	4,1	5,0
	Donostialdea	4,0	3,2	6,7	2,2	5,8	10,1	6,4
	Tolosa-Goierri	1,9	,7	5,7	1,6	7,0	5,8	6,0
	Debagoiena	4,3	,3	5,9	5,9	5,5	7,3	2,6
	Debarrena	2,1	,1	3,2	1,2	8,0	16,9	4,7
	Guztira	4,9	3,2	7,2	3,6	5,6	7,9	7,5

5. Lan-merkatuan lanerako prest dagoen biztanleria

41. Biztanleria landunari eta ez-aktiboari buruzko datuen arabera, EAeko lan-merkatuan, lan-indarraren eskaintza ez da langabeen taldera soilik mugatzen (talde horretako batzuk, gainera, jada ez daude berez lanerako prest; izan ere, beste lan bat aurkitu dute eta lan horretan hastear daude). 2011. urteko laugarren hiruhilekoan, 16-64 urteko 179.528 pertsona daude EAEn beste lan bat lortzeko prest —jarduerarekin zer lotura estatistiko duten kontuan hartu gabe—. Talde horren % 65 langabeek osatzen dute (116.679 pertsona), % 18,3 landunek (32.848 pertsona) eta % 19 ez-aktiboek (30.001 pertsona). Ez-aktiboak nor diren erabakitzeko, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) araudian oinarritutako BJA metodologia aplikatu da.

Kolektibo horren bilakaera aztertzen badugu, argi eta garbi ikusiko dugu krisiak eragin itzela izan duela euskal lan-merkatuan 2007-2011 aldian. 2007an, 16-64 urteko 71.146 pertsona zeuden lanerako prest, eta orduz geroztik, kopuru hori % 152,3 hazi da. 2007-2011 aldian, hazkunde handiena (% 272,4) langabeei dagokie; lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboek eta 15 eguneko epean beste lanpostu batean lanean hasteko prest dauden landunei baino hazkunde handiagoa dagokie (talde horiei % 95,1eko eta % 34,4ko hazkundera dagokie, hurrenez hurren). Azken talde hori handitu egin zen 2007-2009 biurtekoan, eta murriztu, 2009tik 2011ra bitartean. Lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboek kopuruak ere behera egin du 2010etik 2011ra bitartean.

Bestalde, aipatzekoa da 2011n 179.528 pertsona daudela lanerako prest, 2001ean baino % 34,9 gehiago. Beste lan baten bila dabilzan landunen kopurua % 2,2 jaitsi da, eta langabeen eta lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboek kopurua (biak kontuan hartuta) % 47,5 hazi da (146.680 kasu 2010ean, eta 99.459 kasu 2001ean). Halaber, aipatzekoa da 2011n lanerako prest dauden langabeen eta ez-aktiboek kopurua 2001-2011 aldian izan den kopururik handiena dela. Alde horretatik, kontuan hartu behar dugu 2001-2003 aldian 100.000 pertsona inguru zeudela egoera horretan.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, jarduerarekiko erlazioaren arabera. 2001-2011 aldian

(Datua absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko erlazioa	Datua absolutuak							Hazkunderaren %-a 2007/2011	% bertikalak						
	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011		2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Landuna	33.575	28.027	35.242	24.435	36.079	33.780	32.848	34,4	25,2	21,9	30,4	34,3	24,3	19,9	18,3
Langabea	75.565	86.504	49.100	31.330	89.031	103.887	116.679	272,4	56,8	67,4	42,4	44,0	60,0	61,1	65,0
Ez-aktiboa	23.893	13.737	31.433	15.380	23.243	32.285	30.001	95,1	18,0	10,7	27,2	21,6	15,7	19,0	16,7
Guztira	133.033	128.268	115.775	71.146	148.353	169.952	179.528	152,3	100	100	100	100	100	100	100

Oharra: Landunei dagokienez, inkesta egin zen unetik 15 eguneko epean beste enplegu batean hasteko prest zeuden pertsonak hartu ditugu kontuan. Langabeei dagokienez, ez ditugu kontuan hartu lan batean hastear dauden langabeak.

2007-2011 aldian, bilakaera negatiboa izan da: EAEko 16-64 urteko biztanleen artean, lanerako prest dauden pertsonen proportzioa, *prestasun-tasa* deritzona, asko hazi da. 2007an, tasa hori inoizko baxuena izan zen (% 5). 2007-2011 aldiko krisiaren ondorioz, 2011. urtearen amaieran, prestasun-tasa % 12,4 izan da, 2007ko gutxieneko tasa baino 7 puntu handiagoa. Azken hamar urteotan izan den tasarik handiena da, 2009ko, 2010eko eta 2001-2003 aldiko tasak baino handiagoa (% 10,2eko, % 11,7ko eta % 9,1etik % 9,9ra bitarteko tasak, hurrenez hurren). Edonola ere, zorionez, urtez urteko hazkuntza nabarmen moteldu da 2011n (2010etik 2011ra bitartean, 0,7 puntu; 2009tik 2010era bitartean, 1,5 puntu; eta 2007-2009 biurtekoan, batez bestean, 2,6 puntu).

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera.
2001-2010 aldia
(Prestasun-tasa, %-tan)

Urtea	Prestasun-tasa
2001	9,3
2002	9,9
2003	9,1
2005	8,1
2006	6,0
2007	5,0
2009	10,2
2010	11,7
2011	12,4

42. Lanerako prest dagoen biztanleriaren zatirik handiena, guztizkoaren % 53,3, gizonek osatu dute 2011n. Halaxe gertatu zen 2009an eta 2010ean; ez, ordea, hori baino lehenago. Prestasunaren intzidentzia 1,4 puntu baino handiagoa izan da gizonen artean 2011n (gizonen kasuan, % 13, emakumeen kasuan, % 11,7). 2007-2011 aldian, 8,9 puntu igo da gizonen prestasun-tasa, eta 5,9 puntu, emakumeena. Nahiz eta 2009tik 2010era bitartean emakumeen prestasun-tasa gizonena baino gehiago hazi, 2009-2011 biurtekoan gizonen prestasun-tasak emakumeenak baino gehiago hazteko joera hartu du (gizonen prestasun-tasa 2,4 puntu hazi da; emakumeena, berriz, 2,1 puntu). 2011n, gizonen prestasun-tasa 2001. urteaz geroztik izan den handiena da.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera. 2011
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan: 2001-2011 aldia)

Sexua	Lanerako prest dago		Prestasun-tasa						
	Abs.	% ber.	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gizonak	95.709	53,3	7,3	8,0	6,9	4,2	10,7	12,1	13,1
Emakumeak	83.820	46,7	11,4	10,2	9,2	5,8	9,7	11,3	11,7
Guztira	179.528	100	9,3	9,1	8,1	5,0	10,2	11,7	12,4

Lanerako prest dagoen biztanleriaren % 58,4 20-39 urtekoa da; % 27,3 20-29 urtekoa da, eta % 31,2 30-39 urtekoa. % 22,2 40-49 urtekoa da; % 18,1, 50 urtetik gorakoa; eta % 1,3 eskas, 20 urtetik beherakoa.

20 urtetik beherakoak salbuetsita (adin-tarte horretan, % 3,3 baino ez dago prest enplegu bat lortzeko), gazteek dute prestasun-tasa altuena. Tasa hori txikitu egiten da adinean gora egin ahala. 20-29 urteko biztanleek dute prestasun-tasa altuena. Adin horietako pertsonen % 21 eta % 22 inguruk adierazi du prest dagoela beste enplegu batean lanean hasteko (20-24 urtekoen % 21ek, eta 25-29 urtekoen % 21,6k). 30-34 urteko biztanleen prestasun-tasa % 18,5 da, eta 35-44 urteko biztanleena, % 12tik % 14ra bitarte (35-39 urtekoen kasuan, % 14, eta 40-44 urtekoen kasuan, % 12,3). 45-54 urteko biztanleen prestasun-tasa % 10 baino altuagoa da (45-49 urtekoen kasuan, % 10,8, eta 50-54 urtekoen kasuan, % 10,3). 55-59 urteko biztanleen prestasun-tasa % 7,1 da, eta 60-64 urteko biztanleena, % 3; tasarik baxuena, hain zuzen.

Azken aldian prestasun-tasek izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu egoerak okerrera egin duela adin-tarte guztietan. Nolanahi ere, 2007-2011 aldian, 20-34 urteko biztanleen prestasun-tasek beste adin-tarte batzuetako biztanleen prestasun-tasek baino gehiago egin dute gora: 11,2 puntutik 12,6 puntura bitarteko igoera izan dute. Igoera hori bat dator 2007-2009 aldiko igoerarekin. Halaber, 35-54 urteko biztanleen egoerak ere okerrera egin du: 2007-2011 aldian, prestasun-tasa 7,1 puntutik 8,1 puntura igo da. 55-59 urteko biztanleen prestasun-tasa 5,4 puntu igo da; 60 urtetik gorakoena, 2,4 puntu; eta 20 urtetik beherakoena, 0,8 puntu. 40 urtetik beherakoaren artean ez bezala, 40 urtetik gorakoaren artean zinez garrantzitsua da prestasun-tasek 2009-2011 aldian izan duten bilakaera; izan ere, % 40 inguru egin dute gora. 40-44 urtekoen eta 55 urtetik gorakoaren prestasun-tasek izan duten gorakadaren erdia baino gehiago 2009-2011 aldian gertatu da.

20 urtetik beherakoak salbuetsita (2001ean baino prestasun-tasa baxuagoa izan dute 2011n), beste adin-tarteetako biztanleen prestasun-tasak handiagoak izan dira 2011n, 2001ean baino (gutxienez, 2 puntu gehiago). Alde handienak (3,8 puntutik 5,8 puntura bitarteko igoera) 20-34 urtekoei eta 40-59 urtekoei dagozkie.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera. 2011

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan: 2001-2011 aldia)

Adina	Lanerako prest dago		Prestasun-tasa						
	Abs.	% ber.	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
16-19	2.366	1,3	4,0	4,6	4,4	2,5	3,5	4,3	3,3
20-24	20.270	11,3	16,0	18,2	13,7	9,8	20,9	19,5	21,0
25-29	28.761	16,0	17,8	16,9	15,3	9,0	18,1	22,0	21,6
30-34	30.479	17,0	13,2	12,9	11,1	7,1	16,2	15,5	18,5
35-39	25.295	14,1	12,0	9,6	9,6	5,9	12,1	13,6	14,0
40-44	22.438	12,5	7,9	8,4	7,3	5,1	8,2	12,2	12,3
45-49	17.462	9,7	5,7	5,7	6,4	3,5	8,0	10,2	10,8
50-54	18.304	10,2	4,4	4,0	4,1	3,0	6,9	8,3	10,3
55-59	10.216	5,7	3,2	2,9	3,5	1,7	4,4	6,5	7,1
60-64	3.937	2,2	,7	1,3	1,2	,6	1,6	2,5	3,0
Guztira	179.528	100	9,3	9,1	8,1	5,0	10,2	11,7	12,4

Beste enplegu batean lanean hasteko prest daudenen taldeari dagokionez, azpimarratzekoa da gehienek ikasketa-maila handia dutela. Alde horretatik, talde horren % 54,2k lanbide-heziketako edo unibertsitateko ikasketak ditu. % 17k bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak ditu, eta gainerako % 28,9k ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu.

2011n, prestasun-tasak homogeneo samarrak izan dira, ikasketa-maila edozein izanda ere. Salbuespen bakarra unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak izan dira. Bigarren mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten biztanleek izan dute tasarik altuena (% 14,3). Haien tasa altuagoa da gehienez ere lehen mailako ikasketak dituztenena eta bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenena baino (% 13,5 eta % 12,5, hurrenez hurren). Unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleek izan dute prestasun-tasa baxuena (% 9,6).

Nabarmena da unibertsitateko titulazioren bat duten biztanleek hobeto erantzuten diotela ekonomia-krisiari. Alde batetik, prestasun-tasa askoz gutxiago hazi da 2007-2011 aldian (4,8 puntu; gainerako biztanleriaren kasuan, aldiz, 7,5 puntutik 7,9 puntura bitarte hazi da). Bestalde, 2007-2009 aldian, ordura arteko beherako joera eten egin zen; tasa 0,8 hamarren besterik ez da igo 2009-2011 aldian. Bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituzten pertsonen kasuan, 1,1 puntu igo da; bigarren mailako lanbide-ikasketak dituztenen kasuan, 2,7; eta gehienez ere lehen mailako ikasketak egin dituztenen kasuan, berriz, 3,7.

Joera horiek erabat hautsi dute 2001-2003 aldiko bilakaera; izan ere, ordura arte, ikasketa-maila hobetu ahala, prestasun-tasek gora egiten zuten. Izan ere, unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen prestasun-tasa 2001ean baino 2,8 puntu baxuagoa da 2011n, baina lanbide-ikasketak dituzten pertsonen prestasun-tasa 3,4 puntu handiagoa da, eta heziketa-maila txikiagoa dutenena, 5 puntu baino handiagoa (gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, 5,9 puntu, eta bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen kasuan, 5,2 puntu). Beraz, argi dago lanbide- edo unibertsitate-mailako ikasketak izatea lagungarria dela; izan ere, prestakuntza

mota hori duten pertsonak gaitasun handiagoa dute lan-merkatuaren krisialdiaren ondorioz sortutako egoerara egokitzeko.

Horiek horrela direla ere, bigarren mailako lanbide-ikasketak dituzten biztanleen bilakaera negatiboa izan da, eta hori nabarmentzekoa da. Biztanle horien bilakaera ere nabarmenagoa da, baldin eta unibertsitate-ikasketak dituztenen bilakaerarekin alderatzen badugu (bigarren mailako lanbide-ikasketak dituztenen prestasun-tasak 4,8 puntu egin du gora; unibertsitate-ikasketak dituztenenak, aldiz, 9,1 puntu). Edonola ere, talde horren prestasun-tasa beste taldeena baino gehiago hazi da 2007tik 2011ra bitartean, eta hori deigarria da (gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen prestasun-tasak 8,9 puntu egin du gora, eta bigarren mailako ikasketak ez-profesionalak dituztenenak, 7 puntu).

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, ikasketak-mailaren arabera. 2011

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan: 2001-2011 aldian)

Ikasketak-maila	Lanerako prest dago		Prestasun-tasa						
	Abs.	% ber.	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Lehen mailakoak	51.809	28,9	7,6	5,8	7,0	4,6	9,8	12,1	13,5
Bigarren mailakoak	30.497	17,0	7,3	8,7	7,5	5,5	11,4	13,2	12,5
Lanbide-ikasketak	57.038	31,8	11,0	10,7	9,2	5,2	11,7	13,1	14,3
Unibertsitate-ikasketak	40.184	22,4	12,4	12,8	9,0	4,8	8,8	9,1	9,6
Guztira	179.528	100	9,3	9,1	8,1	5,0	10,2	11,7	12,4

43. Eskualdeei dagokienez, datuen arabera, EAEn lanerako prest dagoen biztanleriaren % 51,7 Bilboko eremuko hiru eskualdeetan bizi da, bereziki Bilbon eta Ezkerraldean (egoera horretan dauden pertsonen % 45,4 eskualde horietan bizi da). Lanerako prest dagoen biztanleriaren % 17,3 Donostialdean bizi da; % 12,6, Gasteizen; % 11,1 Bizkaiko gainerako eskualdeetan; % 5,9, Gipuzkoan; eta % 1,4, Aiaraldean.

2007-2010 aldiko krisialdiaren ondorioz, prestasun-tasak nabarmen igo dira eskualde guztietan, baina, hala ere, alde handiak daude haien artean. Egoera onenean dagoen eskualdearen eta egoera txarrean dagoenaren artean, 9,3 puntuko diferentziala zegoen 2001ean; 2011n, aldiz, 10,1 puntukoa. Krisiak eragina izan du eskualdeetan. Diferentzialaren bilakaerari erreparatu besterik ez dugu egin behar horretaz konturatzeko: 2007an, 3,5 puntukoa zen; 2009an, 5,8 puntukoa; 2010ean, 7,3 puntukoa; eta 2011n, 10,1 puntukoa.

Krisiak Bilbo jo du gogorren: prestasun-tasa 10,3 puntu hazi da 2007tik 2011ra bitartean eta beste lan batean hasteko prest dauden pertsonen kopurua % 157 hazi da. 2010. urteaz geroztik, Bilbo da prestasun-tasa altuena duen EAEko eskualdea. 2007an, prestasun-tasa % 6,7 izan zen; 2009an, 10,9; eta 2011n, % 17. Ezkerraldean ere prestasun-tasa % 15 baino altuagoa da (% 15,9). 2007tik

2011ra bitartean, Ezkerraldean beste eskualdeetan baino gehiago hazi da prestasun-tasa (+ 10,7 puntu), eta egoera horretan dauden pertsonen kopurua % 208 hazi da. Prestasun-tasak 2007tik 2009ra bitartean izan zuen inoizko hazkunderik handiena.

Prestasun-tasa % 10 baino altuagoa da Ezkerraldean eta Donostialdean (% 10,1, bi eskualde horietan), eta eskualde horietan baino are altuxeagoa da Gasteizen, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean (% 11,7tik % 12,8ra bitarteko prestasun-tasa). 2007-2011 aldian, prestasun-tasa 5,4 puntutik 5,5 puntura bitartean hazi da Donostialdean eta Ezkerraldean, eta 7 puntutik 8,2 puntura bitartean, beste hiru eskualde horietan. Egoera horretan dauden pertsonen kopuruari dagokionez, 2007-2011 aldian, Durangaldean izan da hazkunderik handiena (% 242). Bizkaia-Kostan eta Gasteizen, egoera horretan dauden pertsonen kopurua % 144tik % 151ra bitartean hazi da; eta Donostialdean eta Eskuinaldean, % 114tik % 124ra bitartean.

2007tik 2011ra bitartean, prestasun-tasa batez ere 2007-2009 biurtekoan hazi zen eskualde horietan (Bizkaia-Kostan izan ezik). Tasa horrek behera egin du 2010etik 2011ra bitartean Gasteizen (% 14,2tik % 12ra), Eskuinaldean (% 11tik % 10,1era) eta Donostialdean (% 11,2tik % 10,1era). Beherakada horrek orekatu egiten du, hein batean behintzat, prestasun-tasak 2009tik 2010era bitartean eskualde horietan izan zuen gorakada handia.

Prestasun-tasa eskualde horietan baino baxuagoa da beste eskualdeetan: % 8,7 Aiaraldean, eta % 6,9tik % 7,8ra bitartean Tolosa-Goierri, Debagoienean eta Debabarrenean. Eskualde horietan, prestasun-tasa 3,2 puntutik 4,3 puntura hazi da 2007-2011 aldian, EAEko batez bestekoa (7,5 puntu) baino nabarmen gutxiago. Prestasun-tasek bilakaera positiboa izan dute 2010etaik 2011ra bitartean: eskualde guztietan behera egin dute, Debagoienean izan ezik (tasa ez da aldatu).

Prestasun-tasa da eskualdeko lan-merkatuaren egoera neurtzeko adierazle onenetako bat. Adierazle horren aldaketak garrantzitsuak dira eskualdeak sailkatzeko, egoera onenean eta txarrean dauden eskualdeak erreferentziatzat hartuta. Urtez urte, Tolosa-Goierri, Debagoienak eta Debabarrenak EAEko batez bestekoa baino tasa baxuagoak izan dituzte (2001ean ere tasa baxuagoak zituzten). Aiaraldeak hobera egin du: 2001eko batez bestekotik gertuago dago, eta 2011ko tasa nabarmen dago EAEko batez besteko adierazlearen azpian. Bilakaera positibo hori lotuta dago prestasun-tasaren bilakaerarekin; izan ere, 2011n 2001ean baino prestasun-tasa baxuagoa duen eskualde bakarra da (% 8,7 2011n, eta % 9,9 2001ean).

Nahiz eta eskualde horiek baino tasa altuagoak izan, Donostialdeak eta Durangaldeak EAEko batez bestekoa baino tasa baxuagoak dituzte (2001ean ere tasa baxuagoak zituzten). Eskuinaldeak, bestalde, Aiaraldea eskualdearen antzeko bilakaera izan du: 2011n 2001ean baino prestasun-tasa baxuagoa izan du (% 10,1 2011n, eta % 10,3 2001ean). 2001ean, EAEko batez bestekoa baino tasa altuagoa izan zuen; 2011n, ordea, Donostialdearen tasa bera izan du, Durangaldearen tasa baino baxuagoa, betiere. Bilbok eta Ezkerraldeak, Eskuinaldeak bezala, batez bestekoa baino tasa

altuagoak izan zituzten 2001ean, baina Eskuinaldea ez bezala, 2011n, are gehiago urrundu dira EAEko batez besteko tasatik. 2011n, bi eskualde horiek izan dute EAEko prestasun-tasa handiena.

Amaitzeko, Gasteiz eta Bizkaia-Kosta eskualdeek ere okerrera egin dute: 2001ean, EAEko batez bestekoa baino tasa baxuagoak izan zituzten; 2011n, aldiz, EAEko batez bestekoaren inguruan daude.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, eskualdearen arabera.

2001-2011 aldia
(Datu absolutuak)

Eskualdea	Datu absolutuak							Hazkundearen %-a
	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011	2007/2011
Gasteiz	13.615	13.424	9.651	9.025	21.217	26.897	22.691	151,4
Aiaraldea	2.732	2.991	1.679	1.239	2.089	3.181	2.562	106,8
Eskuinaldea	11.395	14.106	10.686	5.034	9.889	12.308	11.261	123,7
Bilbo	30.849	24.376	27.874	15.350	25.408	32.898	39.408	156,7
Ezkerraldea	28.574	29.934	26.178	13.647	33.580	32.753	42.091	208,4
Bizkaia-Kosta	5.653	4.343	4.984	4.318	7.373	7.926	10.530	143,9
Durangaldea	6.410	4.760	5.519	2.750	8.946	6.838	9.409	242,2
Donostialdea	25.651	26.163	21.532	14.485	27.245	34.735	31.012	114,1
Tolosa-Goierrri	4.104	4.652	4.381	2.288	5.619	5.347	5.049	120,7
Debagoiena	2.604	1.519	1.860	1.400	2.818	2.792	2.792	99,5
Debarrena	1.446	2.001	1.433	1.611	4.169	4.274	2.724	69,2
Guztira	133.033	128.268	115.775	71.146	148.353	169.952	179.528	152,3

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera. 2011

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan: 2001-2011 aldia)

Eskualdea	Lanerako prest dago		Prestasun-tasa						
	Abs.	% ber.	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	22.691	12,6	7,9	7,8	5,4	5,0	11,2	14,2	12,0
Aiaraldea	2.562	1,4	9,9	10,9	5,9	4,4	7,1	10,8	8,7
Eskuinaldea	11.261	6,3	10,3	13,0	9,7	4,6	8,9	11,0	10,1
Bilbo	39.408	22,0	13,3	10,6	11,9	6,7	10,9	14,1	17,0
Ezkerraldea	42.091	23,4	10,6	11,3	9,7	5,2	12,6	12,3	15,9
Bizkaia-Kosta	10.530	5,9	7,3	5,7	6,4	5,3	8,9	9,6	12,8
Durangaldea	9.409	5,2	8,3	6,2	7,1	3,5	11,0	8,5	11,7
Donostialdea	31.012	17,3	8,4	8,6	7,0	4,7	8,8	11,2	10,1
Tolosa-Goierrri	5.049	2,8	5,7	6,5	6,0	3,2	7,7	7,4	7,1
Debagoiena	2.792	1,6	6,1	3,6	4,4	3,5	6,9	6,8	6,9
Debarrena	2.724	1,5	4,0	5,6	3,9	4,6	11,7	12,1	7,8
Guztira	179.528	100	9,3	9,1	8,1	5,0	10,2	11,7	12,4

6. Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa

44. Orain arte aurkeztutako datuak 2011. urtearen azken hiruhilekoan izandako jardueraren egoerari buruzkoak dira. Nolanahi ere, interesgarria da adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriak urte osoan lanarekin zer erlazio izan duen aztertzea. Hori egiten badugu, ikusiko dugu EAEko 16-64 urteko biztanleriaren % 69,8k enpleguarekin erlazioaren bat izan duela azken urtean. Krisia gorabehera, proportzio hori krisialdiaren aurreko aldietako proportziotik hurbil dago oraindik ere: 2005ean, % 70,5 izan zen; 2001ean, berriz, % 64,3. 2011ko proportzioa 2001ekoa baino nabarmen handiagoa da, beraz; eta 2007ko gehienekoaz (% 71,9) geroztik, 2,1 puntu baino ez da jaitsi.

2011ko inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan, 16-64 urteko biztanleriaren % 5,7 okupatuta egon da 6 hilabete baino gutxiagoz; % 3,3, 6-9 hilabetez; % 3,4, 9-12 hilabetez; eta % 57,4, modu jarraituan. Azken zifra hori 2001-2003 aldikoa baino nabarmen handiagoa da (2001ean, % 52,3 egon zen okupatuta modu jarraituan, eta 2002an eta 2003an, % 53,6tik % 53,7ra bitarte). Hala eta guztiz ere, 3,5 puntu jaitsi da 2007az geroztik (2007an, % 60,9 egon zen okupatuta modu jarraituan): 2009tik 2010era bitarteko aldiari, 1,9 puntu, eta 2007-2009 biurtekoan, 1,6 puntu. Halaber, zifra hori 2005koaren (% 57,8) azpitik dago. Nahiz eta 2011n 16-64 urteko biztanle gehiago egon, termino absolutuetan, hori bera gertatu da azken urte honetan ere: 2011n, 828.397 egon dira modu jarraituan okupatuta; 2005ean, aldiz, 828.459. 2007az geroztik, % 4,6 jaitsi da modu jarraituan okupatuta dauden biztanleen kopurua. Urte hartan, 868.793 biztanle egon ziren modu jarraituan okupatuta.

Aurrekoaren kontrara, aipa dezagun 2010etik 2011ra bitartean hamarren bat baino ez dela jaitsi aztertutako adierazlea: murrizketa 2009-2011 biurtekoan gertatu zen; zehazki, 2009-2010 aldiari (-1,9 puntu). Horrek, hein batean bada ere, zerikusia du EAEko 16-64 urteko biztanleriaren beherakadarekin. Dena dela, aipatzekoa da modu jarraituan okupatutako biztanleen kopuruak gutxiago egin duela behera 2010etik 2011ra bitartean (- % 0,7), 2009tik 2010era bitartean baino (- % 3,2).

2007-2011 aldiari, modu jarraituan okupatutako biztanleen kopurua 3,5 puntu jaitsi da. Dena den, azken hamabi hilabeteetan gora egin du noizbait okupatuta egon diren 16-64 urteko biztanleen kopuruak (2011n, % 12,4; 2009an, % 11,8; eta 2007an, % 11), eta horrek, hein batean behintzat, beherakada hori orekatu du. 2010eko proportzioak (% 12,9) behera egin duen arren, datuen arabera, biztanle gehiagok lortzen dute urtean zehar lanen bat aurkitzea; halere, ez dute lortzen hamabi hilabetez modu jarraituan okupatuta egotea. Egoera horretan dauden pertsonen kopurua etengabe hazi da 2007tik 2010era bitartean (2007an, 156.760 pertsona; 2010ean, 186.961 pertsona). 2011n, 179.244 pertsona daude egoera horretan; 2007ko kopurua baino % 14,3 gehiago, hain zuzen.

2011ko azken hiruhilekoan lanean jardun duten pertsonen % 10,4k ez du lortu urte osoan modu jarraituan lanean jardutea. 2010ean, proportzioa % 11,2 izan zen. Adierazle horrek beherako joera hartu zuen 2006tik 2009ra bitartean: 2006an, % 13,6 izan zen; 2009an, % 9,2; eta 2009tik 2010era bitartean, ez zen aldatu. Bestalde, aldi baterako kontratazioak gora egin du Euskadin, eta 2009tik 2010era bitartean, okupazio jarraituak behera egin zuen. Hori dela eta, adierazleak gora egin zuen 2010ean (% 11,2). Horiek horrela, 2011ko proportzioa 2009ko gutxienekoaren bertsua da, eta 2001-2006 aldiko proportzioa (% 12,5etik % 15,5era bitarte) baino askoz baxuagoa.

Langabeei dagokienez, 2010aren amaieran langabezian zegoen biztanleriaren % 39,8k nolabaiteko erlazioren bat izan du enpleguarekin azken urtean (2010ean, proportzioa % 40,7 izan zen). Zifra hori 2001ekoa (% 35,3) baino handiagoa da, eta 2002kotik (% 40,9) gertu dago (bi urte horietan, gaur egungoaren antzekoa izan zen langabezia-kopurua); nolana ere, 2007ko zifra (% 46,4) eta 2009koa (% 47) baino nabarmen txikiagoa da. Adierazlea hori ia % 50era iritsi zen 2003-2006 aldian. Argi dago, beraz, 2003az geroztik langabeek zailtasun handiago dutela lana bilatzeko. 2009ra arte, egoera horrek, hein handi batean, aldi baterako enpleguaren gorakadarekin zerikusia du. 2009tik 2011ra bitartean, ordea, aldi baterako enpleguek behera egin dute, eta lan-merkatuaren dinamikak lotura estua du enplegu-aukera ezarekin.

Azken urtean enpleguarekin nolabaiteko erlazioren bat izan duten pertsonen proportzioa % 9,2 izan da biztanle ez-aktiboen artean (2010ean, % 10,1 izan zen). Nahiz eta zifra hori 2009koa (% 10,5) eta 2003koa (% 9,8) baino txikiagoa izan, 2001eko eta 2002ko zifrak (% 5,7 eta % 7,5, hurrenez hurren) baino nabarmen handiagoa da.

16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean emandako denboraren arabera. 2005-2011 aldia

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2007-2011 aldiko hazkuntza-tasa %-tan)

Lanean emandako denbora	Datu absolutuak					Hazkundearen %-a 2007/2011	% bertikalak				
	2005	2007	2009	2010	2011		2005	2007	2009	2010	2011
12 hilabete	828.459	868.793	862.015	834.283	828.397	-4,6	57,8	60,9	59,4	57,5	57,4
9-11 hilabete	49.469	42.164	41.117	56.867	48.653	15,4	3,5	3,0	2,8	3,9	3,4
6-8 hilabete	51.892	39.947	46.790	49.323	47.800	19,7	3,6	2,8	3,2	3,4	3,3
< 6 hilabete	80.830	74.649	82.762	80.771	82.791	10,9	5,6	5,2	5,7	5,6	5,7
Batere ez	422.954	400.407	419.256	429.881	435.191	8,7	29,5	28,1	28,9	29,6	30,2
Guztira	1.433.604	1.425.959	1.451.941	1.451.124	1.442.831	1,2	100	100	100	100	100

16-64 urteko biztanleria, jarduerarekin gaur egun duen erlazioaren eta azken urtean lanean eman duen denboraren arabera. 2011
(% bertikalak)

Lanean emandako denbora	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
12 hilabete	89,6	,3	,0	57,4
9-11 hilabete	3,1	8,6	2,6	3,4
6-8 hilabete	2,8	11,9	1,9	3,3
< 6 hilabete	4,5	18,9	4,7	5,7
Batere ez	,0	60,2	90,8	30,2
Guztira	100	100	100	100

45. Modu jarraituan lanean daudenen proportzioa nabarmen jaitsi zen 2007-2011 aldian, eta jaitsiera horrek 16-64 urteko gizonei eragin die bereziki. Aldi horretan, adierazlea 8,4 puntu jaitsi da; % 71,9tik % 63,6ra, hain zuzen. Ikus dezakegunez, 2011ko zifra 2007koa baino txikiagoa izan da, baita 2005ekoa (% 69,5) baino txikiagoa ere. 2009tik 2011ra bitartean, modu jarraituan lanean dauden 16-64 urteko emakumeen proportzioa % 52,1etik % 51,8ra jaitsi da; hala ere, 2007ko proportzioaren (% 49,7) eta 2005eko proportzioaren (% 45,8) gainetik dago, eta 2010eko proportzioa (% 51,3) baino handiagoa da.

Azken urtean modu jarraituan lanean jardun duen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera.
2005-2011 aldia
(Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

Sexua	2005	2007	2009	2010	2011
Gizonak	69,5	71,9	66,5	63,6	62,9
Emakumeak	45,8	49,7	52,1	51,3	51,8
Guztira	57,8	60,9	59,4	57,5	57,4

Okupazio jarraituak behera egin du, eta horrek batez ere 20-29 urtekoei eragin die: 2007tik 2011ra bitartean, 13 puntutik gorako beherakada izan da (20-24 urtekoen kasuan, % 32,2tik % 18,8ra; eta 25-29 urtekoen kasuan, % 63,9tik % 47,5era). Bi kasuetan, 2011ko adierazlea 2005koa baino 12 puntu inguru beherago dago. Hein txikiagoan bada ere, joera horrek 30-34 urtekoei ere eragin die: okupazio jarraitua duten pertsonen ehunekoa 8,6 puntu jaitsi da; 2007an, % 75,3 zen, eta 2011n, berriz, % 66,6. Halaber, zifra hori 2005eko proportzioa (% 72) baino nabarmen baxuagoa da (-5,4 puntu).

Joera negatibo horrek 40-49 urtekoei ere eragin die 2007-2011 aldian. Dena den, kasu horretan, okupazio jarraituaren adierazlea gutxiago jaitsi da; 4,3 puntutik 5,4 puntura bitarte, hain zuzen. 20 urtetik beherako kasuan, adierazlea 2,7 puntu jaitsi da. Hala eta guztiz ere, jaitsiera horrek eragin handia du; izan ere, kolektibo horretako pertsonen % 3,5ek soilik zuen okupazio jarraitu bat 2007an. Talde horietan guztietan, 2011ko adierazlea 2005ekoa baino baxuagoa da; edonola ere, adierazleen

artean, 1,5 puntutik 1,9 puntura arteko aldea dago. Horretaz gainera, bada aipatu beharreko alderdi positibo bat: 40-44 urteko pertsonen adierazleak gorako joera hartu du, eta 2010etik 2011ra bitartean, % 71,7tik % 72,9ra igo da.

35-39 urtekoen eta 50-54 urtekoen kasuan, okupazio jarraitua duten pertsonen proportzioa ez da asko jaitsi 2007tik 2011ra bitartean (1,3 puntutik 1,5 puntura bitarte). Aldi horretan, okupazio jarraituak nabarmen gora egin du 55 urtetik gorakoen artean (55-59 urtekoen kasuan, % 55etik % 61era; eta 60-64 urtekoen kasuan, % 26tik % 32,6ra). Adin-talde horietan guztietan, 2011ko adierazlea 2005koaren gainetik dago.

Azken urtean modu jarraituan lanean jardun duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera.
2005-2011 aldia
 (Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

Adina	2005	2007	2009	2010	2011
16-19	2,3	3,5	2,5	,9	,8
20-24	31,2	32,2	29,0	21,9	18,8
25-29	59,6	63,9	59,2	52,8	47,5
30-34	72,0	75,3	70,8	68,7	66,6
35-39	73,4	76,5	73,2	73,3	75,0
40-44	74,4	77,2	75,1	71,7	72,9
45-49	73,9	77,4	74,3	73,2	72,0
50-54	65,4	69,5	69,2	68,6	68,2
55-59	52,2	55,0	59,3	58,7	61,1
60-64	26,2	26,0	26,9	28,8	32,6
Guztira	57,8	60,9	59,4	57,5	57,4

Lanbide-egoerari dagokionez, talde handienak soilik kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu okupazio jarraitua duten pertsonen proportzioa puntu bat baino gehixeago baino ez dela murriztu 2007tik 2011ra bitartean enpresa publikoko soldatapekoen eta aldi baterako kontratua duten soldatapekoen artean. Lehenengo kasuan, okupazio jarraitua duten pertsonen proportzioa murriztu egin da: 2007-2009 aldian, % 92 zen, eta 2011n, berriz % 89,7. Bigarren kasuan, proportzioak bilakaera hau izan zuen: 2007an, % 63,1 izan zen; 2009n, % 61; 2010ean, % 53,9; eta 2011n, gora egin zuen zertxobait (% 54,4). Bi kasu horietan, 2011ko adierazleak 2005ekoaren bertsuak dira, baina puntu 1 handiagoak, gutxienez.

2011n 2007an baino autonomo eta Administrazio Publikoko soldatapeko gutxiagok dute okupazio jarraitua, nahiz eta jaitsiera 0,7 puntukoa baino ez izan. Autonomoei dagokionez, adierazleak inoizko mailarik baxuena izan du 2011n (% 93,8); 2005eko adierazleak (% 95) baino 1,2 puntu gutxiago, hain zuzen.

Azken urtean modu jarraituan lanean jardun duen 16-64 urteko biztanleria, lanbide-egoeraren arabera.

2005-2011 aldia

(Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

Lanbide-egoera	2005	2007	2009	2010	2011
Enplegatzailea	97,6	97,7	98,9	97,2	98,4
Autonomoa	95,0	94,5	97,1	93,9	93,8
Familia-laguntza	90,7	94,8	82,2	97,1	90,6
Kooperatibista	97,2	98,4	96,6	98,4	98,8
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	89,8	92,4	92,3	89,9	91,7
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	89,4	92,0	92,3	91,4	89,7
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	84,6	87,4	89,1	86,9	87,7
Beste egoera bat	73,0	73,2	76,2	75,3	78,7
Guztira	87,3	89,4	90,8	88,8	89,6

Azken urtean soldatapeko okupazio jarraitua izan duen 16-64 urteko biztanleria, kontratu motaren arabera. 2005-2011 aldia

(Erreferentziazko biztanleriaren %-a)

Kontratu-mota	2005	2007	2009	2010	2011
Mugagabea	96,3	96,5	96,1	96,4	97,3
Aldi baterakoa	53,7	63,1	61,0	53,9	54,5
Kontraturik gabe	67,4	72,2	74,1	70,9	71,7
Guztira	85,5	88,2	89,7	87,6	88,4

2007-2011 laurtekoan, okupazio jarraitua duten 16-64 urteko biztanleen proportzioak behera egin du eskualde guztietan. Beherakada handiena Bilboko eskualdean gertatu da: 2007an, proportzioa % 58,5 izan zen (2009an, % 59,4); eta 2011n, berriz, % 52,4, 6 puntu gutxiago, beraz (6,9 puntu gutxiago 2009. urtearekin alderatuta). Beherakada nabarmena izan da (3,8 puntutik 4,6 puntura bitartekoa) eskualde hauetan: Gasteizen, Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Durangaldean. Ezkerraldean, 2011ko proportzioa (% 54,4) 2005koa (% 52) baino handiagoa da. Aipatutako beste eskualdeetan, okupazio jarraitua duten pertsonen proportzioa txikiagoa da 2011n 2005ean baino. Edonola ere, gehienezko diferentzia negatiboa 1,5 puntu da, eta Bilbori dagokio.

Nolanahi ere, eskualde horiei dagokienez, badago aipatu beharreko alderdi positibo bat: 2010etik 2011ra bitartean, Bilbon eta Ezkerraldean, okupazio jarraituaren proportzioa puntu bat baino ez da jaitsi; Durangaldean, egonkortu egin da; eta Eskuinaldean eta Gasteizen, zertxobait egin du gora. Gasteizen, okupazio jarraituaren proportzioa nabarmen igo da: % 56,4tik % 58,7ra.

2007tik 2011ra bitartean, okupazio jarraituaren proportzioak gutxixeago egin du behera (2 puntutik 3,2 puntura artean) Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierriin, Debagoiengan eta Debabarrenean. Edonola ere, 2010-2011 aldian, gora egin du Tolosa-Goierriin eta Debabarrenean. Eskualde horietan guztietan, 2011ko adierazlea 2005ekoa baino baxuxeagoa da. Hala eta guztiz ere, 2011n okupazio jarraituaren proportzio handien izan duten eskualdeen artean daude, % 61,5etik gorako proportzioak izan dituzte eta. 2005ko adierazlea erreferentziatzat hartuta, beherakada handiena Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan gertatu da (-3,2 eta -3,5 puntu, hurrenez hurren).

Aiaraldean eta Donostialdean, adierazleak gora egin du 2010etik 2011ra bitartean, eta oro har, 2007-2011 aldiko beherakada txikia izan da (-0,5 eta -1,4 puntu, hurrenez hurren). 2005. urtearekin alderatuta, Donostialdean, 2011ko okupazio jarraituaren proportzioa 0,4 puntu baino ez da jaitsi (2005ean, % 61,5, eta 2011n, berriz, % 61), eta Aiaraldean, 2,8 igo da (2005ean % 59,3, eta 2011n, berriz, % 62,1). Bi eskualde horiek eta Tolosa-Goierriin eta Debagoienak dituzte okupazio jarraituaren maila handienak 16-64 urteko biztanleen artean.

Azken urtean modu jarraituan lanean jardun duen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera.

2005-2011 aldia

(Erreferentziako biztanleriaren %-a)

Eskualdea	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	59,8	62,6	59,1	56,4	58,7
Aiaraldea	59,3	62,5	59,4	59,7	62,1
Eskuinaldea	56,8	60,6	58,6	55,4	56,0
Bilbo	53,9	58,5	59,4	54,8	52,4
Ezkerraldea	52,0	58,2	57,7	56,0	54,4
Bizkaia-Kosta	57,3	58,7	60,1	56,7	56,2
Durungaldea	59,7	63,8	57,5	59,7	59,4
Donostialdea	61,4	62,4	62,0	59,9	61,0
Tolosa-Goierri	65,9	65,9	59,1	62,2	62,7
Debagoiena	65,1	63,6	60,5	62,9	61,6
Debabarrena	58,9	61,2	54,9	56,8	58,0
Guztira	57,8	60,9	59,4	57,5	57,4

7. Lana bilatzeko neurriak

46. 2011n, 145.847 pertsona aritu dira lan bila (inkesta egin aurreko lau asteetan, lana bilatzeko kudeaketa eraginkorrak egin dituzte); EAEko 16-64 urteko biztanleriaren % 10,1, hain zuzen. 2011ko kopurua 2009koa baino % 7,3 handiagoa da (2009an, 135.904 pertsona aritu ziren lan bila; 16-64 urteko biztanleriaren % 9,4, hain zuzen). 2009-2011 aldian, 89.031tik 116.703ra handitu da oraindik lanik aurkitu ez duten langabeen kopurua. Lan-aukera ezaren ondorioz, enplegu-kudeaketak egiten dituzten landunen eta ez-aktiboen kopurua jaitsi egin da: 32.625etik 24.763ra, beste lan baten bila ari diren landunen artean (edonola ere, 2011ko kopurua, hots, 22.786, baino handiagoa da), eta 14.248tik 4.381era, lanerako prest dauden biztanle ez-aktiboen artean.

2009tik 2011ra bitartean, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren pertsonen kopuruak gora egin du. Gorakada hori Bizkaiko (Ezkerraldea salbu), Donostialdeko eta Debagoieneko biztanleek lana bilatzeko egin duten ahaleginaren ondorio da. Eskualde horietan, lehen baino 20.900 pertsona gehiago aritu dira lan bila. Gorakada horren % 46,7 Bilboko biztanleei dagokie; % 22,6, Ezkerraldeko biztanleei; eta % 22,5, Bizkaia-Kostako eta Durangaldeko biztanleei. Bizkaiko lau eskualde horietan gertatu da gorakadaren % 91,8. 2010etik 2011ra bitartean, nabarmena da gorako joera. Dena den, gorako joera Bilbon eta Bizkaia-Kostan baino ez da izan etengabea 2009az geroztik, eta horretaz gainera, zertxobait motelagoa izan da 2009-2010 aldian.

Gorako joeraren beste muturrean, aipatzekoa da eskualde hauetan 10.957 pertsona gutxiago aritu direla aktiboki lan bila: Gasteizen, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean. Beherakadaren % 81,1 Arabako bi eskualdeei dagokie; eta % 12,6, Debabarrena eskualdeari. Hiru eskualde horietan, lan bila ari diren pertsonen kopuruak behera egin du urtez urte 2009az geroztik.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera. 2001-2011 aldia

(Datu absolutuak eta 16-64 urteko biztanleriaren %-a)

Eskualdea	Datu absolutuak							16-64 urteko biztanleriaren %-a						
	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	11.348	12.454	6.687	6.740	22.019	20.372	14.320	6,6	7,3	3,7	3,7	11,6	10,7	7,6
Aiaraldea	2.203	2.561	945	639	2.912	2.330	1.720	8,0	9,3	3,3	2,3	9,9	7,9	5,8
Eskuinaldea	10.349	14.043	7.936	4.124	6.969	9.947	6.667	9,4	12,9	7,2	3,7	6,2	8,9	6,0
Bilbo	28.312	23.387	18.625	11.653	25.377	26.074	35.131	12,2	10,2	8,0	5,1	10,9	11,2	15,1
Ezkerraldea	22.533	26.066	18.495	10.029	32.445	26.253	37.159	8,4	9,8	6,9	3,8	12,2	9,9	14,1
Bizkaia-Kosta	5.070	5.045	4.304	3.129	6.193	7.208	9.281	6,5	6,6	5,5	3,8	7,5	8,7	11,3
Durangaldea	5.469	3.705	3.608	2.112	6.724	5.585	8.346	7,1	4,9	4,7	2,7	8,3	6,9	10,4
Donostialdea	22.715	25.882	15.098	12.680	23.797	26.140	25.185	7,4	8,5	4,9	4,1	7,7	8,5	8,2
Tolosa-Goierri	4.000	4.630	2.646	2.137	4.058	4.021	3.675	5,5	6,4	3,7	3,0	5,6	5,6	5,1
Debagoiena	1.952	1.662	1.429	762	2.097	1.811	2.431	4,6	4,0	3,4	1,9	5,1	4,4	6,0
Debabarrena	1.325	1.996	934	1.343	3.313	2.267	1.933	3,7	5,6	2,6	3,8	9,3	6,4	5,5
Guztira	115.277	121.431	80.710	55.349	135.904	132.008	145.847	8,1	8,6	5,6	3,9	9,4	9,1	10,1

47. Aztertutako biztanleriak lana bilatzeko egiten dituen ekintzei eta kudeaketei dagokienez, ezaugarri hauek nabarmentzekoak dira:

a) 2011n, 2010ean baino biztanle gutxiagok bilatu dute lana beren udalerrian edo, gehienez ere, beren probintzian: 2010ean, % 75,8k bilatu zuen lana bere udalerrian edo probintzian; 2011n, aldiz, % 70,5ek. Hori dela eta, adierazlea 2009ko mailara (% 68) gerturatu da berriro ere. 2010etik 2011ra bitartean, lana EAE osoan eta Nafarroan bilatu duten biztanleen kopurua % 16,3tik % 20,3ra igo da, eta lana EAetik kanpo bilatu dutenen kopurua, % 7,9tik % 9,2ra. Zifra horiek, halere, 2009koak baino zertxobait baxuagoak dira (% 21,2 eta % 10,7). Horiek horrela, joerak ez dira asko aldatu. 2007aren aurreko urteetan eta 2010ean, biztanleek beste inoiz baino joera handiagoa izan zuten lana beren udalerrian edo probintzian bilatzeko; 2011n, aldiz, biztanleak beste eremu batzuetan hasi ziren lan bila. Hori bera gertatu zen, hain zuzen, 2007tik 2009ra bitartean.

Bilakaera hori batez ere langabeei dagokie. Lana beren probintzietatik kanpo bilatzen duten langabeen proportzioa handitu egin da: 2010ean, % 22,4 zen; 2011n, berriz, % 30. Azken zifra hori 2009koa (% 29,8) baino zertxobait handiagoa da.

Bide batez, bertan behera gelditu da laneratzeko aukera duten biztanleek lurralde historikotik kanpoko merkatuetara jotzeko izan duten joera. Hain zuzen, 2011n 2010ean baino landun gutxiago daude probintzietatik kanpoko merkatuetan lan egiteko prest (2010ean, % 33,3; 2011n, berriz, % 28,9). Aurreko urteetan bezala, biztanle ez-aktiboek dute probintzietatik kanpoko merkatuetan lan egiteko prestasun gutxien (2010ean, % 18,7, eta 2011n, % 19,4; igoera txikia izan da, beraz).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko lotura eta lana bilatzeko lurralde-eremuaren arabera. 2011
(% bertikalak)

Eskualdea	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
Udalerrria	22,4	21,3	41,8	22,1
Lurralde historikoa	48,7	48,8	38,8	48,5
EAE	12,8	18,2	18,9	17,3
EAE edo Nafarroa	5,0	2,6	,0	3,0
Estatua	6,5	6,3	,5	6,2
Atzerria	4,7	2,7	,0	3,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

2011n, eskualde batzuetako biztanleek beste eskualde batzuetakoek baino prestasun handiagoa dute beren udalerritik edo beren probintziatik kanpo lana bilatzeko. Bilbo, Donostialdea eta Tolosa-Goierri eskualdeetan lana bilatzeko ekintzak eta kudeaketak egiten dituzten biztanleek beste eskualdeetakoek baino prestasun gutxiago dute beren probintziatik kanpo lana aurkitzeko (biztanleen % 25 baino gutxiago dago hori egiteko prest). Adierazle horri dagokionez, hiru eskualde horiek baino ez daude EAEko batez bestekotik behera (% 29,5). Batez besteko horretatik zertxobait goraxeago, % 30etik % 35era arteko proportzioak dituzten eskualdeak daude; zehazki, Gasteiz, Ezkerraldea, Eskuinaldea eta Debagoiena. % 38tik % 39ra bitarteko proportzioak Bizkaia-Kostari eta Durangaldeari dagozkie. Beste inon ez bezala, Aiaraldea eta Debabarrenean, biztanleriaren gehiengoa (% 50etik gora) prest dago EAE osoan lan egiteko.

Aiaraldea eskualdeko biztanleak prestasun handia dute EAetik edo Nafarroatik kanpo lana bilatzeko; are gehiago, Aiaraldea prestasun handien duten eskualdeetako bat da. Aiaraldea, Gasteiz eta Ezkerraldea eskualdeetan, erreferentziazko biztanleen % 14,6tik % 16,4ra bitarte prest dago EAetik edo Nafarroatik kanpo lana bilatzeko. Horretaz gainera, aipatzekoa da hiru eskualde horietan adierazleak gorako joera izan duela 2009az geroztik (Arabako eskualdeen kasuan, 2007an hasi zen gorako joera).

Hein txikixeagoan bada ere, Ezkerraldea eta Debagoiena eskualdeetan ere, lana bilatzeko EAetik kanpora jotzeko prest dauden biztanleen kopurua EAEko batez bestekoa baino handiagoa da (% 10,8 eta % 9,5, hurrenez hurren). Donostialdeko biztanleen % 8 dago prest hori egiteko, eta Bilbo, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Tolosa-Goierri eskualdeetako biztanleen % 5,8tik % 6,6ra bitarte. Zifra baxuena Debabarrenari dagokio (% 2,8).

Aipatzekoa da, halaber, Arabako eskualdeetan, beste inon ez bezala, etengabe gora egin duela 2009-2011 aldiaren beren probintziatik kanpo lan egiteko prest dauden pertsonen proportzioak; hots, EAEn, Nafarroan, Espainiako merkatuan edo nazioarteko merkatuan lan egiteko prest dauden pertsonen proportzioak. Gasteizen, 2007an hasi zen joera hori. 2009tik 2011ra bitartean, Eskuinaldean, EAetik eta Nafarroatik kanpoko lan-merkatuetan lan egiteko prest dauden biztanleen kopurua soilik handitu da etengabe.

Horren kontrara, Bilbon, 2009az geroztik, lana bilatzeko ekintzak eta kudeaketak egiten dituzten biztanleek gero eta gehiago mugatzen dituzte ekintza eta kudeaketa horiek Bizkaira. Hein batean bada ere, Ezkerraldean, Durangaldean, Donostialdean eta Debagoienean ere hori bera gertatzen da: EAE osoan edo EAetik kanpo lan egiteko prest dauden biztanleen proportzioari dagokionez, 2011ko proportzioa 2009koa bezain baxua da. Hala eta guztiz ere, datuen arabera, EAE osoan edo EAetik kanpo lan egiteko prest dauden biztanleen kopuruak gora egin du eskualde horietan 2010etik 2011ra bitartean. Hori bera gertatu da Bizkaia-Kostan, baina EAE osoan lan egiteari buruzko adierazleari dagokionez soilik.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, lana bilatzeko eskualdearen eta lurralde-eremuaren arabera.

2001-2011 aldia

(taldearen %)

Eskualdea	EAE osoan gutxienez							Baita EAETik/Nafarroatik kanpoko eremuak ere						
	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	17,8	17,5	9,2	17,5	25,5	28,3	35,5	10,2	6,2	4,2	5,9	11,7	14,4	15,1
Aiaraldea	59,3	62,0	70,3	43,9	16,5	40,3	57,1	9,4	9,7	2,1	0,0	1,8	13,4	14,6
Eskuinaldea	16,9	23,2	39,5	36,8	36,1	25,7	34,9	4,8	8,2	6,3	9,0	2,1	5,3	16,4
Bilbo	12,6	20,4	20	19,4	31,3	26,1	23,7	8,4	12,0	9,0	3,7	16,6	8,7	6,3
Ezkerraldea	21,8	19,5	27,2	31,2	35,8	24,8	29,8	7,2	6,3	5,8	2,0	11,8	6,4	10,8
Bizkaia-Kosta	22,8	27,4	17,2	49,8	44,9	27,5	38,9	9,3	1,0	1,9	0,8	8,2	9,3	5,8
Durangaldea	21,6	10,8	25,1	25,2	43,9	25,1	37,9	6,7	4,9	5,9	0,0	3,8	1,4	6,6
Donostialdea	16,1	16,1	24,2	21	23,6	14,9	22,6	9,9	6,9	8,1	7,2	10,6	6,1	8,0
Tolosa-Goierri	13,6	19,7	28,6	19,2	25,5	20,5	24,3	7,8	0,7	2,3	4,4	1,0	6,3	6,2
Debagoiena	12,3	3,6	9,1	10,5	50,9	18,9	31,6	0,5	3,6	3,6	0,0	9,2	0,0	9,5
Debarrena	5,5	3,7	20,2	16,4	54,3	38,8	55,3	0,0	0,0	2,3	6,1	7,0	2,6	2,8
Guztira	18,0	20,0	24,2	25,0	32,0	24,2	29,5	8,0	7,1	6,4	4,5	10,7	7,9	9,2

b) Enplegu-bulego publikoetara jotzea da oraindik ere lana bilatzeko bide nagusietako bat. Aipatzekoa da 2011n inoiz baino pertsona gehiagok jo duela enplegu-bulego publikoetara. Lan bila aritu diren biztanleen % 80,7k bide horretara jo du; 2009an, berriz, % 68,4k. Igoera, beraz, nabarmena da.

Lan bila ibili diren pertsonen % 74 modu eraginkorrean jarri da harremanetan bulego horiekin azken lau asteetan lan-eskaintzei buruzko informazioa lortzeko (2009an, proportzioa % 52,1 izan zen, eta 2010ean, % 68,1). Proportzio hori oso handia da; dena den, lana bilatzeko beste era batzuetan lortutako proportzioak baino zertxobait txikiagoa da. Lana bilatzeko beste era horiek dira ahaideei edo lagunei galdetzea (lan bila dabilzanen % 84,6k bide horretara jo du; 2010ean, % 72,8k jo zuen bide horretara; 2009an, berriz, % 57,4k; joera, beraz, gorakoa da, argi eta garbi) eta enplegu-eskaintzak komunikabideetan kontsultatzea, bai eta Interneten ere (% 80,2k jo du bide horretara; 2010ean, % 69,9k; 2009an, berriz, % 57,8k; joera, beraz, gorakoa da kasu honetan ere). Bestalde, enpresariekin zuzenean harremanetan jartzen diren pertsonen kopurua enplegu-bulegoekin harremanetan jartzen direnen kopuruaren antzekoa da. Gero eta gehiago dira enpresariekin zuzenean harremanetan jartzen diren pertsonen kopurua: 2009an, % 42,9k jo zuen bide horretara; 2010ean eta 2011n, berriz, kopuruak gora egin du (% 59,1 eta % 73,6, hurrenez hurren). Halaber, 2010etik 2011ra bitartean, nabarmen igo da komunikabideetan iragarkiak jarri dituzten edo iragarkiei erantzun dieten pertsonen kopurua (2009tik 2010era bitartean, % 50 eta % 52,7 bitartek jo zuen bide horretara; 2011n, berriz, % 65,8k).

Lana bilatzeko maiz erabiltzen den beste bide bat da enplegu-bulego pribatuetara eta ABLE-etara jotzea: lan bila ibili direnen % 49,5ek jo du bide horietara (2009an, % 38,8k). Proportzio horiek baino nabarmen beherago, % 25,3k lan-poltsetan izena eman du eta % 18,6k azterketak eta elkarrizketak egin ditu. Lan bila ibili direnen % 4,9k baino ez du kontuan hartu autoenplegua.

Aurkeztutako datuek erakusten dutenez, 2009tik 2011ra bitartean, oro har, nabarmen egin du gora lana bilatzeko bide bat baino gehiago erabiltzen duten pertsonen kopuruak. Lana bilatzeko bide guztiek 2001az geroztiko proportzio handienak izan dituzte 2011n. Inoiz baino pertsona gehiagok jo du enplegu-zerbitzu publikoetara, bai eta lagunengana eta ahaideengana, enpresariengana, ABLE-etara eta enplegu-bulego pribatuetara ere.

Jarduerarekiko erlazioari dagokionez, aldeak daude egoeraren arabera, bereziki langabeen eta landunen egoeraren arabera. 2011n, langabeek maizago erabili dituzte lana bilatzeko bide batzuk beste bide batzuk baino. Langabeen proportzioa landunena baino 6-10 puntu handiagoa da, lagunengana eta ahaideengana jotzeari, enplegu-bulegoetara edo ABLE-etara jotzeari eta komunikabideetan iragarkiak jartzeari nahiz erantzuteari dagokionez. Diferenzial handiena, ordea, enplegu-zerbitzu publikoekin harremanetan jartzeari dagokio. Langabeen % 85,7k jo du zerbitzu horietara, eta landunen % 58,5ek. Diferenzial hori enplegu-eskaintzei buruzko

informazioa kontsultatzearekin lotuta dago (langabeen % 80k egin du hori, eta landunen % 50,4k), bai eta informazioa eskatzearekin edo/eta ikastaroetara joatearekin ere (langabeen % 54,1ek egin du hori, eta landunen % 26,7k). Landunek langabeek bezainbeste jo dute enpresariengana, azterketak eta elkarrizketak egitera eta autoenplegura. Landun baino langabe gehiagok jo dute komunikabideetan, iragarki-oholetan eta saltokietan enplegu-eskaintzak kontsultatzera; dena den, aldea oso txikia da.

Biztanleria ez-aktiboak 2011n izan duen portaerari dagokionez, betiere langabeenarekin alderatuta, alde nagusiak honako hauek dira: zerbitzu publikoetan enpleguei buruzko informazio-eskaera gutxiago egin dituzte (ez-aktiboen % 46,5ek egin du hori, eta langabeen % 89k), gutxiago jo dute enpresen arduradunengana edo ahaideengana eta lagunengana (ez-aktiboen % 41,9k jo du enpresariengana, eta langabeen % 74,5ek; ez-aktiboen % 58,9k jo du ahaideengana eta lagunengana, eta langabeen % 87,2k), eta gutxiago jo dute komunikabideetako enplegu-eskaintzetara (ez-aktiboen % 60,6k egin du hori, eta langabeen % 81,1ek; ez-aktiboen % 48k jarri eta erantzun ditu iragarkiak komunikabideetan, eta langabeen % 67,4k). Ez-aktiboek ez dute langabeek bezain maiz jo ABLE-etara eta enplegu-bulego pribatuetara (ez-aktiboen % 36,3k egin du hori, eta langabeen % 51,3k). Biztanle ez-aktiboek joera handiagoa dute enplegu-zerbitzu publikoetara jotzeko langabeek baino. Horixe da, hain zuzen, biztanle ez-aktiboen ezaugarri diferentziala. Zerbitzu horietan, enpleguari buruzko informazioa bilatzeko bezainbeste eskaera edo gehiago egiten dituzte administrazio-egoera aldatzeko eta ikastaroei buruzko informazioa lortzeko. Horretaz gainera, langabeek baino joera ahulagoa dute lana beste bide batzuen bidez bilatzeko (edonola ere, gehiengoak lan-eskaintzak kontsultatzen ditu komunikabideetan eta lagunengana eta ahaideengana jotzen du).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera eta lana bilatzeko moduaren arabera. 2011
(taldearen %)

Lana bilatzeko modua	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
Enplegu-bulego publikoa	58,5	85,7	73,7	80,7
. Txartela berritu edo zigilatu	31,4	61,7	62,5	56,5
. Ikastaroei buruzko informazioa jaso edo ikastaroak egin	26,7	54,1	49,8	49,3
. Lehenengo aldiz izena eman	6,9	11,4	7,1	10,5
. Datuak berritu	26,0	46,6	26,4	42,5
. Lan-eskaintzei buruzko informazioa	50,4	80,0	46,5	74,0
. Lan-eskaintza jaso	10,3	7,0	12,7	7,7
. Besterik	3,6	3,7	1,1	3,6
Enplegu-bulego pribatua edo ABLEa	43,4	51,3	36,3	49,5
Enpresaburuekin harremanetan jarri	75,0	74,5	41,9	73,6
Ahaideei edo lagunei galdetu	77,0	87,2	58,9	84,6
Komunikabideetan iragarkiak jarri edo iragarkiei erantzun	61,1	67,4	48,0	65,8
Azterketa edo elkarrizketa egin	18,6	18,6	18,2	18,6
Autoenplegua	4,0	4,8	11,5	4,9
Lan-eskaintzak kontsultatu komunikabideetan	79,2	81,1	60,6	80,2
Enplegu-bulegoaren deia zain	26,1	20,2	10,9	20,9
Eskaeren edo azterketen zain	15,3	11,7	5,9	12,2
Iragarki-taula, eta dendetan iragarkiak jarri	5,8	8,5	5,9	8,0
Lan-poltsetan izena eman	25,4	25,8	10,9	25,3

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria: lana bilatzeko moduen bilakaera.

2001-2011 aldia

(lana bilatzeko modu bakoitzera jotzen dutenen %-a)

Lana bilatzeko modua	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Enplegu-bulego publikoa	70,9	71,1	62,7	69,3	68,4	79,7	80,7
. Txartela berritu edo zigilatu	53,7	54,0	47,8	55,4	53,4	54,8	56,5
. Ikastaroei buruzko informazioa jaso / ikastaroak egin	25,4	31,2	33,7	31,8	35,7	45,8	49,3
. Lehenengo aldiz izena eman	11,5	8,7	15,1	8,7	11,0	11,0	10,5
. Datuak berritu	22,5	26,2	32,5	32,5	26,6	30,0	42,5
. Lan-eskaintzei buruzko informazioa	43,0	49,6	52,0	56,1	52,1	68,1	74,0
. Lan-eskaintza jaso	5,9	6,4	10,4	7,3	7,5	6,8	7,7
. Besterik	3,6	3,0	5,8	4,1	5,5	2,6	3,6
Enplegu-bulego pribatua edo ABLEa	28,0	32,6	36,4	42,3	38,8	44,5	49,5
Enpresaburuekin harremanetan jarri	29,2	38,0	47,6	44,8	42,9	59,1	73,6
Ahaideei edo lagunei galdetu	45,0	52,2	57,4	65,5	57,4	72,8	84,6
Komunikabideetan iragarkiak jarri edo erantzun	38,9	48,3	48,9	52,8	50,0	52,7	65,8
Azterketa edo elkarrizketa egin	14,4	16,0	23,8	21,5	14,8	14,3	18,6
Autoenplegua	3,8	2,9	5,6	5,1	4,4	4,2	4,9
Lan-eskaintzak kontsultatu komunikabideetan	52,6	61,2	67,0	60,9	57,8	69,9	80,2
Enplegu-bulegoaren deiaren zain	14,8	15,7	30,0	19,5	16,5	16,6	20,9
Eskaeren edo azterketen zain	11,4	14,0	22,5	13,7	12,6	9,8	12,2
Iragarki-taula, eta dendetan iragarkiak jarri	3,7	5,4	11,0	5,8	8,2	6,6	8,0
Lan-poltsetan izena eman	14,8	18,2	24,4	23,1	19,4	19,7	25,3

c) Lan bila ari diren pertsona gehienek lanaldi osoko lan bat bilatzen dute; hain zuzen ere, 2011n, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu direnen % 92,9 lanaldi osoko lan baten bila aritu da (2009an, % 93,6k egin zuen hori, eta 2010ean, % 92,6k). Edonola ere, 2009tik 2011ra bitartean, % 50,2tik % 76,9ra igo da lanaldi partzialeko lan bat hartzeko prest dauden pertsonen kopurua; horretaz gainera, % 43,2tik % 16,1era jaitsi da lanaldi osoko lan bat soilik hartzeko prest dauden pertsonen kopurua. Jaitsiera hori % 51,7tik % 28,5era bitartekoa da landunen kasuan, eta % 40,9tik % 13,4ra bitartekoa, langabeen kasuan.

Hizpide ditugun pertsonen % 7,1ek soilik bilatu du lanaldi partzialeko lan bat edo ordukako lan bat eskusiboki; proportzio hori 2007koa (% 9,6) eta 2010ekoa (% 7,4) baino baxuagoa da, baina 2009koa (% 6,5) baino zertxobait handiagoa.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta bilatzen aritu den lanaldi motaren arabera. 2011

(% bertikalak)

Lanaldi mota	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
Lanaldi osoa soilik	28,5	13,4	16,7	16,1
Partziala edo osoa	65,4	79,4	75,3	76,9
Partziala soilik	5,7	6,0	4,5	5,9
< 3 ordu egunean	,4	1,3	3,5	1,2
Guztira	100	100	100	100

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen eta bilatzen aritu den lanaldi motaren arabera.

2001-2011 aldia

(taldearen %)

Eskualdea	Lanaldi partziala onartzen du							Lanaldi partziala soilik nahi du						
	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	68,8	60,9	34,9	52,9	49,8	78,8	67,0	15,5	8,9	2,1	11,4	7,3	6,4	5,3
Aiaraldea	57,7	58,2	47,5	56,0	31,8	75,1	81,0	11,3	8,1	12,2	17,0	3,6	11,9	12,2
Eskuinaldea	63,3	85,3	55,8	57,8	66,9	69,2	91,3	8,2	7,7	10,9	7,4	10,7	6,0	9,9
Bilbo	65,2	64,3	64,9	73,1	64,0	79,2	86,5	12,5	16,9	12,9	12,6	3,7	10,3	5,9
Ezkerraldea	64,3	83,2	73,0	53,1	42,3	67,2	84,1	9,6	5,9	8,2	9,4	6,7	4,9	4,7
Bizkaia-Kosta	69,7	87,7	82,4	36,0	73,0	74,9	80,7	18,0	7,0	6,7	,8	2,1	5,8	10,7
Durungaldea	85,3	74,4	72,4	54,8	84,1	77,0	94,5	22,4	15,5	4,1	3,0	4,8	8,0	6,3
Donostialdea	57,3	57,1	53,8	55,7	60,7	76,8	84,5	10,2	9,0	9,6	8,6	10,7	8,3	12,0
Tolosa-Goierri	66,6	75,8	58,0	76,4	50,8	86,8	87,2	10,8	11,5	2,0	7,8	,0	8,4	2,9
Debagoiena	57,1	69,3	40,5	68,7	92,2	90,1	95,6	3,8	1,5	,0	14,0	1,7	2,5	10,5
Debabarrena	91,1	79,2	88,4	57,0	60,6	72,7	79,8	2,3	3,9	,0	19,6	8,6	6,4	,0
Guztira	64,9	70,8	62,0	58,6	56,8	75,4	83,9	11,7	9,7	8,7	9,6	6,5	7,4	7,1

48. Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleriak lanean hasteko hainbat baldintza proposatu ditu. Inkesta egin zen unean, 140.383 pertsonak esan zuten benetan prest zeudela beste okupazio bat lortzeko. Kopuru hori soilik kontuan hartuta, honako baldintza hauek hartzen ditu kontuan Lan Merkatuaren Erroldak (LME): bizileku-aldaketa, espero baino diru-sarrera edo kategoria txikiagoa izatea eta lanaldi partzialean lanean jarduteko prest egotea.

Adierazitako baldintzak kontuan izanda, 2011n, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren pertsonen % 30,6 prest dago baldintza horiek guztiak onartzeko, trukean beste lanpostu bat lortzeko. Zifra hori handiagoa da 2009koa (% 27,8), 2010ekoa (% 25,7) eta 2001ekoa (% 25) baino. 2001. urteaz geroztik, adierazleak beherako bidea hartu zuen, harik eta 2007an gutxienekora (% 14,5) iritsi zen arte. Langabeek beste inork baino prestasun handiagoa dute baldintza horiek onartzeko (langabeen % 30,7, landunen % 30 eta biztanle ez-aktiboen % 26,8 dago prest baldintza horiek onartzeko).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanle batzuek ez dituzte baldintza guztiak onartzen: biztanle horientzat, bizilekuz aldatzea da eragozpen nagusia. Baldintza guztiak onartzeko prest ez dauden biztanleen % 92,4k ez du onartzen bizilekuz aldatzea. 2009an, % 78,4k ez zuen onartu baldintza hori, eta 2010ean, % 89,1ek. Langabeek eta biztanle ez-aktiboek beste taldeek baino gutxiago onartzen dute baldintza hori (langabeen % 94,3k, biztanle ez-aktiboen % 100ek eta landunen % 82,2k ez du onartzen baldintza hori).

2011n, inoiz baino biztanle gehiagok egin diote uko bizilekuz aldatzeari. Horren kontrara, kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzeko aukera onartzen ez duten enplegu-eskatzailen proportzioa jaitsi egin da: 2009an, % 25,1 zen proportzioa; 2010ean, % 25,1; eta 2011n, % 17,6. 2009tik 2011ra bitartean, aukera horri uko egiten dioten pertsonen kopurua % 55,6tik % 21,6ra jaitsi da landunen kasuan, eta % 37,7tik % 10,5era, langabeen kasuan. Halaber, biurteko horretan, jaitsi egin da kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzea onartzen ez duten pertsonen proportzioa (% 34,1etik % 14,7ra), bai eta denbora partzialeko lan bat onartzen ez duten pertsonen proportzioa ere (% 32tik % 12,4ra).

Azken batean, 2009-2011 aldian, mugigarritasun geografikoa da gogoko lana lortzeko eragozpen nagusia, beste enplegu batean hasteko baldintzaren bat jartzen dutenen gehiengoari eragiten dio eta. Aitzitik, krisialdia sendotu izanak ekarri du aintzat hartutako gainerako mugak nabarmen murriztea, baita prestakuntza-mailetara eta soldata-helburu arruntetara egokitutako ekonomia- eta lanbide-garapenarekin lotutakoak ere.

LMEren datuen arabera, 2007. urteaz geroztik, enplegu-eskatzailleek gero eta baldintza gutxiago jartzen dituzte. Ildo horretatik, lan bila ari direnen, kudeaketak egin dituztenen eta lanerako prest daudenen artean, 2005-2006 aldian, % 32,8tik % 44,3ra handitu zen kalifikazioarekin bat datozen diru-sarrerak eskatu zituztenen kopurua. Adierazlea % 34,8ra iritsi zen 2007an, eta 2009-2011 aldian, jaitsi egin zen (2009an, % 30,1era jaitsi zen; 2010ean, % 18,6ra; eta 2011n, % 12,2ra). Dagokien baino lanbide-kategoria txikiagoa onartuko ez luketen pertsonen dagokienez, % 23,7tik % 32,9ra igo zen proportzioa 2005-2006 aldian, % 26,1era jaitsi zen 2007an; % 24,6ra, 2009an; % 15,6ra, 2010ean; eta % 10,2ra, 2011n. Lanaldi partzial batean hastea onartuko ez luketenei dagokienez, 2005-2006 aldian, proportzioa % 22tik % 32,1era igo zen, eta gero, proportzioak beherako bidea hartu zuen: 2007an, % 25,2ra jaitsi zen; 2009an, % 23,1era; 2010ean, % 16,1era; eta 2011n, % 8,6ra. Bestalde, 2010ean, gora egin zuen bizilekuz aldatzeari uko egin ziotenen proportzioak: 2010ean, lan bila ari zirenen % 66,2k uko egin zion bizilekuz aldatzeari; 2009an, berriz, % 56,6k. 2011n, adierazleak behera egin du zertxobait, 2010eko adierazlearekin alderatuta (2011n, % 64,1ek egin dio uko bizilekuz aldatzeari). 2007ko proportziotik (% 71,8) urrun dagoen arren, 2011ko adierazlea handiagoa da 2005koa (% 61,1) eta 2006koa (% 62,6) baino.

2006tik 2011ra bitarteko bilakaeraren ezaugarri nagusia da itxaropenak murriztu egin behar izan direla. Alde horretatik, langabeek beste inork baino gehiago murriztu behar izan dituzte itxaropenak. 2011n, langabeen % 10,5ek espero du diru-sarrerak kalifikazioarekin bat etortzea; 2006an, berriz, % 37,5ek espero zuen hori. 2011n, langabeen % 8,5ek ez luke onartuko kalifikazioari dagokion kategoria baino beheragoko lanposturik; 2006n, berriz, proportzioa % 24,5 zen. 2011n, langabeen % 7,7k ez luke onartuko lanaldi partzialeko lan bat; 2006an, berriz, proportzioa % 25,4 da. 2011ko zifrak 2005. urteaz geroztiko txikiak dira. 2010etik 2011ra bitartean, beherako joera izan da nagusi. Bizilekuz aldatzeari uko egiten dioten langabeen proportzioari dagokionez, 2005-2007 aldian proportzioak gora egin zuen (2005ean, % 63,5; 2006an, % 64,7; eta 2007an, % 75,8); 2009an, behera egin zuen (% 59,8); 2010ean, gora (% 67,6); eta 2011n, behera (% 65,3). Dena den, 2007ko eta 2010eko proportzioak soilik dira 2011koa baino handiagoak.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu dena, jarduerarekin duen erlazioaren eta zenbait baldintza onartzeko duen prestasunaren arabera. 2011
(% bertikalak)

Baldintzak	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
Baldintza guztiak onartzen ditu	30,0	30,7	26,8	30,6
Ez ditu baldintza guztiak onartzen	70,0	69,3	73,2	69,4
Onartu gabeko baldintzak:				
(Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekuz aldatzea	82,2	94,3	100,0	92,4
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	30,9	15,1	6,4	17,6
Espero baino kategoria apalagoa	27,3	12,3	6,4	14,7
Lanaldi partziala	19,6	11,1	6,4	12,4
Onartu gabeko baldintzak				
(Erreferentziazko taldearen guztizko biztanleria)				
Bizilekuz aldatzea	57,6	65,3	73,2	64,1
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	21,6	10,5	4,7	12,2
Espero baino kategoria apalagoa	19,1	8,5	4,7	10,2
Lanaldi partziala	13,7	7,7	4,7	8,6

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu dena.

Lan batean hasteko onartu ez diren baldintzak. 2001-2011 aldia

(taldearen %)

	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Baldintzak							
Baldintzaren bat	75,0	75,5	79,2	85,5	72,2	74,3	69,4
Bizilekuz aldatzea	57,1	59,8	61,1	71,8	56,6	66,2	64,1
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	33,9	31,1	32,8	34,8	30,1	18,6	12,2
Espero baino kategoría apalagoa	26,7	25,1	23,7	26,1	24,6	15,6	10,2
Lanaldi partziala	21,5	19,9	22,0	25,2	23,1	16,1	8,6

Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Tolosa-Goierri eskualdeetako biztanleek beste eskualdeetako biztanleek baino maizago aipatzen dute aztertutako baldintzaren bat. Zehazki, eskualde horietan lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu direnen % 73 eta % 75 bitartek baldintza horietako bat aipatu du gutxienez. Gasteiz, Eskuinaldea eta Durangaldea eskualdeetan, % 67,9 eta % 70 bitartek aipatu du baldintza horietakoren bat, eta Aiaraldean, % 66,5ek. Bilbon, Debabarrenean eta Debagoienez, proportzioa % 59,4tik % 62,2ra bitartekoa da; eskualde guztietatik txikiena, beraz.

Eskualdeen arteko aldeek, funtsean, bizilekuz aldatzearekin dute zerikusia. Edonola ere, hau aipatu beharra dago: Gasteiz, Aiaraldea, Bilbo, Bizkaia-Kosta, Tolosa-Goierri, Debagoiena eskualdeetan, 2011. urtean aurreko urteetan baino biztanle gutxiago daude prest kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzeko edo/eta espero baino kategoría apalago batean jarduteko. Tolosa-Goierri izan ezik, eskualde horietan beste eskualdeetan baino biztanle gehiagok egiten diote uko lanaldi partzialari. Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierri beste inon baino biztanle gehiagok egin diote uko baldintza horiei; zehazki, eskualde horietan beste inon baino handiagoa da bizilekuz aldatzeari uko egin diotenen kopurua. Arabako bi eskualdeetan, Bilbon eta Debagoienez, lan bila aritu direnen

% 60,5ek baino gutxiagok uko egin dio bizilekuz aldatzeari. EAEko batez bestekoa % 64,1 da.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu dena: baldintza batzuk onartzeko prestasuna, eskualdearen arabera. 2011

(taldearen %)

Eskualdea	Baldintzaren bat	Bizilekuz aldatzea	Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	Espero baino kategoría apalagoa	Lanaldi partziala
Gasteiz	67,9	60,4	22,0	12,3	15,2
Aiaraldea	66,5	59,6	15,5	8,0	15,4
Eskuinaldea	68,5	64,2	8,1	8,0	,0
Bilbo	62,2	59,6	10,2	13,3	12,3
Ezkerraldea	73,0	65,4	11,5	7,2	6,4
Bizkaia-Kosta	74,3	69,1	16,2	13,1	8,4
Durangaldea	70,6	68,8	8,3	3,8	3,6
Donostialdea	74,4	67,4	10,9	10,2	7,2
Tolosa-Goierri	75,0	75,0	14,6	12,1	6,6
Debagoiena	60,1	60,1	16,9	16,9	10,7
Debabarrena	59,4	52,5	8,3	9,1	4,1
Guztira	69,4	64,1	12,2	10,2	8,6

49. Azter ditzagun lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu direnek izan dituzten eragozpen nagusiak. Pertsona horien % 81,6k adierazi du lana lortzeko eragozpen objektiboren bat izan duela 2011n. Proportzio hori % 92,6ra igo zen 2010ean. Hortaz, 2011ko proportzioa bat dator 2005etik 2009ra bitarteko beherako joerarekin (2005ean, proportzioa % 93 izan zen, eta 2009an, % 86,5). Are gehiago, 2011ko proportzioa txikiagoa da 2001ekoa eta 2003koa baino (% 83,5). Bestalde, langabeek eragozpen gutxiago izan dituzte landunek eta ez-aktiboek baino (langabeen % 80,5ek, landunen % 85,4k eta ez-aktiboek % 88,8k adierazi du eragozpenak izan dituela).

Eragozpen nagusiak kalifikazioari buruzko alderdiei dagozkie, eta ikasketa-mailarekin, hizkuntzak jakitearekin eta lan-esperientziarekin lotuta daude. Kolektiboaren % 56,3k aipatu du eragozpen horietakoren bat. Proportzio horrek nabarmen egin du behera: 2010ean, proportzioa % 70,2 zen. Halaber, 2011ko proportzioa txikiagoa da 2007koa (% 59,8) eta 2009koa (% 61,7) baino. 2011n, eragozpen horiek beste kolektiboek baino gehiago eragin diete landunei eta lan bila ari diren biztanle ez-aktiboek (landunen % 61,9ri, ez-aktiboek % 72,4ri eta langabeen % 54,5i eragin die).

Kalifikazioari lotutako eragozpenei dagokienez, aztertutako biztanleriaren % 32,4k aipatu du 2011n heziketa-maila; proportzio hori lan-esperientzia aipatu dutenen proportzioaren (% 28,1) gainetik dago. Edonola ere, proportzio horiek 2009koen antzekoak dira (% 32,6 eta % 28,3), baina 2010ekoak baino txikiagoak (% 40,7 eta % 38,9). Hizkuntzak jakiteari dagokionez, 2011n, proportzioa % 19,5 da. Proportzio hori 2009koa eta 2010ekoa (% 26 inguru) baino nabarmen txikiagoa da.

Lan bila aritu diren biztanle askoz gehiagok aipatu dituzte adinari lotutako eragozpenak, ikasketek eta lan-esperientzia lotutako eragozpenak baino; zehazki, lan bila aritu direnen % 27,7k aipatu ditu adinari lotutako eragozpenak. Proportzio hori 2010ekoa (% 34) baino txikiagoa da, baina 2009koa (% 17,9) baino askoz handiagoa. 2009an amaitu zen, hain zuzen, 2002-2003 aldiaren osteko beherako joera (2002an, proportzioa % 25,5 izan zen, eta 2003an, % 26,5). 2011n, biztanle ez-aktiboek % 18,7k aipatu du adina, eta landunen % 21,2k. Proportzio handiena, % 29,4, langabeei dagokie.

2011n, adinari lotutako eragozpenek eragin handiagoa dute sexuarekin edo familia-kargekin lotutako eragozpenek baino. Kudeaketak egin dituzten enplegu-eskatzaileen % 14,6k aipatu ditu zailtasun horiek. Aztertutako biztanleen % 1,6k soilik adierazi du sexua eragozpen bat dela. Horren kontrara, 2010ean, % 13,1ek adierazi zuen familia-kargak eragozpen bat zirela. 2011n 2009an bezainbeste eragin izan dute sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek (2009an, proportzioa % 14,2 izan zen). 2011ko proportzioa 2007koa (% 19,5) eta 2010ekoa (% 17,9) baino txikiagoa da. Bestalde, 2011n, eragozpen horiek gehiago eragin diete kolektibo batzuei beste batzuei baino: landunen % 16,6ri eragiten die, eta langabeen % 14,3ri eta ez-aktiboek % 11,2ri.

2009an eta 2010ean bezalaxe, 2011n, sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek eragin gutxiago izan dute mugigarritasun geografikoarekin lotutakoek baino. Lana bilatzen eta kudeaketak

egiten aritu direnen % 18,6k aipatu ditu eragozpen horiek. Kasu horretan, zifrak azken hamar urteotako maila handienera iritsi dira. Landunei beste kolektiboetako baino gehiago eragiten diete (landunen % 20,5i eragiten diote, eta langabeen % 18,3ri eta lan bila ari diren biztanle ez-aktiboentzako % 14,5i).

Jatorri geografikoari dagokionez, aztertutako pertsonen % 3,4k aipatu du eragozpen bat dela; proportzio hori 2010ekoa (% 7,2) baino txikiagoa da. Aipatzekoa da 2011ko proportzioak aurreko urteetako gorako bilakaera eten duela: 2001-2003 aldian, proportzioa % 2,5etik % 3ra bitartekoa izan zen; 2005-2006 aldian, % 4 ingurukoa; eta 2007an eta 2009an, % 5,8tik % 6,3ra bitartekoa.

2010ean bezala, 2011n ere soldata-helburuek garrantzia galdu dute eta ez dira eragozpen izan lana bilatzeko. 2011n, lan bila aritu diren biztanleen % 4,8k adierazi du soldata-helburuak ez betetzea eragozpen bat dela lana bilatzeko. 2006an, inoiz baino biztanle gehiagok esan zuten hori (% 19,3). Orduz geroztik, proportzioak etengabe egin du behera (2007an, % 16,2; 2009an, % 12,2; eta 2010ean, % 9,9). 2003-2006 aldian, ordea, proportzioak nabarmen egin zuen gora; 2003ko % 8,3tik gora, hain zuzen.

Bestalde, lan bila aritu direnen % 3,6k adierazi du eragozpen bat dela arazo fisikoak izatea. Proportzio hori bat dator hamarkada honetako proportzioekin. Dena den, 2011ko proportzioa 2009koa (% 2,4) eta 2010ekoa (% 2,7) baino zertxobait handiagoa da.

Eragozpen horiek eskualdearen arabera aztertu ditugu, eta ikusi dugu eragozpen horietako batzuek eragin handiagoa dutela eskualde batzuetan, beste eskualde batzuetan baino. 2011n, hauek dira nabarmendu beharreko alderdi nagusiak:

- * Lan-esperientziari eta kalifikazioari lotutako eragozpenek % 64tik gorako eragin erlatiboa dute Gipuzkoako eskualdeetan. Gasteiz eta Bizkaia-Kosta eskualdeetako proportzioak % 60tik gertu edo hortik daude. Ikasketa-mailak beste inon baino eragin handiagoa du Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena eskualdeetan. Lan-esperientziak, berriz, eragin handiagoa du Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean. Gasteizen beste inon baino eragin handiagoa du hizkuntzak jakiteak.
- * Eskualde hauetako biztanleen % 30ek gutxi gorabehera aipatu ditu adinarekin lotutako eragozpenak: Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea, Donostialdea, Debagoiena eta Tolosa-Goierri. Azken eskualde horretako biztanleen % 53,6k aipatu du adina eragozpen bat dela lana bilatzeko.
- * Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debabarrena eskualdeetan lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen % 20k gutxi gorabehera aipatu ditu sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenak. Tolosa-Goierriko eta Debagoieneko biztanleen % 6 eta % 7 bitartek soilik aipatu ditu sexuarekin lotutako eragozpenak.

- * Durangaldean aztertutako pertsonen % 52,6k aipatu ditu mugigarritasun geografikoarekin lotutako eragozpenak. Bizkaia-Kosta eta Tolosa-Goierri eskualdeetako proportzioak % 25etik gorakoak dira. Gasteiz, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetako proportzioak, berriz, % 20,5etik % 23,1era bitartekoak dira.
- * Soldata-helburuekin lotutako eragozpenen eragina beste inon baino handiagoa da (% 8,2tik % 9,7ra bitartekoa) Debabarrenean eta Tolosa-Goierriin.
- * Jatorrizko herrialdearekin lotutako eragozpenei dagokienez, Gasteiz, Durangaldea, Donostialdea eta Debabarrena eskualdeetako biztanleen % 4,7 eta % 6,8 bitartek aipatu ditu eragozpen horiek. Proportzio horrek nabarmen egin du behera; izan ere, 2010ean, Gasteiz, Eskuinaldea, Bilbo eta Bizkaia-Kosta eskualdeetako biztanleen % 11 eta % 13 bitartek aipatu zituen eragozpen horiek. Arazo fisikoekin lotutako eragozpenei dagokienez, Aiaraldea, Eskuinaldea, Ezkerraldea eta Donostialdea eskualdeetako biztanleen % 4,5 eta % 7 bitartek aipatu ditu. Proportzioa % 7,9 da Debabarrenean, eta % 9,8, Debagoiengan.

**Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria,
jarduerarekiko erlazioaren eta lana lortzeko izandako eragozpenen arabera. 2011**
(taldearen %)

Eragozpenak	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
Ikasketa-maila	30,9	32,0	52,3	32,4
Hizkuntzak	25,1	18,4	16,1	19,5
Lan-esperientzia	32,1	27,0	32,5	28,1
Kalifikazioa/Esperientzia	61,9	54,5	72,4	56,3
Familia-kargak	13,3	13,2	9,0	13,1
Sexua	3,3	1,2	3,0	1,6
Sexua/Familia-kargak	16,6	14,3	11,2	14,6
Soldata-helburuak	9,4	3,7	7,9	4,8
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	20,5	18,3	14,5	18,6
Adina	21,2	29,4	18,7	27,7
Jatorrizko herrialdea	2,7	3,6	,0	3,4
Eragozpen fisikoa	1,9	3,8	7,9	3,6
Eragozpenen bat	85,4	80,5	88,8	81,6

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, lana lortzeko izandako eragozpenen arabera. 2001-2011 aldia
(taldearen %)

Eragozpenak	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Ikasketa-maila	26,8	27,8	33,0	27,7	32,6	40,7	32,4
Hizkuntzak	24,8	18,9	24,5	22,2	25,9	26,1	19,5
Lan-esperientzia	37,1	38,2	38,0	32,3	28,3	38,9	28,1
Kalifikazioa/Esperientzia	63,4	61,4	67,1	59,8	61,7	70,2	56,3
Familia-kargak	9,8	6,6	12,6	16,4	11,5	13,5	13,1
Sexua	5,5	7,8	5,8	4,2	3,0	4,9	1,6
Sexua/Familia-kargak	14,7	14,0	17,6	19,5	14,2	17,9	14,6
Soldata-helburuak	11,4	8,3	15,0	16,2	12,2	9,9	4,8
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	13,9	11,0	14,9	13,8	16,9	18,0	18,6
Adina	18,5	26,5	20,6	21,8	17,9	34,0	27,7
Jatorrizko herrialdea	2,7	2,6	3,8	5,8	6,3	7,2	3,4
Eragozpen fisikoa	2,3	3,2	2,5	2,8	2,4	2,7	3,6
Eragozpenen bat	83,5	83,5	93,0	87,0	86,5	92,6	81,6

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, lana lortzeko izandako eragozpenen eta eskualdearen arabera. 2011
(taldearen %)

Eragozpenak	Gasteiz	Aiaraldea	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia- Kosta	Durungaldea	Donostialdea	Tolosa- Goierri	Deba- goiena	Deba- barrena	Guztira
Ikasketa-maila	27,0	19,6	24,6	32,5	32,1	22,8	27,6	40,9	44,6	39,2	41,1	32,4
Hizkuntzak	31,5	16,1	21,5	11,7	22,1	20,1	11,6	21,1	21,7	23,0	18,7	19,5
Lan-esperientzia	26,5	18,3	34,9	19,6	26,6	34,8	27,4	37,0	30,0	45,5	34,1	28,1
Kalifikazioa/Esperientzia	60,4	45,7	54,7	47,0	55,8	59,2	50,6	64,3	76,7	69,3	70,4	56,3
Familia-kargak	4,8	10,6	19,7	9,4	11,3	17,1	16,0	20,0	24,2	10,4	15,4	13,1
Sexua	1,5	2,8	,0	1,1	1,4	3,9	,9	1,0	6,3	7,0	4,3	1,6
Sexua/Familia-kargak	6,1	11,1	19,7	10,5	12,7	21,0	16,9	20,7	29,1	17,5	19,7	14,6
Soldata-helburuak	6,2	4,4	3,1	4,6	6,5	3,8	3,1	2,2	9,7	3,6	8,2	4,8
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	23,1	6,6	16,4	12,5	13,5	26,8	52,6	16,7	31,1	20,5	22,4	18,6
Adina	14,3	10,0	25,7	23,3	29,7	31,4	36,1	33,0	53,6	30,6	14,2	27,7
Jatorrizko herrialdea	5,0	3,4	3,0	4,0	,8	4,0	4,7	4,8	2,4	,0	6,8	3,4
Eragozpen fisikoa	,9	6,2	4,5	3,0	4,8	1,2	,8	4,7	3,3	9,8	7,9	3,6
Eragozpenen bat	73,7	62,3	77,8	73,5	79,3	91,0	96,5	90,8	94,2	96,6	89,5	81,6

Bestalde, aipatzekoa da 2010etik 2011ra bitartean lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu direnek aurreko urteetan baino eragozpen gutxiago izan dituztela eta eskualde batzuetako biztanleek beste batzuetakoek baino eragozpen gutxiago izan dituztela. Arabako eskualdeetan eta Bilboko eremuko hiru eskualdeetan, eragozpenak izan dituztenen proportzioa EAEko batez bestekotik gertu dago. Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin, proportzioa txikixeagoa da: 3,3 puntutik 4,5 puntura bitarte txikiagoa, hain zuzen. Durangaldean eta Gipuzkoako gainerako eskualdeetan, aldiz, adierazleak gora egin du. Bi eskualde horietan, bai eta Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin ere, enplegu-eskatzailen % 90ek aipatu du eragozpenak dituela. Arabako eta Bilboko eremuko eskualdeetan, ordea, proportzioak txikiagoak dira: % 80ek baino gutxiagok aipatu du eragozpenak dituela.

Kalifikazioarekin eta esperientziarekin lotutako eragozpenak aztertzen baditugu, ikusiko dugu eragozpen horietako bakoitza aldatu egiten dela, biztanleek zer ikasketa-maila duten. Ildo horretatik, behar besteko ikasketa-maila ez izatearekin lotutako eragozpenari dagokionez, eragozpen hori duten pertsona gehienek ez dute bigarren mailako lanbide-ikasketarik edo unibertsitate-ikasketarik (gutzizkoaren % 65,1). Aldiz, hizkuntzei edo behar adinako lan-esperientziarik ez izateari lotutako eragozpenei dagokionez, lanbide-heziketako edo hirugarren mailako ikasketak dituztenek aipatu dute gehienbat eragozpen horiek dituztela (% 57,5 eta % 66,3, hurrenez hurren).

Eragozpen bakoitzak prestakuntza-maila bateko eta besteko taldeetan zer eragin duen aztertzen badugu, ikusiko dugu ikasketa-mailarekin lotutako eragozpenak gehiago eragiten diela prestakuntza-maila txikia duten biztanleei. Alde horretatik, lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen edo ikasketarik gabekoen % 49,8k eta bigarren mailako lanbide-ikasketak dituztenen % 47k aipatu du ikasketa-mailarekin lotutako eragozpenak dituela. Lanbide-heziketako ikasketak dituztenen % 23k aipatu du hori bera, eta unibertsitateko ikasketak dituztenen % 14,9k.

2010 baino lehenagoko norabideari jarraituz, hizkuntzak jakitearekin lotutako eragozpenen eragina zuzenean lotuta dago ikasketa-mailarekin: lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik ez dutenen % 19,1k aipatu ditu halako eragozpenak; bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen % 18,5ek; eta unibertsitateko ikasketak dituztenen % 15,6k. Edonola ere, bigarren mailako lanbide-ikasketak dituztenei beste inori baino gehiago eragiten die: % 22,9k aipatu du halako eragozpenak dituela.

Lan-esperientziaren eragozpenari dagokionez, zenbat eta prestakuntza-maila handiagoa izan, hainbat eta eragozpen gutxiago dituzte enplegu-eskatzailleek. Eragozpen horrek beste lan bat bilatzen ari diren unibertsitateko tituludunen % 40ri eragiten dio; bigarren mailako ikasketak dituztenen % 30i; eta gehienez ere lehen mailako ikasketak dituztenen % 17,1i.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, kualifikazioari/esperientziari lotutako eragozpenak izan dituela adierazi duena, eragozpen motaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2011
(% bertikalak eta erreferentziazko biztanleriaren gaineko %-a)

Eragozpen mota eta ikasketa-maila	% ber.	erreferentziazko biztanleriaren %-a (1)
Ikasketa-maila		
Lehen mailakoak	43,4	49,8
Bigarren mailakoak	22,5	47,0
Lanbide-ikasketak	23,6	23,0
Unibertsitate-ikasketak	10,5	14,9
Guztira	100,0	32,4
Hizkuntza-maila		
Lehen mailakoak	27,7	19,1
Bigarren mailakoak	14,8	18,5
Lanbide-ikasketak	39,2	22,9
Unibertsitate-ikasketak	18,4	15,6
Guztira	100,0	19,5
Lan-esperientzia		
Lehen mailakoak	17,2	17,1
Bigarren mailakoak	16,5	29,9
Lanbide-ikasketak	33,6	28,3
Unibertsitate-ikasketak	32,6	40,0
Guztira	100,0	28,1
Kalifikazioa/Esperientzia		
Lehen mailakoak	29,9	59,6
Bigarren mailakoak	17,3	62,9
Lanbide-ikasketak	31,0	52,3
Unibertsitate-ikasketak	21,8	53,5
Guztira	100,0	56,3

(1) Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a, ikasketa-maila bakoitzaren arabera.

Sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek gehienbat emakumeei eragiten diete. Lana bilatzean sexuarekin lotutako eragozpenak izan dituzten kasuen % 82,4 eta familia-kargekin zerikusia duten kasuen % 66,6 lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren emakumeei dagokie. Dena den, azken urteetan, familia-kargei lotutako eragozpenek gero eta gehiago eragiten diete gizonei (2007an, biztanleriaren % 16,5ek zituen halako eragozpenak; 2011n, lan bila dauden gizonen artean, % 6,3tik % 8,3ra igo da halako eragozpenen eraginpean daudenen proportzioa). Edonola ere, erreferentziazko proportzioak 2010ekoak (% 36,7 eta % 9,2) baino txikiagoak dira.

Eraginpeko biztanleria gutxiengoa da kasu guztietan. Nolanahi ere, lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren emakumeen artean familia-kargak duten eragina da daturik deigarriena orain ere: emakume horien % 18,9k gaur egun adierazi du familia-kargak eragotzi egiten diela lana bilatzen. 2007an, baina, % 23,9k adierazi zuen hori bera. Urte hartan, enplegu-eskatzailen zifrek behera egin zuten. 2011ko proportzioa handiagoa da urte hauetakoa baino: 2009 (% 16,9), 2010 (% 18,5), 2005 (% 17,9) eta 2006 (% 15,6). Halaber, proportzio hori handiagoa da mendearen hasierakoa baino (2001ean, % 13,2 izan zen, eta 2003an, hamarkadako txikiena: % 9,1). 2009tik 2010era bitartean, % 6,2tik % 9ra igo zen generoa edo sexua beste okupazio bat lortzeko eragozpenentzat hartzen duten emakumeen proportzioa. 2011n, ordea, eten egin da gorako joera hori: proportzioa % 2,9 da. Hortaz, 2011ko proportzioa bat dator 2003-2009 aldian izandako beherako joerarekin (2003an, % 12,8; 2005ean, % 10,5; eta 2009an, % 6,2).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, generoari lotutako eragozpenak izan dituela adierazi duena, eragozpen motaren eta sexuaren arabera. 2011

(% bertikalak eta erreferentziazko biztanleriaren gaineko %-a)

Eragozpen mota eta sexua		% ber.	erreferentziazko biztanleriaren %-a (1)
Sexua	Gizonak	17,6	,5
	Emakumeak	82,4	2,9
	Guztira	100	1,6
Familia-kargak	Gizonak	34,8	8,3
	Emakumeak	65,2	18,9
	Guztira	100	13,1
Bata edo bestea	Gizonak	33,2	8,8
	Emakumeak	66,8	21,6
	Guztira	100	14,6

(1) Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a, talde bakoitzaren arabera.

Oro har, lana bilatzen eta beste okupazio bat lortzeko kudeaketak egiten aritu diren emakumeen % 21,6k aipatu du sexuari edo familia-kargak izateari lotutako eragozpenen bat izan duela lana bilatzean 2011n. Gizon baino emakume askoz gehiagok aipatu dute halako eragozpenen bat (gizonen % 8,8k). Emakumeen kasuan, 2011ko proportzioa txikiagoa da 2010ekoa (% 26,6) baino. Alde horretatik, 2011ko proportzioa 2009koaren (% 22,4) antzekoa da, bai eta langabezia handia izan zeneko urteetako proportzioen antzekoa ere (2001-2003 aldian, % 19,4tik % 21,4ra bitartekoa izan zen proportzioa).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren emakumeen kolektiboari dagokionez, etxean 12 urtera bitarteko adingabeak bizitzeak eragin handia du oraindik ere. Sexuarekin eta familia-kargekin lotutako enplegurako eragozpenak aipatzen dituzten emakumeen proportzioa batez bestekoaren azpitik dago 2011n adin horretako seme-alabak ez dituztenen artean, ezkondata dauden edo ez kontuan hartu gabe (% 14,4 eta % 7, hurrenez hurren). Aldiz, adierazitako eragozpenek beren kargura seme-alabak dituzten emakume ezkonduen % 63ri eragiten diote, eta egoera horretan dauden ezkongabeen % 38,2ri. Proportzio horiek handiagoak dira 2010ekoak (% 59,2 eta % 49) baino. Hortaz, nahiz eta sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek, oro har, behera egin duten, beherakada hori seme edo alabarik gabeko emakumeei soilik dagokie.

12 urtetik beherako seme edo alabaren bat edukitzea, hortaz, funtsezko elementu bat da; izan ere, emakumeen artean sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek zer eragin duten jakiteko balio du. Dena den, ezkondata egoteak ere familia eta lana uztartzea zailtzen du. Horiek horrela, genero-eragozpenek askoz gehiago eragiten diete emakume ezkonduari (12 urtetik beherako adingaberik ez duten emakume ezkonduen % 14,4ri eta ezkongabeen % 7ri eragiten diote, eta 12 urtetik beherako adingabeak dituzten emakume ezkonduen % 63ri eta ezkongabeen % 55,8ri).

Langabezia-maila handiko aldiak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu, 2010era arte, hizpide ditugun eragozpenek gero eta emakume ezkondu gehiagori —seme-alabak dituztenei nahiz ez dituztenei— eragin dietela. Sexua edo familia-kargak direla-eta lana bilatzeko eragozpenak izaten dituzten emakumeen proportzioak gora egin zuen. 2010eko proportzioa bat zetorren 2001-2003 aldikoarekin (% 15), bai eta 2009koarekin (% 18,6) eta 2010ekoarekin (% 26,1) ere. 2011n, ordea, proportzioak behera egin du (% 14,4).

Bestalde, 2009an eta 2010ean bezala, 12 urtetik beherako seme edo alaba bat izateak nabarmen aldatzen ditu hizpide ditugun eragozpenen proportzioak. Alde horretatik, sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenek gehiago eragiten diete bi seme-alaba edo gehiago dituzten emakume ezkonduari (bi seme-alaba edo gehiago dituztenen % 78,8ri eragiten diote, eta seme edo alaba bakarra dutenen % 48,5i). Bi seme-alabaz edo gehiagoratu behar dutenez, gero eta emakume gehiagok dituzte aipatu ditugun eragozpenak: 2001an, % 52,9k zituen eragozpenak; 2009an, % 61,8k; 2010ean, % 78,8k; eta 2011n, % 78,8k. Edonola ere, 2011n, alde handiak daude emakume ezkongabeen artean, zenbat seme-alaba dituzten (seme edo alaba bat dutenen % 50,3k eragozpenak ditu, eta bi seme-alaba edo gehiago dituztenen % 72,8k; zifra horiek 2009-2010 aldiko zifrak baino askoz handiagoak dira; 2009-2010 aldiko zifrak % 50 inguru ziren).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren 16-64 urteko emakumeak, sexuarekin eta familia-kargekin lotutako arazoak izan dituztela adierazi dutenak, egoera zibilaren eta 23 urte bitarteko seme-alaba kopuruaren arabera. 2011
(% bertikalak eta erreferentziazko biztanleriaren gaineko %-a)

Egoera zibila eta seme-alaba kopurua	% ber.	erreferentziazko biztanleriaren %-a (1)
Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak	15,4	14,4
Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak	17,3	7,0
Seme-alabadun emakume ezkonduak	48,7	63,0
<i>Seme bat edo alaba bat</i>	19,5	48,5
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	29,2	78,8
Seme-alabadun emakume ezkongabeak	18,6	55,8
<i>Seme bat edo alaba bat</i>	12,7	50,3
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	5,9	72,8
Guztira	100	21,6

(1) Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a, talde bakoitzaren arabera.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren 16-64 urteko emakumeak.

2001-2011 aldia

(Lana bilatzean, sexuarekin eta familia-kargekin lotutako eragozpenak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera, egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren arabera)

Egoera zibila eta seme-alaba kopurua	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak	15,2	14,6	26,6	19,8	18,6	26,1	14,4
Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak	12,1	17,4	13,7	10,9	10,8	12,9	7,0
Seme-alabadun emakume ezkonduak	53,8	51,8	53,5	62,4	52,3	59,2	63,0
<i>Seme bat edo alaba bat</i>	<i>54,4</i>	<i>46,5</i>	<i>54,1</i>	<i>64,4</i>	<i>46,9</i>	<i>48,0</i>	<i>48,5</i>
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	<i>52,9</i>	<i>64,5</i>	<i>52,8</i>	<i>58,5</i>	<i>61,8</i>	<i>73,0</i>	<i>78,8</i>
Seme-alabadun emakume ezkongabeak	39,8	39,5	52,0	49,9	38,2	49,0	55,8
<i>Seme bat edo alaba bat</i>	<i>40,5</i>	<i>39,1</i>	<i>53,7</i>	<i>50,1</i>	<i>32,5</i>	<i>48,5</i>	<i>50,3</i>
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	<i>37,3</i>	<i>43,9</i>	<i>45,7</i>	<i>49,6</i>	<i>50,2</i>	<i>49,7</i>	<i>72,8</i>
Guztira	21,1	21,4	26,7	29,0	22,4	26,6	21,6

Adinari dagokionez, adina enplegurako eragozpen bat dela adierazten duten enplegu-eskatzaileen % 75,4k 40 urte edo gehiago ditu, baina gehienbat 40-54 urtekoek dute arazo hori (kasuen % 69,8). Adin horretako enplegu-eskatzaileen artean beste adin-tarteetakoen artean baino pertsona gehiagok aipatu dute adina eragozpen bat dela lana bilatzeko. Adinaren arabera, 25-34 urtekoen % 5,5 eta % 6,9 bitartek aipatu du eragozpen hori. Zenbat eta adinean gorago, hainbat eta pertsona gehiagok aipatzen dute eragozpen hori: 35-39 urtekoen % 14,2k aipatzen du, 40-44 urtekoen % 27,5ek, eta 45-49 urtekoen % 52,6k. 45 urtetik gora, adina eragozpen bihurtzen da lana lortzeko, eta beste lan baten bila eta kudeaketak egiten ari diren gehienei eragiten die.

Nolanahi ere, 2011n, 2010. urtean hasitako joerari jarraituz, 25 urtetik beherako kopuru handi samar batek aipatu du adina eragozpen bat dela lana lortzeko (16-19 urtekoen % 23,8k aipatu du hori, eta 20-24 urtekoen % 20,3k). Nahiz eta 2011ko proportzioak 2010ekoak baino txikiagoak izan (16-19 urtekoen % 35,5, eta 20-24 urtekoen % 30,5), 2009koak baino askoz handiagoak dira (% 7,6 eta % 8,1).

2009tik 2010era gora egin bazuen ere, adina lana bilatzeko eragozpenentzat hartzen dutenen proportzioek behera egin dute 2010etik 2011ra bitartean adin-talde guztietan. Azken biurtekoa bat dator 2007tik 2009ra bitartean izandako beherako joerarekin. Dena den, adina eragozpenentzat hartzen dutenen proportzioa handiagoa da 2011n, 2007an baino (2007an, % 21,8, eta 2011n, berriz, % 27,7). 2011n, 35 urtetik beherako proportzioak egin du gora; batez ere, 20-24 urtekoen proportzioak (% 8tik % 20,3ra hazi da). 35-54 urtekoen eta 60-64 urtekoen proportzioak behera egin du. 55-59 urtekoen proportzioak, berriz, gora egin du (2007an, proportzioa % 74,7 izan zen, eta 2011n, berriz, % 85,7).

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria, adinari lotutako eragozpenak izan dituela adierazi duena, adinaren arabera. 2011

(% bertikalak eta erreferentziazko biztanleriaren gaineko %-a)

Adina	% ber.	erreferentziazko biztanleriaren %-a (1)
16-19	1,0	23,8
20-24	8,7	20,3
25-29	3,3	5,5
30-34	4,5	6,9
35-39	7,1	14,2
40-44	12,3	27,5
45-49	17,1	52,6
50-54	24,7	68,1
55-59	15,8	85,7
60-64	5,6	75,1
Guztira	100	27,7

(1) Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a, talde bakoitzaren arabera.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria.

2001-2011 aldia

(Lana bilatzean, adinarekin lotutako eragozpenak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera)

Adina	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
16-19	13,1	10,0	23,4	21,6	7,6	35,5	23,8
20-24	2,5	13,4	7,6	8,0	8,1	30,5	20,3
25-29	3,0	11,0	4,2	2,8	3,3	15,3	5,5
30-34	10,6	12,3	8,0	5,5	3,3	13,6	6,9
35-39	19,8	29,6	20,6	17,5	11,4	18,0	14,2
40-44	36,1	51,4	29,2	45,5	27,5	39,2	27,5
45-49	60,0	63,6	55,0	56,1	42,6	54,4	52,6
50-54	72,5	82,0	73,2	77,3	51,9	73,2	68,1
55-59	80,2	91,9	86,3	74,7	69,4	87,2	85,7
60-64	95,7	23,5	69,3	79,3	82,9	94,0	75,1
Guztira	18,5	26,5	20,6	21,8	17,9	34,0	27,7

Nazionalitate batekoa edo bestekoa izateak lana bilatzean eragiten dituen eragozpenei dagokienez, faktore horrekin lotutako eragozpenak aipatzen dituztenen % 68,9 Europar Batasunetik kanpokoa da; % 26,8, Europar Batasuneko beste estatu batzuetakoa, eta gainerako % 3,4a, espainiar nazionalitatekoa.

Lan bila eta lana lortzeko kudeaketak egiten aritu eta Europar Batasuneko estaturen batekoak ez direnen % 32,9k aipatu du jatorriarekin loturiko eragozpenen bat izan duela lan-munduan sartzeko. Proporzioak behera egin zuen 2001-2003 aldian (% 59,3tik % 57,9ra), 2005ean (% 51,9) eta 2007an (% 35,7). 2007tik 2010era bitartean, ordea, gora egin zuen, harik eta 2010ean % 50,8ra iritsi arte. 2010etik 2011ra bitartean, beherako joera izan da nagusi. 2011n, izan da proportziorik txikiena (% 32,9).

Alde handia dago bilakaera horren eta Europar Batasuneko biztanle atzeritarrek izandako bilakaeraren artean. 2011n, pertsona horien % 60,7k aipatu du faktore hori eragozpen bat dela lana bilatzeko. Proporzio hori askoz handiagoa da 2005-2010 aldikoak (% 37,4tik % 38,8ra bitarte) eta 2009koa (% 31,6) baino.

Bestalde, Estatuko herritartasuna izan eta EAEn lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren pertsonen % 0,2k baino ez ditu aipatu jatorriarekin lotutako eragozpenak.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten ari den 16-64 urteko biztanleria, jatorriarekin lotutako eragozpenak izan dituen, nazionalitatearen arabera. 2011
(% bertikalak eta erreferentziazko biztanleriaren gaineko %-a)

Nazionalitatea	% ber.	erreferentziazko biztanleriaren %-a (1)
Espainiakoa	4,2	,2
EBko beste herrialderen batekoa	26,8	60,7
EBkoa ez den beste herrialderen batekoa	68,9	32,9
Guztira	100	3,4

(1) Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a, talde bakoitzaren arabera.

Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu den 16-64 urteko biztanleria.
2001-2011 aldia

(Lana bilatzean, jatorrizko herrialdearekin lotutako eragozpenak dituela adierazi dutenen ehunekoaren bilakaera, nazionalitatearen arabera)

Nazionalitatea	2001	2003	2005	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	1,1	,8	,9	,7	,3	,7	,2
EBko beste herrialderen batekoa	14,7	67,3	9,9	38,8	31,6	37,4	60,7
EBkoa ez den beste herrialderen batekoa	57,9	59,3	51,9	35,7	43,3	50,8	32,9
Guztira	2,7	2,6	3,8	5,8	6,3	7,2	3,4

8. Atzerritarrak

Zaila da EAEn bizi diren 16-64 urteko atzerritarren jarraipena behar bezala egitea; bereziki, kolektibo horretara bideratuta ez dauden estatistika-lanetan. Izan ere, talde hori maiz aldatzen da bizilekuz, eta oso zaila izaten da erregistro administratiboen bidez (esaterako, eroldaren bidez) azterketak egitea. Horretaz gainera, batzuetan, egoera instituzionalean dauden pertsonen edo pasadizokoen kolektiboaren berezko ezaugarriak ere hartzen ditu talde horrek. Bestalde, herritartasun berria nahiko erraz lortzen dute sarritan, bai ezkontuta, bai naturalizazio-prozesuen bidez. Migrazio-dinamikek ere eragina dute atzerritarrekin lotutako arazoetan; esate baterako: aurreko hamarkadaren amaieran, atzerritar asko jatorrizko herrialdera itzuli ziren, ekonomia-krisiak bultzatuta. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartuta, jarraian EAeko 16-64 urteko atzerritarrei buruzko zenbatekoak aurkeztuko ditugu. Zenbateko horiek kontu handiz aztertu beharrekoak dira. Atzerritarren kolektiboa garrantzitsua denez, egoki iruditu zaigu jarduerarekin zer erlazio duten aztertzea, azaletik bada ere.

50. Krisiak eraginda, 2007tik 2009ra bitartean, gora egin zuten nazionalitate bateko zein besteko taldeen jarduera-tasek; gorakada hori nabarmena izan zen atzerritarren taldean. 2009-2011 aldian, EAeko biztanleriak goranzko ildoari eutsi dio: jarduera-tasa % 71,2tik % 72,1era igo da. Atzerriko biztanleriaren jarduera-tasak, aldiz, behera egin du (EBko herrialdeetako pertsonen kasuan, % 86,5etik % 79,9ra jaitsi da, eta munduko beste herrialdeetako pertsonen kasuan, % 74,1etik % 70,6ra). Horren ondorioz, EBtik kanpoko herrialdeetako atzerritarrek 2011n izan duten jarduera-tasa 2007koaren antzekoa da, eta biztanle nazionalen tasa (% 72,1) baino 1,5 puntu baxuagoa. 2011n, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen jarduera-tasa soilik da biztanle nazionalen jarduera-tasa baino altuagoa. 2011n, 2007an baino 7,8 puntu altuagoa izan da EBko beste herrialde batzuetako biztanleen jarduera-tasa (biztanle nazionalen jarduera-tasa 1,9 puntu altuagoa izan da, eta EBtik kanpoko herrialdeetako atzerritarren jarduera-tasa, 0,4 puntu altuagoa).

Biztanleria aktiboaren bilakaeraz ari garela, aipatzekoa da krisiaren ondorioz langabeziak gora egin duela eta gorakada horrek beste inori baino gehiago eragin diela atzerriko biztanleei; batez ere, EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoei. Talde horretan, langabezia-tasa % 8,8tik % 24,1era igo da 2007tik 2011ra bitartean; 15,3 puntu gora, beraz. 2009-2011n aldian jarduera-tasak behera egin du, eta aldi berean, langabezia-tasak ere behera egin du 2009. urteaz geroztik: urte hartan, inoizko altuena izan zen (% 27).

Horren kontrara, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen egoerak okerrera egin du 2010-2011 aldian. 2007an, langabezia-tasa % 8 zen; gainerako atzerritarren tasaren antzekoa, beraz. EBko beste herrialdeetako atzerritarren langabezia-tasa gainerako atzerritarrena baino motelxeago hazi zen, harik eta 2009an % 15,8era iritsi zen arte. Proporzio hori ez zen aldatu 2010ean. 2009. urteaz geroztik jarduera-tasa etengabe jaitsi da, eta langabezia-tasa igo egin da 2010. urteaz geroztik: 2011ko langabezia-tasa % 20,4 izan zen, 2007koa baino 7,8 puntu altuagoa. Biztanle nazionalen

langabezia-tasa, berriz, 7,8 puntu igo da; 2007tik 2011ra bitartean, etengabe hazi da (2007an, % 2,9 izan zen, eta 2011n, % 10,7).

2009tik 2011ra bitartean, atzeritarren langabezia-tasek gora egin dute, eta jarduera-tasek, behera. Hori dela eta, 16-64 urtekoen okupazio-koefizienteen bilakaerari erreparatzen badigu, ikusiko dugu azken urteetako dinamika ekonomikoa oso negatiboa dela oro har. EBko beste herrialde batzuetako atzeritarrei dagokienez, okupazio-koefizienteak nabarmen egin zuen gora 2007-2009 aldian. 2009tik 2010era bitartean, langabezia-tasa bere horretan gelditu zen, baina okupazio-koefizienteak behera egin zuen (2009an, % 72,8 zen; 2010ean, ordea, % 70,3). 2010etik 2011ra bitartean ere, behera egin zuen: 2011n, % 63,6 izan da. Proportzio hori 2007koa (% 66,3) baino 2,7 puntu txikiagoa da, eta 2006koa (% 75) baino 11,4 puntu txikiagoa. 2006an, atzerriko biztanleen kolektibo guztiek inoizko okupazio-tasarik handiena izan zuten.

EBtik kanpoko biztanleen kolektiboek dagokienez, koefizienteak etengabe eta nabarmen egin zuten behera 2010. urtera arte: 2006an, koefizientea % 67,2 izan zen; 2007an, % 64; 2009an, % 54,1; eta 2010ean, % 52,8. 2010etik 2011ra bitartean, kolektibo horren langabezia-tasak behera egin du, eta okupazio-koefizienteak gora (% 53,6). 2009tik 2011ra bitartean okupazioa zertxobait egonkortu dela irudi dakigukeen arren, proportzioak 2007koak (% 64) eta 2006koak (% 67,2) baino txikiagoak dira¹⁷.

Biztanle nazionalen okupazio-koefizienteak ere behera egin du: 2007an izan zuen maila handiena (% 68,2), eta gero, behera egin du (2009an, % 65,6, eta 2011n, % 64,4). 2009tik 2010era bitartean, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen okupazio-koefizientea biztanle nazionalena baino handiagoa izan zen. 2011n, 2007an bezala, biztanle nazionalen okupazio-koefizientea atzerriko kolektiboena baino handiagoa izan da (biztanle nazionalen okupazio-koefizientea % 64,4 da; EBko beste herrialde batzuetakoena, % 63,6; eta EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleena, % 53,6). 2006tik 2011ra bitartean, atzerriko biztanleen okupazio-koefizienteak 10 puntu baino gehiago egin du behera, eta biztanle nazionalen okupazio-koefizienteak, aldiz, 3,2 puntu.

¹⁷ Nolabait ere, EBtik kanpoko atzeritarren okupazioaren bilakaera negatiboa, hein batean, 2005-2006 aldian hasi zen. Alde horretatik, aldi horretan, kolektiboaren okupazio-koefizientea egonkortu egin zen: hiru hamarren eskas baino ez zen hazi. Biztanleria nazionalari dagokionez, koefizientea 1,5 puntu hazi zen, eta EBko beste herrialde batetik etorritakoen kasuan, 4,8 puntu. EBtik kanpoko herrialde batetik etorritako biztanleen okupazio-tasak beste taldeenak baino bilakaera negatiboagoa izan du; horretaz konturatzeko, EAEn batez besteko zifren aldean zer bilakaera izan duen ikusi besterik ez dugu egin behar. Horiek horrela, aztertutako biztanleriaren okupazio-koefizientea EAEkoa baino 0,7 puntu altuagoa izan zen 2005ean, eta 0,4 puntu baxuagoa, 2006an. EAEko batez besteko koefizientearekiko distantzia 4,1 puntu hazi zen 2007an; 11,2 puntu, 2009an; eta 11,8 puntu, 2010ean. 2010-2011 aldiko hobekuntza dela eta, diferentziala ez da 10,5 puntu negatibo baino handiagoa.

16-64 urteko biztanleriaren oinarrizko okupazio-adierazleak, nazionalitatearen arabera.
2005-2011 aldia
 (%-tan)

Nazionalitatea	Jarduera-tasa					
	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	69,4	69,9	70,3	71,2	71,7	72,1
EBko beste herrialderen batekoa	81,6	79,0	72,1	86,5	83,5	79,9
Beste bat	75,9	73,7	70,2	74,1	71,6	70,6
Guztira	69,6	70,0	70,3	71,5	71,8	72,2
Nazionalitatea	Langabezia-tasa					
	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	4,7	3,2	2,9	7,8	9,2	10,7
EBko beste herrialderen batekoa	13,9	5,1	8,1	15,8	15,8	20,4
Beste bat	11,9	8,8	8,8	27,0	26,3	24,1
Guztira	4,9	3,4	3,1	8,7	10,0	11,2
Nazionalitatea	Okupazio-koefizientea					
	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	66,1	67,6	68,2	65,6	65,1	64,4
EBko beste herrialderen batekoa	70,2	75,0	66,3	72,8	70,3	63,6
Beste bat	66,9	67,2	64,0	54,1	52,8	53,6
Guztira	66,1	67,6	68,1	65,2	64,6	64,1

51. Beste adierazle batzuek erakusten dutenez, atzerriko biztanleek, batez ere, EBtik kanpoko herrialdeetakoek, Estatukoek baino ezegonkortasun handiagoa dute; besteak beste, Estatukoek baino langabezia-tasa handiagoak dituzte. Hiru alderdi hauek aipatu beharrekoak dira:

* Alde batetik, aukera gutxiago dute urte osoan okupatuta egoteko: EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen kasuan, % 39,8 egon da okupatuta urte osoan; EBko beste herrialde batzuetako biztanleen eta biztanle nazionalen kasuan, aldiz, % 58 eta % 59 bitarte¹⁸.

* Bestetik, lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren proportzioa askoz handiagoa da: EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen % 28,7 dago lanerako prest, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen % 22,4 eta biztanle nazionalen % 11,8. Norabideari eta esanahiari dagokionez, proportzio horiek bat datoz, hein handi batean behintzat, lan bila eta azken lau aste hauetan kudeaketak egiten aritu den biztanleriaren proportzioekin (erreferentziako taldeetako 16-64 urteko biztanleriaren % 22,5, % 17,7 eta % 9,6)¹⁹.

¹⁸ Aipatzekoa da, adierazle horri dagokionez, biztanle nazionalen besteak baino bilakaera negatiboagoa izan dutela: okupazio jarraitua izan dutenen proportzioak etengabe egin du behera (2007an, % 61,5, eta 2011n, % 58). Horren kontrara, EBko beste herrialde batzuetako atzeritarren kasuan, adierazleak gora egin du etengabe 2007-2011 aldian (% 46,9tik % 58,7ra), harik eta 2011n biztanleria nazionalaren proportzioa gaintu duen arte (lehenengo aldia da hori gertatzen dela). 2007-2011 aldian, EBtik kanpoko atzeritarren eta biztanle nazionalen adierazleak behera egin dute. Dena den, EBtik kanpoko atzeritarren kasuan, okupazio jarraituaren adierazlea % 35,7tik % 39,8ra igo da 2010etik 2011ra bitartean.

¹⁹ Aipatzeko da, dena den, EBtik kanpoko atzeritarren kasuan soilik murriztu dela aztertutako adierazleen eragina 2010tik 2011ra bitartean.

* Amaitzeko, 16-64 urteko soldatapekoek beste inork baino aldi baterako kontratu eta kontraturik gabeko lan gehiago dituzte. 2011n, baldintza horietan lan egin du biztanle nazionalen % 20,8k, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen % 27,9k eta EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen % 55,3k. Kontraturik gabeko soldatapekoei dagokienez, biztanle nazionalen % 1,7 dago egoera horretan, EBko beste herrialde batzuetako biztanleen % 5,8, eta EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen % 17,9.

16-64 urteko biztanleriaren beste okupazio-adierazle batzuk, nazionalitatearen arabera.
2005-2011 aldia
 (%-tan)

Okupazio jarraitua duen biztanleriaren %-a						
Nazionalitatea	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	58,1	59,1	61,5	60,1	58,4	58,0
EBko beste herrialderen batekoa	56,6	53,0	46,9	54,1	55,9	58,7
Beste bat	40,5	40,9	45,2	41,9	35,7	39,8
Guztira	57,8	58,6	60,9	59,4	57,5	57,4
Prestasun-tasa: lanerako prest dagoen biztanleriaren %-a						
Nazionalitatea	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	7,8	5,6	4,4	9,2	10,7	11,8
EBko beste herrialderen batekoa	18,2	10,9	10,2	20,0	17,5	22,4
Beste bat	21,4	21,4	21,7	32,0	34,4	28,7
Guztira	8,1	6,0	5,0	10,2	11,7	12,4
Lana bilatzen eta kudeaketak egiten aritu diren biztanleen %-a						
Nazionalitatea	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Espainiakoa	5,4	4,3	3,5	8,4	8,3	9,6
EBko beste herrialderen batekoa	13,5	7,6	8,6	17,4	16,5	17,7
Beste bat	16,1	14,7	16,2	30,2	26,1	22,5
Guztira	5,6	4,6	3,9	9,4	9,1	10,1

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta kontratu motaren arabera. 2011
 (% bertikalak)

Mota	Espainiakoa	EBko beste herrialderen batekoa	EBtik kanpoko beste herrialderen batekoa	Guztira
Mugagabea	79,2	72,1	44,7	78,3
Aldi baterakoa	19,1	22,1	37,4	19,6
Kontraturik gabe	1,7	5,8	17,9	2,1

Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapeko landunen proportzioa, nazionalitatearen arabera.

2005-2011 aldia
 (taldearen %)

Urtea	Espainiakoa	EBko beste herrialderen batekoa	EBtik kanpoko beste herrialderen batekoa
2005	25,3	37,8	56,2
2006	21,7	25,7	54,0
2007	24,1	48,5	60,5
2009	17,6	41,6	47,7
2010	20,2	44,0	53,0
2011	20,8	27,9	55,3

2010. urtera arte, kolektiboen arteko aldeek, hein handi batean, lan-baimena lortzeko oztopoarekin zerikusia zuten. 16-64 urteko atzerriko biztanle aktiboen % 17,1ek ez zuen lan-baimenik (EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen % 20,1 zegoen egoera horretan). Antzaenez, krisiaren azken fasean, egoera irregularrean zeuden biztanle asko EAetik irten dira. Hori dela eta, hizpide ditugun proportzioak jaitsi egin dira 2011n (% 7,6 eta % 9,8).

**Lan-baimenik ez duten 14-64 urteko biztanle atzerritarrak,
jarduerarekiko erlazioaren eta nazionalitatearen arabera. 2011**
(%-tan)

Nazionalitatea	Jarduerarekiko erlazioa		
	Landuna	Langabea	Guztira
EBko beste herrialderen batekoa	,6	,0	,5
EBtik kanpoko beste herrialderen batekoa	6,5	20,2	9,8
Guztira	5,1	16,1	7,6

Amaitzeko, aipa dezagun kontratu bat eskuratu ahal izatea oso garrantzitsua dela; zehazki, beste lan baten bila dabiltzan landunentzat, oso garrantzitsua da delako lan horretan kontratu bat eskuratu ahal izatea. EBko beste herrialdeetako biztanle landunen % 3,8tik % 5,8ra bitarte eta EBtik kanpoko herrialdeetako biztanle landunen % 13,1 beste lan baten bila ari da. EBtik kanpoko biztanleen kasuan, erreferentziazko proportzioak gora egin zuen etengabe 2005etik 2010era bitartean (% 12,9tik % 19,4ra); 2010-2011 aldian, ordea, behera egin zuen nabarmen. EBko biztanleen kasuan, proportzio horrek gora egin zuen 2010-2011 aldian.

Lana bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen arabera.
2005-2011 aldia
(lana bilatzen ari direnak %-tan)

Urtea	Espainiakoa	EBko beste herrialderen batekoa	EBtik kanpoko beste herrialderen batekoa
2005	4,3	4,8	12,9
2006	3,9	4,0	13,7
2007	2,5	6,9	16,8
2009	4,0	3,8	18,1
2010	3,4	3,1	19,4
2011	3,8	5,8	13,1

52. Langabe atzerritarren (biztanleria aktibo guztiaren % 23,3) ezaugarri batzuk zehaztasunez aztertzen baditugu, ikusiko dugu emakume baino gizon langabe gehiago daudela. Atzerritar langabeen artean, gizonen proportzioa % 56,9 zen 2006an; % 63,5, 2009an; % 65,4, 2010ean; eta % 71,1, 2011n. Gogora dezagun proportzio hori % 22,1 izan zela 2007an.

Deskribatutako egoerak erakusten duenez, krisialdian, atzerriko gizonen langabezia-tasek goranzko joera handia izan dute. 2005tik 2007ra bitartean, kolektibo horren langabezia-tasak etengabe egin zuen behera (% 15,2tik % 3,8ra), baina krisiaren eraginez, langabezia-tasak gora egin du 2009tik 2011ra bitartean (% 27,9tik % 31,6ra). 2011ko tasa Estatuko herritartasuna duten gizonena (% 10,7) baino hiru aldiz handiagoa da.

Atzerriko emakumeen langabezia-tasaren bilakaera hobeia izan da. 2005etik 2006ra bitartean, atzerriko emakumeen langabezia-tasa % 9,2tik % 7,2ra jaitsi zen; 2007an, % 13,8ra igo zen, eta 2009an, % 20ra; 2010ean, berriz, % 17,7ra jaitsi zen, eta 2011n, % 14,1era. Hortaz, 2011n, atzerriko emakumeen langabezia-tasa atzerriko gizonena baino 17,5 puntu txikiagoa izan da. Bilakaera hori da, hain zuzen ere, EAEn langabeziak izan duen dinamikaren alderdi positiboena 2009-2011 aldian; nolahi ere, atzerriko emakumeen langabezia-tasa (% 10,7) Estatuko herritartasuna duten emakumeena baino 3,4 puntu altuagoa da.

Azter dezagun langabezia-tasaren bilakaera 2006-2011 aldian, adinaren arabera. Azken urteetan, langabezia-tasek gora egin dute. 2011n, 35 urtetik beherakoen tasak eta 45 urtetik gorakoena % 17,6tik % 23,2ra bitartekoak izan dira. Nolanahi ere, langabeziak modu jakin batera egin du gora adin-tarte bakoitzean. 25 urtetik beherakoei dagokienez, 2006tik 2007ra bitartean gertatu zen gorakada handiena: langabezia-tasa % 9,3tik % 26ra igo zen. 2010ean, % 30,1era igo zen, eta 2011n, % 26,9ra jaitsi. 25-34 urtekoei dagokienez, 2007tik 2009ra bitartean gertatu zen gorakada. 2006-2007an, langabezia-tasa % 7 inguru zen; 2009an, ordea, % 30,9. Azken tasa hori 2011ko tasatik gertu dago (% 29,9). 45 urtetik gorakoena kasuan, langabeziak etengabe egin du gora: 2006ean, langabezia-tasa % 25,3 zen; 2010ean, ordea, % 25,3. 2011n, zertxobait jaitsi da (% 24,3).

35-44 urtekoen taldea salbuespena da. 2007an, langabezia-tasa inoizko baxuena izan zen (% 4,5). Urte hartatik 2010era bitartean, ordea, langabezia-tasak gora egin zuen etengabe (2010ean, % 21,1 izan zen). 2010etik 2011ra bitartean, langabezia-tasak nabarmen egin du behera: 2011n, % 12,9 izan da. Azken zifra hori gainerako adin-taldeei dagokiena (% 25etik % 30era bitarte) baino nabarmen baxuagoa da.

Aipatzekoa da, halaber, atzerriko biztanle langabeen % 92,2 25 urtetik gorakoa dela: % 68,4 25-44 urtekoa da (% 51,5 25-34 urtekoa da); % 23,8, 45 urtetik gorakoa; eta % 7,8, 25 urtetik beherakoa.

Biztanle nazionalen eta atzerriko biztanleen adin-taldeak alderatuz gero, ikusiko dugu 2011n alde nabarmenena 25-34 urtekoen taldeari dagokiola (atzerriko biztanleen % 29,9 eta Estatuko herritartasuna dutenen % 14,3), bai eta 45 urtekoen eta hortik gorakoena taldeari ere (atzerriko biztanleen % 24,3 eta biztanle nazionalen % 7,4). 35-44 urtekoen zifrak antzekoak dira (% 12,9 eta % 9,1). 25 urtetik beherako atzerriar gutxiago daude langabezian (atzerriarren kasuan, % 26,9, eta biztanleria nazionalaren kasuan, % 34,5).

16-64 urteko atzerritar langabeak, sexuaren eta adinaren arabera. 2011
(% bertikalak eta langabezia-tasak)

Sexua eta adina	% bertikalak	Langabezia-tasa	Langabezia-tasa (biztanleria nazionala)
Gizonak	71,1	31,6	10,7
Emakumeak	28,9	14,1	10,7
16-24 urte	7,8	26,9	34,5
25-34 urte	51,5	29,9	14,3
35-44 urte	16,9	12,9	9,1
45 urte eta gehiago	23,8	24,3	7,4
Guztira	100,0	23,3	10,7

16-64 urteko atzerritar langabeen langabezia-tasa, sexuaren eta eskualdearen arabera.
2005-2011 aldia
(%-tan)

Sexua eta adina	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Gizonak	15,2	9,0	3,8	27,9	29,6	31,6
Emakumeak	9,2	7,2	13,8	20,0	17,7	14,1
16-24 urte	14,7	9,3	26,0	23,5	30,1	26,9
25-34 urte	9,3	6,7	7,4	30,6	23,9	29,9
35-44 urte	15,1	13,3	4,5	17,8	21,1	12,9
45 urte eta gehiago	15,2	2,7	7,3	21,2	25,3	24,3
Guztira	12,3	8,2	8,7	24,4	24,0	23,3

Langabeziaren beraren ezaugarri dagokienez, 2011n, lan-esperientziarik gabeko atzerritar langabeen proportzioa % 7,1 izan da; 2007-2010 aldiko proportzioa baino nabarmen txikiagoa da proportzio hori. 2007koa da proportzio handiena: % 22,3. Bestalde, 2009-2010 aldian ez bezala, 2011n, adierazle hori biztanleria nazionalari dagokionaren antzekoa da (% 6,7).

Luzerako langabeziaren eraginari dagokionez, 2005-2006 aldian, % 25,4tik % 20,8ra jaitsi zen —proportzio horiek urte haietako EAEko batez bestekoa baino txikiagoak dira—. 2006tik aurrera, gora egin zuen, eta 2010ean eta 2011n, % 50 baino handiagoa izan da. 2010ean ez bezala, 2011n, adierazlea biztanleria nazionalarena baino txikixeagoa da (atzerritarren kasuan, % 54,4, eta biztanleria nazionalaren kasuan,% 56,1).

2007-2009 aldian, % 13tik % 14era bitartekoa izan zen, 2005-2006 aldian baino handiagoa (% 7,5etik % 8ra bitarte). 2010-2011 aldian, hazi egin da eta 2007-2009 aldian baino handiagoa izan da; 2011n, atzerritar langabeen % 37,2ri eragin dio. Atzerritar langabeen kasuan, adierazleak oso bilakaera negatiboa izan du. 2005-2007 aldian, biztanle nazionalari baino gutxiago eragin zien. 2009an, bi kolektiboen adierazleak maila berean zeuden. 2010etik 2011ra bitartean, ordea, atzerritar langabeen kopuruak gora egin du; zehazki, lan bila bi urte baino gehiago daramatzaten atzerritar langabeen proportzioa biztanleria nazionalarena baino nabarmen handiagoa da (atzerritar langabeen proportzioa % 37,2 da, eta biztanleria nazionalarena, berriz, % 30,4).

16-64 urteko langabe atzerritarrei buruzko beste adierazle batzuk.

2005-2011 aldia

(%-tan)

Adierazlea	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Lan-esperientziarik gabeko langabeak	7,3	6,5	22,3	7,7	12,1	7,1
Luzaroko langabezia (> urte 1)	25,4	20,8	46,8	30,0	58,0	54,4
Oso luzaroko langabezia (> 2 urte)	7,5	8,1	13,8	13,0	28,1	37,2

53. Amaitzeko, eskualde bateko eta besteko atzerritarren langabezia-tasen eta okupazio-koefizienteen artean zer alde dauden aztertuko dugu; betiere, azterlan honetan erabilitako laginekin lotutako ñabardurak ahaztu gabe. Alde horiek kontuan hartu beharrekoak dira kasu batzuetan. Hona hemen kontuan hartu beharreko egoera batzuk:

- * 16-64 urteko atzerritarren okupazio-koefizienteak alderatzen baditugu, ikusiko dugu handiagoak direla (% 63tik hurbil edo hortik gora) Eskuinaldean, Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Horretaz gainera, aipatzekoa da Eskuinaldeko eta Debagoieneko langabezia-tasak % 10etik hurbil edo hortik behera daudela —Eskuinaldean, atzerritarren langabezia-tasak behera egin zuen 2010-2011 aldian—. Tolosa-Goierriko eta Donostialdeko langabezia-tasak, berriz, % 17,3tik % 20,1era bitartekoak dira.
- * Eskualde horietan ez bezala, atzerriko biztanleen okupazio-adierazlea baxu samarra da (% 53,6tik % 57,7ra bitarte) Aiaraldean, Ezkerraldean eta Debabarrenean. Ezkerraldeko eta Aiaraldeko langabezia-tasa % 23,5etik % 26,3ra bitartekoa da. Debabarreneko langabezia-tasa (% 12,2) gertu dago atzerriko biztanleen okupazio-maila handia duten eskualdeen langabezia-tasetatik.
- * Durangaldeko eta Bilboko koefizienteak % 50etik gora daude (% 50,1 eta % 52,4, hurrenez hurren). Langabezia-tasak, baina, % 30era iristen dira ia; batez ere, Bilbokoa (% 29,5; eta Durangaldekkoa: % 27,3).
- * Gasteizen eta Bizkaia-Kostan atzerriko biztanleen okupazio-maila beste inon baino baxuagoa da (% 47,9 eta % 45,6, hurrenez hurren). Gasteizen, langabezia-tasa % 27,3 da, eta Bizkaia-Kostan, beste inon ez bezala, langabezian dagoen atzerriko biztanleria aktiboaren proportzioa % 30 baino handiagoa da (% 33,1).

Bilboko eta Gasteizko egoera kezagarria da, zalantzarik gabe; izan ere, hizpide izan ditugun adierazleak bat datoz EAEn bizi diren 16-64 urteko atzerriko biztanleen pilotze-gune nagusiekin. Zehazki, atzerriko biztanleen % 42,4 bi eremu horietan bizi da. Atzerriko biztanle aktiboek % 25eko langabezia-tasa duten eskualdeetan, hau da, Arabako eta Bizkaiko guztietan —Eskuinaldean izan ezik— eta Donostialdean, pilotzen da erreferentziazko biztanleriaren % 81,1.

Aipa dezagun, halaber, 2010etik 2011ra bitartean nabarmen jaitsi dela (4 puntu baino gehiago) atzerriko biztanleen langabezia-tasa Gasteizen, Eskuinaldean eta Debabarrenean. Gasteizen, 2009-2010 aldian hasi zen tasa jaisten. Horren kontrara, tasak nabarmen egin du gora 2010etik 2011ra bitartean Aiaraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean.

16-64 urteko atzerriko biztanleen langabezia-tasa eta okupazio-koefizientea, eskualdearen arabera.
2005-2010 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	Langabezia-tasa					Okupazio-koefizientea				
	2005	2007	2009	2010	2011	2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	9,6	4,2	35,1	32,9	27,3	74,5	71,8	50,6	47,9	47,9
Aiaraldea	18,5	1,6	9,4	10,3	26,3	53,0	78,9	45,7	68,6	53,6
Eskuinaldea	5,4	7,0	10,8	18,7	10,1	77,6	78,2	62,6	63,2	68,2
Bilbo	15,0	13,1	24,1	30,4	29,5	63,1	46,9	53,9	53,1	52,4
Ezkerraldea	24,1	22,4	36,0	23,3	23,5	46,3	48,7	49,1	57,6	54,7
Bizkaia-Kosta	10,0	5,2	18,6	17,3	33,1	66,8	76,8	63,0	65,1	45,6
Durangaldea	16,7	3,7	16,6	14,7	27,3	61,9	68,8	48,9	55,9	50,1
Donostialdea	12,7	5,4	19,6	17,4	20,1	71,9	71,5	68,4	58,8	63,4
Tolosa-Goierri	3,8	12,7	19,2	18,8	17,3	78,8	69,6	71,2	66,2	69,3
Debagoiena	17,1	8,5	19,7	,0	,0	69,7	71,3	80,3	78,2	77,9
Debabarrena	,0	7,3	8,3	16,4	12,2	64,3	78,8	69,0	51,4	57,7
Guztira	12,3	8,7	24,4	24,0	23,3	67,5	64,5	57,9	56,1	55,7

Eskualde, azpieskualde eta udalerrietako datuak

16-64 urteko landunen bilakaera. 2005-2011 aldia

		Datu absolutuak				Hazkundera %-tan	
Eskualdea		2005	2007	2009	2011	2011/ 2009	2011/ 2007
Gasteiz	Arabako Haranak	2.314	2.508	2.715	2.616	-3,6	4,3
	Lautadako gainerakoa	6.113	7.458	7.231	6.879	-4,9	-7,8
	Vitoria-Gasteiz	109.652	108.290	107.169	105.662	-1,4	-2,4
	Arabako Mendialdea	1.420	1.428	1.527	1.525	-0,1	6,8
	Errioxa	4.265	4.941	5.357	5.207	-2,8	5,4
	Guztira	123.764	124.625	123.998	121.889	-1,7	-2,2
Aiaraldea	Gorbeialdea	3.760	4.139	4.069	4.010	-1,4	-3,1
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	6.294	7.575	7.341	7.811	6,4	3,1
	Laudio	8.869	8.230	7.699	8.173	6,2	-0,7
	Guztira	18.923	19.944	19.109	19.993	4,6	0,2
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	11.268	12.168	11.674	12.533	7,4	3,0
	Getxo	36.010	35.668	35.339	34.896	-1,3	-2,2
	Leioa	13.907	13.992	12.975	13.212	1,8	-5,6
	Erandio	10.103	10.798	10.733	10.105	-5,9	-6,4
	Guztira	71.288	72.626	70.721	70.745	0,0	-2,6
	Bilbo	Bilbo	144.541	150.399	149.887	138.041	-7,9
Guztira		144.541	150.399	149.887	138.041	-7,9	-8,2
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	26.973	28.319	29.427	28.751	-2,3	1,5
	Barakaldo	39.180	41.502	42.094	38.650	-8,2	-6,9
	Basauri	20.828	20.576	18.567	18.784	1,2	-8,7
	Galdakao	13.992	14.441	13.909	13.805	-0,7	-4,4
	Portugalete	20.610	20.991	19.918	19.553	-1,8	-6,8
	Santurtzi	19.272	19.323	19.655	18.415	-6,3	-4,7
	Sestao	13.932	12.222	12.128	12.031	-0,8	-1,6
	Enkarterri	12.264	13.557	12.982	12.480	-3,9	-7,9
	Guztira	167.050	170.931	168.679	162.470	-3,7	-5,0
	Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	19.251	18.838	17.437	17.230	-1,2
Markina-Ondarroa		11.341	11.758	11.067	11.177	1,0	-4,9
Plentzia-Mungia		20.200	24.182	25.417	23.884	-6,0	-1,2
Guztira		50.792	54.778	53.921	52.291	-3,0	-4,5
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	9.159	10.660	10.042	9.932	-1,1	-6,8
	Durangaldeko gainerakoa	30.330	31.588	30.254	30.221	-0,1	-4,3
	Durango	11.752	12.965	11.508	12.532	8,9	-3,3
	Guztira	51.241	55.213	51.804	52.685	1,7	-4,6
Donostialdea	Hondarribia	7.348	8.063	7.113	6.849	-3,7	-15,1
	Irun	24.973	27.632	27.637	27.903	1,0	1,0
	Donostialdeko gainerakoa	46.555	47.869	44.820	44.919	0,2	-6,2
	Erreenteria	18.465	17.141	17.313	17.006	-1,8	-0,8
	Donostia	83.865	81.660	82.375	77.809	-5,5	-4,7
	Urola-Kostako gainerakoa	22.582	24.351	21.011	21.651	3,0	-11,1
	Zarautz	10.455	10.358	10.252	9.775	-4,7	-5,6
	Guztira	214.242	217.074	210.520	205.913	-2,2	-5,1
Tolosa-Goierrri	Goierrri	29.837	29.742	26.888	28.436	5,8	-4,4
	Tolosaldea	22.775	22.408	22.054	20.963	-4,9	-6,4
	Guztira	52.612	52.150	48.942	49.399	0,9	-5,3
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	18.812	19.025	18.364	18.254	-0,6	-4,1
	Arrasate	11.706	10.234	9.034	9.673	7,1	-5,5
	Guztira	30.518	29.259	27.398	27.928	1,9	-4,6
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	11.520	13.128	11.385	11.851	4,1	-9,7
	Eibar	11.688	10.830	10.895	11.090	1,8	2,4
	Guztira	23.209	23.958	22.280	22.941	3,0	-4,2
EAE	GUZTIRA	948.180	970.957	947.259	924.295	-2,4	-4,8

16-64 urteko langabeen bilakaera. 2005-2011 aldia

		Datu absolutuak				Hazkundera %-tan	
Eskualdea		2005	2007	2009	2011	2011/ 2009	2011/ 2007
Gasteiz	Arabako Haranak	42	24	293	264	-9,8	1.013,7
	Lautadako gainerakoa	111	159	406	637	57,1	300,2
	Vitoria-Gasteiz	2.755	2.358	13.822	8.604	-37,8	264,9
	Arabako Mendialdea	23	52	147	110	-25,0	113,7
	Errioxa	102	81	416	237	-42,9	192,9
	Guztira	3.033	2.673	15.084	9.853	-34,7	268,6
Aiaraldea	Gorbeialdea	47	53	110	174	58,3	230,6
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	158	134	654	330	-49,5	146,6
	Laudio	461	140	552	742	34,4	429,4
	Guztira	667	327	1.316	1.247	-5,3	281,5
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	351	669	1.097	955	-12,9	42,8
	Getxo	2.544	1.246	2.215	662	-70,1	-46,9
	Leioa	1.129	890	947	2.102	121,9	136,1
	Erandio	801	382	563	1.963	248,7	414,6
	Guztira	4.825	3.186	4.822	5.682	17,8	78,3
Bilbo	Bilbo	11.217	7.687	15.686	27.070	72,6	252,1
	Guztira	11.217	7.687	15.686	27.070	72,6	252,1
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	2.291	1.008	2.785	3.672	31,9	264,2
	Barakaldo	2.461	1.335	7.222	9.235	27,9	591,7
	Basauri	1.306	596	1.405	2.780	97,9	366,6
	Galdakao	952	474	1.091	1.831	67,9	286,8
	Portugalete	1.028	1.039	2.115	4.246	100,7	308,6
	Santurtzi	2.658	1.006	2.812	5.352	90,3	432,2
	Sestao	1.638	915	1.343	1.512	12,6	65,3
	Enkarterri	754	294	1.277	2.721	113,1	826,7
	Guztira	13.088	6.666	20.051	31.351	56,4	370,3
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	708	647	2.143	3.241	51,2	400,6
	Markina-Ondarroa	624	133	1.053	1.840	74,7	1.281,0
	Plentzia-Mungia	1.864	904	1.370	2.846	107,7	214,8
	Guztira	3.197	1.685	4.567	7.927	73,6	370,5
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	547	145	1.189	1.303	9,5	796,3
	Durangaldeko gainerakoa	1.237	719	2.869	4.407	53,6	513,1
	Durango	590	211	1.016	1.261	24,1	497,4
	Guztira	2.374	1.075	5.074	6.971	37,4	548,3
Donostialdea	Hondarribia	226	97	419	935	123,1	865,9
	Irun	1.276	892	2.432	2.058	-15,4	130,7
	Donostialdeko gainerakoa	1.510	1.518	4.402	4.803	9,1	216,3
	Errenteria	935	215	824	2.068	151,0	859,9
	Donostia	2.699	2.991	7.139	8.297	16,2	177,4
	Urola-Kostako gainerakoa	1.053	385	995	1.257	26,4	226,3
	Zarautz	439	126	791	1.002	26,6	697,0
Guztira	8.137	6.225	17.002	20.420	20,1	228,0	
Tolosa-Goierrri	Goierrri	707	676	2.375	2.064	-13,1	205,5
	Tolosaldea	568	180	547	883	61,6	391,2
	Guztira	1.275	856	2.921	2.948	0,9	244,5
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	262	164	1.022	1.073	5,0	554,3
	Arrasate	375	251	580	771	33,0	207,5
	Guztira	637	415	1.601	1.844	15,1	344,6
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	359	379	999	1.015	1,6	167,6
	Eibar	292	225	1.276	574	-55,0	154,7
	Guztira	651	605	2.275	1.589	-30,2	162,8
EAE	GUZTIRA	49.100	31.400	90.400	116.900	29,3	272,3

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera. 2005-2011 aldia

		Datu absolutuak				Hazkundera %-tan	
		2005	2007	2009	2011	2011/ 2009	2011/ 2007
Eskualdea							
Gasteiz	Arabako Haranak	2.356	2.532	3.008	2.880	-4,2	13,7
	Lautadako gainerakoa	6.224	7.617	7.636	7.516	-1,6	-1,3
	Vitoria-Gasteiz	112.407	110.648	120.991	114.266	-5,6	3,3
	Arabako Mendialdea	1.444	1.479	1.674	1.636	-2,3	10,6
	Errioxa	4.367	5.022	5.772	5.444	-5,7	8,4
	Guztira	126.798	127.298	139.082	131.742	-5,3	3,5
Aiaraldea	Gorbeialdea	3.807	4.192	4.179	4.184	0,1	-0,2
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	6.452	7.709	7.995	8.141	1,8	5,6
	Laudio	9.330	8.371	8.252	8.915	8,0	6,5
	Guztira	19.590	20.271	20.426	21.240	4,0	4,8
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	11.618	12.837	12.771	13.488	5,6	5,1
	Getxo	38.554	36.914	37.554	35.557	-5,3	-3,7
	Leioa	15.036	14.882	13.922	15.314	10,0	2,9
	Erandio	10.904	11.180	11.296	12.068	6,8	7,9
	Guztira	76.113	75.813	75.543	76.427	1,2	0,8
Bilbo	Bilbo	155.757	158.086	165.573	165.111	-0,3	4,4
	Guztira	155.757	158.086	165.573	165.111	-0,3	4,4
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	29.263	29.328	32.211	32.423	0,7	10,6
	Barakaldo	41.641	42.837	49.317	47.885	-2,9	11,8
	Basauri	22.134	21.172	19.972	21.564	8,0	1,9
	Galdakao	14.944	14.915	15.000	15.637	4,2	4,8
	Portugalete	21.638	22.030	22.033	23.800	8,0	8,0
	Santurtzi	21.930	20.329	22.467	23.767	5,8	16,9
	Sestao	15.569	13.137	13.471	13.543	0,5	3,1
	Enkarterri	13.018	13.851	14.259	15.201	6,6	9,8
	Guztira	180.138	177.597	188.730	193.820	2,7	9,1
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	19.959	19.485	19.581	20.471	4,5	5,1
	Markina-Ondarroa	11.966	11.891	12.120	13.017	7,4	9,5
	Plentzia-Mungia	22.064	25.086	26.788	26.730	-0,2	6,6
	Guztira	53.989	56.463	58.488	60.218	3,0	6,7
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	9.706	10.805	11.231	11.234	0,0	4,0
	Durangaldeko gainerakoa	31.568	32.306	33.123	34.628	4,5	7,2
	Durango	12.342	13.176	12.524	13.793	10,1	4,7
	Guztira	53.615	56.288	56.878	59.655	4,9	6,0
Donostialdea	Hondarribia	7.573	8.160	7.532	7.784	3,3	-4,6
	Irun	26.249	28.524	30.069	29.962	-0,4	5,0
	Donostialdeko gainerakoa	48.065	49.387	49.222	49.722	1,0	0,7
	Errenteria	19.400	17.356	18.137	19.073	5,2	9,9
	Donostia	86.564	84.652	89.514	86.106	-3,8	1,7
	Urola-Kostako gainerakoa	23.634	24.737	22.005	22.908	4,1	-7,4
	Zarautz	10.895	10.484	11.044	10.777	-2,4	2,8
	Guztira	222.380	223.299	227.522	226.333	-0,5	1,4
Tolosa-Goierra	Goierra	30.544	30.418	29.263	30.501	4,2	0,3
	Tolosaldea	23.344	22.588	22.600	21.846	-3,3	-3,3
	Guztira	53.887	53.006	51.863	52.347	0,9	-1,2
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	19.074	19.189	19.386	19.327	-0,3	0,7
	Arrasate	12.081	10.485	9.614	10.444	8,6	-0,4
	Guztira	31.155	29.674	28.999	29.771	2,7	0,3
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	11.879	13.507	12.384	12.866	3,9	-4,7
	Eibar	11.980	11.056	12.171	11.664	-4,2	5,5
	Guztira	23.859	24.563	24.555	24.530	-0,1	-0,1
EAE	GUZTIRA	997.280	1.002.357	1.037.659	1.041.195	0,3	3,9

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera. 2005-2011 aldia

		Datu absolutuak				Hazkundera %-tan	
Eskualdea		2005	2007	2009	2011	2011/ 2009	2011/ 2007
Gasteiz	Arabako Haranak	812	1.064	791	920	16,3	-13,5
	Lautadako gainerakoa	2.428	2.281	2.747	2.903	5,7	27,3
	Vitoria-Gasteiz	45.558	46.763	44.614	51.055	14,4	9,2
	Arabako Mendialdea	574	524	422	458	8,7	-12,6
	Errioxa	2.185	2.123	1.772	2.119	19,5	-0,2
	Guztira	51.558	52.755	50.346	57.455	14,1	8,9
Aiaraldea	Gorbeialdea	1.050	1.152	1.408	1.432	1,7	24,3
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	3.317	2.693	2.908	2.830	-2,7	5,1
	Laudio	4.560	3.976	4.657	3.970	-14,8	-0,1
	Guztira	8.927	7.822	8.974	8.233	-8,3	5,3
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	4.268	4.154	4.435	3.637	-18,0	-12,4
	Getxo	19.182	18.872	18.922	21.089	11,5	11,7
	Leioa	5.790	5.816	7.159	5.566	-22,2	-4,3
	Erandio	5.250	5.569	5.641	4.729	-16,2	-15,1
	Guztira	34.490	34.411	36.157	35.022	-3,1	1,8
Bilbo	Bilbo	77.692	71.847	67.250	67.080	-0,3	-6,6
	Guztira	77.692	71.847	67.250	67.080	-0,3	-6,6
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	12.993	14.424	12.173	11.629	-4,5	-19,4
	Barakaldo	22.773	21.936	16.359	17.444	6,6	-20,5
	Basauri	9.694	8.080	9.696	7.925	-18,3	-1,9
	Galdakao	6.048	5.404	5.605	4.901	-12,6	-9,3
	Portugalete	14.050	10.321	10.825	8.907	-17,7	-13,7
	Santurtzi	10.876	11.536	9.515	8.279	-13,0	-28,2
	Sestao	6.121	6.364	6.353	6.116	-3,7	-3,9
	Enkarterri	6.644	6.442	6.360	5.385	-15,3	-16,4
	Guztira	89.199	84.507	76.885	70.586	-8,2	-16,5
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	9.207	10.121	10.396	9.359	-10,0	-7,5
	Markina-Ondarroa	5.428	5.169	5.175	4.234	-18,2	-18,1
	Plentzia-Mungia	9.496	9.876	8.612	8.452	-1,9	-14,4
	Guztira	24.131	25.166	24.184	22.044	-8,8	-12,4
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	4.394	4.083	3.970	3.791	-4,5	-7,2
	Durangaldeko gainerakoa	14.631	13.439	13.479	11.728	-13,0	-12,7
	Durango	4.725	5.720	6.717	5.254	-21,8	-8,1
	Guztira	23.751	23.242	24.167	20.773	-14,0	-10,6
Donostialdea	Hondarribia	2.958	2.640	3.350	3.048	-9,0	15,5
	Irun	12.497	11.921	10.604	10.317	-2,7	-13,5
	Donostialdeko gainerakoa	18.214	16.708	17.585	16.300	-7,3	-2,4
	Errenteria	7.579	7.911	7.460	6.220	-16,6	-21,4
	Donostia	32.961	33.794	30.097	32.143	6,8	-4,9
	Urola-Kostako gainerakoa	6.697	6.334	9.597	8.132	-15,3	28,4
	Zarautz	3.484	4.205	3.803	3.860	1,5	-8,2
	Guztira	84.390	83.513	82.497	80.021	-3,0	-4,2
Tolosa-Goierri	Goierri	11.993	11.517	13.165	11.226	-14,7	-2,5
	Tolosaldea	6.595	7.321	7.535	7.872	4,5	7,5
	Guztira	18.587	18.839	20.700	19.098	-7,7	1,4
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	7.262	6.722	6.875	6.502	-5,4	-3,3
	Arrasate	3.925	4.130	5.229	4.258	-18,6	3,1
	Guztira	11.187	10.852	12.104	10.759	-11,1	-0,9
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	5.624	4.213	5.490	4.768	-13,1	13,2
	Eibar	6.788	6.437	5.529	5.796	4,8	-10,0
	Guztira	12.412	10.649	11.019	10.564	-4,1	-0,8
EAE	GUZTIRA	436.324	423.602	414.282	401.637	-3,1	-5,2

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteen bilakaera. 2005-2011 aldia

		Koefizienteak %-tan				
Eskualdea		2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	Arabako Haranak	73,1	69,8	71,5	67,5	68,8
	Lautadako gainerakoa	70,6	75,4	69,6	68,7	66,0
	Vitoria-Gasteiz	69,4	68,8	64,7	63,7	63,9
	Arabako Mendialdea	70,4	71,3	72,9	75,9	72,8
	Errioxa	65,1	69,2	71,0	67,0	68,8
	Guztira	69,4	69,2	65,5	64,3	64,4
Aiaraldea	Gorbeialdea	77,4	77,5	72,8	72,8	71,4
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	64,4	72,8	67,3	68,8	71,2
	Laudio	63,9	66,7	59,6	61,8	63,4
	Guztira	66,4	71,0	65,0	66,5	67,8
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	70,9	71,6	67,8	72,5	73,2
	Getxo	62,4	63,9	62,6	59,8	61,6
	Leioa	66,8	67,6	61,5	63,7	63,3
	Erandio	62,5	64,5	63,4	60,0	60,2
	Guztira	64,5	65,9	63,3	62,5	63,5
Bilbo	Bilbo	61,9	65,4	64,4	62,3	59,5
	Guztira	61,9	65,4	64,4	62,3	59,5
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	63,8	64,7	66,3	64,4	65,3
	Barakaldo	60,8	64,1	64,1	65,1	59,2
	Basauri	65,4	70,3	62,6	60,5	63,7
	Galdakao	66,7	71,1	67,5	68,1	67,2
	Portugalete	57,8	64,9	60,6	60,2	59,8
	Santurtzi	58,7	60,6	61,5	61,9	57,5
	Sestao	64,2	62,7	61,2	62,1	61,2
	Enkarterri	62,4	66,8	63,0	63,4	60,6
	Guztira	62,0	65,2	63,5	63,3	61,4
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	66,0	63,6	58,2	59,1	57,8
	Markina-Ondarroa	65,2	68,9	64,0	63,9	64,8
	Plentzia-Mungia	64,0	69,2	71,8	68,0	67,9
	Guztira	65,0	67,1	65,2	63,9	63,6
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	65,0	71,6	66,1	65,2	66,1
	Durangaldeko gainerakoa	65,7	69,1	64,9	66,7	65,2
	Durango	68,9	68,6	59,8	62,5	65,8
	Guztira	66,2	69,4	63,9	65,4	65,5
Donostialdea	Hondarribia	69,8	74,7	65,4	63,9	63,2
	Irun	64,5	68,3	67,9	66,8	69,3
	Donostialdeko gainerakoa	70,2	72,4	67,1	66,3	68,0
	Errenteria	68,4	67,8	67,6	68,5	67,2
	Donostia	70,2	68,9	68,9	65,6	65,8
	Urola-Kostako gainerakoa	74,5	78,4	66,5	71,8	69,8
	Zarautz	72,7	70,5	69,1	66,5	66,8
Guztira	69,8	70,8	67,9	66,8	67,2	
Tolosa-Goierrri	Goierrri	70,1	70,9	63,4	68,2	68,1
	Tolosaldea	76,1	74,9	73,2	71,0	70,5
	Guztira	72,6	72,6	67,4	69,3	69,1
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	71,4	73,4	69,9	70,5	70,7
	Arrasate	73,1	70,0	60,9	65,7	65,8
	Guztira	72,1	72,2	66,7	68,8	68,9
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	65,8	74,1	63,7	63,7	67,2
	Eibar	62,3	61,9	61,6	62,5	63,5
	Guztira	64,0	68,0	62,6	63,1	65,4
EAE	GUZTIRA	66,1	68,1	65,2	64,6	64,1

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-koefizienteen bilakaera. 2005-2011 aldia

		Koefizienteak %-tan				
Eskualdea		2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	Arabako Haranak	1,3	,7	7,7	8,8	7,0
	Lautadako gainerakoa	1,3	1,6	3,9	6,9	6,1
	Vitoria-Gasteiz	1,7	1,5	8,3	8,2	5,2
	Arabako Mendialdea	1,2	2,6	7,0	4,4	5,3
	Errioxa	1,5	1,1	5,5	5,4	3,1
	Guztira	1,7	1,5	8,0	8,0	5,2
Aiaraldea	Gorbeialdea	1,0	1,0	2,0	3,3	3,1
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	1,6	1,3	6,0	5,0	3,0
	Laudio	3,3	1,1	4,3	4,9	5,8
	Guztira	2,3	1,2	4,5	4,6	4,2
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	2,2	3,9	6,4	6,5	5,6
	Getxo	4,4	2,2	3,9	6,4	1,2
	Leioa	5,4	4,3	4,5	6,4	10,1
	Erandio	5,0	2,3	3,3	10,7	11,7
	Guztira	4,4	2,9	4,3	7,0	5,1
Bilbo	Bilbo	4,8	3,3	6,7	8,6	11,7
	Guztira	4,8	3,3	6,7	8,6	11,7
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	5,4	2,3	6,3	7,4	8,3
	Barakaldo	3,8	2,1	11,0	7,8	14,1
	Basauri	4,1	2,0	4,7	7,0	9,4
	Galdakao	4,5	2,3	5,3	4,7	8,9
	Portugalete	2,9	3,2	6,4	8,8	13,0
	Santurtzi	8,1	3,2	8,8	10,4	16,7
	Sestao	7,6	4,7	6,8	8,2	7,7
	Enkarterri	3,8	1,4	6,2	7,3	13,2
	Guztira	4,9	2,5	7,5	7,8	11,9
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	2,4	2,2	7,2	6,6	10,9
	Markina-Ondarroa	3,6	0,8	6,1	5,2	10,7
	Plentzia-Mungia	5,9	2,6	3,9	5,8	8,1
	Guztira	4,1	2,1	5,5	6,0	9,6
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	3,9	1,0	7,8	4,7	8,7
	Durangaldeko gainerakoa	2,7	1,6	6,2	6,0	9,5
	Durango	3,5	1,1	5,3	4,7	6,6
	Guztira	3,1	1,4	6,3	5,5	8,7
Donostialdea	Hondarribia	2,1	0,9	3,9	6,2	8,6
	Irun	3,3	2,2	6,0	6,8	5,1
	Donostialdeko gainerakoa	2,3	2,3	6,6	8,2	7,3
	Errenteria	3,5	0,9	3,2	3,4	8,2
	Donostia	2,3	2,5	6,0	8,7	7,0
	Urola-Kostako gainerakoa	3,5	1,2	3,1	4,0	4,1
	Zarautz	3,1	0,9	5,3	6,1	6,8
Guztira	2,7	2,0	5,5	7,2	6,7	
Tolosa-Goierrri	Goierrri	1,7	1,6	5,6	5,8	4,9
	Tolosaldea	1,9	0,6	1,8	2,8	3,0
	Guztira	1,8	1,2	4,0	4,6	4,1
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	1,0	0,6	3,9	3,0	4,2
	Arrasate	2,3	1,7	3,9	6,6	5,2
	Guztira	1,5	1,0	3,9	4,3	4,5
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	2,0	2,1	5,6	7,8	5,8
	Eibar	1,6	1,3	7,2	3,4	3,3
	Guztira	1,8	1,7	6,4	5,6	4,5
EAE	GUZTIRA	3,4	2,2	6,2	7,2	8,1

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasen bilakaera. 2005-2011 aldia

		Tasak %-tan				
Eskualdea		2005	2007	2009	2010	2011
Gasteiz	Arabako Haranak	1,8	,9	9,7	11,6	9,2
	Lautadako gainerakoa	1,8	2,1	5,3	9,1	8,5
	Vitoria-Gasteiz	2,5	2,1	11,4	11,4	7,5
	Arabako Mendialdea	1,6	3,5	8,8	5,5	6,7
	Errioxa	2,3	1,6	7,2	7,5	4,4
	Guztira	2,4	2,1	10,8	11,0	7,5
Aiaraldea	Gorbeialdea	1,2	1,3	2,6	4,3	4,2
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	2,5	1,7	8,2	6,8	4,1
	Laudio	4,9	1,7	6,7	7,4	8,3
	Guztira	3,4	1,6	6,4	6,5	5,9
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	3,0	5,2	8,6	8,2	7,1
	Getxo	6,6	3,4	5,9	9,6	1,9
	Leioa	7,5	6,0	6,8	9,2	13,7
	Erandio	7,3	3,4	5,0	15,1	16,3
	Guztira	6,3	4,2	6,4	10,1	7,4
Bilbo	Bilbo	7,2	4,9	9,5	12,2	16,4
	Guztira	7,2	4,9	9,5	12,2	16,4
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	7,8	3,4	8,6	10,3	11,3
	Barakaldo	5,9	3,1	14,6	10,7	19,3
	Basauri	5,9	2,8	7,0	10,4	12,9
	Galdakao	6,4	3,2	7,3	6,5	11,7
	Portugaleta	4,8	4,7	9,6	12,7	17,8
	Santurtzi	12,1	4,9	12,5	14,4	22,5
	Sestao	10,5	7,0	10,0	11,6	11,2
	Enkarterri	5,8	2,1	9,0	10,3	17,9
	Guztira	7,3	3,8	10,6	11,0	16,2
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	3,5	3,3	10,9	10,1	15,8
	Markina-Ondarroa	5,2	1,1	8,7	7,5	14,1
	Plentzia-Mungia	8,4	3,6	5,1	7,9	10,6
	Guztira	5,9	3,0	7,8	8,6	13,2
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	5,6	1,3	10,6	6,7	11,6
	Durangaldeko gainerakoa	3,9	2,2	8,7	8,3	12,7
	Durango	4,8	1,6	8,1	7,1	9,1
	Guztira	4,4	1,9	8,9	7,7	11,7
Donostialdea	Hondarribia	3,0	1,2	5,6	8,8	12,0
	Irun	4,9	3,1	8,1	9,3	6,9
	Donostialdeko gainerakoa	3,1	3,1	8,9	11,0	9,7
	Errenteria	4,8	1,2	4,5	4,8	10,8
	Donostia	3,1	3,5	8,0	11,7	9,6
	Urola-Kostako gainerakoa	4,5	1,6	4,5	5,3	5,5
	Zarautz	4,0	1,2	7,2	8,4	9,3
	Guztira	3,7	2,8	7,5	9,8	9,0
Tolosa-Goierrri	Goierrri	2,3	2,2	8,1	7,9	6,8
	Tolosaldea	2,4	0,8	2,4	3,8	4,0
	Guztira	2,4	1,6	5,6	6,2	5,6
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	1,4	0,9	5,3	4,1	5,6
	Arrasate	3,1	2,4	6,0	9,1	7,4
	Guztira	2,0	1,4	5,5	5,9	6,2
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	3,0	2,8	8,1	10,9	7,9
	Eibar	2,4	2,0	10,5	5,2	4,9
	Guztira	2,7	2,5	9,3	8,2	6,5
EAE	GUZTIRA	4,9	3,1	8,7	10,0	11,2

ERANSKINA

Lan Merkatuaren Errolda: ezaugarri orokorrak

Lan Merkatuaren Errolda (LME) Euskal Estatistika Planaren baitan egiten den azterlanetako bat da. Erroldak gaur egun duen formatua 1993an ezarri zen, eta orduz geroztik, errolda urtero egiten da (1996an, 2000n, 2004an eta 2008an izan ezik). Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egiten du azterlana, Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) elkarlanean.

Oro har, LMEk bi helburu nagusi ditu:

- a) Lehenik eta behin, lehenetasuna ematea lurralde historikoa baino txikiagoak diren lurralde-eremuetan lan-merkatuaren azterketaren erreferentzia bat eratzeari. Adierazitako lurralde-eremuak enplegu-eskualdeak edo -herrialdeak dira.
- b) Bigarrenik, eta osagarri gisa, lan-merkatuari erantsi zaizkienei buruzko datuak emateaz gain, lurralde-eremuetako sektoreen, gizartearen eta lanbidearen egiturari buruzko informazioa biltzea, eta jarduerari, okupazioari edo langabeziari buruzko azterlanetan (BAI edo BJA) baino estatistika-akats gutxiago egitea.

Adierazitako helburuetatik abiatuta, urteak joan eta urteak etorri, LMEren planteamendu metodologikoak aldatu egin dira, interesek eta aurrekontuek eraginda.

Hasiera batean, benetako errolda gisa planteatu genuen, eta 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden etxebizitza guztiak ekortu genituen. Aurrekontua zela eta, ordea, ezin genuen errolda egiten jarraitu. Horretaz gainera, argi gelditu zen errolda ez zela egiaz baliagarria. Hori dela eta, 1989an berriz aztertu genuen hasierako metodologia, eta lagin-motako hurbilketa egitea erabaki. Horixe izan zen aldaketa nagusia, hain zuzen.

Orduan, Sailaren eta Eskualdeetako Enplegu eta Trebakuntza Batzordeen finantza-laguntzaren bidez, abian jarri zen 1989ko Lan Merkatuaren Errolda. 43.000 etxebizitzako lagina erabili zen azterlana egiteko. Etxebizitza horiek aipatutako Batzordeei dagozkien 32 eskualdeetan banatuta zeuden. Hurbilketa horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 150.000 lagun ingururi buruzko datuak jaso ahal izan genituen.

1989ko azterlanari ekitear geundenean, LME eta BJA inkesta (Biztanleria Jardueraren Arabera) nahitaez koordinatu behar zirela konturatu ginen. Hortaz, LME galdesorta BJA-n zeuden oinarriko galderetara egokitzea erabaki genuen. Nolanahi ere, galdera guztiak jarri ordez, Eustatek prestatutako bertsio erraztua —biztanleria landuna eta langabeak sailkatzen dituen— erabili genuen.

Behar adina aurrekontu ez zegoenez, eta Eskualdeetako Batzordeak modu formalean desagertu zirenez, 1993ko azterlanari begira, berriz ere aztertu genuen azterlanaren edukia. Azterlanak lagin-izaera zuela berretsi ondoren, lagina 12.000 etxebizitzatara murriztu zen. Etxebizitza horiek hamaika enplegu-eskualdetan edo -arroatan banatuta daude gaur egun.

Bestalde, homogeneizatzeko ahaleginak egin arren, ikusi genuen LMEk ematen zituen zenbatekoak eta BJAK ematen zituenak oso desberdinak zirela; batez ere, langabeei eta landunei buruzko datuei zegokienez. Horren ondorioz, erabaki genuen bideren bat aurkitu behar genuela Eustatek kudeatuko zuen azterlana ahalik eta modu koordinatuenean egiteko. Hori horrela izanik, BJAREN galdesorta oinarrizko galdesortatzat hartzea erabaki genuen, eta LMEren zifra handiak Eustaten estatistika-azterlan horren zifretara egokitu genituen. Printzipio horietan oinarrituta, LME 1993tik 1995era bitartean egin zen, laugarren hiruhilekoan BJAREN bitartez egindako inkestarekin modu koordinatuan (EUSTATEk garatu zuen BJA). Koordinazio-prozesuari esker, aldi horretako BJAREN galdesortak LME laginaren zatitzat erabili ahal izan ziren.

1997tik aurrera, LMEren lagin-maila zabaltzea erabaki genuen, zertarako eta EUSTATEko eskualde guztietan eta EAeko udalerrri handietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko informazioa eskuratu ahal izateko, eta ez LMEren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handietan soilik. Aurrekontu-zailtasunen ondorioz, 1993ko hasierako planteamenduetara murriztu behar izan genuen lagin-maila.

Azken batean, bilakaera horren ondorioz, eta izenak bestelakorik adierazten badu ere, LME laginetan oinarritutako azterlan bat da gaur egun. Euskal Autonomia Erkidegoko 12.000 familia-etxebizitza ditu helburu, eta datuak biltzeko, etxebizitza bakoitzean bizi diren 15 urtetik gorakoei buruzko informazioa biltzen da urte bakoitzeko azken hiruhilekoan. Dena den, 2005. urteaz geroztik, LMEk bere lagina soilik erabiltzen du; hau da, uko egin genion urteko laugarren hiruhilekoan egiten den BJA inkestaren laginaren zatia gehitzeari. Eustatek BJA galdesorta sinplifikatu zuen, baina LMEk BJAREN jatorrizko galdesortaren oinarrizko egiturari eutsi zionez, zailagoa bilakatu zen laginak uztartzea: beharrezkoa izango zen jasotzaile-sistema bikoitza izatea, eta horrek izugarri eragotziko luke LMEren emaitzak modu integratuan aurkeztea (ezinbestekoa da emaitzak horrela aurkeztea).

Hala ere, nabarmentzekoa da LMEen oraindik ere BJA galdesorta, EUSTATEk diseinatutakoa, erabiltzen dela, funtsean. Horregatik, esan dezakegu azterlanaren bidez BJA inkesta osatzen dugula, eskualdeetako eta, kasu batzuetan, udalerrietako datuak lortzen baititugu. Izan ere, aldagai handiei dagokienez, LMEren emaitzak urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan BJArri dagozkion datuetara egokitzen dira, bi azterketa-modu horien artean kontraesanik izan ez dadin. Dena den, galdesortaren edukia arian-arian zabaldu egin da, informazio berria lortzeko eskaerak gero eta gehiago baitziren, eta azterlana urtero egiten dela aintzat hartuta. Horrela, bada, eta funtsean BJA galdesorta oinarri hartuta, LME galdesortan galdera osagarriak ere badira. Galdera horien xedea da azterlanean jasotako informazioaren edukia aberastea.

LMEren bereizgarri den jatorrizko BJA galdesorta zabaldu ez ezik, sinplifikatu ere egin da; zehazki, Eustatek jatorrizko BJA galdesortaren diseinua sinplifikatu du. Horrek ondorio garrantzitsu bat izan du LMEen. Urteak joan, urteak etorri, LME galdesortan item berriak sartu ditugu, jatorrizko BJA galdesortan ez daudenak, eta horretaz gainera, galdesorta horren oinarrizko egiturari eutsi diogu, azterlanari eduki berria ematearren. Horrela, bada, LME lan-merkatuari buruzko azterlan bat da, eta gaur egun, BJAREN bidez lor zitekeena baino informazio askoz ere zabalagoa lortzeko aukera ematen du. Dena den, ekarpen osagarri horrek ez du zerikusirik inkesta egiten den unearekin: LME azterlana urte bakoitzeko azken hiruhilekoan soilik egiten da oraindik ere; BJA, aldiz, etengabe.

BJA bezalaxe, LMEk taula moduan ere funtzionatzen du. Hortaz, azterlanaren oinarrizko beste erabilera bat da gure autonomia-erkidegoan bizi den 16 urtetik gorako biztanleriari eragiten dioten aldaketei buruzko luzaroko informazioa ematea.

Modu orokorrean azaldu dugun prozedura metodologikoa bat dator LME azterlanaren helburuekin. Ildo horretatik, LMEren oinarrizko helburua ez da BJAK lortzen dituen datuetatik aldentzen den datu-iturria izatea, baizik eta jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko aldagaien gaineko eskualde-arloko informazio-bilketa sendotzea, eta ez probintzia-arlokoa edo Euskal Autonomia Erkidego osoaren arlokoa soilik. Horretaz gainera, LME lagin askoz handiagoan oinarritzen denez, zenbait talderi dagokienez (esate baterako, langabeen kolektiboa bera), BJARENak baino esplotazio-aukera handiagoak emateko aukera du. BJA galdesorta sinplifikatzeko prozesuari dagokionez, LMEri esker, gainera, Eustaten estatistika-azterlanak ematen duena baino informazio zabalagoa lortzeko aukera dugu gaur egun.

Amaitzeko, aipa dezagun BJA langabeen taldea Eurostaten araudien arabera definitzen dela eta 2001. urteaz geroztik Eustat/BJA metodologia berria erabiltzen dela jardueraren araberako kategoriak mugatzeko. Distortsioak saihestearren, egoera guztien —batez ere, langabeziarekin eta jarduerarik ezarekin loturikoen— bilakaera aztertzean, hasierako BJA metodologiari dagozkion bilakaera-datuak eskaini izan ditu LMEk 2003. urteko azterlanera arte, luzaroko azterketan datuak modu koherentean interpretatzea errazteko. 2005etik aurrera ez dago metodologia zaharrari dagokion daturik; horren ondorioz, gerta daiteke zenbait alderditan datuak interpretatzeko eta egokitzeko arazoak izatea. Irizpide orokor gisa, txosten honetan aurkezten diren 1999ra arteko datuak jatorrizko metodoari dagozkio, eta 2001eko eta ondorengo zifrek, metodologia-aldaketa berriari.

Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak

1997. urteaz geroztik, Eustateko eskualde guztiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri handiei buruzko informazioa ematen du LMEk. Nolanahi ere, lurralde-eremu horietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruz erantsi direnak soilik daude eskuragarri.

Komenigarria da datuei buruzko egitura-azterketa egitea, LMEn erabili ohi diren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handiei dagokienez; honako hauek dira eskualde eta arroa horiek:

1. ESKUALDEA. GASTEIZ

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Haranak eta Arabako Errioxa.

LMeri dagokionez, eskualde hori bost azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera, honako eskualde hauek dira: Arabako Mendialdea, Arabako Haranak eta Arabako Errioxa, baita EUSTATen arabera Arabako Lautada eskualdea ere. Azken eskualde hori, LMEn arabera, bi azpieskualdetan banatzen da: Gasteiz udalerrria eta Arabako Lautadako gainerakoa.

2. ESKUALDEA. AIARALDEA

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Arabako Kantaurialdea eta Gorbeialdea.

LMeri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta honako hauek dira: EUSTATen arabera Gorbeialdea eta Kantauri Arabarra. Azken eskualde hori, LMEn arabera, bi azpieskualdetan banatzen da: Laudio udalerrria eta Arabako Kantaurialdeko gainerakoa.

3. ESKUALDEA. ESKUINALDEA

EUSTATen arabera Bilbo Handiari loturiko Eskuinaldea.

LMeri dagokionez, eskualde hori lau azpieskualdetan banatzen da: Getxo, Leioa, Erandio eta Bilboko iparraldean dauden gainerako udalerrriak, bai eta Txorierrikoak ere.

4. ESKUALDEA. BILBO

Bilboko udalerria.

5. ESKUALDEA. EZKERRALDEA

EUSTATen arabera Bilbo Handiari lotuta dagoen Ezkerraldea eskualdea, baita Enkarterri eskualdea ere.

LMeri dagokionez, eskualde hori zortzi azpieskualdetan banatzen da: Barakaldo, Basauri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi eta Sestao, baita EUSTATen araberako Enkarterri eta Txorierriko hegoaldean edo Ezkerraldean bertan dauden Bilbo Handiaren gainerako udalerriak ere.

6. ESKUALDEA. BIZKAIA-KOSTA

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa.

LMeri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da eta azpieskualde horiek EUSTATen araberako eskualdeak dira.

7. ESKUALDEA. DURANGALDEA

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Durangaldea eta Arratia-Nerbioi.

LMeri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen araberako eskualdeak dira, Durango izan ezik; udalerrri hori bereizita aztertzen baita.

8. ESKUALDEA. DONOSTIALDEA

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Urola-Kosta, Donostia, Donostialdea eta Bidasoa Beherea.

LMeri dagokionez, eskualde hori zazpi azpieskualdetan banatzen da, eta honako udalerrri hauek sartzen dira: Hondarribia, Irun, Donostia, Errenteria eta Zarautz, eta EUSTATen arabera Donostialdeko gainerako udalerrriak eta Urola-Kostako gainerako udalerrriak.

9. ESKUALDEA. TOLOSA-GOIERRI

EUSTATen arabera, eskualde hauek sartzen dira: Tolosaldea eta Goierri.

LMeri dagokionez, eskualde hori bi azpieskualdetan banatzen da eta azpieskualde horiek EUSTATen arabera eskualdeak dira.

10. ESKUALDEA. DEBAGOIENA

EUSTATen arabera Debagoiena eskualdea sartzen da.

LMeri dagokionez, Arrasate udalerrria ez da eskualde horretan sartzen.

11. ESKUALDEA. DEBABARRENA

EUSTATen arabera Debabarrena eskualdea sartzen da.

LMeri dagokionez, Eibar udalerrria ez da eskualde horretan sartzen.

Aurkeztu ditugun eskualdeak bat datoz Eustaten eskualde-hurbilketa historikoarekin, eta 1993. urteaz geroztik ez da aldaketarik egin eskualdeen antolaketan.

AURKIBIDEA

0. Emaidza nagusien laburpena	3
1. Biztanleria aktiboa	23
2. Langabeak	33
2.1. Datu orokorrak	33
2.2. Langabezia emandako denbora eta enpleguan izandako esperientzia	44
3. Biztanleria landuna	49
3.1. Datu orokorrak	49
3.2. Datuak jarduera motaren arabera	64
3.3. Datuak lanbidearen eta lanbide-egoeraren arabera	81
3.3.1. Lanbidea	81
3.3.2. Lanbide-egoera	90
3.3.2.1. Soldatapekoen berariazko datuak	97
3.4. Okupazioaren beste alderdi batzuk	104
3.4.1. Egungo okupazioan emandako denbora eta okupazioa lortzeko bideak	104
3.4.2. Beste enplegu bat bilatzea eta enplegu-aniztasuna	105
3.4.3. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak	107
4. Biztanleria ez-aktiboari buruzko alderdi batzuk	112
4.1. Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa	112
4.2. Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa	112
5. Lan-merkatuan lanerako prest dagoen biztanleria	116
6. Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa	123
7. Lana bilatzeko neurriak	129
8. Atzerritarrak	151
Eskualde, azpieskualde eta udalerrietako datuak	161
Lan Merkatuaren Errolda: ezaugarri orokorrak	169
Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak	173